

MIGUEL ARTOLA (ED.)
**Donostiaren
historia**



DONOSTIAREN HISTORIA

Miguel Artola (ed.)

Testua:

Luis Castells Pablo
Fernández Albaladejo
José Ángel García de Cortázar
José María Imízcoz
Félix Luengo

Bertsio laburtua:

Elena Legorburu Faus

Azaleko irudia: Zurriolako zubia,
Luis Amann eta Ramón Alonso, *Donostia postatxarteletan*, 1993

Edizioaren ©:

Donostiako Udala, 2001
Igentea, 1
20003 Donostia
Telefona: 943 481 000
Faxa: 943 481 072

eta

Editorial Nerea, S. A., 2001
Juan de Laborda, 2
20280 Hondarribia
Telefona: 943 645 743
Faxa: 943 646 027
"nerea@nerea.net":nerea@nerea.net

Jatorrizko testuen ©:

Miguel Artola, 2000
Luis Castells, 2000
Pablo Fernández Albaladejo, 2000
José Ángel García de Cortázar, 2000
José María Imízcoz, 2000
Félix Luengo, 2000

Bertsio laburtuaren ©:

Elena Legorburu, 2001

Itzulpenaren ©:

Jon Muñoz, 2001

Diseinua eta koordinazio teknikoa:

Editorial Nerea

ISBN: 84-89569-56-8

Lege gordailua: S. S. -346/01

Eskubide guztiak erreserbatuta daude. Ezin da liburu hau, ez osorik eta ez zatika, erreproduzitu edo igorri, ez baliabide elektronikoz eta ez baliabide mekanikoz, ez fotokopiaz, ez grabatuz, ez beste edozein sistemaz, eskubideen jabeek horretarako baimena aldez aurretik eta idatziz ematen ez badute.

AURKEZPENA

Miguel Artola jaunak zuzendu duen taldeak zehaztasun eta zorrotasun handiz egin duen liburu honi esker, badugu lan bat gure hiriaren historia guztia hartzen duena. Zientzi lan honen helburua gaurko nahiz bihar-etziko gizaldiei egungo egunean daukagun giza, ekonomi eta hirigintza garapen hau zergatik daukagun azaltzeko giltzarriak ematea da.

Baguenen honelako lan baten beharra. Alegia, gure historian izan diren gauzarik inportanteenak kontatzeaz gainera, hiriak joan deneko 800 urte hauetan zer bilakaera izan duen -auziz eta kontraesanez betea, askotan- sakonagotik erakutsiko ziguna.

Dena dela, esan dezadan Udalaren ekimen hau ez dela hiriari eta hiritarrei omen egite bat izan den "Atarian-la ciudad de tu vida" erakusketa bikainaren segidan halabeharrez etorri.

Izan ere, "hiria berriz pentsatu" behar dugu, hiri moderno eta lehiakor bat izan dadin Donostia Europako hirien artean, gizarte kohesionatu bat izango duena eta kultura eta aisia gaietan berezitua. Horrek, jakina, jatorria ondo ezagutu beharra eskatzen digu aurren-aurrena, donostiarren bizipenak eta Donostiak gordetik duen arima.

Garai txarra daukagu orain. Lan hau irakurriz gero, ordea, ikusiko dugu lehen ere gertakari tragikoak eta une latzak asko izan ditugula. Baina, inoiz ere ez zigun etsipenak gainik hartu, eta izaera berezia duen gure hiri honen izpiritu liberal eta abangoardia zaleari esker, aurrera egin izan dugu, eta horrek berak ematen digu kemena hemendik aurrera ere ilusioa piztu eta, denon artean, gauza berriak egiten segitzeko, Donostiako gizon-emakumeen aurrerapena eta ongizatea bermatze aldera.

Izan zirenei eta izango direnei zor diegu apustu eta ahalegin hau.

ODON ELORZA

Alkatea

SARRERA

Euskal Herriaren historia **itsasoz** eta **burdinaz** egina baldin badago, Donostiaren historian itsasoak eskaintzen dituen aukera guztiak daude bilduta. Itsasorako eta merkataritzarako senak sorrarazi zuten Donostia, eta itsasoak eta merkataritzak tankeratu dute, mendez mende, donostiarren bizimodua. Merkatarriak, kapitainak, eta kortsarioak berdin-berdin abiatu ziren itsasoetan barrena eta negozioetan barrena, bi zeregin horiek ez izanik beti etekin handikoak, baina bai

arrisku handikoak. Gizon haien asmoek eta ausardiak argi-ilunez mugarritu zuten Donostiaren bilakaera, eta kemenez landu zuten hiri horren alderdirik ausartena.

XIX. mendean zehar, ozeanoaz bestaldeko bidaldiak bakanduz joan ziren, Amerikako koloniak burujabe egin ziren heinean. Harrezkero, itsasoz haraindiko abenturak ezin zitezkeen Pío Barojaren liburu gogoangarrietan baizik goza. Baina donostiarrek ez zuten etsi, ez zituzten beren balentriak iraganera mugatu nahi izan. Itsasoaren ertzak berak bultzatu zituen itsasoaz baliatzeko modu bareago bat aukeratzera: turismoa. Donostiak udaldiko hondartza ospetsu izateko ahaleginera bildu zituen indarrak, baina ez zuen, horregatik, merkataritzan zuen tradizio luzea inondik ere ahaztu. Ekonomiaren hainbat alor gogotik landu izanak eta kultura behar bezala bultzatu eta aintzat hartu izanak eman dio gaur egun duen itxura eta tankera Donostiari.

Donostiaren bilakaera bitxiak aspalditik erakarri izan du ikertzaileen arreta. Baina haiek denek eragozpen berbera izan dute: Wellingtonen soldaduek 1813an Donostia porrokatu zutenean artxibo guztiak erre izana. Gertaera horrek aurreko mendeetako lekukotasun nagusiez gabetu ditu historialariak, eta iturri sakabanatuetan ikertzerak behartu; bide zail eta arrisku handikoan sarrarazi ditu, beraz.

Iraganarekiko interesa 1963. urtean berpiztu zen, Donostia erre izanaren CL. urteurrena zela eta egin ziren ekitaldietan. Kulturako agintariek dokumentu historiko batzuk berrargitaratu zituzten, eta historiaren zaletasuna bultzatu zuten, *Grupo Doctor Camino de Historia Donostiarra* sortuz. 1981ean, Donostiari erregeak forua eman ziola zortziehun urte bete zirela eta, gai bakarreko kongresu batek bultzada handia eman zion Donostiaren historiari. Erdi Aroa eta erakundeak izan ziren kongresu hartan gehienbat aztertu ziren alderdiak. Harrezkero, historiografiak aurrera egin du, atzera begiratzuz betiere, unibertsitatearen, adituen, eta erakundeen bultzadari esker.

Donostiari buruzko historiografiak egin duen azken ekarria J. A. García de Cortázar, J. M^a Imízcoz, L. Castells, F. Luengo, P. Fernández Albaladejo, eta M. Artola irakasleei zor zaie, 2000. urtean *Historia de Donostia-San Sebastián* argitaratu baitzuten, Artola jaunaren gidaritzapean. Gaurko argitalpen hau liburu horren emaitza da. Hurrengo orrialdeetan, irakurleak liburu horren laburpen bat aurkituko du, laburra eta, laburra izanagatik, zehatza. Kapitulu bakoitza jatorrizkoen laburpena da, eta liburu hartan gaztelaniaz luze kontatuta dauden gertaerak liburu honetan euskaraz labur kontatuta daude, baina, hori bai, egileen antolamenduari eta arazoibideari zorrotz jarraiturik.

Sei historialari horiek aldi berean landu dituzte bai ikerketarako bide abstraktuenak -boterea hartzeko estrategiak, alderdi politikoak, eredu ekonomikoak, eta presioko taldeak...-eta bai herritar soilak erraz uler ditzakeen kontuak. Kapitulu bakoitzak eskaintzen du bai garai bakoitzeko oinarrizko arazo handiak ezagutzeko bidea eta bai garai bakoitzeko donostiarren bizimoduaren berri izateko aukera, gertutik erakusten baitigu hainbat kontu jakingarri: non eta nola bizi ziren donostiarrak,

zertan lan egiten zuten, nola bizi ziren emakumeak, nola dibertitzen ziren herritarrak...

Azkeneko orrialdeetan, liburuan aipatzen diren gai nagusiei buruzko bibliografia bat dago. Irakurleak haren bidez aurkituko ditu laburtu beharrez aipatu gabe utzi ditudan alderdi eta xehetasun asko. Ikerketa zehatzago bat egin nahi izanez gero, irakurleak hobe du egileek berek jatorrizko liburuan egin dituzten aipamenetara jo, liburu haren zordun baita orain aurkeztu dizuedan liburu hau.

ELENA LEGORBURU FAUS

2001eko martxoa

José Ángel García de Cortázar

MERKATARIEN HIRIBILDU BAT: 1180-1516

Donostia 1180. urtea baino lehen zehatz jakiterik ez dagoen data batean hasten da Donostiaren historia, XII. mendearen bigarren erdialdean. Eta ez dago data hori zehatz mugatzerik, hiribildu hura sorrarazi zuen dokumentua, forua alegia, galdu egin zelako. Nafarroako errege Antso VI.a Jakituna izan zuen Donostiak sortzaile, 1180 inguruan hark eman baitzien forua kostako bizitoki hartako biztanleei [1].

Donostiak geroztik beretzat hartuko zituen lekuei buruz dokumentuetan ageri diren lehenengo aipamenek hiru tokiren berri ematen dute: San Sebastiani eskainitako monasterio txiki bat, Leireko monasterioaren mendean zegoena, gaur egun Miramar jauregia dagoen leku berean; arrantzaleen eta itsas merkatarien kokaleku bat (*fondaco*), XI. mendearen bukaeran Urgull mendiaren oinean finkatu zena; eta, azkenik, mendi sail batzuk Urumea ibaiaren ibar behean, haien jabea ere Leireko monasterioa zelarik. Bai mendi sail horiek eta bai San Sebastianeko monasterioak goragoko mailako batasun bat eratua izan behar zuten: Yzurungo hiribildua. *Fondaco*ak, berriz, gaskoien fundazio bereizi bat izan behar zuen, helburu eta arrazoi bakarra itsasoa zeukana. Gaskoiek Europako kostan X. mendeaz geroztik sortu zituzten antzeko kokalekuen pare-parekoa zen Donostiako hura, bai tankeraz eta bai nolakotasunez. Kostatik gertuko itsasbideetan han-hemen kokatuak zeuden *Fondaco* horiek, eta arrantza eta merkataritza ziren haien helburu bakarrak.

Fondaco hori izan ezik, XII. mendearen erdialdean Leireko monasterioak bere mende zeuzkan aurki Donostiako hiribildua tankeratuko zuten lurrak. Mende horren bigarren erdialdean, Nafarroako erregeek eta Iruñeko apezpikuek ekinaldi politiko bat jarri zuten abian beren nagusitasuna indartzeko, Leireko monasterioaren bizkar. Lurrealde haiek bereganatzeko lehiak liskarrak sorrarazi zituen bi alderdi horien artean, baina, azkenean, erregea eta apezpikua atera ziren garaile, eta Leireko monasterioa, berriz, galtzaile. Donostia inguruko lurrealde haren gainean zuten boterea sendotu zuten bai erregeak eta bai apezpikuak, eta Urgull inguruko biztanle haiei forua eman izana da gertaera horren ondorio nabarmenena.

Sorrera eta lehen urratsak (1180-1296)

Udal forua biztanle multzo baten bizitza arautzen duen antolamendu mota jakin bat da. Donostiako foruaren bidez, Antso VI.ak estatutu berezi bat eman zien Donostiako biztanleei, arrantzan eta merkataritzan libre ari ahal izan zitezten. Horretarako, erregeak auzitegiei, zergei, eta gudarosteari zegokien pribilegio eta arau multzo bat eman zuen, eta ekonomiako jarduerak -geroztik haiek izango ziren donostiarren ezaugarri nagusia- gora egin zuten pribilegio eta arau haien bidez.

Donostia hiribildu gisa sartu zen, beraz, historian, *realengo* zeritzan leku pribilegiatu gisa; horrek esan nahi zuen erregearen mende zegoela, eta ez jaun baten edo eliz ordena baten mende, eta erregeari ordaindu behar zizkiola zergak. Erregearena izate horri esker, askatasun bereziak zituen Donostiak, eta horietan egin zuten jaiotzetik bertatik Donostia bere ingurunearen oso bestelako, geroztik Gipuzkoako probintzia esango zitzaion lurraldearen oso bestelako, alegia. Inguruneko lurralde hartako gizartea baserriko gizartea zen. Ahaidetasunezko loturen inguruan egituratutako banako txikiagoetan antolatua zegoen, eta banako haiek zein bere ahaide nagusiaren mendean zeuden. Banako haietako bakoitza zein bere ibarrean egoten zen kokatua, eta ibar bakoitzeko hizkera bereziak indartzen zuen hizkuntzaren aldetik ere elkarren arteko batasuna. Abelazkuntza zen haien ekonomiaren oinarria, eta, horrez gainera, oinarri-oinarrizko bizigaiak lantzen zituzten -laboreak, lihoa, sagarrondoak...- basoari kendutako lurretan.

XI. eta XII. mendeetan, giza talde haiek inguruneak eskaintzen zizkien beste baliabide batzuk ustiatzen hasi ziren. Pixkanaka-pixkanaka, ibar bakoitza bere ekonomia berezia hasi zen eratzen, nekazaritzak edo arrantzak eskualde bakoitzean eskaintzen zituen aukerak baliatzen. Eta arrantzari ekin zion, hain zuzen, bere lurrak Hernaniko ibarrean zituen Donostiako bizilagun multzo hark. 1180 inguruan Donostia bera sortu izanak argi eta garbi erakusten du kostaldeak gero eta interes handiagoa zuela penintsulako erregeentzat, eta interes horrek ekarri zuen kostaldea jendeztatzeke ahalegina. Hala, adibidez, 1160tik 1200era, Gaztelako Alfontso VIII.ak Castro Urdialesko, Santanderko eta Laredoko hiribilduak sortu zituen.

Hurrengo urteetan, erabateko aldaketa politikoa izan zen bai Donostian eta bai Gipuzkoako lurralde osoan: ordu arte Nafarroako erreinuaren baitan egonak baziren, harrezkero Gaztelako erreinuaren baitan egongo baitziren. Alfontso VIII.a Antso VI.a Jakintsuaren aurka borrokatu zen, eta, geroago, haren seme eta ordeko Antso VII.a Azkarraren aurka, Gipuzkoako lurrak hari kentzeko. Gaztelako erregea nagusitu zen 1200. urtean bi errege haien arteko liskar hartan, Donostia eta Gipuzkoa bere erreinuaren barruan sartu baitzituen.

Aginpide baten orde bestea nagusitu izanak ez zuen, nonbait, eragin handirik izan Donostiako hiribilduan. Alfontso VIII.ak berehala berretsi zion Donostiari bere forua, 1200ean, eta aurrera eraman zuen kostaldean hiribilduak sortzeko politika: Hondarribia, Mutriku... Donostiak lehengoari eutsi zion itsas merkataritzan: lehen bezala hura zen orain ere barrualdeko bideetatik zetozen salgaiak itsasoratzeke leku nagusia. Baina, ordurako, barrualdeko ibilbide haiek ez zetozen Nafarroatik bakarrik, berehala hasi baitziren Donostiara iristen Gaztelatik zetozen beste ibilbide batzuk ere, Burgosen eta Gasteizen zituztelarik bide haiek geraldari nagusiak. Gainera, Donostiak gero eta harreman handiagoak zituen Akitaniarekin, Gaztelako erregina doña Leonor eskubide jakin batzuen jabe baitzen Akitanian. Hala bihurtu zen Gipuzkoa errege-erreginen jabetzak elkarren artean etengabe lotzen zituen pasabide nagusi.

XIII. mendean zehar hasi ziren agertzen gerora Donostiako hiribilduak izango zituen ezaugarrien lehenengo aztarna adierazgarriak. Garai hartako berrien arabera, Donostiak gero eta lotura gutxiago zituen bere baserri ingurunearekin, gero eta hirigune burujabeagoa zen, eta gero eta harreman estuagoak zituen urruneko bizilekuekin merkataritzako bideen bitartez, bai itsasbidez eta bai lehorreko bidez. Eta merkataritzarako joera horrek berak indartu zituen Donostia eta donostiarrak, hiribildua sortu eta hurrengo gizaldi osoan.

Kontzejuak gero eta autonomia gehiago izan zuen administrazioaren alorrean. Hala erakusten du 1292an Iruñeko apezpikuarekin egindako hitzarmenak, haren bitartez apezpikuaren aginpidea gutxitu egin baitzen, kontzejuaren mesedetan. Aurrerantzean, udaleko agintariek esku hartuko zuten Santa Maria eta San Bizente elizen administrazioan, batetik elizgizonek eta bestetik herri gizonek osatutako bitariko patronatu baten bidez.

Bi horiez gainera, San Bartolomeko monasterioa zen donostiarrentzat hirugarren eliza nagusia. Hiribildutik kanpo zegoen, gaur egun izen hori bera duen muinoaren gainean. Han bizi ziren lekaiameak Gipuzkoako kristau-elkarte zaharrena ziren, eta San Agustinen erregela zen haien bizilegea. 1305ean lotu zitzaion monasterio hura Iruñeko aldirietan zegoen San Pedro de Ribasko monasterioari.

Kontzejuaren aginpidea indartzearekin batera hasi zen orobat indartzen aginpidean zeudenek karguak berentzat bakarrik hartzeko ohitura. Garbi ikusten da hori garai hartako zinegotzien zerrendei begiraturaz gero: abizen gutxi batzuk behin eta berriz eta bata bestearen ondoren agertzen dira. Zinegotzi haietako asko merkataritza handiari lotutako familia gutxi batzuekin ahaidetuta zeuden, eta haietako batzuk, gainera, baionesak ziren jatorriz. Hala, adibidez, Ordincho de Surubis eta Nicolás de Lamayson, Donostiako bi alkaterik zaharrenak, ezagutzen ditugun artean behinik behin (1286). Baionakoa zen orobat beste familia ahaltzu bat, Mans familia, Donostiako gizarte mailan berehala goraino igo zena. Familia haren ondorengoek bi gizaldi eta erdiz, inolako etenik gabe, izan zuten berentzat bakarrik hartua probestuaren kargua, erregeak hiribilduan zuen ordezkariaren kargua, alegia.

Salerosketako negozioen indarrak ematen zion bizitasuna Donostiari. Gaztelako erreinuak barrualdean hiribildu berriak sortzeko estrategiak sendotu besterik ez zuen egin kostaldearen salerosle nortasuna. Agurain, Segura, Villafranca de Oria, Tolosa, Arrasate, eta Bergara izan ziren Gaztelako erreinuak Donostiatik gertu sortu zituen hiribilduak. Kantauri aldeko portuetara zeramatzaten lehorreko bideen mugari ziren bai hiribildu horiek denak eta bai urrunagoko beste batzuk. Bestalde, Gaztelak ez zion Donostiari oztoporik jarri Nafarroatik eta Ebroko Haranetik zetozen salgaiak ordu arte bezala itsasoratzeko. Aitzitik, XIII. mendearen bukaeran, Gaztelako Antso IV.ak berretsi egin zituen nafar merkatariek Donostian eta Hondarribian zituzten pribilegioak.

Donostiarrek hiru leku zeuzkaten beren hiri barrutian itsasontziek aingura botatzeko: Kontxa, Zurriola eta, batez ere, *el Pasaje* esaten zioten lekua: Pasaia.

Uda partean izaten zen itsasontzien joan-etorririk handiena; urritik urtarrilera bitarteko sasoa, berriz, behe aldia izaten zen itsaso bidezko merkataritzarako. Baionako *koka* zeritzana izango zen, seguru asko, gehien erabiliko zuten ontzi mota, sabel handikoa baitzen, maniobrak egiteko erraza, eta edukiera handikoa. Ontzi haietako sotoetan ia-ia ez zegoen beste salgaiarik: Flandriatik ekarritako oihalak, eta apaingarriz, tinduz, eta zirtzilkeriaz osatutako salgai multzo nabar bat.

Familia oso bat biltzen zuten *faktore* edo merkataritzako elkarteek egiten zituzten salerosteak. Familia horietako batzuk, jaiotzez donostiarrak baziren ere, gaskoiak edo baionesak ziren jatorriz. Horregatik zeuden gaskoieraz idatzita, baita XV. mendean ere, Donostiako hiribilduan idatzi ziren dokumentu batzuk.

Itsaso bidezko salerosketa babestu nahiak halako sen politiko pragmatiko bat sorrarazi zuen donostiarrengan. Atlantiko aldeko Europako potentzien arteko gerrek arriskuan jarri zituzten bazter haietako itsasbideak, eta bai donostiar merkatarien negozioen goraldia mehatxatu ere. 1296an, Donostiak "Gaztelako Itsas Armadako hiribilduen eta Gasteizen arteko Ermandadea"ren sorreran parte hartu zuen, Gasteizekin eta Kantauri aldeko beste portu batzuekin batera. Erakunde horren bidez, merkatariek aditzera eman zuten neutralak zirela Frantziaren eta Ingalaterraren arteko gerran, ziurtatu egin nahi baitzuten, nazioarteko gerren gainetik, hainbeste irabazi eta etekin ematen zien salerosketa.

Donostiako hiribildua kanpoaldean nola txertatu zen (1296-1397)

XIV. mendean zehar Donostiak sendotu egin zuen hurrengo berrehun urteetan, gutxienez, izango zuen nortasuna, bai lurraldearen aldetik eta bai gizartearen aldetik. Bere bizilagun gehienak Urgull [2] mendiaren oinean zegoen hirigune txiki harresitu hartan zeuzkan hiribildu hark bazituen ordurako bere ezaugarri bereziak. Bi portu zituen inguruan: handia, Kontxara begira, eta txikia, Urumearen bokalean. Hareatzaz betetako eremu zabal bat zegoen harresien eta San Bartolomeko muinoaren artean; eta muino haren gainean agustindar lekaimeen monasterioa zegoen. Sartalderago, Antiguako San Sebastian elizaren inguruan, hasia zen auzune bat eratzen. Sortalderantz, Ulia mendiaren hegalean, Donostiako hiribilduaren hirugarren portua zegoen, hiruren artean onena: *Pasaje de Aquende* zeritzan portua, geroztik Pasai San Pedro esan zitzaiona. Haren inguruko goialdeetan Altzako herrixka zegoen; *kolazio* zeritzan bizilagun multzo txiki bat zen hura, Donostiako hiribilduaren mende zegoena, eta, 1393. urteaz geroztik, bere parrokia propioa zuena San Martzialen babesean.

Inguruetakoz biztanle askok bizilekua hiribilduan bertan hartu zuenean, elkarren oso bestelako jende mota bildu zen Donostiako gizartearen; bizimodu, bizibide, ohitura, eta izate desberdineko jendea hartu zuen, alegia, bere baitan: nekazariak, eskulangileak, eta baserri giroko leinuak, besteak beste. Nolanahi ere, Donostiako gizartearen familia batek tinko eutsi zion bere maila gorenari: Mans familiak. Beretzat bakarrik hartua zuen sendi horrek probestuaren kargua, eta Engómez familiaren adarrean betikotu zuen, ezkontza bidez, aginpide hori. Kontzejuaren erakundea gero

eta gehiago ari zen indartzen, eta gero eta gehiago ari zen oligarkiko bihurtzen. XIV. mendearen erdialdera, erakunde txit mugatu bat zen hura, sarbidea oso jende gutxiri irekitzen ziona, eta elizako agintariekin liskarrean aritzen zena, bataren eta bestearen eskumenak noraino iristen ote ziren erabaki ezinez.

XIII. mendearen bukaeraz geroztik, Gipuzkoatik bakarturik egoteko ordu arte izan zuen joera aldatzen hasi zen Donostia. Itsasoari begira iraun zuen, ordu arte bezala, baina Gaztelako eta Gipuzkoako esparru politikoan sartzeko lehen urratsak egiten hasi zen. XIV. eta XV. mendeetan baserri aldeko ekonomia gogor zanpatu zuten ezurteetako estualdiek bultzatu zuten, besteak beste, Donostia aldaketa hura egitera, Gipuzkoari begira jartzera, alegia. Garai latz haietako urritasunak eta eskasiak hiribilduetara eta herrietara bultzatu zuen baserrietako jende asko, babes eta bizibide bila. Neurritz gaineko jende pilatze hark berehala sorrarazi zituen liskarrak eta katramilak herrien artean, bakoitzaren lurak eta mugak noraino iristen ziren erabaki ezinik; auzitara jo zuen askok konponbide eske, nor bere udal barrutia mugatu nahian. Donostiak ere ondo zehaztu behar izan zituen bere mugak, herri mugakideen erreklamazioak geldiarazteko.

Oiartzungo ibarreko sortaldeko mugan sortu ziren liskarrik handienak. Villanueva de Oyarzun zuen garai hartan izena gerora Errenteria izango zenak; 1320an sortua zen, eta hango biztanleak liskar gogorrean aritu ziren donostiarrekin, Pasaiaiko portua erabiltzen utzi nahi ez zitelako. Eztabaida hark hurrengo mendeetan ere iraun zuen. Hegoaldean, berriz, auzitan ibili zen Donostia Hernaniko ibarreko olagizonekin, bi aldeek beretzat bakarrik erabili nahi baitzituzten Urumeako mendiak. 1739an itun bat izenpetu zuten, eta, haren arabera, bi aldeek eskubide bera izan zuten harrezkero mendi horiek ustiatzeko.

Usurbil (1371) eta Orio (1379) hiribilduen sorrerak mugatu zuen sartaldetik Donostiako udal barrutia. 1379an, Igeldo, Zubieta, Ibaeta eta Andoaingo kolazioak Donostia barruan gelditu zirenean, Donostiako hiribilduaren eremuak 134 kilometro koadro zituen guztira.

Donostiako hiribilduak Gipuzkoarekin eta penintsulako kostaldearekin izan zuen harremana

Donostia bere lurraldearen egitura finkatzen ari zen, eta, aldi berean, gauza bera ari ziren egiten beste hiribildu batzuk ere. Era berean, eta, prozesu beraren beste alderdi bat balitz bezala, hiribildu horiek berak gero eta gehiago ahalegindu ziren zein bere mendeko lurraldea ere egituratzen, udalaz gaineko batasun bat osatzeko. Antolamendu hori egiteko premia larria baserri giroan zeuden estutasunek sorrarazia zen berriz ere; estutasun horren adierazpide batek, hain zuzen: indarkeria feudalak. Jauntxoek eta gaizkileek gogor zigortua zuten probintzia osoa XIV. mendearen hasieratik, bai botereaz inongo neurririk gabe eta gehiegikeriaz baliatuz, bai lapurretez eta bai hilketez, inork inoiz zigortzen ez zituela. Gaizkileek beti aurkitzen zuten alderdiren bat edo ahaide nagusiren bat beren gaiztakeriak

babesteko prest zegoena, non ez zegoen hura ere gaiztakeria horietan erabat nahastua.

Pertsonak eta ondasunak ez zeuden batere seguru udaletako mugetatik kanpo; alegia, leinu feudalen mendean zeuden lurretan. Arriskutsua zen barrualdeko bideetan barrena ibiltzea. Bidelapurrak nonahi zebiltzan, eta mehatxatuta zeuzkaten bai salgaien eta merkatarien joan-etorria eta bai bidaiariak berak ere. Ez da harritzekoa, beraz, hiribilduek erregeari babeserako baliabideak eskatu izana, bai baitzekiten zer nolako onurak ekarriko zizkien bidelapurrak behar bezala zigortzeak eta geldiarazteak; eta, hartara, indarrak bildu zituzten lurralde hura baketzeko. Horrela sortu ziren han-hemen Ermandadeak, harik eta, 1397an, Gonzalo Moro korrejidoreak Getarian bildu zuen bileran "Gipuzkoako Ermandadea" eratu zuten arte. Erakunde horrek hiribildu guztiak elkartzen zituen, eta zazpi alkatek osatutako elkargo bat zuen zuzendari. Hura zen Gipuzkoak bere lurraldea administratzeko izan zuen lehenengo erakundea, eta Donostiak eraginkor hartu zuen parte haren sorreran.

Donostiako hiribilduak Gipuzkoako probintziaren gorabeheretan parte hartzea gauza berria baldin bazen, aspaldiko kontua zen, ordea, Donostiak Europarekin eta Iberiako Penintsularekin zituen harremanak, bere merkatari tradizio sendotik baitzetorkion kanpoalderako joera hura. XIV. mendean, indartu egin zen joera hori. Donostiak gogotik parte hartu zuen Gaztelako erregeen hainbat ekinaldi politikotan, itsasontzi armatuekin lagundurik. Baina, gehienbat, merkataritzaren esparruan hartu zuen parte, Finisterretik Flandriaraino eta Ingalaterraraino doan Atlantikoko eremu zabalean. Donostiarren itsas bidezko joan-etorriak hegoalderaino eta ekialderaino zabaldu ziren, Sevillarantz eta Mediterraneo alderantz.

Euskal Herriko portuak Europako iparraldea eta hegoaldea lotzen zituen kosta inguruko itsasbideen erdi-erdian zeuden, eta horregatik parte hartzen zuten halako bizitasunez eta lehiatzeko Europako mutur batetik bestera salgaiak ekartzen eta eramaten. Batzuen eta besteen arteko konkurrentziak espezializatu beharra ekarri zuen: Bizkaiko portuak, Mutriku eta Deba, Gaztelatik zetorren artile merinoa eta burdina garraiatzen ari izan ziren; Donostia, berriz, Baionarekin aritu zen lehian Nafarroako salgaiak -artilea batez ere- eta hegoaldeko nekazaritzako produktuak - ardoak, fruituak...- garraiatzeko.

Donostiako hiribildua XV. mendean: nola bizi ziren donostiarrak

XV. mendean, Donostia hazi egin zen alor guztietan, bai biztanlez, bai ekonomian, bai administrazioan... Hazkunde horrek indartu egin zuen Donostiak Gipuzkoako probintzian zuen garrantzia, eta aurrera eginarazi zion hiri nagusi izateko lehian. Kantauri aldean, ordea, Bilbo nagusitu zitzaion Donostiari Gaztelako artileen salerosketan. Bilboren nagusitasunak nazioarteko merkataritzako joan-etorrietan Donostiak zeukan jarduna eta garrantzia aztertzeraz bultzatu zituen donostiarrak. Merkataritzako sareez baliatzeko eta haiek kontrolatzeko lehian nagusitu nahirik, erabaki zuten ahalik eta gehien baliatzea bere porturik onenaz: Pasaiaiko portuaz.

Hiri barnea

Donostiako biztanleria ugartu egin zen garai hartan, dokumentuek alde guztietatik argi eta garbi adierazten dutenez: gero eta lur, larre eta baso gehiago ustiatzen zituzten donostiarrek, parrokia berriak sortu zituzten -San Pedrokoa Pasaian eta San Pedrokoa Igeldon-, etxeak lehen baino altuagoak ziren, orubeak zatitzen zituzten... 1500. urtearen inguruan, Donostiak 4.500 biztanle omen zituen, eta haietatik 3.000 harresien barruko hirigunean bizi ziren.

Urgull mendiak eta babeslekuen perimetroak mugatzen zuten berez Donostia. Begi hutsez ikusita, era askotako eraikinen multzo nabar bat zen Donostia, baina eraikin bakan batzuk nabarmen ageri ziren nahaspila hartan: harresi barruko bi parrokiak -San Bizente eta Santa Maria-, Erregimentuaren etxea -Santa Anako kapera-, kartzelak, goi mailako leinuen dorretxeak eta jauregiak -Engómez, Aguinaga, Elduayen... familienak-.

Hasierako harresi zaharra XV. mendearen bukaeran indartu zuten. Zazpi ate zituen, eta haietatik bi besterik ez zituzten egunero irekitzen: Lehorrekoa eta Itsasokoa. Gauez itxi egiten zituztenez, harresi barruko Donostia harresiz kanpoko Donostiarekin ezin komunikaturik gelditzen zen, ofizialki behintzat. Baina donostiar asko ibiltzen zen gauez sartu-irten hesiaren gainetik salto eginez; eta goi mailako familia batzuek ate isilak ere bazituzten, berek bakarrik erabiltzen zituztenak.

Harresi barneko eraikuntzen egitura eta ardatz nagusia honelakoa zen: bederatzi kale, alde batetik, ipar-ekialdetik hego-mendebaldera zihoazenak; eta sei kale, zeharka, Urgull mendiaren magala eta lehorreko aurrealdea lotzen zituztenak. Eraikin guztiak lurrez eginak ziren, eta kalean barrena ibiltzea ez zen batere erraza, oso kale estuak baitziren: haietako batzuk lau metro zabal besterik ez ziren. Gizonak eta abereak estu-estu gurutzatzen ziren kaleetan; merkatariek kalean ipintzen zituzten salgaiak; harakinek hantxe hiltzen zituzten abereak... 1489an, sute batek Donostiako hiribildua erre ondoren, ordenantzek agindu zuten egokitu zedila leku zabal bat Embeltran kalearen eta harresien artean, hantxe plaza bat egiteko. Horrela sortu zen "Plaza Zaharra", hala esango zitzaion geroztik, eta han egin zuten aurrerantzean donostiarrek auzo bizitza eta han izaten zituzten jendarteko harremanak.

Hura ez zen osasunerako batere giro ona, eguzkiak ez baitzuen kale estu haietan jotzen, eta donostiarrek etxetik kanpora botatzen baitzituzten zakarrak eta ur zikinak. Etxebizitzen orubeak, berez, zortzi metro luze ziren fatxada osoan alderik alde, eta hamabi metro sakon. Ereku horren heren bat, barrualdeko izkina alegia, leku ireki bat zen, eta han zeukaten baratza eta eskorta. XV. mendean, biztanleria ugartzeak handitu egin zuen bizilekuen balioa. Etxebizitzen premiak etheen altuera igoarazi zuen, bi solairutik hiru solairura, eta luzeran ere zatitu egin zituzten etxeak,

etxebizitza gehiago izateko. Harrezkero, etxebizitza bakoitzak lau metro izango zituen fatxadan, eta solairu bakoitzak bi gela izango zituen kale aldera.

Eraikinen oina lurrezko zoruaren gainean zegoen finkatua. Han izaten zuten donostiarrek lantokia edo denda, ukuilua, eta eskorta. Lehenengo solairuan sukaldea eta logelak egoten ziren, eta azkeneko solairuan, berriz, biltegia. Etxeen egitura zurezkoa zen, eta, beraz, suteak maiz izaten ziren. 1489ko suteak ia Donostia osoa erre zuen. Hiriguneko seihun etxeak erre ziren. Sugarrak itzali zituztenean, harrizko hiru eraikin besterik ez ziren gelditu zutik. Errege-Erregina Katolikoek Donostiako hiribildua harriz berreraiki zedila erabaki zuten, suteek kalte gehiagorik egin ez zezaten. Jende askok, hala ere, ez zuen agindu hori bete, harria oso garestia baitzen. Hurrengo mendeetan ere sua etengabeko mehatxua izan zen donostiarrentzat.

Herri xehearen bizilekuen ondoan, Donostiako goi mailako familiak harrizko dorretxe eta jauregi handi eta zabaletan bizi ziren, herritar apalenak pilatuta bizi zirela kontuan hartu gabe.

Merkatarien eta arrantzaleen Donostia Erdi Aroko Donostia hesiz itxi hura irudikatuz gero, uste izatekoa da hango biztanleek ez zutela beste lanbiderik arrantza eta merkataritza izan ezik. Baina harresiz mugatua egoteak ez zuen esan nahi donostiarren jardun ekonomikoak batere zerikusirik ez zuenik inguruko lurraldearekin. Aitzitik, aspalditik ohi zituzten itsasoko zereginez gainera, donostiarrek basozaintzan eta nekazaritzan ere jarduten zuten, eta baita industrian ere: burdinoletan, hain zuzen. Garai hartan, lanbideen eta zereginen nahasketa hori ohikoa zen Europako hiribildu guztietan.

Laboreak lantzen zituzten, jakina, hura baitzen Erdi Aroan Europa osoko biztanleen jatekoaren oinarria, baina Donostia aldean biltzen zen labore kopurua ez zen nahikoa Donostiako biztanle guztiei jaten emateko. Horregatik, asko dira gariaren eta artatxikiaren inportazioen berri ematen duten garai hartako dokumentuak. Alea, bertakoa edo kanpokoa, Balentegiko, Rodabarriako, eta Zurriolako errotetan ehotzen zuten; azkeneko biak San Bartolomeko mojenak ziren.

Sagarrondoak eta mahastiak ziren Donostiako barrutian lantzen ziren elikagai nagusiak. Sagar eta mahats hura Donostian bertan kontsumitzen zuten, bai baitziren sei ardotegei eta hiru sagardotegei. XV. mendean zehar, gero eta ardo gehiago ekoitzi eta merkaturatu zen Donostian, eta hala bultzatu zen ardogintza eta zabaldu ziren mahasti sailak, eta legez arautu zen nekazari lana [3].

Inguruko basoei etekina atera nahiak liskarretan sarrarazi zituen Donostia eta Hernani, Donostiako barrutiko hegoaldeko mugak zirela eta. Nekazariak betidanik ari izan ziren bai abeltzaintzan eta bai basozaintzan, aziendaren bazka basotik ateratzen baitzuten. Baina ez ziren nekazariak basotik etekina ateratzen zuten bakarrak; olagizonen eta ontzigileen ere gogotik ustiatzen zuten basoa, eta zur kopuru handiak ateratzen zituzten handik beren langintzearako. Liskarra sortu zen,

beraz, nekazarien eta olagizonen zein ontzigileen artean. Burdinolek, batez ere, egur-ikatz pila behar izaten zuten. Díez de Salazar-en kalkuluen arabera, XVI. mendearen hasieran Gipuzkoan ziren 110 burdinolek 300 milioi kilo egur behar izaten zituzten urtean.

XV. mendean zehar, basoa gero eta gehiago ustiatu zuten; alde batetik, Donostian gero eta jende gehiago bizi zelako, eta, bestetik, Hernanin burdingintzak goraldi handia izan zuelako. Bi herri horietako ordezkariak 1379an izenpetua zuten ituna zaharkitua gelditu zen, eta tirabirek eta liskarrek mende eta erdi iraun zuten. Eztabaida gogor hura ez zen 1537 arte baretu, *Chancillería*k sententzia eman zuen arte, alegia.

Arrantza eta arraina saltzea ziren donostiarren ohiko lanbideak. XIV. mendearen bukaeran sortua behar zuen, seguru asko, arrantzaleen kofradia, San Pedoren izenpean; indar eta bizitasun handiko sektorea zen arrantzaleena. Arrantzaldia itsas aingiraren arrantzarekin hasten zen; gero meroa eta legatza harrapatzen zituzten. Maiatzaren erdialdean sardinaren aldia izaten zen, eta hegaluzearena, berriz, uztailetik urria bitartekoa zen. Gero, aste batzuetan arrantzara atera gabe egoten ziren. Itsasontzietako maisuek ontziak konpontzeko beta hartzen zuten geldialdi haietan, eta amuko arrantzan aritzeko ere bai; gero, berriz itsasoratzen ziren, bisiguak harrapatzera.

Bakailoa harrapatzera, berriz, Gran Soleko eta Irlandako kaletara edo arrantza-guneetara joan behar izaten zuten. Baleak harrapatzen ere ibiltzen ziren, harik eta, XIV. mendean, balea Kantauri itsasoan bakantzen hasi zen arte, ur hotzagoen bila beste norabait joanda. Nolanahi ere, badirudi baleak ez zirela erabat desagertu Kantauri itsasotik, eta nahiko maiz etortzen omen ziren, XVII. mendea arte, gutxienez.

Baliabide horiek guztiak ustiatu beharrak salerosketa bultzatu zuen. Merkataritzako harremanen bidez etekina ateratzen zitzairen soberakinei; baina, batez ere, Donostiak behar zituen lehengaiak ekarri beharra egokitu zitzaion merkataritzari, zeren eta, arestian esan dugunez, Donostia ez baitzen, nekazaritzaren aldetik, bere burua asetzeko lain. Donostiar asko merkatarari egin zen, beraz. Negozioak eta tratuak nola atera, hartara izango ziren edo ez aberatsak ondarez, eta goi mailakoak edo behe mailakoak gizarte mailaz. Negozioetan arrakasta handi-handia izan zuten merkatariaik Donostiako hiribilduko hierarkiako lehenengo lekuetan egokitu ziren.

Tankera horretako ekonomiak aurrera egingo bazuen, azpiegitura egoki bat behar zen, eta, beraz, Donostiak arreta handiz zaindu zuen alderdi hori. Arestian esan dugunez, Donostiak hiru portu zituen: Urumeakoa, Kontxakoa eta Pasaiakoa, *el Pasaje*. Urumeakoari "portu txikia" esaten zioten, eta ibai bidezko joan-etorrian zegoen espezializatua. Inguru haietan bazegoen kapera bat, Santa Katalinari eskainia, eta izen hori bera jarri zioten portu hari eta Santa Katalinaren babespean sortu zen merkatarien eta marinelen kofradiari. "Portu handia" edo Kontxakoa

ainguratoki xume bat izan zen hasieran, eta, 1440an, kaia egin zioten, edo "Molla", donostiarrek euskaraz betidanik esan izan diotenez.

Pasaiako portua beste biak baino gehiago zen, bai edukieraz eta bai segurtasunez. Haren egokitasunak berehala piztu zuen inguruko herrien interesa. Donostiak gogor defendatu zituen bere eskubideak: Pasaiako uren eskumena beretzat bakarrik omen zuelako, bere beste bi portuetan bezala, ukatu egin zien Errenteriari eta Hondarribiari beren ontziek Pasaiako portua erabiltzeko baimena. Pentsatzekoa denez, bi hiribildu horiek ez zioten amore eman nahi izan Donostiaren erabaki hari, eta Pasaiako portua bereganatu eta erabili ahal izateko lehiek, auziek, eta liskarrek mende askotan iraun zuten. Auzitegietan izan ziren tirabirez gainera, etsaitasun hark gerra zikin bat sortu zuen maiz hiru herri haietako biztanleen artean, lapurretak, suteak, eta elkarri egindako beste kalte batzuk tartean zirela.

Hiru portu horien zeregina osatzeko, baziren beste sarbide batzuk ere ibaitik eta lehorretik, kostaldea eta barrualdea harremanetan jartzen zituztenak. Bide nagusiek bi modutako ibilbideak izaten zituzten nahasian; alegia, denbora puska batean salgaiak mandoen bizkarretan eramane behar izaten zituzten, eta beste denbora puska batean ontzietan, *pinaza* eta *gallupa* esaten zitzaien ontzi motetan, eta alderantziz gero. Donostian, Urumea ibaia barne bide natural bat zen: Hernaniraino joan, Hernani zeharkatu, eta Nafarroako erreinuan sartzen zen. Urumea ibaiaren bokaleko barrak traba eta oztopoa egiten zion ontzi askori, baina azpialdea laua zuten ontziak aise igaro zitezkeen handik. Bidasoa ibaiak ere antzeko aukerak eskaintzen zituen, eta nafarrak berehala ohartu zitzaizkion horri. Berako eta Lesakako salgaiak aurki bideratu zituzten Bidasoa ibaian barrena, Hondarribiko porturaino. Hautabide horrek kalte egin zion Donostiari, zeren eta, bestela, Bidasoan barrena zebilen joan-etorri hura Tolosako bidean barrena iritsiko baitzen Donostiara, lehorretik. Donostia, beraz, lehia gogorrean ibili zen Hondarribiarekin Nafarroatik zetozen salgaiak bereganatzeko.

Nafarroatik zetorren salgaien joan-etorriak gorabehera handiak izan bazituen, Arabatik zetozen salgaiena gero eta gehiago indartu zen, Gipuzkoako bide sarea antolatu eta handitu ahala. XV. mendean indar handia hartu zuten bai San Adrian mendatetik igarotzen zen pasabideak eta bai Tolosako hiribildutik igarotzen zenak; biak Donostiako portura zeraman bidean zeuden. Handik abiatzen ziren ontziak Atlantikoko edo Mediterraneoko kostaldeetara. Atlantiko aldeko frantses kostaldearekin -Baionarekin batez ere- eta Iberiako Penintsulan Sevillaraino iristen zen tartearrekin izan zituen Donostiak itsaso bidez harremanik estuenak.

Mende horretan utzi zuten alde batera luxuzko ehunen edo apaingarrien garraioa, ordu arte ohikoa izan zena. Haien ordeztu bolumen handiko salgaiak garraiatzen zituzten, luxuzkoak ez zirenak, eta herritarrek beren eguneroko bizitzan behar zituztenak; hau da, burdinak, oihalak, eta elikagaiak: laboreak, arrainak, lekariak, gatza, ardoak, ezta... Garai hartako dokumentuetan aipatzen den iltzeen, soken, galipotaren eta gerrarako tresnen inportazioak argi eta garbi erakusten du Donostia gotorleku mehatxatu bat zela, eta, baita ere, inguruan ontziolak zituela.

Donostia beti aleen eskasian zegoenez, hiribilduko kontzejuak kezka handia izan zuen luzaroan biztanleak laborez eta lekariz hornitzeko. Horregatik agindu zuen portuan ainguratzen zuen ontzi bakoitzak han bertan deskarga zezala zeramatzen jangaien erdia, donostiarrei saltzeko [4]. Jangai haien prezioari hainbat udal zerga eransten zitzaizkion, eta baita %10 ere, erreinuko *alkabala* nagusiak ordaintzeko.

Alkabala zeritzan zerga hori kendu egiten zuten bolada baterako, hondamen bat, ezurte bat edo premia handiko garai bat egokitzen zenean, eta horixe egin zuten 1489ko sutea izan zenean. Azkenerako, zerga hura ordaintzeko modu hori bertan behera utzi zuten, eta XVI. mendearen hasieraz geroztik kopuru finko bat ordaindu behar izaten zen.

Oligarkiaren nagusitasuna Donostiako Erregimentuan

Arestian esan dugu XV. mendean Donostiako biztanle kopurua handitu egin zela eta ekonomiak ere gora egin zuela. Pixkanaka-pixkanaka handitu izanak bizitasun handia eman zion politikari eta gizarteari; espezializatu egin ziren, eta askoz konplexuago bihurtu ziren bai bata eta bai bestea. Kontzejua kudeatzeko lanak gero eta garrantzi handiagoa izan zuen, bai Donostian bertan, bai Gipuzkoako lurralde osoan, eta bai erreinu osoan.

Udalaren autonomia kontzejuan hezurmamitua zegoen; hura zen hiribilduak aginterako zuen erakunde nagusia. Haren eskumen nagusia biztanleen bizimodua antolatzen zuten arauak ematea zen, eta kontzejuaren ordezkariak izendatzea ere bai [5]. Hasieran, batzar ireki bat izango zen, ziur asko, eta bizilagun izateko eskubidea zuten biztanle guztiek parte hartuko zuten. Baina biztanle kopurua horrenbeste hazi zen, non ezin baitziren bilera haiek behar bezala egin. Beraz, kontzejua aldatu egin zen, eta kontzeju itxi bihurtu zen: herritarrek aukeratutako ordezkariak besterik ez ziren joaten bilera haietara. XII. mendetik XV. mendera bitarte, oso biztanle gutxi izan zuen kontzejuan eskua. 1480 inguruan bukatuko zen, seguru asko, kontzeju horren bilakaera; "Erregimentu" bihurtu zenean, hain zuzen; Erregimentu izate hori kontzeju itxiaren aldaera bat zen, eta bi ezaugarri nagusi zituen: bizilagunek mugatua zuten aginpidera iristea, eta erregeak ahalmen handi-handia zuen Erregimentu hori kudeatzeko lanetan esku hartzeko.

//1. Kontzeju bateko zigilu baten aurkia eta ifrentzua.

Donostiako hiribilduaren sorrerak berak ekarri zuen erregeen esku hartze handi hura; ez baita ahaztu behar Donostia sorreraz *realengo*koa zela -erregerena, alegia-, eta horregatik erregeek beren erreinuko gainerako lurralde guztiak bezain erne zaintzen zituzten hiribildu hartan zituzten interesak. Hortaz, Gaztelako erregeak maiz samar hasi ziren Donostian esku hartzen, Alfontso XI.aren erreinalditik (1312-1350). XV. mendearen bukaerarako, Errege-Erregina Katolikoek behin eta berriz esku hartua zuten beren interesen alde Donostiako barne kontuetan. 1489ko sutearen ondoren egin ziren Ordenantzetan gorpuztu zen, hain zuzen, argi

eta garbi kontzejua Erregimentu bihurtu zuen aldaketa. Nahiz eta aldaketa hori sutea gertatu baino lehen izan, idatzi izanak berak adieraziko luke 1489 izan zela Donostia, bai tankeraz eta bai erakundeen aldetik, "berriz sortu" zen urtea.

Donostiar gehienek -herri xeheak edo, gaztelaniaz garai hartan esaten zioten bezala, *el común*- izaten zuten, hala ere, noizbehinka parte hartzeko aukera, bai erabaki bereziak hartu behar zituen kontzeju nagusietan, bai Erregimentura iritzi eta aholku ematera pertsona bereziak etortzen zirenean... baina, oro har, haien parte hartzea oso mugatua gelditu zen. Erregimentuko karguak berritzen zituzten hauteskondeetan ezin parte harturik gelditu zen herri xehea, eta makina bat liskar izan zen arrazoi hori zela medio. Pixkanaka-pixkanaka, udalaren aginpidea familia gutxi batzuen esku gelditu zen, Donostiako familiarik ahaltsuenen esku, eta haiek bizitza osoan berentzat gordetzen zuten aginpide hori. Ez da harritzekoa, beraz, izen jakin batzuk behin eta berriz aurkitzea Erregimentuko kideen zerrendan: Miguel Ochoa de Olazabal, Juan Martínez de Sarastume, Martín Martínez de Isturriaga, edo Nicolás de Sagastízar dira batzarkideen izenik aipatuena 1489tik 1512ra bitartean.

Erregimentuak hiribilduaren pribilegioak zaintzen zituen, kontzejuaren errentak eta ondasunak -*propios* zeriztenak- kudeatzen zituen, zerga ordaintzeko erroldak egiten zituen, herritarrek *derrama* esaten zitzaion aldi bateko zerga berezia ordain zezaten, hiria behar bezala hornitua egongo zela bermatu behar zuen, eta merkatuaren legeak beteko zirela ere ziurtatu beharra zeukan... Erregimentuko kideak ziren orobat hiribilduaren interesak auzitegietan, *Chancillería*n eta Gortean defendatzen zituzten ordezkariak. Kontzejua kudeatzeko lana gero eta korapilatsuagoa eta espezializatuagoa zen, eta hartarako behar ziren kargu berri ugari sortu ziren: alkateak, maiordomoak, zinpekoak, sagramenteroak, eskribauak, probestuak edo amabiak...

1489ko Ordenantzek kontu handiz mugatu zituzten beren eskumenak, beste inoren eskumenekin liskarrik sor ez zedin. Bestalde, 1511koek gutxieneko epe bat ezarri zuten, bi urtekoa, inor berriz aukeratua izateko. Arau horrek karguan txandaka egotera behartzen zuen, eta, horrela, interes berak zituzten taldeak edo familiak hobeto konpondu ahal izan ziren elkarrekin. Agian, arrazoi horregatik ez ziren izan Donostian XV. mendean Europako hiri askotan izan ziren leinuen arteko iskanbila eta borroka gogorak. Zergak biltzea eta bakea iraunaraztea, horiek ziren erregeek Donostian esku hartzeko izaten zituzten arrazoi nagusiak. Zergak biltzerakoan erregeek gero eta gutxiago estutzen zituzten bizilagunak. Itsasoaren hamarrenak -ontziratutako salgaiena batez ere- eta *alkabalak* -salerosketarenak- ziren erregeei berez zegozkien zergak. Erregeek gero eta maizago salbuetsi zuten Donostiako hiribildua zergak ordaintzetik, ezbeharrak izaten zirenean batez ere: suteak, izurriak... Eta, izan ere, hiribilduko prokuradoreek ziotenez, ezbeharrak horiek behin eta berriz porrokatzen eta hondatzen omen zuten Donostia. Arau berezi edo salbuespen horiek zergak ordaindu beharra behin betiko indargabetzea ekarri zuten azkeneko. Luzarora, salbuespen horiek *kaparetasun unibertsala*ren adierazpena indartuko zuten. Gaztelako erregeen kanpo politikak -bakearekin eta gerrarekin zerikusia zuenak batez ere- eragin handia izan zuen Donostian, kontuan hartu behar

baita Donostiak harreman handia zuela kanpoaldearekin. XIII. mendeaz geroztik, Kantauri aldeko hiribilduek harreman sare estu bat zuten nazioarteko portu askorekin, merkataritza zela medio; baina, erregeak herrialderen batekin gerran hastekoa zela jakinarazten zuen bakoitzean, harreman sare hori desegiteko zorian egoten zen.

Bolada luze batean -XIV. mendearen erdialdea arte, oro har- Kantauri aldeko portuak gogotik ahalegindu ziren politikaren gorabeheretatik aparte egoten eta zeinek bere itunak egiten, zeinek bere negozioak babesteko. Donostiak ere estrategia hori erabili zuen, harik eta Gaztelaren eta Frantziaren arteko itunak -oso lotura sendoa izan baitzen hura, batez ere 1369tik 1474ra bitartean- Donostiako hiribildua eta Kantauri aldeko beste hiribilduak Gaztelako erreinuaren kanpoko politikaren gorabeherari eta aldaketei nahitaez atxikitzen behartu zituen arte. Errege-Erregina Katolikoek aginpidea hartu izanak erabateko aldaketa ekarri zuen Gaztelaren kanpo politikara. Frantsesak, ordu arteko aliatuak, etsai bihurtu ziren. 1476an, frantsesek Donostiari eraso zioten. Donostiako hiribilduak lehenik, eta Errege-Erregina Katolikoek gero, Donostiako harresiak indartzea erabaki zuten. Handik gutxira, La Mota gaztelua eraiki zuten Urgull mendian. Ordu arte merkataritzako lekua izan zena gotorleku bihurtu zen.

Erregeek Gipuzkoan esku hartu zutenean, lurraldea baketzeko izan zen, eta ahalegin horretan, Donostiako kontzejuaren laguntza izan zuten. Horretarako, erregea hiribilduetako ermandadeez baliatu zen, haien interesak bat baitzetozen erregearekin. Azken finean, bakea eta arau idatzia errespetatzea ezinbesteko betekizunak ziren merkataritzak aurrera egingo bazuen.

Donostiak gogotik parte hartu zuen ermandade bakoitzean. Hasieran, zigortzeko aginpidea besterik ez zuten izan ermandade horiek, eta, hala, oso bizkor jarduten zuten gaizkileen kontra. Pixkanaka-pixkanaka, epaitegiei eta administrazioari zegozkien aginpideak ere beretzat hartuz joan ziren. Aginpide horietako batzuk korrejidorearen, alkate nagusien edo beste lege-barruti batzuen zenbait aginpideren kontrakoak egokitu ziren, baina tirabira haiek ermandadearen alde erabaki ziren beti, eta hala indartu zen ermandadea erakunde gisa, kontzejuen gaitetik. Eta ermandadearen baitan, donostiarrak gero eta goragoko mailara ari ziren igotzen.

Nolakoa zen Donostiako gizartea XV. mendearen bukaeran

XV. mendearen bukaeran, Urgull mendiaren oinean zegoen gotorlekua zen Donostiaren ezaugarri nagusia. Harresiek mugatzen eta baldintzatzen zuten bai merkataritzaren jarduera, bai gizarteko mailen arteko hierarkiak eta bai gizarteko bizitza bere konplexutasun osoan.

Pertsonak eta abereak estu-estu ibiltzen eta gurutzatzen ziren hiribilduko kaleetan barrena. Kanean mota askotako lanbideak eta klase sozialak elkartzen ziren, eta kolore askotako eta tankera askotako halakoxe irudi bat eratzen zuten. Zalaparta hartan ez zen harritzekoa gaskoierazko hitzak entzutea, gaskoierari belaunaldiz

belaunaldi eutsi baitzioten donostiar batzuek: bizilekua Donostian ia hasieratik hartutako merkatari gaskoien ondorengoek. Baina herritar gehienek euskaraz hitz egiten zuten. Hizkuntza hizketarako besterik ez zuten. Gutxi batzuek besterik ez zekizkiten idazketaren hastapenak, eta gutxi horiek ez ziren beti Erregimentuko kideak izaten.

Herritar gehienak alfabetatu gabe egoteak ez zien inolako kezkarik sortzen agintariei; osasunak, ordea, bai. Zinegotziak berehala arduratu ziren osasun kontuak konpontzeaz, eta, hala, San Martin ospitalea sortu zuten harresiz kanpo, legendunentzat. 1495ean, hiltegi bat eraiki zuten, eta han akabatzen zituzten harrezkero abereak, ordu arte harakinek kalearen erdian hiltzen baitzituzten. Hiltegi hura harresien barruan jaso zuten, Zurriola aldean, bazter hartan gogor jotzen zuten haizeek eta mareek hondakinak eta haien usain txarrak uxatuko zituztelakoan. Sua zen garai hartako agintarien beste kezka nagusia. Agintariek bere gain hartu zuten suteak itzaltzeko ardura, eta ahalegindu ziren ur biltokiak (edarrak) sua itzaltzeko beti prest egon zitezen.

Izadia eta elizaren ospakizunak ziren donostiarren bizitza antolatzen zuen urteko egutegiaren ardatzak. Oro har, bi irizpide horiek bat egiten zuten ospakizun nagusi batzuetan, hala Gabonetan edo San Joanetan; urteko bi solstizioetan, alegia. Jai egunak ziren orobat erlijiozko hiru pazkoak, santuen egunak, lanbideen patroien egunak, eta ekonomiako jardun baten "sasoiaren" hasierak: itsasketak, mahats biltzea, uzta biltzea, egur biltzea...

Elizak markatzen zuen eguneroko bizitzaren nondik norakoa, kanpai hotsaz orduak adieraziz. Hala eta guztiz ere, elizak ez zuen izan Donostian hiri hurbil batzuetan bezain eragin handia, elizbarrutiaren hiriburuan, Iruñean, izan zuen bezainbatekoa, adibidez. Alor honetan ere Donostiako oligarkiak bere agintea inposatu zuen: lortu baitzuen elizaren kargu nagusia, "kanpoko ofiziala" edo apezpikuaren ordezkaria, Donostiakoa izan zedila eta Donostiako benefiziatua. Donostiako oligarkiako kideek hartu zuten maiz beren gain kargu hori, eta bai ederki baliatu ere beren aginpidea zabaltzeko.

Donostiako biztanle guztiak berdinak ziren legearen aurrean. Gizartean zuten maila, beraz, baliabide ekonomikoen bitartez adierazten zen. Zein lanbidetan aritzen ziren, hartara izaten ziren aberatsagoak edo behartsuagoak herritarrak. Bere irabazien arabera sailkatuta aipatuko ditugu lanbide batzuk, handienekotik gutxienekora: merkatari handiak, burdinolen jabeak, ondasun higiezinak errentan jartzen zituztenak -hiriko etxeak, baserriak-, erdi mailako dendariak eta dendari txikiak, lur ondasunen jabeak (ez denak maila berean), arrantza eta itsasketa, eskulangintza, eta, azkenik, jornaleko lana. Maila goreneko bi zeregin ere baziren donostiarren lanbide ugarien artean: elizgizonak eta eskribauak.

Bizilekua leku batean edo bestean kokatua izateak beste hierarkia modu bat sortzen zuen donostiarren artean. Harresien barruan edo kanpoan bizitzeak garbi bereizten zituen harresiz kanpoko *kolazioetan* -Igeldo, Altza, Artigas eta *Pasaje de

Aquende*- bizi ziren donostiarrak harresien barruan bizi zirenengandik. Azken hauek eskubide osoko hiritarrak ziren, eta harresien barruan bizi beharra zegoen baita ere kontzejuaren edo Erregimentuaren ordezkari izateko, eta, 1397. urteaz geroztik, Gipuzkoako Ermandadearen ordezkari ere izateko.

Harresien barruan, familia handia edo txikia izateak -ahaide kopuru handia edo txikia izateak, alegia- gizartean norberak zuen maila ere adierazten zuen. Gurasoez eta seme-alabez bakarrik osatutako familiak bizi maila apalekoak izaten ziren; oligarkia, berriz, leinu bereko ahaide askoko multzo batean biltzen zen. Hiribilduko jauregietan eta dorretxeetan baizik ezin zitezkeen eroso bizi hainbeste ahaidez osatutako familiak; ahaide handiez gainera, ahaide txikiak, ezkon-ahaideak eta zehar-ahaideak eta morroiak bizi baitziren elkarrekin.

Ezkontza bidezko politika ondo pentsatu batek indartu egin zituen handiki haien interes ekonomikoak. Aldareak itun estrategikoak finkatu zituen elkarren osagarri ziren negozioen artean. Ezkontzaren bidez oso lotura errentagarriak antolatu eta zigilatu ziren; adibidez, itsasgizonen zein merkatarien eta burdinolen jabeen artean [6]. Donostiako handiki jendeak ez zion baserri aldeko jabetzari ere ukorik egin. Gertaera horrek ñabartu egiten du hiriko gizarteari betidanik egotzi izan zaion zerbait: bere baserri inguruneari bizkarra eman izana.

Donostiako familia ahaltsuenek kontzejuko karguetan arituz jotzen zuten gizarte mailan goia. Udaleko agintean aritzeko mugak gero eta gehiago zorrotz zituzten XV. mendean zehar, harik eta hiribilduko oligarkiaren esku bakarrik geratu ziren arte, beste edozeini sarbidea itxirik. Ezbehar batek bultzatu zuen, ustekabean, udaleko karguak mugatze alderako bilakaera hura: 1489ko suteak. Hiribildua berreraikitze behar izan zen bolada luze hartaz baliatu ziren kontzejuko kideak beren aginpidea handitzeko. Haien nahimenez zerikusi eta eragin handia izan zuten Donostiako Ordenantza berriak idazterakoan. Errege-Erregina Katolikoek urte hartan berretsi zituzten Ordenantza haietako arauen bitartez, hiribilduko herri xehearen jardunak eta egintzak gutxiestea lortu zuten, eta baita, askotan, indargabetzea ere. Zorrotz murriztu zuten kofradien jarduna eta egitekoa, eta bizilagunei debekatu egin zieten presio taldeak antolatzea: ligak eta monopolioak, adibidez.

Sutea izan eta hurrengo urteetan, elkarrekin bizi ezina gero eta indar handiagoz zabaldu zen donostiarren artean. Handikien amarru eta azpijoko ilunek protestak eta iskanbilak sorrarazi zituen herri xehearengan. 1491an, Martín de Olarriaga (edo Elorriaga) bizilagunak hitz hauekin salatu zien egoera hura Errege-Erregina Katolikoei: "La dicha villa está puesta en poder de diez o doce vecinos e de los carniceros e marchantes, a quien ellos gratifican e con quien reparten lo que los vecinos e común de la dicha villa han mal llevado". Eta batere zalantzarik gabe salatu zuen asmo txarrez ari zirela: "con intención de con el trabajo de los pobres reedificar sus casas e recrescer sus haciendas" [7].

Errege-Erregina katolikoek jaramon egin zieten salaketa gogor haiei, eta aldaketa batzuk egin zituzten ordenantza haietan. Beste ordenantza multzo baten bidez bukatu ziren, 1511n, hasierako ordenantza haiei egin zitzaizkien zuzenketak. Hala eta guztiz ere, XIV. mendean geroztik, gutxienez, abian jarria zen kargu bereganatze hark aurrera egin zuen, familia ahaltsu haien eraginez, eta, hala, beretzat bakarrik hartu zuten kontzejua aurrena, eta Erregimentua gero. Egoera katramilatsu samar horretan zeuden, bada, donostiarrak XVI. gizaldia hastera zihoanean.

OHARRAK

: [1] Historialariek beti uste izan dute Donostia Antso VI.a Jakitunaren erregealdiko lehenengo urteetan sortu zela, 1150. eta 1163. urteen artean. José M^a Lacarrak eta Ángel Martín Duquek geroztik egin dituzten azterketen ondoren jakin ahal izan da Donostia 1180 inguruan sortu zela, eta hori da gaur egun aditu gehienek aintzat hartzen duten data.

: [2] Urgull mendiko gotorleku nagusia gaztelu bat zen, seguru asko Nafarroako Antso VII.a Azkarraren aginduz eraikia, 1195etik 1199 bitarte, errege horrek Gaztelako Alfontso VIII.aren izan zuen gerra bitartean.

: [3] Mahasti sailak ugaritzeak nekazari lana indartu zuen, eta agintariek arautu egin zuten lan mota hura. 1508ko "Ordenanza de podavines" edo "inaustarien Ordenantzak" besalarien lan baldintzak arautu zituen. Besteak beste, Inaustarien Kofradian nahitaez izena eman beharra zegoen mahastiak inauten lan egin ahal izateko; eta, gainera, inaustariek halako babes sozial bat bazuten, gaixotu edo hilez gero.

: [4] Hori ematen dute aditzera 1489ko Ordenantzetako 97tik 99ra bitarteko artikuluek.

: [5] XV. mendearen bukaeran, Erregimentuak bi alkate zituen, bi zinpeko nagusi, lau zinegotzi, bigarren mailako lau zinpeko, bi zinegotzi portuzain, bi sagramentero, kaleko bi fiel, sei mendizain eta maiordomo poltsazain bat. Zerrenda horrek argi erakusten du norainoko konplexutasuna eta espezializazioa iritsi zituen udalbatzak.

: [6] Hala, adibidez. Engómez familiaren eta Pérez de Ojanguren familiaren arteko ezkontza; Olazábal familiaren eta Aguinaga familiaren eta La Pandilla familiaren artekoa; eta, beranduago, Elduayen familiaren eta Alceta familiaren eta Amézqueta familiaren artekoa.

: [7] Martín Olarriagak eta beste bizilagun batzuek Errege-Erregina Katolikoei helarazi zieten errekurtoa, 1489an onartu ziren udal ordenantzak salatzen zituena. J. A. García de Cortázarrek aipatua *Historia de Donostia-San Sebastián* liburuan; M. Artola (ed.), 2000, 85. orrialdea.

II

Muga berrien bila: 1516-1700

José María Imízcoz

XVI. eta XVII. mendeetan, Donostiak goraldi bat izan zuen hasieran; Erdi Aroko eredu ekonomikoa gorenera heldu zen garaia izan zen hura. Gero, krisialdi batean sartu zen, eta donostiarrek beren aberasbidearen oinarriak berriz aztertu behar izan zituzten. Donostiako hiribilduak bizi izan zituen gerrek eta liskarrek zerikusi handia izan zuten gorabehera haietan, Austriatarren Inperioaren baitan zegoenez, haietan parte hartzera bultzatu baitzuten agintariek. Nahasmendu haiek zirela medio, Donostiako gizartearen goi maila berritu egin zen, eta, hartara, gizarte osoa ere nahastu egin zen.

XVI. eta XVII. mendeetan, Donostia sendotu eta indartu egin zen erakunde gisa, bai hiri barruko politikari zegokionez eta bai kanpoaldera begira. Udalak bere eskumena eta bere aginte sistema indartu zituen. Kanpoaldera begira, berriz, erregeek gero eta begikoago zeukaten, eta Donostiak haien alde egindako ahaleginak aintzat harturik, Hiri titulua eman zioten.

Hiria, portua eta gotorlekua XV. mendearen bukaeran, istilu handitan hasiak ziren donostiarrak beren agintarien kontra: gogor salatu zizkioten oligarkiari udal politikan egiten zituzten amarruak eta jukutriak. Hiribilduko hamar edo hamabi familia nagusiek berentzat bakarrik hartua zuten aginpidea, eta beren buruen eta beren ahaideen mesedetan baliatzen zuten. Udaleko karguak, nonbait, berentzat besterik ez ziren. Karguak aukeratzeko sistemak ziurtatzen zuen monopolio hori: kargua uztekotan zegoen udalbatzak berak eratzen zuen hurrengo Erregimentuko kideak aukeratu zituen hautesle multzoa.

1511ko Ordenantzek aldaketa handiak egin zituzten atal horretan. Harrezkero, hautesleak goi mailako bizilagunen errolda batean zozketa bidez aukeratu zituzten; *millaristas* esan zitzaienten bizilagun jakin haiei. Sistema hura ere elitista zen, zeren eta, errolda hartan izena emana egoteko, ondasun higiezin jakin batzuk, *millares* esaten zitzaientenak, eduki beharra baitzegoen; alegia, gizartearen gorengo mailan egotea eta aberastasunen jabe izatea behar bezala frogatuta eduki beharra zegoen [1]. Nolanahi ere, ordenantza haiek politikara erakarri zituzten negozioetan gora egin zuten familiak, ordu arte Erregimentutik baztertuak egon baitziren. Familia haietako asko kanpotarrak ziren jatorriz. 1488ko sutearen ondoren etorriak ziren Donostiara bizitzera, merkataritzako negozioen errentagarritasunak akuilatuta. Hala, besteak beste: Idiáquez, López de Aguirre, Olózaga, Ercilla, eta Echeberri familiak.

Donostiako hiribilduaren barrutiak Pasaiatik Mendizorrotzera doan lur eremua hartzen zuen bere baitan. Barrualdetik, Donostiako mugak uztai moduko bat eratzen zuen Usurbil, Hernani, Astigarraga, eta Erreterria aldean. 1519an, Andoaingo

unibertsitateak Donostiaren mende egoteari utzi zion, eta Tolosaren baitan sartu zen.

Hurrengo bi mendeetan, Donostia auzitan ibili zen herri mugakideekin, erakunde gisa zituen eskubideak baliarazteko. Liskarrik gogorrenak Pasaiaiko portuak sortu zituen, itsasketarako leku ezin egokiago haren irrikan baitzeuden inguruko hiribildu guztiak. XVI. eta XVII. mendeetan zehar, Atlantiko alderako itsas bidaien eta negozioen goraldiak sekulako eragina izan zuen: portu gehienek ez zuten orduko eskariak eta premiak betetzerik izan. *El Pasaje* edo Pasaia zen tamaina hartako ontzidiak bere baitan hartzeko gauza zen portu bakarra, baina Donostiak hura erabiltzeko kobratzen zituen zerga handiak ezin eramanez, Errenteriak, Oiartzunek, Hondarribiak eta Lezok behin eta berriz salatu eta auzitara eramanez zuten Donostia. Pasaian merkataritza librea eta zergarik gabea izan zedila eskatzen zuten lau herri horiek. Donostiak, berriz, bere uren gainean zeukan monopolioa argudiatzen zuen behin eta berriz, eta erne-erne egoten zen alor horretan inork iruzurrik egin ez ziezaion.

1577an, Errenteriako, Oiartzungo eta Hondarribiko biztanle batzuk Gipuzkoako probintziatik bereizteko ahaleginetan hasi ziren, haien ustez probintziak onartu egiten baitzituen Donostiak zuzen kontra ezartzen zizkien inposizio haiek. Gipuzkoatik bereizteko mehatxurik gogorrena 1614an izan zen, Pasaia Gogorrenak Gipuzkoako Ogasun Kontseiluari jakinarazi eta eskatu baitzion bereizi egin nahi zuela eta aldendu, bai Hondarribitik eta bai Donostiatik.

Donostiak salerosketan zuen indar handia merkataritzan hainbat mendez geroztik zeuzkan pribilegioetan oinarritua zegoen. Hamarrenak eta bidesariak ordaintzetik salbuetsita egotea, asteroko merkatuak zergarik ordaindu gabe egitea, *alkabalen* zerga ordaintzeko errolda egiteko baimena (1506-1509 urteez geroztik)... horiek ziren, besteak beste, erregeek Donostiari emanak zizkioten pribilegioak, nekazaritzan zuen urritasun handia berdintzeko.

Erregeek bazekiten Donostiak nahitaez kanpotik ekarri beharra zeukala alea, are gehiago gotorleku bihurtu zenez geroztik, hango guda taldea ere mantendu behar baitzuen. Horregatik eman zioten Donostiari laboreak hirira zergarik ordaindu gabe libre ekartzeko pribilegioa. "Deskarga erdiaren" pribilegioak indartu egiten zuten, gainera, Donostiak elikagaiez hornitzeko zuen politika: portuan aingura botatzen zuten ontzi guztiek gariaren eta jan-edanaren erdia portuan nahitaez deskargatu behar zuten, donostiarren artean saltzeko gero. Batzuetan, hornigaien premia handitu egiten zen, bai Donostiara soldadu gehiago bidali zituztelako, bai estutasun handiko egoera zegoelako. Halakoetan, premiarik larrienak betetzeko, Nafarroatik edo Frantziatik ekartzen zuten donostiarrek garia.

Donostiak barrutiko eta merkataritzako eskubideez baliatuz ateratzen zituen irabaziak, bai eta bere ondasunak ematen zituzten errentetatik ere (*propios*). Lehenengoak ontziek salgaiak portura iristean ordaindu behar zituzten zergak ziren -*cayaje* esaten zitzaion porturatzeagatik ordaindu beharreko zergari, eta *loaje*,

berriz, lonjako zerbitzuak erabiltzeagatik ordaindu behar zenari-. *Propio* zerizten errentek -larreak, errotak, jabetzak, hareatzetako txabolak...- alokairuan zein baldintzatan uzten ziren, hartara irabazi gehiago edo gutxiago ematen zituzten.

XVI. mendearen bukaeraz geroztik, udala gero eta gehiago zorpetzen ari zen, harik eta 1615ean zorra 30.000 dukateraino gehitu zen arte. 1597ko eta 1598ko izurriteek, gerrek eta gerren ondorioz erregeari nahitaez egin beharreko zerbitzuek, bai gizonetan eta bai diru emaitzetan, erregearen egonaldiek, auziek -batez ere Pasaiako barrutiko eskumenari buruzko liskarrek sortuak, haiek izan baitziren luzeenak eta garestienak-... neurritz gora gehitu zituzten gastuak eta desorekatu zituzten balantzeak. Defizita berdindu beharrak beste nonbaitetik diru gehiago biltzera behartu zuen Erregimentua: mugako zergak igo zituen, beraz. Erabaki horrek oso ondorio kaltegarriak izan zituen. Artileari ezarri zitzaizkion zerga berriek halako moduan garestitu zuten salgai hura, non Nafarroatik eta Aragoitik zetozen salgaiak ez baitzituzten gehiago Donostiako portura ekarri. Harrezkero, Baionako portura eramane zituzten.

Donostiako ekonomiaren bizitasunari bere hiru portuetan antzematen zitzaion. Kontxakoan ontzien joan-etorria nahiko handia zen garai hartarako. XVI. mendearen lehenengo erdialdean, zabaldu eta berritu egin ziren portuko instalazio zaharrak. Portuaren tankera berriak Itsasoko Ate zaharra aldatu beharra ekarri zuen: 1522an, lekuz aldatu zuten, jendea errazago sartu-irten ahal izan zedin harresietatik.

Santa Katalinako Kofradiak zuen portua gobernatzeko eta zaintzeko ardura; zergak biltzeko ahalmena ere bazuen. Kofradia hartako maiordomoak *cayaje* izeneko zerga biltzen zuen, eta dirua instalazioak mantentzeko eta hobetzeko erabiltzen zuen. Bere esku zuen, orobat, kasu jakin batzuk legez epaitzeko ardura, eta isunak ere jar zitzakeen, behar izanez gero, inork portuetako arauen bat betetzen ez bazuen. Maiordomoak ahalmen horiek izateak ez zuen esan nahi ermandade hark aginte eta itzal handia zuenik. Garai batean bai, aginpide handia izan zuen Donostian, baina, XV. mendearen bukaeraz geroztik, Erregimentuaren mende gelditu zen. Kofradia haren bilakaerak garbi erakusten du kontzejuak zenbateraino jokatu zuen nagusikeriaz.

//2. Gotorlekua 1551n edo 1552an.

XVI. mendean itsasketek eta itsas jardun osoak halako goraldi handia izan zuten, non portuetan gero eta ontzi handiagoak behar izan baitzituzten. Ontzioletan berehala hasi ziren 400 *upeletik* gorako ontziak egiten -*upela* ontzien edukiera neurtzeko antzina erabiltzen zen neurri bat da, tona baten bost seirenen balio bera duena-; eta 800 edo 1.000 upeleko ontziak ere egin zituzten. Itsasontziak zenbat eta handiagoak egin ahala, orduan eta nabarmenago gelditu ziren Erdi Aroko portuen muga estuak. Ontzi handi haietako bat bera ere ez zen kabitzen, adibidez, Kontxako portuan, nahiz zuela gutxi eraberritu zuten. XVI. mendearen erdialdetik aurrera, kai berriak proiektatu ere zituzten, portuaren inguru osoa har zezaten bere baitan. Baina, 1594an, asmo hura baztertu egin behar izan zuten, dirurik ez zegoelako;

XIX. mendearen erdialdea arte ez zen asmo hura berriz abian jarriko. Kontxako portuaren ordezt, Santa Klara uharteko ainguralekua erabiltzea bururatu zitzairen, badian bertan. Baina leku hura arriskutsua gerta zitezkeen, bai galernengatik eta bai frantses kortsarioek inongo zigorren beldurrik gabe eraso zezaketelako.

Ekinaldi handiko itsasketak -Ternuara zihoazen espedizioak, Indietako ontzidia, Euskal Herriko burdina Sevillara garraiatzeko bidaldiak, gerra ontzidiak...- Pasaiako portutik baizik ezin zitezkeen abia, hura baitzen Kantauri alde osoko porturik onena, eta ontzidi handienak bere baitan hartzeko gauza zen bakarra. Donostia etengabe ibili zen Pasaia inguruko hiribilduekin lehia gogorrean, Pasaietan zituen eskumenei eusteko.

Donostiako aginteak berari zegozkion eskubideak eta mugako zergak jasotzen zituen Pasaietan. XVI. mendearen bukaera arte diru bilketa hura portuzain batek egiten zuen. Garai hartan, Donostiako lau errejidoreak jarri zituzten haren ordezt, eta zeregin horretan urte osoan zehar txandaka aritzen ziren lauak. Txanda zegokienean, Pasaiako dorrean hartzen zuten bizilekua. Jende asko ibili zen kargu haren irrikan, zeren eta, pixkanaka-pixkanaka, zerga gehiago erantsi baitzituzten -*lastraje, anclaje, mollaje*...-, eta zerga horietatik korrejidore haiek irabaziak ateratzen baitzituzten berentzat ere.

Beste komunikabide eta biltoki batzuek osatzen zuten Donostiako merkataritzaren azpiegitura: Santa Katalinako portuak eta izen bereko zubiak, Pasaiatik Donostiara zeraman bideak, barrualdeko bideek -Hernanira, Usurbilera, Loiolara...-, alondegiak, burdinazko lonjek... Horien guztien gainean zegoen antolatua salerosketen gorabehereri eta gizonen, kapitalen, eta salgaien joan-etorriari eusten ziren sare estua.

Hiria, probintzia eta monarkia Erdi Aroa bukatutakoan, Donostia itxuraz zeharo aldatuta zegoen garrantzi handiko alderdi batean: lehen merkataritza gunea izandakoa orain gotorlekua zen. 1476ko eta 1512ko setioen ondoren, hiria gotortu zuten, eta Erdi Aroko ingurune hesitua hobeto antolatu zuten. Babeserako lanak Errege-Erregina Katolikoen agindupean hasi ziren, eta, pixkanaka-pixkanaka, hurrengo erregeek ere hobetu egin zituzten hiribildua gotortzeko lan haiek. Kubo Inperiala -1520 ingurukoa-, Lehorreko Atearen ondoan, eta Urgull mendian -Behatokian, Urumearen bokaleari begira- artilleriarentzat eraiki ziren plataformak izan ziren harresi berrietako lan garrantzitsuenak. XVII. mendearen bigarren erdialdean, lehorreko harresi tarte berria da aipagarriena, albo batean San Feliperen baluarte eta bestean Gobernadorearen baluarte zituenak. 1688an gazteluko bolborategian izan zen leherketa batek egindako txikizioak konpondu behar izan zituzten geroztik; konponketa lanek hiru urte iraun zuten, eta asko hobetu zuten gotorlekua.

1523. urteaz geroztik, guarnizioak egoitza finkoa hartu zuen Donostian. Bake garaian 500 gizon ziren; baina, mehatxurik izanez gero, izan zitezkeen 2.000 gizon ere, borrokarako prest. Donostiarrak militarrekin batera bizitzen ohitu ziren. Soldaduek Parte Zaharrean eratzen zituzten ilarak, eta hantxe egiten zituzten

maniobra militarrek. Zalaparta batean ibiltzen ziren tabernetan, kalean barrena ere ibiltzen ziren... 1706 arte ez zuten kuartelik izan han bizitzeko, eta, beraz, partikularren etxeetan hartzen zuten ostatu, han oheak alokatu. Kapitain jenerala, probintziako agintari militar nagusia, Hondarribian bizi zen, harik eta 1568an bizilekua Donostian hartu zuen arte.

//3. Donostiaren ikuspegia, Georgius Hoefnaglek marraztua, 1752.

Soldaduak eta donostiarrak ez ziren beti elkarrekin bakean bizi izan. Gehiegikeriak egin izana eta berek nahi baino gehiago tartean sartu izana egozten zieten militarrei udaleko agintariak. Horregatik, 1582an, Erregimentuak erregeari eskatu zion egin ziezaietela goi mailako ofizialei hiru urtero egoitza-epaiketa bat.

Erregeek berehala antzeman zioten Donostiaren ekinari eta lehiari, zerbitzu handiak eta sarriak egin baitzizkion Koroari, bai politikan eta bai alor militarrean; Donostia erregeen esker onaz baliatu zen probintzia osoaren gainera gailenago agertzeko. Gainerako hiribilduen barneko tirabirez ere baliatu zen helburu horrekintxe. Beraz, Donostiak halako moduan indartu zuen bere izate eta garrantzi politikoa, non, XVI. mendearen hasieran Gipuzkoak hainbat agintegune baldin bazituen, handik bi mendera hautsia baitzegoen probintzia barneko oreka hori, eta Donostia bihurtua baitzen Gipuzkoako erdigune, bai administrazioaren, bai ekonomiaren, bai politikaren, eta bai indar militarren aldetik.

Hiribilduek Gipuzkoako aginte erakunde nagusian -Batzar Nagusietan- zuten ordezkari kopurua *su* kopuruaren arabera zegoen banatua; alegia, hiribildu bakoitzaren barrutian zenbat herrixka eta *su* zeuden zenbatzen ziren, eta horren arabera erabakitzen zen ordezkari kopurua. Irizpide horri jarraituz, Donostiak, Segurak, Villafranca de Oriak eta, batez ere, Tolosak zituzten ordezkari gehien. Eta, beraz, "hiribildu nagusi" horiek zuten erabakiak hartzeko ahalmen handiena.

Hiribildu horiek probintziako agintean zuten nagusitasuna gogo txarrez hartu zuten beste hiribildu guztiek, aginpidetik baztertuak baitzeuden. 1517an protestan hasi ziren, botazio sistema eta, beraz, Batzar Nagusietan ordezkariak aukeratzeko modua aldatu beharra zegoela eskatuz. Protesta hark 1521 arte iraun zuen liskar handi bat sortu zuen, "Komunitateen arteko Gerra" esan zitzaiona. Erregea nahasmendu hartaz baliatu zen Batzar Nagusietan zuten aginpidea indartzeko: harrezkero, Batzar Nagusiak baliozkoak izango baziren, Korrejidoreak bileran egon beharra zeukan [2].

Liskar hartan, Donostiak erregearen alde egin zuen; erregeak aintzat hartu zion laguntza hura, eta bai saritu ere, 1522an, "Prestu eta Leial" titulua emanez. Liskar hura komuneroek galdu izanaren ondorioz, bai erregearen agintea eta bai Donostiako hiribildua bera gailendu egin ziren probintzian. Baina konpondu gabe zegoen hala ere liskar hura sortu zuen ezinegona, eta, beraz, probintziako aginpidari buruz hiribilduek elkarrengana zituzten aurkakotasunak eta ezinikusiak bizi-bizirik egon ziren mende osoan zehar.

XVII. mendearen hasieran, tirabira haiek liskarrak sorrarazi zituzten berriz, baina oraingoan hiribildu ahaltsuenen baitan. Haien mende zeuden herrixka asko zein bere hiribildutik bereizten hasi ziren. Tolosak, Segurak, eta Villafranca de Oriak 35 leku galdu zituzten. Eta leku horiek banako independente gisa sartu ziren Batzar Nagusietan. Donostiak eta beste hiribildu batzuek gogotik bultzatu zuten herrixken bereizte hura, "Hiribildu Nagusien" agintea ahuldu nahi baitzuten, haiek Batzar Nagusietan zuten nagusitasun politikoa gal zezaten.

Harrezkero, hirurogeita bost hiribildu bildu ziren Batzar Nagusietan. Bestelako oreka politiko bat nagusitu zen haren baitan, eta arestian aipatu diren hiru hirien boto kopurua asko gutxitu zen. Bestalde, hiribildu horien bereizitako lekuek Donostiaren alde ematen zuten botoa, haren zordun baitziren aurrez Donostiak eman zien laguntzagatik. Laguntza hori erabakigarria izan zen Donostiarentzat Pasaiaiko Portuan Donostiak zituen eskubideak Batzar Nagusietan eztabaidatu zirenean. 1615ean, Pasaia eta Urnietak Donostiako eskumen barrutitik bereiztea eskatu zuten. Donostiak Koroako goi mailako agintariekin zituen harreman onei esker lortu zuten donostiarrek bi leku horiek bere baitatik ez bereiztea, beste leku batzuk bereizi ziren bezala [3].

Hurrengo urteetan, Donostiak gorantz egin zuen erregearen laguntzaz. 1662an, "Hiri Prestu eta Leial" titulua eman zion erregeak, eta, 1699an, "Hiri Txit Prestu eta Txit Leial" titulua. Ez da harrizkoa, beraz, Erregimentuaren eta Gortearen arteko harreman onak ikusirik, erregeak probintzian zuen agintari nagusiak, korrejidoreak, Donostian hartzea bizilekua XVII. mendean [4]. Entzutegiak eta Diputazioak joera bera izan zuten.

Bi erakunde horiek egoitza Donostian jarri izanak hiriburu politikoa izateko bidean jarri zuen, berez, Donostia. Hala ere, donostiar askok ez zuen oso begiko korrejidorea Donostian etengabe egotea. Beldur ziren udaleko administrazioan eskua behar baino gehiago sartuko ote zuen, Pasaiaiko Portuari zegokion auzian batez ere.

Ekonomia zaharrak eta berriak: Erdi Aroko joan-etorrietatik kolonietako ekonomiara

Ia XVI. mende osoan, Donostiak goraldi handia izan zuen merkataritzan, eta Erdi Aroko ibilbideen erabilerak goren maila iritsi zuen. Donostiako portuan salgaien joan-etorria areagotu egin zen, nahiz Donostiakoa apal samarra izan Kantauri aldeko portuen artean, eta bai inportazioek eta bai esportazioek gora egin zuten. Inportazio gehienak Frantziatik eta Ingalaterratik egiten ziren; era askotako salgaiak inportatzen ziren: lehengaiak, manufakturak, eta laboreak, gehienbat. Artilea, burdina eta altzairua ziren gehien esportatzen ziren gaiak.

Artilea XVI. mendeko esportaziorik jorienetako bat izan zen, eta Donostiako portua nabarmendu zen artilea esportatzen zuten Kantauri aldeko beste portuen artean.

Nafarroako artilea esportatzen zuen gehienbat, eta baita Errioxakoa eta Aragoikoa ere; Nafarroakoa baino gutxiago, ordea. Bilbok, berriz, Gaztelako artile merinoa esportatzen zuen gehienbat. Portuetako esportatzaileek *faktore* gisa lan egiten zuten maiz barrualdeko artile merkatari handientzat. Donostiarrek harreman estua zuten Iruñekoekin. XVI. mendearen erdialdean aipatzekoak ziren artilearen salerosketan Luis Cruzat, Martín de Beroiz, eta Martín de Gúrpide.

Artilearen eskariak 1570etik 1580ra bitarte izan zuen bere goren maila. Geroztik, Flandriarekin eta Ingalaterrarekin izan zen gerrak bidea oztopatu zion Gaztelatik zetorren artileari. Nafarrek mugako zerga gutxiago ordaintzen zuten Donostian -dukat bat zaku bakoitzeko, eta gaztelarrek, berriz, lau dukat zakuko-, eta horri esker egin ahal izan zioten donostiarrek aurre krisialdi hari. Hurrengo urteetan, artilearen eskariak gora egin zuen Frantzian, eta, handik gutxira, Ingalaterran ere bai, eta horrela bihurtu zen Donostia portu nagusi artilea esportatzen zuten Kantauriko portuen artean. Nagusitasun horretan zerikusia izan zuten, orobat, Donostiaren lehiakideek, Bilbok, batez ere, izan zituzten estutasunek.

XVII. mendearen bigarren erdialdean, egoera hark azpikoz gora egin zuen. Bilboko portuak beretzat bakarrik hartu zuen artile merinoaren esportazioa. Baina, aldez aurretik, Urduñako pasabidea ireki zuen, eta handik bideratu zituen Gaztelatik zetozkion salgaiak. Donostiak, berriz, behin betiko galdu zuen Nafarroako eta Aragoiko artilea saltzeko aukera, aurreko mendean halako goraldia ekarri bazion ere. Portuetako zergak gehitu izanak ekarri zuen beheraldi hori [5]. Artile ekoizleek beste bide bat bilatzea erabaki zuten, zerga horiek ez ordaintzeko. 1654. urteaz geroztik, artilea lehorretik eramaten zuten Baionaraino, eta handik zuten eramaten zuten Frantziako industrietara.

//4. Donostiaren ikuspegia, Richard Polterrek egina, 1585.

Europako merkatuan zegoen benetako Euskal Herriko produktu bakarra burdina zen. Modu askotara merkaturatzen zuten: erdilandua, barretan, edo burdinkietan zeharo landua.

Urumea ibarreko burdinoleto eta Jaurreriko (Somorrostroko) meatzeetako burdina inportatzeko eta esportatzeko joan-etorriak Donostian gurutzatzen ziren. Bizkaiko minerala, *zaina*, Santa Katalinako ibai portuaren inguruan ainguratzen zuten ontzietan iristen zen. Handik, azpialdea laua zuten *ala* izeneko ontzi batzuetan Urumean gora eramaten zuten burdinoletaraino. Burdinola horiek bertako minerala ere lantzen zuten, baina Somorrostrokoak kalitate hobea zuen; Muskizekoak, batez ere. Hango sutegiak izen handia zuen bai beste sutegietan eta bai merkatuetan, eta, beraz, gipuzkoarrek eta nafarrek lehengai hura nahi izaten zuten beren burdinoletan. Olagizonek bertako burdin mearekin nahasten zuten labeetan Bizkaiko burdin hura.

Ala esaten zitzaien ontzi haiek ibaian beherako bidea egiten zuten, Santa Katalinaraino, barrualdeko burdinolek landutako burdina garraiatzen. Donostian bertan ere baziren burdingintzaren inguruko lantegiak: sutegiak, burdin dendak,

arma dendak, eta ainguren saltokiak. Burdingaiak hiru lonjatan biltzen zituzten, eta han egoten ziren esportaziorako itsasontzietan noiz zamatuko zituzten zain. Santa Katalinako lonja edo biltegia zen bata, Kontxako portuari begira zegoena zen bigarrena, eta Pasaiakoa hirugarrena; azken hori Hondarribiko hiribilduarekin batera eraiki zuten.

XVI. mendean zehar, burdinaren negozioan sartuta zeuden profesionalek gero eta harreman estuagoak izan zituzten elkarren artean, eta burdingintzaren alor jakin batzuetan zebiltzanak beste alor batzuetan jarduten hasi ziren: batzuek burdinolak errentan jarri zituzten, edo burdina egitea eskatu zieten, batetik bestera oso klausula aldakorak zituzten kontratuen bidez. Olagizon ahaltsu batzuk, bestalde, beren produktuak merkaturatzen hasi ziren. Batzuetan, irabazpide hutsez egindako ezkontzen bitartez lotu zitzaizkion elkarri Donostiako itzal handiko familia batzuk eta barrualdeko burdinolen jabeak. Donostiako handikiek estrategia guztiak baliatu zituzten burdingintzaren negozioan aurrera egiteko; negozio kopuruagatik eta beren ahalmen handiagatik, aipagarriak dira Juan López de Aguirre, eta Cruzat, Engómez, Elduayen, Goizueta, Lazón, Oquendo, eta Urnieta familiak.

Mende hartako azken hamarraldietan, Euskal Herriko burdingintzak gainbehera egin zuen, krisiak jota. Merkatuan Europako burdina berriak nagusitu ziren, eta Europako Iparraldean baztertu egin zuten Euskal Herriko burdina. Horrez gainera, itsasoan nagusi ziren nazioek elkarri egiten zizkieten gerrek eta kortsarioen bitarteko txikizioek hondamen handiak sortu zituzten Euskal Herriko merkataritzako ontzidian. Arrazoi horiek guztiak zirela eta, Europako Iparraldeko merkatuak itxi egin zitzaizkion Euskal Herriko burdinari. Beheraldi hark hurrengo mende osoan iraun zuen.

Gainbeherak eta estutasunek hartara bultzaturik, donostiar batzuk berehala hasi ziren beste hautabide batzuk aztertzen, beste kontinente batzuek eta beste ekonomia batzuek eskaintzen zituzten aukerak aintzat hartzen. Geroztik, ekonomiaren birmoldatze hark arrakasta izan zuen azkenean, negozio gizon haiek erregearekin eta haren koloniek zuzentzen zituzten harreman onei esker.

Kantauri itsasoan arrantzan ibiltzen ziren arrantzale apalak baxurako arrantzari esker bizi ziren; atunzuria, sardina, bisigua eta legatza harrapatzen zuten gehienbat itsasbazterreko arrantza mota horretan. Era horretara harrapatutako arraina Donostian bertan saltzen zuten. Alturako edo itsas zabaleko arrantza, berriz, tamaina handiko industria zen, eta kapital handiak behar ziren hartarako. Merkatariak edo ontzi jabeak izaten ziren arrantza mota horren eragileak, diru asko behar izaten baitzen Galiziara eta Irlandara egin beharreko bidaldiak finantzatzeko, eta, are gehiago, 1534-1540 urteez geroztik, Ternuara egin beharrekoak. Udaberria eta uda izaten ziren bakailaoaren arrantza aldiak; balearen arrantza aldiak, berriz, urtarrila arte luzatuz joan ziren.

Ternuako arrantza lekuetan bete-betean eta antolamendu jakin baten arabera arrantza egiten hasteak aldaketa handiak ekarri zituen arrantzaren sektorera.

Espedizioek gero eta gehiago irauten zuten, gero eta ontzi handiagoak eta hobeto hornituak behar izaten zituzten [6]... Alegia, kapital handiak behar ziren, eta ahalegin handiak egin zituzten, beraz, kapitalak biltzeko. Kapitain armadoreek, kapitalistek eta ontzi jabeek maiz elkar hartu zuten hasierako inbertsioari aurre egin ahal izateko. Ekinaldi hura arrisku handikoa zen, bistan denez: bidaldi luzea, piratak eta kortsarioak, eta izadiak bazter haietan berez sortzen zituen arriskuak -izotzak, batez ere-. Irabazien goseak bultzatzen zituen arriskuei aurre egitera, ia ehuneko ehunekoak izaten baitziren maiz irabaziak. Negozio hari halako etekin handia ateratzen zitzaizola ikusirik, aurki agertu ziren probintziako inbertitzaileak, eta baita mailegu-emaileak, lukurariak, eta aseguratzaileak ere. Emaitzek, hala ere, gorabehera handiak izaten zituzten.

Baleek urtero-urtero zeharkatzen zituzten San Lorentzoko Golkoko urak, eta arrantzale euskaldunak hara abiatzen ziren baleak harrapatzera. Balea oso aintzat hartua zen Erdi Aroaz geroztik, oso-osorik baliatzen eta merkaturatzen zelako. Lamera edo balearen koipea zen errentagarriena, argiterian eta oihalgintzan erabiltzen zelako. Baleazaleek berek destilatzen eta ontziratzen zuten lumera, Ternuan jaso zituzten lantegietan edo itsasontzian bertan. Adituen kalkuluen arabera, Euskal Herriko portuetara 20.000 upel lumera iristen ziren, batez beste, urtero. Euskal Herriko portuetatik ontzi txikiagoen bidez banatzen zituzten Ingalaterrara eta Flandriara. Lehorreko bideen bitartez, Iberiako Penintsulan barrena eramaten zuten Nafarroarantz, Aragoirantz, eta Gaztelarantz.

Ontzien luze-laburrak eta handi-txikiak agerian utzi zituzten Erdi Aroko portuen mugak. Pasaiako portua guztiz egokia nola baitzen sakonera handiko ontzientzat, hala bihurtu zen Gipuzkoako baleontzien portu nagusi. Pasaiatik abiatzen ziren kostaldeko hiribildu askotako ontziak arrantzara; eta, balea harrapatzeko aldia bukatu ondoren, Pasaiara iristen ziren berriz. 1580ko lekukotasun baten arabera, 13 edo 14 ziren Donostiatik Ternuara abiatzen ziren ontziak, eta ontzi bakoitzak 70etik 100 bat marinelera zituen, ontziaren tamainaren arabera. Haietatik, lau edo sei Pasaiako portu inguruko lekuek pleitatuak ziren: guztira, 300etik 500era gizon ontziratu zituzten, eta, 2.000 *upel*erainoko edukiera zamatuta zuten, denen artean, ontzi horietan.

Bakailaoa zen Ternuan harrapatzen zuten beste arrain nagusia. Bakailaotan aritzen ziren arrantzaleak Donostiara itzultzen ziren gero, eta handik bakailaoa probintzia osora banatzen zen. Merkatura atera aurretik, bakailaoa alde aurretik landu beharra zegoen: umotu, gazitu, lehortu, eta fardetan ipini. Lan horiek emakumezkoek egiten zituzten, Donostiako hareatzetan Zurriolakoetan, batez ere-.

Horretarako propio egokitutako txabola batzuetan eskuztatzen zuten bakailaoa. Emakumezko askok txabola horietan hartzen zuen bizilekua lan hark irauten zuen bitartean. Hasieran, txabola horiek ez zuten alde handirik sareak eta arrantzarako aparailuak gordetzeko erabiltzen ziren txosna ziztrinekin; askotan, zeharo utziak eta erortzeko zorian egoten ziren. 1540. urteaz geroztik, jendea bakailaoa aintzat hartzen hasi zenean, txabola haien balioa handitu egin zen. Nonahi ugaritu ziren, eta

sekulako dirutzak ordaintzen zituzten haiek errentan hartzeko. Behin arraina egokitua eta prestatua zegoenean, joan-etorri handia izaten zen Zurriolako inguru hartan, mandazain asko biltzen baitzen han, fardelak mandoen gainean zamatu eta Nafarroara, Aragoira, eta Gaztelara bakailaoa saltzera abiatzeko.

Krisiak eta birmoldatzeak (1575-1700)

Historialari gehienek ustean, merkataritzak krisi handi bat izan zuen XVII. mendean, Donostiaren ekonomia gogotik zanpatu zuena. Ordu arte erabili zituzten merkataritzako bideek behera egin zuten, argi eta garbi; hala eta guztiz ere, ekonomiaren oinarriak, edo haien zati bat bederen, aurrekoak bezain irabazi handiko beste alor batzuetara bideratu zituzten.

1570etik eta 1580tik aurrera Europako potentziek elkarren artean izan zituzten gerrek burdingintzan aritzen ziren edo Ternuara espedizioak bidaltzen zituzten enpresa asko itxiarazi zituzten. Baina etorkizun handiko beste alor batzuk zabaldu ziren, erregearen zerbitzuan edo itsasoz haraindiko inperioan. Aldaketa eta eraberritze handiko garai hartan, elkarren lehian ibili ziren molde zaharreko eta molde berriko ekonomia, eta nahasmendu handia izan zen bazterretan.

Ontzigintza izan zen gerratearekin batera gora egin zuen ekonomiaren alorretako bat. Langintza horrek tradizio luzea zuen, Erdi Aroan baitzituen sustraiak. Ordu arte arrantza ontziak egitera mugatua zen langintza hori. Baina, XVI. mendearen bigarren erdialdean, ontzigileek gogotik ekin zioten neurri handiko itsasontziak egiteari, hori eskatzen baitzuten bezero berriek: Indietako itsasketan eta Erregearen Ontzidian negozioak zituzten merkatariek, alegia.

1563ko Erregearen Pragmatikarekin batera, Koroa bere ontzidirako eskariak egiten hasi zen maiztasun jakin batez. "Itsas Armada Garaiezinaren" hondamenaren ondoren (1588), Koroak gero eta eskari gehiago egin zituen, eta, gorabeherak izan baziren ere, 1680 arte ontzigintzak goraldia izan zuen [7]. Geroztik, halako geldialdi bat izan zuen.

Ordu arte, ontziolak Santa Katalina inguruan, Urumea ibaiaren ertzean eta Ergobia auzoan egon ziren. Lantegi txikiak izaten ziren, eta maisu arotzen ardurapean zeuden; arotz haiek *itsas arotzak* ziren -*de ribera* esaten zitzaien gaztelaniaz-, eta trebeak eta adituak izaten ziren ontziak bikeztatzeko langintzan. Aldi baterako egiten zuten lana ontzioletan, eta, arrantza ontzi txikiak egiteaz gainera, bestelako lanak ere egiten zituzten: arrantza, zurgintza...

Ontzi handiak egin beharrak profesionalizazioa ekarri zuen, eta orobat lan guztiak ontziola espezializatuetan bildu beharra. Ontzigileek berehala jo zuten begiz Pasaia, leku guztiz egokia baitzen ontziolak han kokatzeko. Enpresa gizon haiek itzal handiko jendea ziren: ontzi jabeak eta negozio gizonak, eta gehienbat merkataritzako irabaziekin pilatutako kapital handien jabeak. Harreman onak zituzten Itsas Armadarekin eta Gortearrekin, eta, horri esker, abantaila handiak

izaten zituzten kontratuetan. XVI. mendean, Miguel de Oquendo eta Juanes de Amézqueta ontzi jabeak gailendu ziren negozio haietan. Haren seme Martinek XVII. mendearen lehenengo erdialdean jardun zuen, Antonio de Lajust eta Francisco de Beroiz ere gailendu ziren garai berean. XVII. mendearen bigarren erdialdean, Miguel de Aristeguieta eta Ignacio de Soroa aipatu behar dira, eta, mende haren bukaeran, Pedro de Aróstegui eta Felipe eta Simón de Zelarain anaiak.

Ontzigintzaren bizitasun hark goraldia ekarri zuen harekin zuzenean edo zeharka zerikusia zuten alor askotara, lantegiak errentan jartzen zituztenengandik hasita. Lehengaien eta produktu landuen eskariak joan-etorri handia bultzatu zuen kostaldearen eta barrualdearen artean, ontziolak zurez eta burdinkiz hornitzeko. Donostian eta Pasaian, adibidez, Oiartzungo haraneko olagizon nagusiak bete-betean aritu ziren ontzigileentzat lanean, eta, horiez gainera, lanbide askotako maisuak ere bai: itsas arotzak, aroztegiko arotzak, bikeztatzaileak, ainguragileak, upelgileak, ontzietarako sokagile maisuak...

Austriatarren Inperioaren politika gerrazaleak beste irabazpide batzuk sortu zituen, eta donostiar saiatuenak erne egon zitzaizkien aukera berri haiei. Bake garaian arrantza ontzien edo merkataritzako ontzien jabe izandako gizon batzuek ondo baino hobeto jakin zuten gerrak ekarri zituen aukerez baliatzen. Haien artean nabarmenetako bat kortsarioen jarduna izan zen, eta ospe handikoa, gainera, kortsario izandako asko heroien mailara jaso baitzituzten. Maisu askok eskuratu zuten itsasontziak armaz josteko eta Koroaren etsaiei erasotzeko baimena ematen zien erregearen agiria. Enperadorearen bermeak legezko bihurtzen zituen hura gabe piraten ekintza soilak besterik ez ziren txikizio haiek. Kortsarioek ez bakarrik ez zuten zigortuak izateko beldurrik; horrez gainera, harrapakin guztia berentzat hartzen zuten sari gisa. XVII. mendean, kortsarioen ekinak gero eta ugariagotu egin ziren, bai eta Amerikako uretaraino iritsi ere. Gerrako ekinaldi haietan gizon asko hil zen; handiak izan ziren, ordea, batzuek haietatik atera zituzten irabaziak.

Beste donostiar batzuk Erregearen Itsas Armadan nabarmendu ziren. Horietako asko itsasketan tradizio handia zuten familietatik zetozen; batzuk kortsario gisa ibiliak ere ziren garai batean. Inperioaren ontzidian sartu izanak amaiera bikaina eman zien haien karrerari. Oquendotarrak, lau anaia Echeverritarrak, Ugalde eta Orella anaiak... era askotako jardunetan ibiliak ziren goi mailako jendearen adibide garbia dira; tankera horretako gizonak iaioak izan ziren Koroaren zerbitzuan karrera bikain bat egiten eta, aldi berean, beren interes partikularren alde aritzen.

Garai horretan metatu ziren dirutza handiak ez zituzten, hala ere, inperioaren alde lan egindako leinuetako heroiek eskuratu; are gutxiago erregearen administrazioan nabarmendu ziren idazkari eragin handikoek. Aberastasunik handienak Euskal Herriko burdina kolonietara eramaten jardun zuten merkatariek eskuratu zituzten; haietako asko zeharo ezezagunak ziren.

Kolonizazioaren garaian burdin meatzeak ez zuen inolako bultzadarik izan Amerikan. Aldi berean, Erdi Aroaz geroztik jardun betean ari izan ziren Europako

bideak zeharo trabatu eta oztopatu izanak hondoa jotzeko mehatxupean zeukan Euskal Herriko burdingintza. Merkatarari handi gutxi batzuek Kontinente Berria begiz jo zuten, eta produkzioa alde hartara bideratzeko aukera aztertzen hasi ziren. Koroak laguntza eta bermea eman zion asmo horri: Amerika Euskal Herriko burdinarentzat gorde zuen, mugako zergeri erregimen pribilegiatu bat emanaz. Baina elite bat baizik ez zen gai halako negozio handietan sartzeko. Enpresa edo familia talde txikiak ziren haiek, beren ondarean burdinolen jabetzak edo errentak, edukiera handiko itsasontziak eta biltegiak Sevillan zeuzkatena. Haien harreman sarearen baitan, bazituzten bizilekua Amerikan hartutako ahaideak ere, eta haiek arduratu ziren burdina Amerikan lehorreratu ondoren hura modurik errentagarrienean banatzeaz.

Itsasoz haraindiko lurraldeekiko merkataritzako harreman guztiak Sevillatik bideratu behar ziren nahitaez, hango *Casa de Contratación*ek edo *Kontratazio Etxea*k baizik ez baitzituen ematen Amerikarekin salerosketan aritzeko behar ziren baimenak. Baina, aztarna askoren arabera, zilegi da esatea gipuzkoarrek harreman zuzena izan zutela Pasaiaren eta Amerikaren artean, legezko bideak saihesturik eta haiei jaramonik egin gabe.

Gipuzkoako burdingintzak ez zuen askorik parte hartu negozio horretan, Bizkaiko burdin kopuruarekin konparatuz gero. Baina, hala eta guztiz ere, Indietatik eta Sevillatik Donostiara iristen ziren salgaien zenbatekoak argi eta garbi adierazten du negozio horietan parte hartu zuten familiek ordu artekoekin parekorik ez zuten ondasun kopuru ezin handiagoak bereganatu zituztela [8]. Beste muturrean, salgaiak betidaniko merkataritzako bideetan barrena salerosten jarraitu zuten merkatariek - Cruzat, Pérez de Lazón, Pérez de Tolosa...- atzera egin zuten gizarteko mailan, haien negozioak gutxituz joan ziren ahala. XVII. mendearen bukaerarako, haien izenak ez zeuden jadanik Donostiako goi mailako familien zerrendan.

Handikiak eta boterea

XVI. mendearen bukaeran hasi ziren gorabehera ekonomikoek Erdi Aroko merkataritzako bide joriak hondatu zituzten, eta salgaiak bide haixetatik garraiatuz aberastu eta gizarteko mailan gora egin zuten handikiak ere haiekin batera hondoratu ziren. Negozio askoren porrotak ordu arte Donostiako aginpide politikoaren eta sozialaren goren mailan egon ziren handikien gainbehera ekarri zuen, beren ondasunak galtzearekin batera.

Merkataritza ito zuen gerrate hark berak aberasbide berriak sorrarazi zituen beste batzuentzat. Aukera haiek irispide zabalekoak ziren, eta zeharo gainditzen zuten Donostia eta haren inguruetakoko negozio esparrua: kortsarioaren jarduna, Erregearen Itsas Armada, Indietako ontzidia, eta ontzigintza; Gorteko administrazioko jarduna ahaztu gabe. Garaile berri haiek bazuten ezaugarri berezi bat, ordu arte beren lekuan egon zirenengandik zeharo bereizten zituen: Koroaren helburuei eta Kolonietako Inperioari zeharo atxikiak egotea.

Itzal handiko bihurtu berri zen jende haietako asko jatorri ilunekoak ziren, baina horrek ez zien inolako trabarik egin gizarteko mailan gora egin zuten igoaldi ezin bizkorragoan. Donostiako antzinako aristokratek, ordea, zeharo erdeinatu zituzten etorri berri haiek. Goi mailako gizartea berritzeko prozesu hark Erdi Aroko leinu askoren hondamena ekarri zuen. Abizen tradizional asko behin betiko desagertu zen urteko liburuetatik. Haien artean, gutxi batzuk besterik ez ziren izan, mailaz igotzeko eta aberasteko modu berriei muzin egin gabe, garai berrietara moldatzen jakin zutenak. Berástegui, Engómez, eta Beroiz familiak, besteak beste.

Bai horientzat eta bai gizarteko mailaren gorenera iritsi berrientzat, familiak eratzen zuen talde zabala oinarri ezin sendoagoa zen beren maila ondo finkatzeko. Harremanak ezkontza bidez ondo baino hobeto aukeratuz eta indartuz, haien negozioek gora egin zuten. Maiz gertatzen zen aitagarrebek eta suhiek jarduera ekonomiko osagarrietan parte hartzea, lotura batez baino gehiagoz elkarri loturik. Olagizonen eta merkatarien arteko hitzarmena gizaldiz gizaldi egon zen finkatua. Hurrengo mendeetan, handikiek beste era bateko hitzarmenak, loturak, eta harremanak egin zituzten elkarren artean: kortsarioak Amerikako merkatariekin, arrantzako enpresa gizonekin edo ontzigileekin ahaidetu ziren.

Gizartea, kultura eta eguneroko bizitza Donostia

Gipuzkoako artzapezpiku barrutiaren barruan zegoen, eta barruti hori, berriz, Iruñeko elizbarrutiaren baitan. XVI. mendean, eliza katolikoak Trentoko Kontzilioa izan zuen gertakari nagusia. Pedro Pacheco apezpikua (1539-1545) izan zen Donostiako bazter hauetan kontzilio hartako irakaspenen zabaltzaile nagusia. Hura eta haren ondorengoak behin baino gehiagotan bildu ziren eliztarrekin, eta bilera haietan gogotik saiatu ziren Trenton salatu ziren apaizen gehiegikeriak geldiarazten, eta predikazioaren eta kristau ikasbidea irakatsi beharraren alde mintzatu ziren.

Inkiszioak begiz jo zuen Donostia, bertakoek, merkataritza zela bide, Europarekin zituzten harremanen gerizpean luteranismoa sartuko ote zen beldurrez. Donostiarrek, ordea, ez zioten jaramonik egin Luteroren doktrinari. Donostiak bete-betean bizi izan zuen kontzilio hartako elizgizonek abian jarri zuten erreforma katolikoa. Donostiako antzinako monasterioek aintzat hartu zituzten berrikuntza haiek. San Bartolomeko lekaimeak klausuran itxi ziren, baina askoz geroago, 1563 inguruan. Donostiako familia nagusietako batzuek komentuak sortu zituzten harresien barruan eta kanpoan, garai hartako erlijio ordena ospetsuenen eskutik: San Telmo (domingotar lekaideak, 1531), San Sebastian Antiguakoa (domingotar lekaimeak, 1546), San Frantzisko (frantziskotarrak, 1606), Jesusen Lagundiaren ikastetxea (1619), eta Santa Ana (karmeldar oinutsak, 1663).

Kabildo bakar batek administratzen zituen Santa Maria eta San Bizente parrokiak, baina lehenengoa bestea baino gorago zegoen mailaz. 1580an, Pedro de Lafuente apezpikuak parrokia bakoitzaren esparruak mugatu zituen. Bi bikario ziren esparru haien arduradunak, kabildo horrek eta udalbatzak aukeratuak; azkenik, apezpikuak onetsi behar zituen hautatuak. Hamarrenak eta *hasikinak* -elizari zerga gisa

ematen zitzaizkion fruituak eta abereak- ziren bi eliza horien irabazpide ekonomikoak, fundazio elizkoiek biltzen zituzten diruez gainera: urteurrenak, ondare emateak, eta emaitzak. Pasaiako San Pedron eta Altzako San Martzialen biltzen ziren *hasikin* guztiak ere bi eliza horiek eskuratzen zituzten, hiribilduko jarduera ekonomikoak aspaldi-aspalditik ezarrita zeuzkan zergen eskubideez gainera [9].

Ordenak eta kabildoak mokoka eta liskarrean ibili ziren behin baino gehiagotan, beren eragina eta itzala gizartean ahalik eta gehien zabaltzeko grinaz. 1619an Jesusen Lagundia Donostiara iritsi izanak ondo asko argitzen du kontu hori. Zinegotzi talde batek deituta kokatu ziren jesulagunak Donostian, Santa Anako basilikan eskola baten ardura bere gain har zezaten. Jesulagunen etorrerari halako aurkakotasunez eta indarkeriaz egin zitzaion aurre, non 1627 arte ezin izan baitzuten Donostian behar bezala egoitza hartu.

Erljiozko ospakizun handietan ere berehala sortzen ziren batzuen eta besteen arteko susmo txarrak. Handikiak eta bazkunak oso sentikorrek izan ziren halakoetan, eta arreta handiz aztertzen zituzten ospakizun horietan zein lekutan egon beharra egokitu zitzaien, zer nolako sinboloak agertuko ziren, zein ordenatan hartuko zuen talde bakoitzak parte... Zeren eta, azken finean, era horretako elizkizunek aukera paregabea eskaintzen baitzuten nork bere burua edo bere taldea eta nork bere aginpidea eta ahalak jendaurrean erakusteko.

Goi mailako jendeak urruti zituen jomugak eta helburuak, arestian esan dugunez: Gortea, Itsas Armada, itsasoz haraindiko lurraldeak, eta, oro har, beren familien edo negozioen adarrak noraino iritsi, hara zituzten jarriak beren begiak. Bitartean, donostiar gehien zereginak –herri xehea, edo, gaztelaniaz esaten zitzaion bezala, *el común*- ez ziren ia inoiz Donostiako mugetatik harago joaten. Kofradien, parrokien, auzoko edo kaleko auzo bilkuren eta era horretako jende biltzeen muga estuen barruan igarotzen zuen herri apalak bere bizi.

Itsas bidezko joan-etorrian parte hartzen zuten profesional eta langile soil guztiak Santa Katalinako Itsasgizonen Kofradian aurkitzen zuten babesa; XII. mendekoa zen kofradia hori. Azken Erdi Aroan izan zuen garairik gorena, bere kideen eskubideen alde gogotik esku hartu behar izan baitzuen garai hartan. Kaiak mantentzea eta konpontzea, kaiak garbitzea eta itsas bidezko joan-etorria zaintzea ziren haren eginkizun nagusiak. Bere bazkideen ongizateaz ere arduratzen zen: behartsuei lagunduz, hiletak prestatuz... Dirua bildu ere zuen turkiarren mende erori eta haien eskuetan preso zeudenak erreskatatzeko.

San Pedroko Kofradia 1491n sortu zen, eta aurrekoaren mendekoa zen. Maisuen edo ontzi jabeen zerbitzuan zegoen. Erljioak garrantzi handia zuen haren eginkizunetan, baina arrantzaren kontrola eta salmenta eta horrelako zeregin ekonomikoak ere haren esku zeuden. La Mota gazteluan su bat edo argiontzi bat ipinia zeukalako zen batik bat ezaguna kofradia hori; argi hori itsasargi gisa

erabiltzen zuten itsasontziek, porturako bidean. Estutasunetan zeuden bazkideei ere laguntzen zien, eta, oro har, Donostiako behartsu guztiei.

Gainontzeko lanbideetako eskulangileek zeinek bere ermandadea zuten. Den-denek hiru zeregin nagusi izaten zituzten: lan arauak antolatzea, kideei erlijioaren bidez laguntzea eta gizartean bizi ahal izateko laguntza ematea. Donostian ugariak ziren ermandadeak, Europa modernoko hirietan bezalaxe, eta gizartekotzeko sare estu bat eskaintzen zieten herritarrei. Kofradia eta ermandade haiek hierarkia eta korporazio kutsu handia eman zioten Donostiari.

Emakumeak zenbat eta apalagoak bizi mailaz, orduan eta gehiago lan egin behar izaten zuten. Emakume askok oso lan gogorretan jardun behar izan zuen; Pasaiaiko batelariak, adibidez, arraunean zebiltzan badiako bazter batetik bestera joaten ziren ontzietan; beste emakume batzuek beren senarrei laguntzen zieten kaietan fardelak zamaten. Elikagaiak prestatzeko lanak ere emakumezkoek egiten zituzten gehienbat -ogia eta bizkotxoak egiten marinelentzat, bakailaoa prestatzen txaboletan...-, bai eta ostatueta lanak, ura garraiatzea, eta antzeko lanak ere. Emakumeek gizonen soldataren erdia edo laurdena kobratzen zuten gehienetan.

Eskaleak edo erlijioz, arrazaz edo kulturaz desberdinak zirenak gizartetik baztertu egiten zituzten garai hartako Gipuzkoan. Testuinguru hartan, Donostia jarrera irekiagoa izateagatik nabarmendu zen bere inguruetik, itsasketan eta merkataritzan mendez mende jardun izanaren eraginez, ziur asko. Donostian atzerritar askok hartu zuen bizilekua, frantsesek batez ere. XVII. mendean zehar, Europako merkataritzaren krisiak, nazioarteko konkurrentziak, eta gerrek xenofobiarako halako joera bat sortu zuten donostiar batzuegan. Jakin ahal izan da, orobat, esklabo beltz batzuk salerosi zirela Donostian, handikien neskame-morroiz izan zitezela.

Eskaleek eta gaixoei 1485. urteaz geroztik San Martin auzoan zabalik zegoen San Lazaro ospitalean zuten babes etxea. 1538an San Antonio Abad ospitalea Santa Katalina inguruan eraiki izanak indartu egin zituen Donostiak gizarteari eskaintzen zizkion babesak. 1592. urteaz geroztik, ospitale hori Itsas Armadako gaixoentzat erabili zen, Felipe II.ak berariaz hala aginduta.

Donostian bizi

Osasunaren egoera txarrak eta hondamenek eragin kaltegarriak izaten zituzten maiz donostiarren bizitzan. Izurri bubonikoa portutik sartu zen Donostian 1597an, eta hurrengo bi urteetan sekulako txikizioak egin zituen: 650 hildako Donostian, eta 364 Pasaian. Suteek hondamen izugarriak egiten zituzten, 1489ko Ordenantzek suteen aurkako neurriak hartzera behartuagatik. Donostia lau aldiz erre zen bi mendetan: 1512an, 1524an, 1630ean, eta 1688an.

Hirigintzan aldaketak izan ziren. Erregimentuak iturri eta putzu berriak eraiki zituen, eta Morlansetik eta Olarayatik ura ekarri zuen harresien kanpoalderaino.

Kale batzuk ere harriztatu zituen. Gero eta etxe gehiago eraiki ziren adreiluz edo harlanduz, sugarrak zabal ez zitezen udal arautegiak agintzen zuena betez. Eraikinen altuera igo zuten, lau solairutik bost solairura, eta haietako batzuetan komun moduko batzuk ipini zituzten: zuloak besterik ez ziren, zuzen-zuzenean beheko solairuko eskortara isurtzen zutenak.

Nobleek hiriko plazara aldatu zuten beren egoitza, hura baitzen berez paseatzeko eta gizarte harremanetarako leku egokiena. Harrizkoak zituzten etxeak, burdin landuko balkoiekin. Gela asko izaten zituzten etxe barruan, bai eta sotoak, usategia, putzua, baratzak, eta labea ere. Altzari eta jantzi aberatsak zituzten, eta zaldia eta zalgurdiak ere bai. Kristala ez zuten ia-ia erabiltzen garai hartan, ezta jauregietan ere, eta paper ezkoztatuarekin edo argizariz estaliarekin ixten zituzten leihoak. Goi mailako klaseek hiru otordu egiten zituzten egunero, eta txokolatea hartzen zuten gosaltzeko. Haien jakietan herri xehearenetan baino askoz proteina gehiago izaten ziren. Herri xeheak, berriz, ogia jaten zuen gehienbat; batez ere, garagarrez egindako ogi biribilak. 700 gramokoa zen pertsona bakoitzak egunero jaten zuen ogi kopurua, eta, horrez gainera, olioarekin, urdaiarekin, eta egoskari batzuekin egindako eltzekari bat ere bai, sagardoarekin edo ardoarekin batera. Gauean, arrain pixka bat edo bakailao pixka bat afaltzen zuten.

Herritar gehienek soldatetik ateratzen zituzten beren errentak. Zein lanbide zuten, hartara diru gehiago edo gutxiago irabazten zuten, eta eskulangileei sagardoa ere ematen zitzairen, diru soldataz gainera. Eguneko soldata 2 errealetik 5era bitartekoa izaten zen. Pertsona bakoitzak erreal bat gastatzen zuen egunean jaten, eta, beraz, soldata bakarrarekin nekez mantentzeko familia osoa.

Nekez jakin daiteke, baita ere, orduko jendea zenbateraino zen ikasia eta eskolatua, horri buruz ez baitzaigu garai hartako berririk ia iritsi. Badakigu XVI. mendean bazela Donostian itsasketako eskola bat, Santa Katalinako Kofradiak antolatua, eta Andrés de Poza lizentziadunaren ardurapean. 1606an, Erregearen Agindu batek manatu zuen ireki zedila "Gipuzkoako, Bizkaiko Jaureriko, eta Lau Hiribilduetako Marinelen Mintegia", marinel gaituak presta zitzaizkion, eta, hartara, gero Erregearen Itsas Armadan ari ahal izan zitezkeen.

Aristokraten semeek baizik ezin zituzten goi mailako ikasketak egin, eta apaiz izateko ikasketak edo lege ikasketak aukeratzen zituztenek Salamancako Unibertsitatara joan behar izaten zuten. Harresi barruko Santa Ana basilikan eginak izango zituzten, seguru asko, oinarrizko ikasketak, han ematen baitzizkieten eskolak ume txikiei.

Lan egutegian erlijio jai asko zeuden, eta jai haiek zorrotz betetzen zituzten, lanik egin gabe: igandeak, Korpusa, eta Elizaren beste festa nagusiak; baina orobat kofradien patroiak, erregutze bereziak... Jai horiek denak hots handiz eta kale agerraldi bikainez ospatzen ziren, garai hartako eliz jaiera barrokoak ohi zuen bezala. Ospakizun laiko batzuk, ordea, elizakoak baino goragokoak izaten ziren, handitasunez, distiraz, eta bikaintasunez. Hala, esate baterako, erregearen familiako

norbait Donostiara etorri zen hiru alditan egin ziren ospakizunak, 1565ean, 1615ean, eta 1630ean [10]. Donostia eta donostiarrak gogotik apaindu ziren erregearen familiako kideei ongietorria egiteko; su festak, su armez egindako ohorezko agurrak, sokamuturra, eta prozesioak antolatu zituzten, besteak beste, bisitarien eta bertakoen aisiarako.

Sokamuturra eta zezenak ziren donostiarren denbora-pasarik maiteenak. Udako hilabeteetan lau zezenketa egiten ziren. Jai egunetan, gazteak merkatuko plazan biltzen ziren txistuaren eta danbolinaren hotsaz dantza egitera. 1489ko Ordenantzek debekatuta zeukaten jokia, baina donostiarrek gogotik jokatzen zuten ezkutuan, bai diru kopuru handiak jokatu ere, eta, askotan, negozioak eta tratuak jokoaren lagunartean egiten zituzten. Donostiako handiki jendea ere jokozale amorratua zen.

XVIII. mendea hasi zenean, nahasmendu eta gorabehera handiak zituen Donostiak, bai ekonomian eta bai gizartean. Hurrengo gizaldia distiratsua izan zen; historialari guztiak bat datoz horretan. Kapitulu honetan ikusi dugu nola jarri ziren 1800eko loraldia ekarriko zuten oinarriak. Prozesu hartan ezbeharrak, ezurteak, eta gertakizun latzak ere izan ziren, baina, oro har, ondorioak emankorrak izan ziren: muga berriak ireki baitziren Donostiarentzat, eta donostiarrak gogotik ahaleginduko ziren egoera itxaropentsu hari etekin handiak ateratzen.

OHARRAK

: [1] Ordenantza horien arabera, hautesle batek *millar* erdi eduki behar zuen; eta bi *millar*, gainera, aukeratua izan nahi bazuen. XVI. mendean zehar, *millar*ren jabe edo *millarista* izateko baldintzak gero eta gehiago zorroztu zituzten. Egoera hori ikusita, bizilagunek ez zuten hauteskundeetan parte hartzeko gogo handirik izaten. Aditu batzuek egin dituzten kalkuluen arabera, irizpide horrek donostiarren %2ra mugatzen zuen hauteskundeetan parte hartzeko aukera.

: [2] Era berean eskatu zuen erregeak hiribilduetako prokuradoreek gaztelania jakin zezaten, hitzez eta idatziz. Eskakizun hori aintzat harturik, Donostiako eta beste udalerrri batzuetako handikiek berehala eskakizun hori bera ezarri zuten zeinek bere hiribilduetako erakundeetan.

: [3] Antonio de Aróstegui, Martín de Aróstegui, eta Antonio de Oquendo izan ziren, besteak beste, Donostiak aldi hartan Koroan izan zituen babesle ahaltsuak.

: [4] Ordu arte korrejidoreak "txandako lau hiribilduetan" hartzen zuen txandaka bizilekua -Donostian, Azkoitian, Azpeitian, eta Tolosan-, XVI. mendeko lehenengo hogeita bost urteetan ezarri zen ohituraren arabera.

: [5] Donostiarrek, ordea, erregeak zergak gehitu izanari egotzi zioten beheraldi hura; eta, beraz, hamarren zaharrari egin zitzaion %7'5eko gehikuntza eta 1654. urteaz geroztik zakuei ezarri zitzaizkien beste zerga batzuk kentzea eskatu zuten.

: [6] Bakailao ontziek 200 *upel*eko edukiera zuten; baleontziak, berriz, 200etik 500 bat upel artekoak. Haietako batzuk edukieraz 800 upel ere baziren, eta haiek izan ziren, inondik ere, garai hartako itsasontzirik handienak.

: [7] XVII. mendean ontzigileek monarkiarekin egin zituzten kontratuak *asiento* esaten zitzaion modu berezi batean egiten ziren: ontzigileak gastu guztiak aurreratzen zituen, eta eskaria hitzartutako epearen barruan bukatzeko konpromisoa hartzen zuen, aldez aurretik ezarritako prezioan. Kontratu mota horrek kreditua izatea zekarkion Koroari; ontzigileak, berriz, bere gain hartu behar zituen arrisku guztiak.

: [8] Gipuzkoara leku horietatik iristen ziren salgai gehienak Donostiara iristen ziren, baina horrek ez du esan nahi donostiar familientzat bakarrik zirenik. Uste izatekoa da, hala ere, bai Donostia eta bai Pasaiako portua guztiz indartu eta gailendu zirela, eta haiek zirela finantzagune nagusiak probintziako negozio gizonentzat.

: [9] Alegia, Donostian aingura botatzen zuen ontzi bakoitzaren irabazien ehuneko bat, kairatzeko eskubideen zati bat, 4 marabedi Donostiatik ateratzen zen salgai-karga bakoitzarengatik, 2.000 marabediko errenta urtean, erregeak emana (San Bizente). Donostian ontziratzen zen burdinagatik ordaindu behar izaten zen hamarrena ere bi eliza horiek jasoko zuten, seguru asko.

: [10] 1565ean, Isabel de Valois frantses printzesa Donostiatik igaro zen, Espainiara iritsi baitzen Felipe II.aren ezkontzera. 1615ean, Felipe III. a eta haren alaba Ana Austriakoa, Frantziako Luis XIII.aren ezkonduko zena, Donostiatik igaro ziren. Azkenik, Felipe IV.a eta haren alaba M^a Teresa, Frantziako Luis XIV.aren ezkonduko zena, Donostian izan ziren.

III

Zoriaren gurpila: 1700-1864

Miguel Artola

Goian

Kapitulu honetan aipatuko den garaian, ehun eta berrogeita hamar urte pasatxo, donostiarren zoriak bat-bateko jirabirak egin zituen, batzuetan alde eta besteetan kontra. XVIII. mendea urrezko aroa izan zen Donostiarentzat, eta haren distirari argi eta garbi antzematen zaio Santa Mariako basilikaren arkitekturan. Baina, mende horren bukaeran, gerra eta inbasio garai bat hasi zen; Donostia zeharo porrokatua gelditu zen, eta donostiarrak, berriz, miseria gorrian.

Donostia lur jota gelditu zen, beraz; haren balentriak eta egite handiak iraganeko kontuak ziren ordurako, baina, halako batean, zer-nolakoez beste *urrezko aldi* batera goratu zuten. Zoria halakoxe modu aldakorrean txandakatzea, ustez inolako trantsiziorik gabe, Fortuna jainkosak egina baizik ezin zitekeen izan, nonbait.

Gotorlekua

Karlos II.arenkin bukatu zen Austria etxearen ondorengotza Espainiako tronuan, ondorengo zuzenik gabe hil baitzen. Bera hil ondoren potentzia handiek Inperioa erdibanatuko zuten beldurrez, Karlos II.ak oinordeko sendo bat bilatu zuen hil aurretik, bere familiaren interesak alde batera utzita. Anjouko duke eta Luis XIV.a Frantziako erregearen biloba Feliperi eman zion erregetza -gerora Felipe V.a izango zenari-, hark halako lurralde handi-zabala desegiten utziko ez zuelakoan. Oinordeko hori izendatzeak larritasun handia sortu zuen Europako agintari guztiengan. Inperioa Borbon etxearen esku gelditu zen, beraz: Frantzia agintean zegoen dinastia beraren esku.

1701eko urtarrilaren 22an, Felipe V.ak geldialdi bat egin zuen Donostian, Madrilera bidean. Geroago, foruak beteko zituela zin egin zuen Batzar Nagusien aurrean, eta euskal probintzien pribilegio bereziak berretsi zituen 1704ko otsailaren 28ko Errege Zedularen bitartez. Baina errege berriak ez zuen erregetza bakezko giroan hartzerik izan. Tronua eskuratu ahal izateko, errege berriak gerra egin behar izan zuen, bai Italian eta bai Iberiako Penintsulan. Gerra hark ez zuen Gipuzkoan oihartzun berezirik izan, ezpada gudarosteak handik igaro zirela. 1713an Utrechteko ituna sinatzeak bakea ekarri zuen, baina potentzia handiek ez zuten itun hura askietsi. Frantziak ere errege berri haren nahikariei aurre egin behar izan zien, nahiz frantsesa zen, eta eraso jo zuen, odol loturak alde batera utzita.

Frantziak Berwickeko dukea bidali zuen Espainiara, 26.000 gizon bere agindura zituela, eta, 1719an, muga zeharkatu zuten Beratik. Ahalik eta kalte eta txikizio handiena egiteko agindua eman zieten. Irun, Hondarribia, eta Hernani mendean

hartu hondoren, uztaileen Iean Berwick Aieten kokatu zen, eta setioan jarri zuen Donostia. Handik hilabetera, donostiarrak errenditu egin ziren. Frantsesek ez zuten donostiarrak hil, eta haien ondasunak, libertateak, eta burujabetza errespetatu zituzten. Frantsesen eraso odolgiroa izan ez bazen ere, militarrek txikizio handiak egin zituzten, eta, haiek egon ziren bitartean, izurriek jende asko hil zuten Donostian.

Frantsesek bi urtez eduki zuten Donostia beren mendean. Haiek alde egin eta gero, Felipe V.ak harresiak konpondu eta hobetu zituen, Próspero Verboom flandriar ingeniariaren planoen arabera. Zurriola aldeko harresi berria izan zen haren berrikuntza nagusia.

Donostia hiri gotortua zenez, hantxe bizi izan zen 1646. urteaz geroztik kapitain jenerala edo probintziako buruzagi militar nagusia. Urte hartan aldatu zuen egoitza Hondarribitik Donostiako Amezketako etxera, izen bereko dorretik hurbil. Komandante nagusia -brigadierra- eta alkaidea edo gazteluko komandantea - kapitaina- ziren Gipuzkoako gainerako agintari militarrek.

Konpondu gabeko arazoa zen oraindik soldadu multzo handi hari hirian nola ostatu eman. Garaiak bakezkoak izan ala liskartsuak izan, hartara izaten ziren 500etik 2.000ra soldadu Donostian. Gazteluan alkaidearentzat eta 200 bat gizonentzat baizik ez zegoen lekurik, eta horiek *Macho* esaten zaion lekuan zuten bizilekua. Urgull mendian bazen beste kuartel bat, San Joango kuartela, hiriaren aldera, baina, 1740an, soldaduz hustu zuten, erortzeko bidean zegoelako. Badakigu harresietatik kanpo beste bi kuartel ere bazirela: San Rokekoa bata eta "Presidiokoa" bestea, harresiaren ondoan. Ez bata eta ez besteak ez zuten armetarako patioirik, eta, beraz, soldaduek Plaza Zaharrean egiten zituzten, ordu arte bezala, beren ariketak eta maniobrak, zibilen ukonduz ukondo.

//5. Donostiako hirigunearen eta gazteluaren planoak, 1728.

Merkatari hiria 1741ean, Itsasorako eta Indietako Estatuko Idazkaritza sortu zen Espainian. Iberiako Penintsulako kostak hiru barrutitan banatu zen itsas kontuetarako, eta Ferrol buru zuen barrutia egokitu zitzaion Donostiari. Itsas probintzia zenez, Itsasorako komisario bat izendatu zuten Gipuzkoarako [1]. Donostiako portuek ez zuten ia aldaketarik izan XVI. mendeaz geroztik. Kontxakoak eragozpen handiak sortzen zizkien edukiera handiko ontziei, haien zentratu ez baitzuten sakonera nahikoa, baina baita beste ontzi guztiei ere, olatuek eta itsaslasterrek gogor jotzen zituelako bazter hartan. Caracasko Gipuzkoar Errege Konpainia indarrean bete-betean zegoenean, Donostiako Kontsulatuak kai bat eraikitzea, Igeldoko ahoa ixtea, eta itsasargi bat egitea proposatu zuen. Lizardik eta Sánchez Bortek egin zituzten proiektu horien planoak. Baina, epeak hala aginduta, kargu berriak izendatu zituzten Kontsulatuan, eta orduan eratu zen zuzendaritza berriak asmo haiek geldiarazi zituen. Itsasargiarenak besterik ez zuten aurrera egin, eta hala jaso zuten Igeldokoa; 1777an hasi zen kostalde hura argitzen.

Santa Katalinako ibai portuan *ala* edo gabarra esaten zaien ontzi motak zebiltzan, gilarik gabeak. Atal bateko txalupa txiki lau eta zabal haiek ziren Urumeako bokalean zegoen barrak sortzen zuen oztopoa gainditzeko eta joan-etorrian ibiltzeko gauza ziren ontzi bakarrak. Urumean gora joaten ziren aurrena, Bizkaiko mea burdinoletara eramateko -Fagollagara batik bat-, eta egurrez beteta jaisten ziren gero Urumean behera. Kontxako portuan, berriz, salgaiak ontzietatik gurdietara aldatzen zituzten, eta idi gurdiz eramaten zituzten joan-etorrian ontzietatik burdinoletara eta burdinoletatik ontzietara.

Donostiako porturik onena Uli mendiko beste aldeko hegalean zegoen, Pasaian. Beste herri batzuk ere bazeuden portu hartara begira: Herrera -Donostiaren barnean zegoena-, Errenteriako Hiribildua, Oiartzungo harana, Lezoko Unibertsitatea, eta Pasai Donibaneko Hiribildu eratu berria -1770ean Hondarribitik bereizia-. Pasaiako itsas bazter osoan hainbeste udalherri egon arren, Donostiak zeukan beretzat bakarrik hartua ur haien jabetza eta eskubidea. Hala berretsi zuen Erregearen Kontseiluaren epai betearazle batek 1700eko apirilean. Pasaiako portuak zeukan azpiegiturari esker, Donostia zen berez Gipuzkoak, Nafarroak, eta, Nafarroaren bidez, baita Aragoik ere itsasora zuten aterabidea. Gaztelatik zetozen salgaiak, ordea, Urduñatik Bilbora desbideratzen zituzten, eta donostiarrek ez zeukaten bide harekin lehian ibiltzerik, askoz hobea baitzen.

Lehorreko komunikabideak oso kaskarrak ziren. Nola oso gaizki eginak eta ezin okerrago zainduak zeuden, zama arineko salgaiak besterik ezin ziren haietatik eramanez. Bide zolaren egoera txarrak sekulako astinaldiak eragiten zizkien salgaiei, eta, beraz, oso sendoak izan beharra zeukaten gorabehera haiekin ez hondatzeko. Irinak, egurra, lingoteak, haragi-arrain gazituak, armak... eta era horretako salgaiak baizik ez zituzten garraiatzen bide haietatik. 1760tik 1775era bitarte, Gipuzkoako probintziak Ibilgailuen Errepidea eraiki zuen: Madrilgo Gortea eta Irun -eta Paris- lotzen zituen bidearen azken tarteak, alegia. Francisco de Iberok proiektatu zuen errepide hura. Gipuzkoako bi portu nagusiak Donostian bazeuden ere, Iberok ez zuen Donostia aintzat hartu bere errepiderako. Donostiara errepide hartatik joateko, bigarren mailako bi bidetatik desbideratu beharra zegoen, Hernaniko Bidetik edo Errenteriako eta Herrerako galtzadatik.

Lehorreko komunikabideak asko hobetu zituen ibilbide berri hark. Baina, hala eta guztiz ere, itsaso bidezko garraioa lehorrekoa baino askoz ere hobea zen. Inguru haietako porturik onena, Pasaia, Donostiak zeukan, eta, hari esker, probintzia osotik kanpoaldera zihoan merkataritza osoa monopolizatu ahal izan zuen. Aurreko kapituluetan aipatu dugu Gipuzkoan labore gutxiegi zegoela bertako biztanleak ase ahal izateko. Erdi Aroaz geroztik, kanpoalderako salerosketa alea erostera zegoen bideratua, gipuzkoarrek jatekoa izan zezaten.

Gipuzkoarrek eta donostiarrek Lapurdira jotzen zuten gehienbat, eta han betetzen zituzten beren ontziak gariz, garagarrez, eta zekalez. Ordainketen balantza, ordea, desorekatua zegoen. Gipuzkoatik eramaten ziren salgaiek ez zuten dagoeneko interes handirik sortzen Europako merkatuetan, eta haien salmentak ez zuen ematen

atzerritik ekarritako hornigaiak eta bizigaiak ordaintzeko lain. Aurreko mendeetan, Euskal Herriko burdina landua oso estimatua zuten Europan, baina, 1752rako, Europako beste burdin mota batzuek gaina hartua zioten Euskal Herriko burdinari.

Ondasun handirik ez baitzuten Europan salgai eskaintzeko, gipuzkoarrek eta donostiarrek bitartekotza zerbitzuekin ordaintzen zituzten inportazioak; alegia, Nafarroako eta Aragoiko salgaien salerosketan jardunez. Ez daukagu salerosketa haien kopurua neurtzerik. Ez dago batere garbi ezta ere jarduera haiek sortzen zituzten irabaziek halako defizit handiak berdindu ahal izango zituztenik. Baina gauza ziurra da, nolana ere, Gipuzkoa, nekazaritzaren aldetik urria bazen ere, nahikoa eta gehiago hornitua zegoela itsasoz.

Aise antzeman daiteke ordaintzen eta irabazien arteko balantza horretan bazegoela kontu sail bat erabakigarria; irabazi gehienak ematen zituena, baina aldi berean ezkutuen: kontrabandoa. Erregea portuetako irteerak eta sarrerak zorrotzago kontrolatzen saiatu zen. Finantza publikoei egiten zitzairen iruzurra gelditzeko erabaki sendoa hartu zuen Borbon etxearen administrazioak, eta, beraz, aduanak kostako lerroa eraman zituen, aduanak portuetan kokatuz errazago zaindu eta ikuskatu baitzitezkeen salerosketako harreman guztiak.

1718ko otsailaren 13an, Campofloridoko markesak Donostiako aduanak inauguratu zituen, eta, handik astebetera, Bizkaikoak. Estatuak bertakoen pribilegioak errespetatu eta bete zituen betiere; alegia, bai alea zergarik ordaindu gabe ekarri ahal izatea eta bai burdina esportatzerakoan ere zergarik ez ordaintzea. Alferrik izan zen, ordea: Bizkaia eta Gipuzkoa matxinatu egin ziren, eta Batzar Nagusiek, matxinatuekin ados egonik, ez zuten ezer egin matxinada hura zapaltzeko. Berwickek Donostia mendean hartu zuenean, ez zen bete mugak lekuz aldatzeko erabakia. Frantsesek alde egin zutenean, Espainiako agintariek mugak berriz barrualdera eramatea erabaki zuten, Ebrora, eta han ezarri ziren 1722ko Errege Agindu baten bitartez.

Kontrabandoak indarrean jarraitzen zuen, eta Espainiako Finantzen Idazkari Patiñok Gipuzkoako probintziarekin negoziatu zuen, kontrabandoari aurre egiteko eta haren eragina mugatzen saiatzeko. Patiñok, azkenean, lortu zuen Batzar Nagusiek bere gain har zezaten kontrabando mota zabalduenetako baten aurka borrokatzeko konpromisoa: Baionatik eta Donibane Lohitzunetik ekarritako tabakoaren kontrabandoaren aurka. Konpromiso horren ordainetan, Gipuzkoak Amerikatik kolonietako salgaiak inportatzeko baimena lortu zuen: kakaoa, banilla, txokolatea, azukrea, kanela...[2].

Gipuzkoarrek berehala sumatu zuten Amerikako portuekin tratua zuzenean egin beharra zeukatela, salerosketa hari ahalik eta etekin handiena ateratzeko, zeren eta salgai berberaren prezioak alde handia baitzuen Amerikan erosiak izan ala Cádizen erosiak izan. Baina, halako ekinaldi handiak aurrera egingo bazuen, Erregeak ontzat eman beharra zeukan, eta, gainera, ordu arte sekula behar izan ez ziren dirutzak behar ziren. Gipuzkoarrek Holandako eta Ingalaterrako *Indietako Konpainien*

eredua hartu zuten. 1728an, Caracasko Gipuzkoar Errege Konpainia sortu zuten. Akzio bidezko merkatari elkarte bat zen hura, Venezuelara urtean bi ontzi bidaltzeko ahalmena zeukana, kolonietako salgaiak salerosteko [3]. Amerikatik itzultzerakoan, bi ontzi horiek Cádizetik igaro beharra zeukaten salgaiei zegozkien eskubideak ordaintzeko.

Koroak kortso zeritzan agiria eman zion Caracasko Gipuzkoar Konpainiari; alegia, gobernuaren babesean kortsario gisa erasoaldiak egiteko baimena eman zion, hori baitzen kortso agiri hura. Era horretara, Koroak aukera egokia zuen Venezuelako kostetan aritzen ziren holandar kontrabandisten aurka ekiteko. Caracasko Gipuzkoar Konpainian baziren 300 tonatik gorako edukiera eta suzko 50 aho zituzten fragatak -Venezuelara urtean bitan bidal zitzaizketen merkataritzako bi ontziak-; baziren gaztelaniaz *jabeque* eta euskaraz *xebeka* esaten zitzaaien hiru mastako ontzi itsasbaterrekoak, arraunez ere bazebiltzanak, eta bailandrak ere bai; bi ontzi mota horiek 10 kanoi edo gutxiago zituzten, txikiak eta bizkorrak ziren, eta haiekin aise egiten ziren maniobrak. Fragata handien lagun joaten zen ontzidi laguntzaile bat zen hura. Behar izanez gero, babesa ematen zieten, eta, gainera, erraz sartzen ziren Ameriketako ibaietan eta itsasadarretan. Konpainiak berak egin zituen bere ontziak Pasaiaiko ontzioletan.

Ekinaldi hark arrakasta handia izan zuela ikusita, Koroak pribilegio gehiago eman zizkion. Hurrengo urteetan, Cumanára eta Margarita eta Trinidad uharteetara zabaldu zuen Caracasko Gipuzkoar Konpainiak salerosketan libre jarduteko zeukan eremua. Itsasontzi haiek Amerikarako bidaiak baliatzen ziren kreolek edo europar gurasoengandik jaiotako amerikarrek eskatzen zituzten Europako produktuak hara eramateko.

Euskal Herriko burdina eta hartatik eratorritako produktuak berehala izan ziren eskatuenetakoak. Gainerakoan, kontsumorako salgaiak eramaten zituzten euskaldunek Amerikara, ehunak eta hornigaiak batik bat, Gipuzkoan ekoizten ez zirenak. Hortaz, negozio hark, Konpainiari berari irabazi handiak eman bazizkion ere [4], ez zion proportzio eta neurri berean irabazpiderik ekarri Gipuzkoako ekonomiarri.

Ontzigintza izan zen Caracasko Gipuzkoar Konpainiak Gipuzkoako ekonomian izan zuen eragin nagusia. Neurri handiko ontzi kroskoak Pasaian baizik ezin zitezkeen egin, eta han zazpi ontziola ere izan ziren. Haietako bik, *Barrio Vizcaya* eta *Sableo* esaten zitzaizkien, bi zubiko ontziak egin ere zituzten. Konpainiak 24 fragata eginarazi zituen Pasaiaiko ontzioletan. Bestalde, portua baitzen Amerikarako joan-etorri guztien erdigunea, Donostiak irabazi handiak ateratzen zituen portuan zituen eskubideetatik, ez baita ahaztu behar beretzat bakarrik hartua zeukala hura erabiltzeko baimena. Konpainia ahaltsu hark beste negozio batzuk ere sorrarazi zituen: txokolate fabrika txikiak, Europako salgaiak inportatzen zituzten enpresak -gero Amerikan banatzeko-, eta portuko eta itsasketako joan-etorriarekin zerikusia zuten langintza guztiak.

1779ko apirilean, Frantzia eta Espainia gerran hasi ziren Ingalaterrarekin, Estatu Batuen independentziaren alde. Rodney britainiar almiranteak Kantauri itsasoko kosta oztopatu zuen, eta Caracasko Gipuzkoar Konpainiaren 25 itsasontzi harrapatu zituen. Hurrengo urteetan, itsaso bidezko ontzien joan-etorria oso moteldu zen, eta baita ito ere, eta horrek oso eragin kaltegarria izan zuen kolonien eta metropoliaren arteko harremanetan.

1782 eta 1783 urteetan, Konpainiak Holandako banderapean egin zituen bidaldiak. Hurrengo urtean, desegin egin zen. Enpresaren ondasunen eta hartzekoen zati bat gordailuan jarrita zegoen San Carlosko Bankuan. Diru horiek enpresa berri bat sortzeko erabili ziren: Filipinetako Konpainia. Enpresa hori 1785ean sortu zen, aurreko enpresak kolonietan zituen negozioak aurrera ateratzeko azken ahalegin gisa. Eta, beraz, pribilegio bat lortu zuen, 1790. urtea arte merkataritzan aritzeko eremua Caracaseraino zabaltzeko. Aukera horri esker, urte batzuk lehenago han utzitako ondasunak eta errentak berreskuratzen saia zitekeen enpresa berri hori.

Baina, ordurako, Koroak merkataritzan aritzeko ematen zituen era horretako pribilegioak zeharo bestelakotuta zeuden. 1778. urteaz geroztik, Iberiako Penintsulako portuek bazuten Amerikako ia kostalde osoarekin libre salerosteko ahalmena. Erabaki hark ez zituen ez Bilbo eta ez Donostia kontuan hartzen, probintzia *salbuetsiak* izatea haien kalterako interpretatu baitzuten legegileek.

Estatua ahalegin bizian zebilen berriz lurralde historikoak estutzen, hala amore eman zezaten eta barrualdeko foru aduanak kostara alda zituzaten. Aduanak Ebron zeuzkaten bitartean, euskal probintziak atzerritartzat hartuko zituen estatuak. Eta, atzerritarrak baldin baziren, zegozkien mugako zergak ordaindu behar zituzten. 1779an, Iberiako Penintsula barruan merkaturatu zen Euskal Herriko burdinak aduanako eskubideak ordaindu behar izan zituen, erabaki horren ondorioz; eta orobat ordaindu behar izan zituen eskubide horiek 1780an Donostiak ekarri eta Gaztelan eta Aragoian banatu zuen kakaoak.

Aduanak kostan ez jarri izana hartu zuen aitzakiatzat estatuaren administrazioak 1783an Gipuzkoari Amerikarekin salerosketan libre aritzeko eskubidea ukatzeko, nahiz Iberiako Penintsulako gainerako portu guztiak zuela bost urtez ari ziren eskubide horiez gozatzeko. Pixkanaka-pixkanaka, Donostia ibilbide handietatik eta ekonomiako sare indartsuenetatik aparte geratzen ari zen.

Hiria: Hirigintza eta gizartea

Donostia berez hiri militarra izateak tankera berezia eman zion hango hirigintzari. Debeztatuta zegoen harrizko eraikuntzak jasotzea harresietatik 1.500 kanako eremuan (1.225 metro), distantzia hori baitzen kanoi bala batek gehienez ere irits zezakeen bitartea; debeku horren bidez eragotzi nahi zen etsaien artilleriak babeslekuren bat izan zezan Donostiari eraso nahi izanez gero. Arrazoi beragatik, hirigunearen mugakide ziren auzoak -Santa Katalina, San Martin, eta Antigua- babeserako ingurutzat zeuzkaten izendatuak agintariak, eta, beraz, hango etxeak

adobez eta zurez baizik ezin zitezkeen eraiki. Era horretara, inork Donostia setioan jarriz gero, hiriaren defendatzaileek erraz desegin zitzaketen auzo horiek, etsaiari babeslekurik ez uzteko.

Harresien barruan, eraikinak gero eta altuagoak ziren. Hasierako ordenantzek debekatuta zeukaten etxeak harresiak baino altuagoak izan zitezkeen. Baina, biztanleria gero eta gehiago hazten ari baitzen, agintariek etsi egin behar izan zuten, eta etxeak goratzeko baimena eman zuten. 10.000 lagun bizi ziren pilatuta 625 eraikinetan, eta etxe haietako batzuk bost edo sei solairukoak ziren.

Ura zen donostiarren arazo nagusia. Donostia aldeko lurretan baziren donostiarrek urez hornitzeko bezainbat akuifero, baina putzuek kalitate txarreko ura ematen zuten. Garai batean, agintariek ura Morlansetik ekartzeko lotune bat egin zuten, aurrenekoa. Ageriko akueduktu baten bidez ekartzen zuten ura harresiraino. Han sei kanilako iturri batera isurtzen zen, bai ugari isuri ere, eta handik hartzen zuten ura harresi barruko donostiarrek. Hala eta guztiz ere, morroi-neskameak zituzten familiek Urumearen beste aldetik ekarrarazten zuten ura, Txofreko iturritik. Hango urek ospe handia zuten, eta goi mailako familia guztien etxeetan ur hura edaten zuten.

XVIII. mendeak Donostiako hirigintzara ekarri zuen berrikuntzarik handiena erdi-erdian egin zen Plaza Berria izan zen, gaur egun Konstituzio Plaza esaten zaiona. Hura eraikitzeke, hamaika gorabehera eta oztopo izan ziren: auziak, maileguak eskatzeko finantza eragiketak, orubeak hustu eta erosi beharra... 1719an Berwick frantses militarrek Donostia mendean hartu zuenean, eraikuntza lan haiek bertan behera utzi zituzten, eta ez zituzten berriz abian jarri 1823 arte. Hércules Torrellik asmatu eta antolatu zuen plaza hura, eta haren zantzuak nabarmenak dira gaurko Konstituzio Plazan. Plazako mendebaldeko atalean Udaletxea zegoen, Torrellik berak egindako eraikin barroko bikaina. Eraikin hura Udalaren eta Kotsulatuaren egoitza izan zen. Beheko solairuko arkuetan alondegia ipini zuten, eguraldiaren gorabeheren babesean.

Plaza Berri hura berehala erabili zen aisiarako eta jendarteko harremanetarako. Ordu arte, Plaza Zaharra erabiltzen zuten donostiarrek horretarako, baina leku desegokia zen hura, militarren maniobrek eta herritarren joan-etorriek elkarri enbarazu besterik ez baitzioten egiten. Plaza Berriaren oin angeluzuzena biltoki egokia izan zen donostiarrentzat, eta berehala jarri zuten han zezen plaza berria, herritarren gozamenerako.

Arte erlijiosoak beste eraikin bikain bat izan zuen mende hartan: Santa Mariako basilika. Gure egunetaraino gorde den eliza orube hartan bertan Ama Birjinari eskaini zitzaizkion beste eraikin zahar batzuen gainean jaso zuten. Donostiako Kotsulatuak Pedro de Lizardiri eta Miguel de Salazarri eman zien, 1743an, lan hura egiteko ardura, eta berak finantzatu zuen haren kostua. Arkitektoek elizaren oina zabaldu zuten, ordu arte klaustorako erabili zen eremuaren zati bat erantsi

baitzioten. Eraikin barroko berri hark ez zuen klaustrorik. Francisco de Iberok bukatu zituen, 1746an, eliza hura eraikitzeko lanak.

//6. Torrellik eraikitako udaletxea.

Aipatu ditugun horiez gainera, Donostian ez zegoen monumentu aipagarri askorik, hauek izan ezik: elizetako eta komentuetako eraikuntza lana, Mollako lonja, Trinitate kaleko espetxe publikoa, Zurriolako hiltegia, eta Presidioko eta San Rokeko kuartelak. Jauregien artean bikainena Idiáquezkoa zen, Kale Nagusian, eta hura izaten zen errege-erreginen egoitza Donostiara etortzen edo Donostiatik igarotzen zirenean. Portuan Kotsulatuaren biltegia zen eraikinik nabarmenena, Spanochiren harresitik urrutien zegoen muturrean.

Donostiako gizartea piramide moduan zegoen antolatua, mailaz mailako gizarteek ohi duten bezala. 1799an gizona buri buruz egin zen galdeketa batean ageri denez, 56 titulu eta premu zeuden gizartearen goiko mailan, eta horiek errentetatik bizi ziren. Pribilegiatu multzo horrez gainera, goi mailako merkatariak eta erregearen ofizialak zeuden piramide haren erpinean. Guztira, ez ziren berrehun lagunetik gora izango. Gero, maila apalxeagoan, apaizak zeuden. Haietatik, 69 elizgizon sekularrak ziren -alegia, ez zeuden monasterio edo ordena baten araupean-, eta 25, berriz, erregularrak, monasterio edo ordena baten araupean. Erlijiosoen komunitateek, bai emakumezkoenak eta bai gizona zoenak, mende asko zeramatzaten Donostian, Jesusen Lagundiak izan ezik. Baina, jesuitak Donostian aspaldi kokatuak ez baziren ere, gogotik lotu zitzaizkion lanari, sermoiak egiten, mezak ematen, otoitzaldiak antolatzen, eta irakaskuntzan. San Bartolomeko monasterioa zen Donostiako monumentu nagusietako bat; haren fatxada ere Torrellirena zen. Goi mailako familietako alabak baizik ezin ziren han sartu. Inkisizioak bi ordezkari zituen Donostian, *mendekoak*. Uste izatekoa da ez zutela zeregin handirik izan.

2.000tik gora gizon aritzen zen eguneroko eta sasoiko nekazaritzako lanetan hiri osoko biztanleen mantenurako. 330 lur jabe edo lurra errentan hartzaile eta beste horrenbeste morroi aritzen zen nekazaritzako lanetan [5]. Nekazaritzako sektore horretan aritzen ziren Donostiako langile gehienak. Negozioen sektorean ere jende mordoa ibiltzen zen lanean, eta horrek argi eta garbi adierazten du zein indar handia zuen merkataritzak Donostian.

Galdeketa hartan ez zen emakumezkoen lana aipatzen. Uste izatekoa da emakume gehienak etxeko lanetan aritzen zirela. Inguruko baserrietako emakume baserrietarrak egunero joaten ziren Plaza Berrira barazkiak saltzera. Baserrira itzultzerakoan, donostiarren arropa zikinak eramaten zituzten baserrietara, han garbitzeko. Buru gainean ekartzen zituzten gero atzera Donostiara, fardel handietan tolestuak. Larunbata izaten zen arropa garbi gehien eramaten zuten eguna. Duela mende askotik emakumeek baizik egiten ez zuten beste lan gogor bat Pasaiako batelariena zen. Emakumeek arraunean eginez eramaten zituzten bidaiariak txalupan Herreratik Pasaiara. Hura zen badia zeharkatzeko biderik erosoena eta azkarrena.

Ilustrazioaren higikunde intelektuala XVIII. mendeko gertaera berezi bat izan zen. Gipuzkoan, higikunde hura Euskalerrriaren Adiskideen Elkartean gorpuztu zen. Frantses akademien tankerako elkarte hura Peñafloidako kondeak sortu zuen, 1764an, eta Bergaran izan zuen egoitza. Elkarte hura hartu zuen eredutzat izen bertuko Madrileko elkarteak: *Sociedad Económica de Amigos del País de Madrid*. 1777an, Donostiak lortu zuen Euskalerrriaren Adiskideen Elkarteak diru laguntza eman ziezaion Donostiako Marrazki Eskolari. Elkarte hura Nautika Eskola berriz irekitzen saiatu zen Kontsulatuaren laguntzaz, baina, baliabiderik ez zegoenez, ekintza goresgarri hura asmo hutsean gelditu zen.

Erregimentua, Udala eta Auzo batzarra

Erregimentua zen Donostian agintzen zuen erakundea. 1747ko Ordenantza Berezien Bildumak esaten digu nolakoa zen erakunde hori, eta nolakoak ziren garai hartan indarrean zeuden legeak. Bilduma horretan esaten denez, pertsona jakin batzuen batzarra zen Erregimentua, eta hark zeukan hirian aginte gorena. Bi alkate, lau errejidore [6] eta bi zinpeko nagusi zituen, eta azken bi horiek zorro batean sartutako botoak atereaz aukeratzen zituzten. Bi teniente aritzen ziren lehenengo ordezko. Horiek denak kargu publikoak ziren, hiriaren ordezkariek. Karguak urtebeterako ziren, eta ezin zen ez epe hori luzatu eta ez karguan berehala berriz aritu, harik eta denbora tarte bat iragana zen arte. *Kapitular* esaten zitzaien, eta jaun gisa tratatzen zituen jendeak.

Kapitular horiek aukeratzen zituen hautesleen errolda odolez aitoren semeak zirenentzat zegoen gordea, eta kristau zaharrak eta ondare ezagunekoak ere izan behar zuten; *millarrak* esaten zitzaien [7]. Beren agintaldian udalaren ondarea kudeatu behar zuten, eta arauak ematen zituzten, bai betearazi ere, erregearen onespenearekin edo gabe. Erregimentuaren egoitza Torrellik Plaza Berrian egin zuen eraikin berrira aldatu zen. 1732 arte, Erregimentuak Santa Teresako komentuko elizako koruan egiten zituen bilerak, eta, handik aurrera, Trinitate kaleko etxe batean. Ofizialak ere -sindikoa, eskribaua...- bilera haietara joaten ziren, eta enplegatu haiei hiriak ordaintzen zien beren lana.

Udalaren gobernuak beste bi bilera mota zituen, haietara joaten ziren karguen araberrakoak. Kapituluko bileretan bizilagun berezien kopuru zehaztu gabe bat biltzen zen garrantzi handiko egoeretan: *derramak* egin behar zirenean, erroldak egin behar zirenean, ordenantza berriak egin behar zirenean... Halakoetan, bilerari Udalbatza esaten zitzaion.

Karlos III.ak Erregimentuko kide kopurua aldatu zuen, eta bost kide gehiago erantsi zizkion: prokuradore sindiko bat, hitz egiteko eskubidea zuena baina botoa emateko eskubiderik ez zuena -herriaren ordezkarri moduko bat zen-; eta herri xeheko lau diputatu, hitz egiteko eta botoa emateko eskubidea zutenak, baina hornidurei zegozkien erabakietan besterik ez. Azken horiek noizbehinka besterik ez ziren agertzen Donostiako Erregimentuan, eta, 1779tik aurrera, kargu haiek kendu egin

zituzten. Prokuradore sindikoak garrantzi handiko zeregina zuen, batez ere eraikuntzako ordenantzak betearazterakoan [8].

Donostiak bere ondare propioa zuen. Hiriak zeuzkan errentak udalaren diru kutxarako erabiltzen ziren. Baina ondare horri buruz ez dago, gainontzean, bestelako berririk. Donostiak Hernaniko eta Urnietako hiribilduekin batera zeukan Urumeako mendien jabetza. Uste dugu Igeldo eta Uliá, eta, agian, baita Zubieta ere, Donostiako hiriarenak izango zirela, baina hiru lur sail horien aipamenik ez dago Donostiako 1780ko *propio*en edo ondasunen zerrendan. Badira, ordea, zergen errenten eta hiriak haragi eta arrain kontuetan zuen monopolioaren eta etxeen alokairuak sortutako errenten aipamenak.

XVIII. mendearen erdialdera, udalaren finantzen egoera oso kezagarria zen, defizit kroniko larrian baitzeuden. Donostiak 231.000 dukaterainoko zorra zuen hainbat mailegarirekin, batez ere erlijiosoen komunitateekin. Hiriak Erregimentuaren zergak eta *propioak* zeuzkan, besteak beste, berme gisa eskainiak. Urteroko korrituak ordaindu beharrak arriskuan jartzen zituen Erregimentuaren ondareak ematen zituen errentak. 1758an, Erregimentuaren Kontseiluak ahalmena eman zion Pedro Cano Mucientes korrejidoreari Donostiako Erregimentuaren kontuak aztertzeko eta bide onera ekartzeko. Gizon hark aurrekontu zehatz bat egin zuen, eta mugako zergak zertxobait ukitu zituen, geroztikako balantzeak orekatu ahal izateko.

Gizarteko laguntza erlijiosoen komunitateen esku zegoen gehienbat. Behartsuenei era askotara laguntzen zieten: umezurztegien eta ospitaleen bitartez, komentuen ateetan jatekoa dohainik emanez... XVIII. mendea bitartean, Donostiako Erregimentuak hartu zituen pixkanaka-pixkanaka bere esku zeregin horiek. Erruki etxea Auzo Aberatsen Batzar baten esku utzi zuen 1714an.

San Antonioko ospitalea ere udalaren zerbitzura zegoen. Hasieran, Santa Katalinako zubiaren ondoan zegoen, baina, Karlos III.aren erreinaldian jesuitak bota zituztenean, ospitale hori jesuitek Trinitate kalean zeukaten Josulagunen Etxera eramane zuten. Udalak bere esku hartu zuen orobat irakaskuntza, bai oinarrizko irakaskuntza eta bai Kontsulatuaren Nautika Eskola (1765).

Hiria, Probintzia, eta Koroa

XVIII. mendean udalerriek probintzian zuten pisu politikoa Batzar Nagusietan bakoitzak zuen boto kopuruaren arabera neurtzen zen; alegia, zeinek bere barrutian zuen *su* proportzioaren arabera. Donostiak Batzar Nagusietako boto guztien %9,15 zituen, bere *su* edo etxeei zegokien kopurua. Foru gastuetarako eman beharra zeukan diru kopurua proportzio berean zegoen [9].

Mende horretan, Diputazioak aldaketa handia izan zuen. 1747 arte, txandako hiribilduko agintariek baizik ez zuten eratzen Diputazioaren agintea. Harrezkero, txandatik kanpo zegoen hiribildu bakoitzaren ordezkari bat eta txandako hiribildu ez zirenen lau ordezkari erantsi zitzaizkion Diputazioaren aginte batzarrari. Guztira,

kargua urtebeterako zuten hamaika lagunek gehi korrejidoreak eratzen zuten aginte batzar hura. 1759an, Donostiak txosten bat aurkeztu zuen bi erakunde horiek egoitza Donostian har zezaten. Diputatu nagusiaren karguak gero eta garrantzi handiagoa izan zuen, eskumen asko hartu zituen bere gain, eta eskumen haiek denak araututa gelditu ziren 1780an Zarautzen egin zen bileran.

1766ko matxinadak sortu zituen istiluetan eta iskanbiletan Donostiak aukera ezin hobea izan zuen Koroari bere atxikimendua adierazteko. Esquilacheko markesaren erabaki batek sorrarazi zuen matxinada hura. Haren ustez, biztanleak hobeto hornitu zitezkeen janariz baldin eta alearen prezioa libre uzten bazen. Laborearen prezioa igotzeak bultzada handia emango omen zion merkatuari, zeren eta, markes horren ustean, produkzioa gehituko eta salerosketak bizkortuko baitzituen. Erregearen Kontseiluak ontzat hartu zuen erabaki hura, eta 1765eko ekainean finkatu zen salerosketen askatasuna.

1766ko martxoan hasi ziren Espainiako hainbat tokitan istiluak, herritarrei zuzenean egin baitziren kalte alearen prezioa igo izanak. Gipuzkoan matxinada apirilaren 15ean hasi zen, Loiola inguruko herrietan batik bat. Matxinoek astebete baino gutxiago behar izan zuten probintziaren barrualdea beren mende hartzeko. Donostiatik hirurehun gizoneko batailoi bat abiatu zen matxinada zapaltzeko. Herritar soilez eraturako konpainia batzuk zituzten lagun; guztira, beste hirurehun gizon. Bidean, Peñafloidako kondea, San Millaneko markesa, eta Narrosko markesa bildu zitzaizkien. Gudu talde hura 70 presorekin itzuli zen Donostiara. Probintziako agintariek alea libre salerosteko eskubidea zegoela eman zuten aditzera. Liskar hartan Donostia erabakitasun handiz ari izan zen lege aldaketa haren alde. Gatazka hura bukatu zenean, Donostia indartuta atera zen, irabazleekin bat egin baitzuen.

Behean

Mendearen amaiera

XVIII. mendean Donostiaren goraldia bultzatu zuen eredu ekonomikoak porrot egin zuen mende haren azken hamarraldietan. Merkataritzak eta azpiegiturek lur jo zuten hainbat gertaeraren eraginez: Ingalaterraren aurkako gerra, kolonietan izan zen politika berria, frantsesek Gipuzkoa mende hartu izana, Donostiak Pasaia galdu izana...

1778an Iberiako Penintsulako portuak Amerikarekin salerosketan libre aritzen hasi izanak zeharo indargabetu eta deuseztatu zituen Caracasko Gipuzkoar Konpainia eta antzeko enpresa pribilegiatuak. Bestalde, Koroa merkataritzarako askatasunaz baliatu zen aduana bakarrak kostan izango zituen nazio merkatu bateratu bat nahitaez sortzeko.

Caracasko Gipuzkoar Errege Konpainia itxi izanak eragin kaltegarria izan zuen Donostiako merkatarien jardunean, eta, hala, bide berriak bilatu behar izan zituzten.

Donostiak uste izan zuen Amerikarekin salerosketan aritzeko baimenak onura handiak ekarriko zizkiola, eta hala berdindu eta gainditu ere ahal izango zituela foru aduana zaharrak barrualdetik kostara ekartzeak egingo zituen kalteak. Koloniek salerosketan libre aritzeak eskaintzen zituen aukerak ondo pisatu eta aztertu zituen, eta, hartara, Espainiako ekonomian sartzearen alde egin zuen. Erabaki horren kontra zeudenek Gipuzkoan esportatzeko salgaiak ez zegoela argudiatu zuten, eta foruen babespean gipuzkoarrek zuten bizi kalitate ona ere gogorarazi zuten.

Konbentzioaren Gerrak eztabaida hura eten zuen. Kostako merkatariak eta barrualdeko lur jabeak aurrez aurre zeuzkan jarrera elkarren aurkakoak garbi definituta zeuden ordurako.

1789an, Frantziako Iraultzak Erregimen Zaharraren oinarri politikoak eta legezkoak deuseztatu zituen. Gertaera haiek hain bizkor gertatu ziren, non inguruko monarkiak txundituta utzi baitzituen, iraultza haren bilakaerari harri eta zur begira, zer egin ez zekitela. Iraultzaileek gizabanakoa goratu zuten -Gizonaren eta Herritarraren Eskubideen Adierazpena, 1789-, monarkia parlamentario bat ezarri zuten -1791ko Konstituzioa-, eta Errepublika aldarrikatu zuten, 1792an. Luis XVI.a 1793ko urtarrilean hil izanak Europako potentzien uste okerrenak berretsi zituen. Berehala hasi ziren gerran Frantziako Errepublikarekin, baina ez zuten aldez aurretik elkar hartzeko edo gutxieneko hitzarmen bat egiteko ardurarik izan. Herrialde bakoitzak bere kabuz ekin zion Frantziaren aurkako erasoari, eta Espainiak ere bai. 1793an -gerra hartako lehenengo urtean, alegia-, ez zen Bidasoako mugaldean gerrak eragindako joan-etorri handirik izan.

1794ko udan, frantsesek erasoak jo zuten mendebaldeko Pirinioetan. Frantses Konbentzioaren armadak, Muller buruzagi zuela, Bera, Hondarribia, eta Donostia -abuztuaren 4an- mendean hartu zituen, inolako erresistentziarik gabe. Abuztuaren 9an Tolosa hartu zuen, aldez aurretik Billabonan guduan aritu ondoren. Lurrealde horiek Konbentzioaren agintepean gelditu ziren. Konbentzioak ordezkari berezi batzuk izendatu zituen hiribildu haietan agintari. Ordezkari haien boterea mugagabea zen, zergei zegozkien erabakietan, batez ere.

Donostia izan zen Frantziako gobernu iraultzaileak Gipuzkoan zuen erdigune politikoa, han hartu baitzuten bizilekua agintariak. Abuztuaren 16an, Zaintzarako Udal Batzorde bat eratu zuten, hamabi kidek osatua; gehienak frantsesak ziren. Izenez besterik ez zen udal batzordea, zeren eta mendean hartutako lurralde osoan baitzeukan aginpidea eta eskua. Irailaren hasieran, herritarrak matxinatu egin ziren Donostian. Agintariak elizgizon batzuk eta herritar batzuk atxilotu zituzten, matxinadaren eragile izatea egotzirik, eta Baionara eraman zituzten bahitu gisa. Gertaera hori aitzakiatzat harturik, agintariak elizgizonen ondasunak harrapakatu zituzten. Ordu arte, emigratuen jabetzak bahitu, hartu edo saldu besterik ez zituzten egin [10].

1794ko eta 1795eko neguan, Donostia gerra egoeran egon zen. Frantziako Errepublika pentsatzen hasia zegoen mendean hartutako lurralde hura

Frantziarentzat beretu ala ez. Egoera larri hura ikusirik, Espainiako Koroak, berandu bazen ere, frantsesekin itun bat egitea erabaki zuen, lurralde hartatik frantsesak nola erretiratuko ziren erabakitzeko. Manuel de Godoy Karlos IV.aren balidoa aritu zen Espainiako erregearen izenean negoziatzen. Negoziazio haien ondorioetako bat San Ildefonsoko Hitzarmena izan zen, 1796an sinatu zena, Napoleon Frantziako buruzagi zela. Hitzarmen haren bidez, Espainia Frantziaren eskumakila bihurtu zen, eta Frantziak Ingalaterrarekin izan zituen liskarretan nahitaez borrokatu behar izan zuen Frantziaren alde [11]. Frantziaren eta Ingalaterraren arteko gerra haietan Espainiak bere historiako porrotik handienak jasan behar izan zituen: Trafalgarrekoa, adibidez, 1805ean.

Frantsesen okupazioak eta harrapaketak kalte handiak egin zituen Donostian, Baina askoz handiagoak izango ziren handik urte gutxira, 1805ean, Donostiak izango zituen kalteak. Urte hartan, Pasaia Donostiatik bereizi zen. Horrela bukatu ziren mende askotan Pasaiaiko portuaren eskubideari eta eskumenari buruz inguruko herrien artean izan ziren liskar gogorak. Aldez aurretik, Vargas Ponce itsasgizon eta historialariak txosten bat egin zuen auzi hari buruz. Itsas bazter hartan hiribildu berri bat sortzearen alde zegoen txosten hura; han bertan zegoen Pasaiaiko hiribildua -1770ean Hondarribitik bereizi ondoren sortu zena- eta izen bereko lekua -Donostiarena zen itsas bazterra- bilduko zituena. Vargas Poncerentzat, Donostiak portuan zituen interesak neurritz gainekoak ziren eta zuzen kontrakoak, eta kaltegarriak gehien onerako.

//7. Pasaiaiko portuko planoak, 1778.

1814an, Donostia Pasaiaiko portua berreskuratzen ahalegindu zen, Fernando VII.a erregea estutuz. Baina ez zuen sekula berreskuratu leku ezin egokiago hura.

Hondamena eta berreraikitzea

Setioa eta sutea (1813ko uztaila-abuztua)

Napoleonek hainbat hitzarmenetan sarrarazi zuen Espainia, eta hitzarmen horiek, azkeneko, Fontainebleauko Ituna ekarri zuten. Itun hartan bazen erabaki iraingarri bat Ingalaterrarentzat, zeren eta Frantziak eta Espainiak Portugal erdibanatuko baitzuten, eta Portugal baitzen Ingalaterrak kontinentean zuen babesle nagusia. Beraz, frantses armadak Iberiako Penintsula zeharkatu beharra zeukan Portugalerako bidean. Baina, zeharkatu ez ezik, berehala antzeman zitzaion frantses gudarosteari Espainiako lurraldeak ere mendean hartu nahi zituela. 1808ko martxoan, frantsesak Donostian kokatu ziren. Oraingoan, udalaren agintea errespetatu zuten, baina udalak ezin izan zuen ezer egin egoera berri hark sorrarazi zituen ondorio kaltegarriak eragozteko: zerga bereziak ordaindu behar izan baitzituen eta zerbitzu bereziak egin soldaduei, bai ospitaleetan zainduz, bai ostatu emanez, bai batera eta bestera garraiatuz...

Handik lau urtera, Errusiako frontean soldadu gehiago behar zituela eta, Napoleonek berehala atera zituen Espainiatik soldadu oste ugariak, bere gudu gizon onenak, ekialdeko gerra ekinaldira laguntzera joan zitezten. Wellington ingeles jenerala egoera horretaz baliatu zen 1812an, Madrilen sartzeko. Aurre egin zien frantsesei, eta haiek atzera egin zuten, Irunerantz, errepidean barrena. Gasteizen aurre egin zioten Ingalaterrako armadari, eta, gudu hura galdu ondoren, talde txikietan sakabanatu ziren, baina ez zuten talde horiek denek mugaraino iristerik izan. Soult mariskalari, erreinuko ordezkari militarren titulua zuelarik, Iruña eta Donostia bere mendean gordetzeko agindua eman zioten. Etsaiei eutsi behar izan zien, Fernando VII.arekin ustez hastekotan ziren negoziazioen zain.

Frantsesek ez zituzten Donostiako babeslekuak hobetu, baina artilleria indartu zuten, eta soldadu gehiago ekarri zituzten. 1813ko udan, 3.000 soldadu ondo trebatu eta ehun bat artillero zituzten Donostian. Uztailean, soldadu eta hornigai gehiago iritsi ziren Donostiara, ingelesak erasotzeko zorian zeudela ikusita. Rey jenerala zen Frantziako armada haren buruzagia. Wellingtonek, hasieran Iruñera joateko asmotan bazegoen ere, Donostiara jo zuen azken unean. 10.000 gizon bildu zituen, ingelesak eta portugesak, eta setioan jarri zuen Donostia.

//8. Donostia Wellingtonen armadak setiatua, 1813ko uztaila eta abuztua.

San Bartolomeko monasterioak, Santa Klara uharteak, San Frantziskoko komentuak eta Santa Katalinako zubiak eratzen zuten gerriko moduko batek babesten zuen hiria. Setioa, berez, uztailaren 7an hasi zen. Lehorreko fronteak eta Zurriolako hormak bat egiten zuten lekua zen harresietako gunerik ahulena. Ingelesen ustez, leku hura ez zegoen gotorlekuko beste eraikuntza gotor batzuk -hornabekea eta baluarte- bezain ondo babestua, eta, beraz, hura zen zulo bat irekitzeko leku egokia. Ingelesen artilleria Txofreko hareatzan zegoen zabaldua, eta handik bi zulo ireki zituen horma hartan uztailaren erdialdera. Baina erasotzaileei oso gogor egin zieten aurre Behatokiko bateriatik, eta ezin izan zuten zulo horietaraino iritsi.

Abuztuaren 27an, ingelesak Santa Klara uhartean lehorreratu ziren, eta uharteak txalupa txiki batzuen bidez hiri setiatuarekin zuen komunikazioa eten zuten. Ekintza horrek garbi adierazten zuen azken erasoak aurki egitekoak zirela ingelesak. Abuztuaren 31ko goizean, boluntario talde batek eta Robinsonen ingeles brigadak zulo haietako batera iristea lortu zuten. Harresiaren gainean borroka gogorrak izan ondoren, aliatuak Donostian sartu ziren arratsaldeko lehenengo orduetan. Frantsesak gazteluan babestu eta gotortu ziren, eta han eutsi zioten egun gutxi batzuetan.

Donostiako udala Leigh Hay jeneralaren kuartelera eraman zuten. Kartutxoek bidez, Wellingtonen gizonak Donostia erre zuten. Batere gupidarik gabe torturatu eta hil zituzten donostiarrak, ustez ezkutatuta zeuzkaten ondasunak eman ziezazkieten. Biharamunean, komandanteak Donostiatik alde egiteko baimena eman zien bizirik gelditu ziren donostiarrei. Herritarrek alde egin ondoren, ingelesak zazpi egun t'erdiz ibili ziren harrapaketan. Astigarragan zeuden soldadu aliatuak ere aurki hurbildu ziren Donostiara, harrapaketan parte hartzera.

Donostia berreraikitzen: 1814-1849

Txikizio haren ondoren Donostian zutik iraun zuten eraikin bakarrak elizak eta komentuak izan ziren, altuegiak zirenez, artilleriaren sua ez baitzen haietara iritsi; eta, horiez gainera, Trinitate kaleko -gaur egun Abuztuaren 31 kalea esaten zaio, gertaera haren oroitzapenez- hogeita hamasei etxe ere bai. Donostiarrak baserrietan, komentuetan, eta oihalezko dendetan aterpetu ziren, hondakinak begien bistan zituztela.

//9. Donostia porrokatua 1813. urtean. Ugartemendiak egindako marrazkia.

Irailaren 8an, inguru haietan zebiltzan itzal handiko donostiarrek Zubietako Aizpurua oinetxean udalbatza gisa biltzea lortu zuten, tristuraz eta zirrarez beterik. Garrantzi handikoak izan ziren Donostiaren etorkizunerako bilera hartan hartu zituzten bi erabakiak: donostiarrak han bertan geldi zitezela, eta hiria berreraikitzea. Wellingtonek berak atzera bota zituen udalak kalte ordain eske egin zizkion eskari guztiak. Espainiako erregeak ere ez zituen aintzat hartu laguntza eskariak. Etsipenak etsipen, donostiarrek Berreraikitze Lanetarako Batzorde bat sortu zuten 1813ko abenduan. Lehenengo bileran, batzorde hark proiektu bat eskatu zion Pedro Manuel de Ugartemendia arkitekto eta ingeniariaren kapitainari.

Batzorde hark ez zuen Ugartemendiaren lehenengo proposamena onartu, bikainegia iruditzen baitzitzaion. Proiektu hartan kaleak eta Plaza Berria zuzendu egiten ziren, eta Plaza Berriari oin oktagonala ematen zitzaion. Banaketa berri hark atzera bota zituen orubeen jabeak, lehenbailehen nahi baitzuten haiek beren orubeez baliatu, bai behin-behineko eraikinak egiteko, bai etxe moduko eraikin kaskarrak eraikitzeo han eta maizterrak hartu ahal izateko. Etxebizitza gehienak suntsituta zeudenez, aterpeen premian zeuden donostiar gehienak, eta oihalezko dendak eta txabolak errentan jarri zituztenek irabazi handiak izan zituzten. Baina Ugartemendiaren planoak eremuak trukatu beharra zekarren, eta hirigintzako operazioerik ezin zitekeen, beraz, egin [12]. Proiektu harekin bat ez zetozenek beste hautabide batzuk eskatu zituzten.

//10. Ugartemendiaren lehenengo proiektua, 1814.

Bitartean, Napoleonek alde batera utzi zituen Espainiako tronuan agintzeko nahiak, eta etortzen utzi zion Fernando VII.a "Desiratuari". Horren ordainez, Pirinioetako frontea neutrala izan zedila besterik ez zuen eskatu, eta hala hitzartu zuten Valençayko itunean, 1813ko abenduaren 12an. Fernando VII.ak liberalen erabaki guztiak indargabetu zituen, buruzagi liberal nabarmenenak espetxera bidali zituen, eta 1808. urtea baino lehen zeuden egoera berean berrezarri zituen hirietako Erregimentuak.

Donostia berreraikitzeo lanek aurrera jarraitu zuten, politikako gorabeherei jaramonik egin gabe. Hainbat proiektu egin zituzten bata bestearen atzetik, eta ez

polemika gogorrik gabe. Bat etortzea zaila zenez, berreraikitzeko lanek ez zuten aurrera egiten. Azken erabakia erregearen laguntzaileen esku gelditu zen. Erregearen Kontseiluak erabaki salomoniko bat hartu zuen: Manuel Gogorza bigarren alkateak izenpetutako planoak aukeratu zuen. Proiektu hartan kaleek lehengo tankera bera zutelako hobetsi zuen, hiru kale zabaltzea izan baitzen aldaketa bakarra. Baina Ugartemendiari eman zion arkitektura lanen zuzendaritza, bai jatorrizko planoak hobetzeko eta eraikuntzako ordenantza berriak idazteko ahalmena eman ere.

//11. Ugartemendiaren bigarren proiektua, 1815.

Ugartemendia gogotik baliatu zen bere ahalmenez Gogorzaren jatorrizko planoak aldatzeko, eta asko hobetu zuen kaleen antolamendua eta tankera. Eraiki aurretik egokitzeko lanak -zuloak betetzea, lurrez hustea, kaleak eta beste egitura batzuk irekitzea- 1816 arte luzatu ziren. Ordu arte ezin izan zuten etxeak jasotzen hasi. Etxe partikularrak 13 metrora luze ziren: beheko solairua eta hiru solairu teilatuaren hegaleraino. Fatxadak harlanduz edo adreiluz estali zituzten, eta burdinazko balkoiekin apaindu zituzten. Koroak hartu zituen bere gain eraikin publikoak eraikitzeko lanen gastuak.

//12. San Martin auzoa.

Santa Katalinako zubia zurez berreraiki zuten. Udaletxea aurrekoaren orube berean eraiki zuten, Plaza Berrian. Silvestre Pérezek proiektatu zuen, Akademiaren Ugartemendiaren irakasle izandakoak. Estilo neoklasikoko eraikin monumentu bat egin zuen. Eraikuntza lanek 1829tik 1832 arte iraun zuten. Irakaslea hil zenean, ikaslea ari izan zen haren ordean. Ugartemendia aukera hartaz baliatu zen egin beharrekoak iruditu zitzaizkion zuzenketa guztiak egiteko. Aldirietan Erruki Etxe berri bat, ospitale bat, eta zirkuluerdiko oina zuen hilerri bat eraiki zituzten.

I. Karlistaldiak bete-betean harrapatu zuen Donostia berreraikitzeko lanetan. Gerrate hark lan guztiak geldiarazi zituen.

Hiri liberala

1808tik 1833ra Espainiako Koroa bilakaeran aritu zen: Erregimen Zaharrari berez zegokion monarkia absolutista zena monarkia konstituzionala bihurtu zen. Bitarte horretan, aginpide aldaketak eta liskarrak izan ziren. Aldaketa hartan, ordea, hamaika aurrerapen eta atzerapen izan zen. Era horretako gobernu sistema bat indarrean jartzeak gauza asko aldatu beharra zekarren: lurraldea beste modu batera administratzea, korporazioak aldatzea, lehengo agintarien ordean agintari berriak jartzea, herritarren eskubideak eta betebeharrak ziurtatzea... Balio, iritzi, eta jokabide berri haiek pribilegioak berentzat bakarri hartuak zituzten gizatalde jakin batzuen eskubideen kalterako ziren, eta, beraz, ez zeuden haiei bakez amore emateko prest. Zer-nolako horiek oso moteldu zuten Espainiak liberalismorantz egin zuen bidea.

Espainiako lehen gobernu konstituzionala 1808koa izan zen, Napoleonek Espainia inbaditua zuen garaikoa. Espainiako gorteak Cádizen bildu ziren, eta lehian aritu ziren okupazioko gobernuarekin legezko aginpidea nork zuen erabaki nahian. 1812an eman zuten konstituzio liberalaren bitartez, diputatuek berrikuntza politikoak eta sozialak bultzatu zituzten. Cádizko gorteen legegintza ez zen Gipuzkoara iritsi, harik eta frantsesek alde egin zuten arte; 1813 arte, alegia. Gipuzkoako eta Donostiako erakundeek Konstituzioa beteko zutela zin egin zuten, eta haren oinarriak aldatzeari ekin zioten, Erregeordearen dekretuak ezarritakoa betez [13]. Baina Fernando VII.ak, Espainiara itzuli zenean, estatu kolpe bat jo zuen Konstituzio haren aurka. Cádizko Gorreek egindako urrats liberal guztiak desegin zituen, eta argi eta garbi adierazi zuen horrela zein ziren bere asmoak. Egindako aurrerabideari jaramonik egin gabe, errege absolutista baten gisa hasi zen gobernatzen.

Riegok 1820an jo zuen errebolta militarrik parlamentarismora bideratu nahi izan zuen erregea. Fernando VII.ak Konstituzioa beteko zuela zin egin behar izan zuen. Hala hasi zen 1823 arte baizik iraungo ez zuen aldi berri bat, "Hirurteko Liberala" esan zitzaiona. Aldi laburra izan zen arren, gizarteak ideia liberalak zer ziren eta zertarako bide ematen zuten jakiteko aukera izan zuen, eta argudioak eman zizkien bai liberalismoaren aldekoen eta bai kontrakoen, zeinek bere iritzien alde edo kontra.

Estatu liberalak kostara eramane zituen foru aduanak; Donostiako merkatariek pozez txoratzen zeuden, era horretara kanpoaldeko merkataritzan parte hartzea bazeukatelako, Espainiako portuen baldintza beretan. Egoera berri hari esker, irabazi handiak izan zituzten. Irabazi horietako asko hiria berreraikitze lanetan inbertitu zituzten, eta, horrela, Donostiak bultzada handi bat izan zuen. Gipuzkoar gehienek, aitzitik, Espainiako lurraldean sartzearen alderdi txarra besterik ez zuten ezagutu. Aurrenekoz, kupoak edo zergak ordaindu behar izan zituzten probintziaren zergak ordaintzeko: bai zerga zuzena, bai kontsumoari zegokion zerga, eta bai etxeei zegokiena. Soldadutza egin beharra ere egokitu zitzaion.

Aldi liberal hura 1823an bukatu zen, Frantziak Espainian esku hartu zuenean. Apirilean, Angulemako dukeak Pirinioak zeharkatu zituen, armada baten buru zela, "San Luiseko Ehun Mila Semeak", Fernando VII.ari laguntzeko eta erregetza absolutista berriz ezartzeko. Erakunde absolutistak indarrean jarri zituzten berriz ere erakunde liberalen orde. Erregeak Frantziako armadarekin negoziatu zuen, eta Espainian gera zedila lortu zuen, matxinada gehiago izango ote ziren beldurrez. Helburu berarekin, bere aldeko zibilek eratutako talde armatu bat finantzatu zuen: Boluntario Erregetiarrak. Fernando VII.aren erregetza bukatu zenean, iraganak ziren agente absolutistaren hamar urte (1823-1833), liberalismoaren aldeko urrats guztiak zeharo baztertu zituen.

Donostian egoera ez zen batere gozoa. Aduanak berriz Ebrora eramane izanak oztopatu egin zuen Hirurteko Liberalean merkataritzak hasia zuen goraldia. Portuko salgaien joan-etorria eten egin zen, eta hiria berreraikitze lanak gelditu egin ziren.

1828an, Donostiak lortu zuen, azkenean, Amerikarekin salerosketan libre aritzeko pribilegioa. Baina erabaki hori ez zen 1836 arte aplikatu. Nolanahi ere, atzerapen horrek ez zuen garrantzi handirik izan, zeren eta, ordurako, koloniek independentzia lortua baitzuten, eta haiekin salerosketan libre aritzeko pribilegio hark ez baitzuen jadanik zentzurik, nahiz metropoliak ez zuen hori onartu nahi.

Amerika gero eta urrunago zegoen Donostiako merkatarien jomugatik. Europa ere ez zen inondik ere merkataritzarako helburu egokia. Kontxako portuan ez zegoen aduanarik, baina Atlantiko aldeko gainerako herrialdeetan aduanek tinko zirauten. Nazioen arteko mugek zeinek bere kostak babesten zituzten, eta mugako zergak ezartzen zizkieten atzeritik zetozen salgai guztiei. Iberiako Penintsulako merkatuak aukera egokiak eskaintzen zizkion Euskal Herriko burdinari. Burdingintzan zeukaten tradizioa aintzat harturik, merkataritza handiak Espainiako industria iraultzaren buru izateko aukera aztertzen hasi ziren. Baina, burdinaren salerosketarako, Ebroko aduana oztopo handia zen, zergak ordainarazten baitzizkion Euskal Herriatik Iberiako Penintsulara bidaltzen zen burdinari.

Lur jabeek, ordea, pozik zeuden egoera hartan. Beren lur sailen errentei eta, noizean behin, kontrabandoak ematen zizkienei esker, bizimodu eroso eta lasaia zen haiena. Batzuen eta besteen aurkako interesak 1831n Donostian egin zen Batzar Nagusian plazaratu ziren. Idatzi baten bidez, Donostiako Udalak eta Merkataritza Batzordeak aditzera eman zuten Espainiako merkatuaren barruan sartu nahi zutelako, merkataritzaren eta industriaren protekzionismoaren bila. Probintziaz bereizteko mehatxu lauso bat ere bazegoen idazki hartan. Haien aurkakoak sutan jarri ziren. Gogor erantzun zieten, esanez aduanak kostara ekartzeak prezioak igoaraziko zituela, eta igoera horren galerak esportazioek emango zituzten irabaziak baino handiagoak izan zirela; Donostiaren ordezkariak isilarazten saiatu ziren, beraz.

1833an, Fernando VII.aren heriotzak liskarra sorrarazi zuen. Ez zegoen batere garbi nor izango zen erregea haren ordean, aurrez aurre baitzeuden Carlos M^a Isidro, Fernando VII.aren anaia, eta Isabel, Fernando VII.aren alaba, biak erregetza eskuratu nahian. Espainiako erreinu osoko absolutistek eta liberalek bataren edo bestearen alde egin zuten aukera. Bataren zein bestearen aldekoak borroka gogorrean ari ziren aginpidea nork eskuratuko.

Politika ekonomikorako eredu bat ala bestea aukeratu beharrak elkarren aurrez aurre zeuzkan gipuzkoarrak. Aurki aukeratu zuen alderdi bakoitzak bere erregegaia Espainian lehian ari ziren artean. Donostiak batailoi bat eratu zuen, Isabel II.a zeritzana, eta Isabel izendatu zuen erregina Plaza Berrian. Diputazioak ere Isabelen alde egin zuen, eta Donostian babestu zen, karlistek Gipuzkoako barrualdean hartu zuten indarraren beldurrez. Monarkia liberalak erregimen konstituzional lauso bat ezarri zuen, Agiri Emate baten bidez adierazia: 1834ko Errege Estatutua; donostiarrak pozez zorutzen zuten.

Gerrako frontea ez zen Gipuzkoara urte bete geroago arte iritsi. 1835eko udan, karlistek Hernani, Errenteria, eta Bidasoaren ertza hartu zituzten mendean. Jauregik

Donostiara atzerarazi zituen bere guda talde liberalak, eta Donostia blokeatuta gelditu zen lehor aldetik. Itsaso bidezko komunikazioa, berriz, ez zen eten. Donostiak harremanak izan zituen Getariako goarnizioarekin, eta itsas ibilbide erregular bat izan zuen Sokoarekin. Ingalaterrak laguntza militarra bidali zuen: Britainiar Lejioa. Uztailean lehorreratu ziren Donostian. Lacy Evans jenerala eta Chichester brigadierra ziren gudaroste horien buruak, eta Lord John Hay zen itsas armadako eskudroi baten buruzagia.

1835eko abuztutik 1836ko ekaina arte, bi alderdiak aurrera eta atzera ibili ziren, noiz batzuk noiz besteak, San Bartolomeko, Oriamendiko, eta Hernaniko gainaldeetan. Geroztik, frontea ez zen mugitu, eta Oriamenditik Pasaiaraino Donostia inguratzen zuen lerroan finkatu zen urtebetez, aldaketa handirik gabe.

1837. urtearen hasieran, Evansek eraso jo zuen karlisten babesguneen kontra; porrot egin zuen, eta dimisioa aurkeztu zuen. Bere agindupean zeukan armada ere berarekin eraman zuen, gizon asko hil baitzizkioten. Espartero eta haren gizonak etorri ziren ingeles ordez. Armada berri hark Hernanin bertan eraso eta garaitu zituen karlistak, bai Andoaineraino atzerarazi ere. Ekialdetik ere aurrera egin zuen; Oiartzun, Irun, eta Hondarribia mendean hartu zituen, eta Frantziarako bideak ere libre utzi zituen. Maiatzean, frontea Donostiatik urrundua zen, eta, harrezkero, Donostia erretaguardian egon zen.

Urte hartan, konstituzio berri batek monarkia parlamentarioaren erdua indartu zuen [14]. Karlisten artilleriaren erasoak bukatu zirenez, Donostia konstituzio haren eta Gorteen eta gobernuaren dekretuen edukiak aplikatzen ahalegindu zen. Udal berria aurrerazalea zen. Urte hartako irailean, Gorteen dekretu batek foru diputazioak indargabetu zituen, eta gehiengo liberala zuten probintziako diputazioak jarri zituen haien ordez. Aduanak ez zituzten, hala ere, kostara eraman, donostiarrak horren irrika bizian bazeuden ere, gerra giroak eta gobernu aldaketek ez baitzuten hartarako biderik ematen.

Bergarako Itunak eman zion 1839an amaiera I. Karlistaldiari; itun haren arabera, estatuari foruak errespetatu behar zituela gogorarazteko konpromisoa hartu zuen Esparterok. Karlistekin adiskidetzeko, gobernuak Batzar Nagusiak eta foru diputazioak indarrean jarri zituen berriz, bai eta hauteskundeetarako arauak ere. Probintziako Diputazioak ere mantendu zituen, baina hauteskundeak antolatzeke zeregin bakarrera mugatu zituen haien ahalmenak. Horrek denak zapuztuta utzi zituen donostiarrak [15].

Handik urtebetera, beste krisi politiko batek matxinada bat sorrarazi zuen forudun lurraldeetan. Arrazola ministroak aurkeztu zuen udalen lege berria izan zen matxinada horretarako aitzakia. Euskal probintziak matxinatu egin ziren, beren ustez beste erasoaldi liberal bat zen erabaki hartatik beren eskubide historikoak defendatzeko. Espartero bera etorri zen matxinada hura zapaltzera, eta foruen erregimena deuseztatzen zuen dekretua izenpetu zuen Gasteizen, 1841eko urriaren 29an. Harrezkero, estatuaren legeak nahitaez bete beharko ziren euskal

probintzietan, haiei inongo mugarik ezarri gabe -garai bateko *pase forala* bete behar izan gabe, alegia-. Probintziako diputazioak ezarri ziren bete-betean foru diputazioen ordean. Aduanak kostan ezarri ziren behin betiko.

1844an, Narváez izendatu zuten gobernuburu Esparteroaren ordean. Hurrengo hamar urteetan gobernuak moderatuak izan ziren joeraz. Gobernu haietako buruek Gasteizko Dekretua leundu zuten, eta garai bateko eskumenak itzuli zizkieten foru erakundeei: udalei, Batzar Nagusiei eta diputazioei. 1854 arte, foruen erregimenak bere horretan tinko iraun zuen, harik eta II. Karlistaldiaren ondoren behin betiko desagertu zen arte.

Gipuzkoako hiriburua

Gipuzkoako hiriburua "txandako" sistemaren bidez izendatu zen ordu arte. Hiru hilabetez behin Batzar Nagusien egoitza ofiziala ziren lau hiribilduetako agintariak eta erakundeak ziren txandaka hiriburua: Donostia, Tolosa, Azpeitia, eta Azkoitia. Denborak aurrera egin ahala, hiru hilabeterako aldi hura luzatu egin zen. 1747tik aurrera, hiru urtez behingoa izan zen, eta, XVIII. mendearen bukaeran, korrejidore batzuk hiriburua Donostian kokatzearen alde zeuden.

1812ko Konstituzioak probintziako kapitalaren kontzeptua definitu zuen. Argi zegoen hiriburua izendatuko zen hirian zentralizatuko zirela zerbitzuak, bulegoak eta agintarien egoitzak, eta horrek abantailak ekarriko zituela. Frantsesen okupazioa bitartean ezin izan zen erabaki hori indarrean jarri. Baina, ordurako, Gipuzkoan hasiak ziren pentsatzen txandako sistema haren ordean hiriburua finko bat ezartzea. 1854 arte ez zuten hiriburua finko hura izendatu. Ordu arte, Tolosa eta Donostia lehia gogorrean aritu ziren, baina, azkenean, Donostia izendatu zuten hiriburua. Urte hartatik aurrera hasi zen Donostia hiriburua izateak zekarzkie abantailetatik etekinak ateratzen. Administrazioako bulegoak eta kargu publikoenak Donostian egoteak aurrerabide handia ekarri zion hiriari, eta hala gailendu zen alor guztietan beste hiribildu eta hirien gainetik.

Donostia Gipuzkoako hiri nagusi bihurtu zen kulturaren aldetik ere, tertuliei, ikuskizunei, eta moldiztegiei esker. Gorabehera politiko eta militarrek hiritarren ekimen asko zapuztu zituzten: Donostiako Elkarte Ekonomikoa edo Anaien Batasuna, besteak beste. Gizarteko harremanak leku publikoetan edo pribatuetan egiten ziren bileretara eta lagunarteetara bideratu ziren; besteak beste, Kafearen Etxea, Collado familiaren bilkurak, La Balandra elkarteak... Elkarte horiek denek joera ilustratu eta liberal nabarmena zuten, eta eragin handia izan zuten donostiarren kultura urbanoan, iritziak eta joerak indar handiz tankeratu baitzituzten, bai artean eta bai politikan. Jarduteko ahalmena mugatua izan zuten, hala ere, agintari zibilek eta, batez ere, elizakoek ezartzen zituzten mugak ez baitziren oso zabalak.

Prentsa izan zen herritarrak iritzi edo joera jakin batera makurrarazteko baliabiderik eraginkorrenetako bat. Alfabetatze indizeen ondorioz uste izan daitekeena baino askoz handiagoa zen haren eragina. Inprimatzen zen ale kopuruari etekin handia

ateratzen zitzaion, zeren eta, besteak beste, oso errotua baitzegoen kafeetan egunkaria ozen irakurtzeko ohitura.

Napoleonen armadak euskal probintziak mendean hartu zituen garaian, *Gazeta del Oficio del Gobierno de Vizcaya* izan zen okupatzaileen egunkari ofiziala. Hirurteko Liberala arte ez zen donostiar egunkaririk izan; *El Liberal Guipuzcoano* izan zen aurrenekoa, eta berehala nabarmendu zen bere informazioaren kalitateagatik. 1830 arte, gobernu absolutistak bere egunkaria izan zuen: *La Estafeta*. I. Karlistaldiak oso moteldu zuen egunkarien aurrerabidea, nahiz 1837ko Errege Dekretuak askatasun handia ematen zuen. Gerra bukatu arte ez zen hasi Baroja moldiztegia egunkari berriak ateratzen: *La Crónica de Guipúzcoa* eta *El Liberal Guipuzcoano*. Mende horren erdialdetik aurrera, egunkariak profesionalak izan ziren.

//13. Itsasoko Atea. R. Bouqueten eta A. Guesdonen litografiaren detailea, 1860.

Azken urteetako gerrek zeharo itoa utzi zuten Donostiako ekonomia. Merkataritzak eta industriak ez zuten gora egin 1840 eta 1860 arte. Mendearen erdialderako, Donostiako portua ezin zitekeen inondik ere parekatu inguruko beste portuekin. Ur eremuak XVI. mendeko perimetro bera zuen, eta itsasaldien arriskupean zegoen oraindik ere, zuela 200 urte bezalaxe.

1853an, portuari beste kai bat eransteko asmoak indarra hartu zuen Donostian, Lizardik XVIII. mendean izan zuen asmo beraren ildotik. XIX. mendeko proiektua aurrekoa baino apalagoa zen. Albateak edo barrualdea itsaslasterretatik babesteko eragozgarri mugikor batzuk zeuzkan. Estatuak parte hartu zuen lan horien finantziazioan, 1852ko Arautegian onartutakoa betez. Hiri barrutik portura sartzea errazteko, ate bat ireki zuten harresietan, Portalón, Portu kalea eta portua lotzen zituen. Kai berri hari esker, Donostiak portua merkataritzarako erabiltzen jarraitu ahal izan zuen. Kai hura estreinatu eta berehala, salgaien joan-etorri handia izan zen Donostiatik Habanara eta Habanatik Donostiara, eta, aurrerago, baita beste leku batzuetara ere.

//14. Kontxako badiaren planoak, 1865

Bide sarea oso hondatuta zegoen, eta gerra bukatu ondoren konpondu zuten. Garai hartakoa da Antiguako komentua San Martineko auzoarekin lotu zuen errepidea, hareatzaren oinean. Errepide haren tankera olatuen lerroari egokitu zioten, eta hark eman zion Kontxari bere itxura berezia. 1864an, burdinbideak osatu zuen Donostiara sartzeko komunikabideen sarea.

Garraiobide berriei esker, ez zegoen inolako eragozpenik Donostiara iristeko. Eta hori ezinbesteko baldintza zen ordurako zale ugari Donostiara etorrarazi zituen jarduera jakin baterako: itsasoan bainuak hartzeko. Itsasoan bainatu zale asko etorri zen Donostiara XIX. mendean. Napoleonen inbasioaren ondorengo urteetan, udaleko agintariek kezka handia izan zuten bainu hartzaileak sexuaren arabera

bereizteko. XIX. mendearen erdialdean, bainuzainek gurpilen bidez mugitzen ziren etxetxo mugikorak eramaten zituzten hondarretan barrena itsasertzera, baina hartzaileen erosotasunerako.

Donostiarrek argi eta garbi sumatu zuten hondartzari etekin ekonomikoa ateratzeak zer-nolako aukerak eskainiko zizkien hurrengo urteetan. Baina aukera berri haiek auzitan jartzen zuten ordu arte hirian indarrean egon zen eredia, bai ekonomian, bai hirigintzan, eta baita paisaian ere. Beraz, XIX. mendearen erdialdera Donostian sumatu ziren aukera haiek guztiak beteko baziren, aldaketa handiak egin beharra zegoen. Aldaketa haiek eztabaida gogorak sortu zituzten donostiarren artean, ondorioak ez baitziren makalak. Eztabaida, liskar, eta gorabehera horiek denak hurrengo kapituluan aztertuko ditugu.

OHARRAK

: [1] Martín de Olózaga (1723) eta Bautista de Eliza (1727) dira ezagutzen ditugun komisario zaharrenak. 1800. urteaz geroztik, itsasgizon euskaldunak eta gipuzkoarrak izendatu zituzten maiz kargu horretarako; besteak beste, José de Astigarraga, 1802an.

: [2] 1727ko otsailaren 8an sinatu zen hitzarmen hori.

: [3] Elkarte hori sortu eta hurrengo hilabeteetan, akzioen balio izenduna 15 errealeko 500 pesotan ezarri zen. Konpainia hori abian jarri zenean, 706.300 dukateko kapitala zeukan -1.413 akzio-, eta bost zuzendarik kudeatzen zuten kapital hori.

: [4] Akzioek urtean %8ko irabaziak eman zituzten, batez beste. Baina kopuru horrek gorabehera handiak izan zituen. Lehenengo urteetan irabaziak neurritz gaineakoak izan ziren; bukaeran, berriz, %3koak izan ziren.

: [5] Beste iturri batzuetatik dakigunez, haien lana ez zen nahikoa biztanle guztiei jaten emateko. Oso gauza deigarria iruditzen zaigu 50 gizon aski izatea arrain merkatua hornitzeko; agintariak, berriz, lehia bizian ari ziren bitartean laboreak eta ardoa inportatzen. Bestalde, 32 tabernari zeuden.

: [6] Lau errejidoreak txandaka aritzen ziren karguan, hiru hilabeteetan behin ordena publikoa zaintzeko. Matxinadak zapaltzeko baliabide handirik ez zegoenez, neurriak alde aurretik hartzea zen onena. Agintariek biztanleen urrats guztien berri izaten zuten, berriemaileen sare ilun baten bitartez. Atzerritarrei galdetzen zitzairen ea zergatik etorriak ziren, ea nongoak ziren, ea zein zen haien familia, eta ea zer ondasun zituzten. Hamaika esamesa eta zurrumurru zebilen bazterretan. Errejidoreak *fiel* gisa aritzen ziren kaleetan -kaleko zaindaria gisa, alegia-, eta haien lekukotasunak frogaren balioa zuen epaitegian. 1766ko matxinadaren ondoren, Erregimentuak auzoko tenienteak eta alkateak izendatu zituen; urtero aldatzen ziren kargu haiek zaindaritza lanak indartzen zituzten. Kana t'erdiko

makila batekin (1,25 metro) eta *in fraganti* harrapatutako edozein gaizkile berehala atxilotzeko behar ziren armekin ibiltzen ziren errondan. Haien lanetako bat atzerritarrei Donostian zertan zebiltzan galdetzea zen.

: [7] Azken eskakizun horrek ondasun higiezin jabeak izan behar zutela esan nahi zuen, beste kapitulu batzuetan ikusi dugunez. Garai hartan, *millarrak* 1.000 dukaten balioko ondasunak eduki behar zituen; izan zitekeen, beraz, etxe bat, mahasti bat edo sagasti bat.

: [8] Ezagutzen diren ordenantza zaharrenak, aurreko kapituluetan esan dugunez, 1489koak dira. 1537an eta 1630ean eraberritu zituzten. 1735ean onartu zen ordenantza multzo berria, aurrekoak eguneratzen eta hobetzen zituena.

: [9] Hiribildu berriak sortzen zirenez -Goierrin sortu berri ziren hiribilduak, besteak beste-, gero eta zailagoa zen Batzar Nagusietan gehiengo izatea. Gero eta herri gehiagok elkar hartu beharra zeukan gehiengo izateko, eta, bereziki, 12 hiribildu "nagusiek". Hiribildu batzuen eta besteen interesak elkarren kontrakoak izaten ziren maiz, eta botoa, hartara, sakabanatu egiten zen; elkar hartzeko negoziatioak gero eta nekezagoak ziren.

: [10] 150etik gora lur sail eta orube Donostiako barrutian; alegia, Donostia bera, Lezo, Errenteria, eta Oiartzun.

: [11] Godoyk desamortizaziora jo behar izan zuen hain zeregin garestiak finantzatzeko. Aurrena, haien errentak errukizko egintzak egiteko erabiltzen ziren ondasunak bahitu zituen. Eta horretarako zeuden sortuak eta antolatuak Donostiako Erruki Etxea eta Ospitalea. Desamortizazioaren legeak indarrean jartzearekin batera bi erakunde horiek baliabiderik gabe gelditu ziren. Harrezkero, behartsuei eta gaixoei laguntzeko behar ziren diruak udaleko aurrekontuak ordaindu behar izan zituen.

: [12] Donostia berreraikitze. Erregearen Kontseiluak eman behar zuen azken baimena kontu politikoetan eta finantzarioetan; eta Akademiak, berriz, berea, baina hirigintzari zegokion alorrean. Udalak, erakunde horiek zuzenketak egingo zituztela alde zuzenetik ikusiz, erraz bota zitezkeen eraikinak egiteko baimena besterik ez zuen eman.

: [13] Frantses okupatzaileek Donostia mendean hartua izan zuten garaiak garrantzi handiko ondorio politikoak izan zituen donostiarrengan. Bai Donostiako agintariak eta bai Gipuzkoako Diputazioa Cádizko Gorteen kausa liberalen alde zeuden. Erregimentua Udal bihurtu zen, Cádizko Konstituzioak eta 1812ko maiatzaren 23ko Dekretuak agindutakoa betez. Udal berri hartarako aukeratu ziren kargu gehienak izen berriak ziren, eta uste izatekoa da, beraz, belaunaldi aldaketa bat gertatu zela orduan. Ez dirudi zentzugabea kargudun horiek gehienak liberalak izango zirela uste izatea.

: [14] 1837ko Konstituzioak ez zuen "monarkia parlamentarioaren" kontzeptua erabat lantzen. Liberal aurrerazaleek, konstituzio haren bultzatzaileek, amore eman zuten, eta onartu zuten Erreginak izan zezala azken erabakia gobernuaren eta gorteen arteko liskarretan. Isabel II.ak behin baino gehiagotan erabili zuen erregetzari zegokion pribilegio hori, eta, halakoetan, liberal moderatuen alde jokatu zuen beti.

: [15] Zinegotzi izan behar zuten bizilagunek berek uko egin zioten erakundea berritzeari, eta hauteskundeak boikotatu zituzten. Ez zuten ordezkariarik bidali ezta ere Debako Batzar Nagusira. Gorreak amore eman zuen donostiarrekin udaleko administrazioari zegokionez, baina zorrotz ohartarazi zien bete egin behar zituztela probintziarekin zituzten betebeharrak.

IV

Easo ederra: 1864-1936

Luis Castells

XIX. mendearen erdialdean, gorakada handia izan zen Europako mendebaldean. Garai hartako burgesia saiatu eta ekinak kapitalismoa eta teknologia elkartu zituen. Aldi hartako bultzada handia ezin hobeki adierazten dute orduantxe bidea egiten hasiak ziren bi tresna asmatu berrik: lurruntziak eta burdinbideak. Garraioak eta komunikabideak industrializazioari lotu zitzaizkion, eta denek batera hazkunde aldi iraunkor bat jarri zuten abian, ordu arte inoiz izan ez zen modukoa. Ekonomiaren oparotasun hark itxaropen handiak sorrarazi zituen bazterretan.

Aurrerabide haiek berehala izan zuten eragina hirietan. Biztanleek berehala antzeman eta bereganatu zituzten aldaketak, baina hirietako azpiegitura zahar eta zaharkitua ez zegoen haiek bideratzeko prestatua. Beraz, udaletako agintariak berehala konturatu ziren hiria modernizatzen hasi beharra zeukatela, eta erantzuna eman behar zietela hiritarren premia berriei. Hori bera gertatu zen Donostian ere. 1864tik 1936ra, sekulako aldaketa izan zuen: gotorleku mugatu hura hiri ireki eta kosmopolita bihurtu zen, eta orduko ezaugarri haiek gordeak ditu, gaur egun ere, bere izatearen baitan.

****Zabalgunea****

XIX. mendea bete-betean zegoela, Donostia gotorlekua zen oraindik, bai tankeraz eta bai izatez, Erdi Aroaren bukaeraz geroztik izan zen bezalaxe. Babeslekuz inguratua eta estutua egoteak militar kutsua ematen zion Donostiari, eta zeharo mugatzen zizkion hazteko eta handitzeko aukera guztiak. XIX. mendearen erdialdean izan ziren garrantzi handiko gertaera batzuek lozorrotik atera zuten Donostia, eta etorkizun berri baterako bidea erakutsi zioten.

Isabel II.a erregina Donostiara noizean behin bisitan etortzea izan zen gertaera haietan lehena. Bisita haiek 1845ean hasi ziren, medikuak itsas bainuak hartzeko gomendioa egin baitzion erreginari. 1865ean eta 1868an ere, erregina Donostiara etorri zen. Bestalde, 1854an, Donostia Gipuzkoako hiriburu izendatu zuten behin betiko, eta gertaera hark ere garrantzi handia izango zuen Donostiaren etorkizunean. Zerbitzuak eta administrazioko zeregin berriak Donostian kokatu behar izan zituzten, beraz. Erreginarenean etorrerak eta hiriburu izendatu izanak jende asko erakarri zuen Donostiara. Gipuzkoarrak hiriburu berrira etortzen ziren probintziako erakundeetan egin behar izaten zituzten zuzemenak egitera. Erreginarenean bisitaldiek, berriz, gortea ere Donostiara ekartzeaz gainera, modan jarri zuten Donostia aristokraten artean, eta hala aukeratu zuten leku berri hura beren harremanetarako eta lagunarterako.

Jende asko etortzen zen, beraz, Donostiara, baina lehorreko komunikabideak oso eskasak eta desagokiak ziren. Donostia hiri militarra zenez, errepide nagusitik alboratuta zegoen, bazter batean, eta, barrualdetik zetozenentzat, Donostiako sarbidea ez zen batere egokia, oztopo eta traba handikoa baizik. Hori konpontzeko, Madriletik Irunera doan bidearen lotunea inauguratu zuten 1847an, errepide nagusia gaur egungo Askatasunaren Hiribidera desbideratu ondoren. Burdinbidea izan zen, ordea, Donostiara zetorren jendearen joan-etorria gehien erraztu zuen komunikabidea. *Compañía de los Caminos de Hierro del Norte* zeritzan enpresak 1858an hasi zituen Gipuzkoan trenbidea eraikitzeke lanak. Madriletik Irunera zihoan burdinbidea 1864an inauguratu zuten, eta Donostian geltoki bat zuen: Norteko Geltokia. Eragin ezin handiagoa izan zuen burdinbidearen etorrerak Donostian: ordu arte erabili ziren zalgurdi deserrosoak baztertuta gelditu ziren, bidaiak merkeagoak eta erosoagoak baitziren trenez, eta bidaiarien eta bidaien kopurua ugartu egin zen.

Burgesiak berehala sumatu zuen zer-nolako aukerak zekarzkion Donostiari jende etorrera handi hark. Merkataritzak Donostian tradizioz izan zuen alde eta molde bakarreko jarduera -itsaso bidezkoa, alegia- aldatu beharra zegoela erabaki zuten burges batzuek. Beharko, nahitaez, Donostiako portua guztiz mugatua gelditu baitzen! Bazegoen portua zabaltzea, bai Badian edo bai Urumea ibaian, baina oso erabaki zaila zen hura, kontu handiz aztertu beharrekoa, arriskuan jar baitzezakeen Donostiaren etorkizuna.

1860 aldera, indarra hartzen hasi ziren beste negozio batzuk, salerosketak baino askoz ere irabazi handiagoak eman zitzaketanak: industria eta turismoa. Dirutza handiko familia batzuek -Brunet familiak, besteak beste- berehala sumatu zuten bazegoela hor irabazpide handi bat, eta bere inbertsioen zati bat bi alor horietara bideratzea erabaki zuten. Baina bai negozio berrien aldeko enpresaburu saiatuek eta bai negozio zaharren aldekoek harresien oztopo eta muga handia zuten aurrez aurre, hesi hark ez baitzion hiriarri uzten ez zabaltzen eta ez negozioak egiteko behar ziren azpiegiturak abian jartzen.

Traba arkitektoniko hark ez zion, ezta ere, handitzen uzten Donostiako biztanleriari. 1860an, Donostiak 14.115 biztanle zituen, eta, haietatik, 9.156 Erdi Aroko barrenalde hartan bizi ziren, estu-estu eta pilatuta. Harresietatik kanpoko auzoetan, Amaran eta San Martinen, herri xehea besterik ez zen bizi. Harresien barruan, berriz, nahasketa handia zegoen; oso maila sozial desberdineko jendea bizi zen itxitura hartan elkarrekin: burgesak eta haien neskame-morroioak, eskulangileak, eta herritar arruntak. Harresi barruko biztanleen kopurua gero eta gehiago ari zen handitzen, baina, bazter itxi hartan, gero eta leku gutxiago zegoen. Etxebizitzak egiteko premia handia zegoen, beraz, baina ez zegoen lekurik; etxeen altuera igo behar izan zuten, hortaz, eta gero eta jende gehiago pilatzen zen bizitegietan; donostiarrak osasunerako arrisku handian bizi ziren, beraz, etxe haietan. Goi mailako eta behe mailako jendeak, denek nahi zituzten harresiak bota, denek nahi zuten hiria zabaltu eta handitu.

1863ko apirilaren 22ko Errege Agindu batek plazaratu zuen berria: harresiak botatzeko baimena. Donostia ez zen handik aurrera gotorlekua izango, haren inguruko babeslekuak lurrera bota behar zituzten. Berri hark sekulako poza sortu zuen donostiarrengan, eta, ospatu ere, gogotik ospatu zuten. Erabaki hark bazituen, hala ere, alderdi ilun eta katramilatsuak -lurren jabetza, lanak finantzatu beharra...-, eta, eztabaida eta auzi haiek konpontzeko negoziazioak eta elkarrizketak zirela medio, ezin izan zituzten harresiak hurrengo urtea arte bota. Bitartean, udala hiri berria eraikitzeko prestatu zen, eta European gehien erabiltzen zen baliabidea aukeratu zuten horretarako: zabalgunea.

//15. Donostia, 1864.

Zabalguneak dira, hirigintzak European sortu zituen arazoak konpontzeko, XIX. mendean aukeratu zen irtenbidea. Urteak joan, urteak etorri, biztanleria hazten ari zen Europako hirietan; jendea etxeetan pilatuta bizi zen, eta agintariei arazo larri hura konpondu beharra egokitu zitzairen. Negozioen bidez aberastua zen burgesia bera ere kezkatuta zeukan hirietako bizitzaren hondamen hark. Kezka horrexek bultzatu zuen burgesia espazio berriak agintariekin batera antolatzerara, eta hiriak zabaldu ahal izateko konponbide berriak taxuz, neurriz, eta zentzuz bideratzerara. Arau zehatz batzuen arabera antolatutako kale eta auzo-sareen bidez ordenatu zuten eremu berri haien hazkundea. Arau haiek ez zituzten besterik gabe eman; behar-beharrezkoak ziren, biztanleen gehiegiagatik eta etxebizitzaren premia handiagatik lehenbailehen eraiki behar ziren orube huts haiek ondo antolatzeko. Hirigintzako arazoak konpontzeko modu hark eman zion tankera indar betean zegoen kapitalismoak gizartean sortu zuen ordena berriari. Eta eredu hura erabat bete zen Donostian.

Zabalguneen ereduak Pirinioak zeharkatu zituen, eta Espainiako hirietan barrena zabaldu zen. Cerdák Bartzelonarako proiektatu zuen zabalgunea eredugarria izan zen garai hartako hirigintzan. Donostiako udalak Bartzelonari jarraitu zion eraikuntza lanen aurreko urratsak egiterakoan [1]. Agintariek planoen lehiaketa baterako deialdia egin zuten, etorkizuneko hiriaren ereduak aukeratzeko. Hamabi proiektu aurkeztu ziren deialdi hartara. Udalak Antonio Cortázarrek egindako proiektuari eman zion lehenengo saria, eta hura aplikatzea erabaki zuen. Baina ez zion uko egin lehiaketa hartan bigarren izan zen proiektuari, Martín Saracíbarrenari: gauza asko atera zituen handik Cortázarren proiektua hobetzeko.

Cortázarrek udalak deialdian eskatu zituen oinarriak bete zituen; alegia, merkatari kutsu handiko hiri bat proiektatu zuen. Salerosketak erraz egin ahal izateko moduan antolatu zuen hiria. Helburu horri jarraiturik, dendetarako eta saltokietarako gorde zituen erdialdeko oruberik onenak, eta lehentasuna eman zien salgaiak garraiatzeko loturei, beste edozein irizpideren gainetik. Hortaz, bi lonja kokatu zituen badian, portutik gertu, eta portua burdinbidez lotu zuen Norteko Geltokiarekin. Burdinbide horrek Zabalgunea erdi-erditik zeharkatuko zuen. Urumea ibaia bideratzea ere proposatu zuen, bi ertzetan zamalanerako kaiak ipintzeko.

Azpiegitura haietarako behar zen lekuak ez zuen toki askorik uzten aisiarako zuhaitz eta landarezko guneak egiteko. Cortázar, ordea, ez zen asko estutu horregatik, zeren eta biztanle dentsitate handia proposatu baitzuen metro koadro bakoitzeko, eta estu samarrak proiektatu baitzituen kaleak ere. Alde batera utzi zituen irizpide estetikoak, eta baita higienikoak ere, merkataritzako negozioen eta lurraren espekulazioaren mesedetan [2]. Horrez gainera, oso kontuan hartu zuen turismoa, ordurako garbi baitzegoen irabazpide handiak ekarriko zizkiola Donostiari.

Cortázarrek leku berezi bat gorde zuen udatiarrentzat, badiaren aurrez aurre. Klase dirudunak hiriaren erdialdean kokatu zituen, gaur egun Askatasunaren Hiribidea dagoen lekuaren inguruan. Etxe sail handiak proiektatu zituen toki hartan, itxiak, eta erdian patio bat zutenak; etxeak 350etik 370eraino metro koadro ingurukoak ziren. Azkenik, aldiriak -San Martín eta Amara- herri xehearentzat gorde zituen, eta hasiera-hasieratik izan zuten, beraz, kutsu herrikoia handia auzo horiek. Cortázarrek, esan beharrik ez dago, irizpide guztiz klasista baten arabera banatu zituen hiriaren alderdiak.

1864an behin betiko onartu zen Cortázarren planoan oinarritu zen Donostiako Zabalgunea. Udalak plano haren ardatz nagusiak mantendu zituen, baina garrantzi handiko aldaketa batzuk egin zizkion, haren etxe eta jende metatze hura zertxobait arintzeko. Hortaz, hasiera-hasieratik erantsi zizkion Saracibar finalistaren proposamen batzuk. Aldaketa horiek asko hobetu zuten Cortázarren hasierako proiektua, eta hark hasieran pentsatutakoaren oso bestelako kutsua eman zioten hiriari. Merkataritzari Cortázarrek eman zion nagusitasuna zertxobait apaldu zuten, turismoaren baliabideak hobeto erabili ahal izateko. Turismoa indartzeak ez zuen esan nahi merkataritzari uko egiten zitzaionik, baina bisitariak erakarriko zituen hiri atsegina bat egiteari eman zion udalak lehentasuna.

//16. Goian, Antonio Cortázarren zabalgunearen planoak. Behean, Martín Saracibarren planoak.

Bi proiektu haien arteko alde ezin hobeki adierazten du hiri zaharretik Zabalgunera doan tartea -gaur egun Bulebarra dagoen tokia- antolatze irtenbideak. Cortázarrek etxe multzo nahasi bat pentsatua zuen leku hartarako: aduana, antzokia, azokak... Saracibarrek, berriz, zumardi bat proposatu zuen, lorategiz eta zuhaitz txukun eta egoki zainduz betetako leku bat, bertakoen eta kanpotarren gozamenerako bereziki egina.

//17. Goian, Cortázarrek Bulebarrerako proposatu zuen proiektua. Behean, Saracibarrena.

Bi hautabide horien artean aukeratu beharrik eztabaida gogorra sortu zuen Donostiako burgesiaren. Auzitan zegoena ez zen bakarrik leku haren itxura eta tankera: Donostiaren etorkizun ekonomikoaren bi kontzeptu elkarren aurkako zeuden aurrez aurre. Ez da harritzekoa, beraz, eztabaida hura oso gogorra izatea,

auzi hura ezin garrantzitsuagoa baitzen. Cortázarren eta Saracibarren aldekoen arteko liskarrek eta tirabirek -*Alamedistak* esaten zitzairen Saracibarren aldekoen dimisioa ematera bultzatu zituen zinegotzien erdiak 1865eko maiatzean, eta, hartara, hauteskundeak egin behar izan ziren. Alamedazaleek irabazi zituzten botazio haiek.

1866an eman zuten Zumardia edo Alameda eraikitze baimena, eta hala erabaki zuten auzi hura eta jarri zituzten Donostiaren hazkunderako oinarriak. Turismoa eta zerbitzuen sektorea hartu ziren batez ere aintzat hiria zabaltzeko eta handitzeko egitasmo haietan. Eraikuntzako lanak helburu horretara makurtu zituzten, eta, horregatik, dotoreak, txukunak, eta erakargarriak egin zituzten etxeak eta kaleak, goi mailako udatiarren gustukoak izan zitezten.

Zabalgunea eraikitze lanak bizkor jarri ziren abian, eta gelditu gabe jarraitu zuten, harik eta Bigarren Karlistaldia hasi zen arte (1872-1876). Lehenengo aldi hartan, 1866tik 1874ra bitartean, 177 lur sailetan eraiki zituzten etxeak, Zumarditik Hiribiderainoko tartean. Eraikin horien artean, aipagarriak ziren Bretxako Azoka (1871), Santa Katalinako Zubia (1872), eta Gipuzkoa Plazaren inguruko etxeak, 1867tik 1882ra bitarte eraikiak. Gipuzkoa Plazaren erdiko lorategia udaleko lorezain Pierre Ducassek asmatu eta egin zuen.

****Hiri liberala****

Harresiak bota ondoren, Donostia *Easo Eder* bihurtu zen garai berean, aldaketa handiak izan ziren Espainiako politikan. 1860. urtearen inguruan, liskar eta tirabira handiak izan ziren Espainiako politikan eta gizartean, eta eten handia izan zen ordu arteko gobernatzeko moduan.

Liberalismoaren alderdirik erradikalena, burgesia aurrerazalea, baztertua zegoen agintetik, Isabel II.a erreginak ez baitzion gobernuan sartzen uzten. Liberal moderatuak egon ziren, beraz, behin eta berriz agintean. Zapuztuta zeudenez, aurrerazaleek manifestazioak, istiluak, erreboltak... bultzatu zituzten, baina gobernuak behin eta berriz zapaldu zituen. Giroa gori-gorian zegoela, 1864an, ekonomia krisi handi batean sartu zen, eta, hurrengo urteetan, krisi hura areagotu baizik ez zen egin. Haren ondorioek ezinegona eta nahaspila sortu zuten gizartean. Irtenbide berriak bilatu ordez, monarkiak betiko moduan jardun zuen, politika gogor bat eginez.

1866ko irailean, liberalek herritarren eta militarren matxinada bultzatu zuten berriz. Oraingoan, ondo atera zitzairen. Gertaera hari *La Gloriosa* deitu zitzaion; *Aintzazko Iraultza*, alegia. Erregina tronutik bota zuten, eta Espainiatik ihes egin behar izan zuen.

Iraultzaileek sistema politiko berri bat jarri zuten abian, gizabanakoaren eskubideetan oinarritua, eta askatasuna ziurtatzen zuena. Burgesia iraultzaileak, hark bultzatua baitzen iraultza hura, arreta handiz zelatatu zituen matxinatuen joan-

etorriak, beldur baitzen matxinada hark muturreraino joko ote zuen, eta beraren nahiak zapuztuko ote zituen. Zalantza, susmo eta eragozpen haiek gorabehera, hurrengo urteetan indarrean jarri ziren formula politikoek berrikuntza handia ekarri zuten Espainiara, agintari berriek borondate demokratiko sendoa erakutsi baitzuten. Geroztik, *Sei urteko Demokratikoa* edo *Iraultzailea* esan zitzaion garai hari.

Euskal Herriko probintziak berehala jarri ziren gobernuaren kontra. Egoera hark bultzada handia eman zion karlismoari, bere burua foruen aldeko eta Madrilen eredu zentralistaren aurkako aurkezten baitzuen. Euskal Herriko probintzietako maila sozial guztietako jende askok zeuzkan aintzat hartuak foruaren bitartez indarrean zeuden mugak zekartzan onurak; soldadutza egin beharrik ez izatea eta estatuaren ogasunari zergak ordaindu behar ez izatea ziren onura garrantzitsuenak. Abantaila haiek estu-estu lotuta zeuden foruari, eta forua babestu nahiak jende asko erakarri zuen Don Carlosen alde. Arrazoi horregatik jo zuten Euskal Herriko lurralde historikoek Espainian nagusi zen joeraren kontrako bidetik, eta hala ari izan ziren erregegaiaren alde eta Madrilen aurka.

Euskal Herriko hiri gutxi batzuk besterik ez ziren makurtu liberalen aldera. Eta jarrera horrek guztiz nabarmendu zituen Euskal Herriko probintzietako giro tradizionalista hartan. Horixe gertatu zen Donostian; handik aurrera, bere ezaugarri berezizat hartu zuen liberalismoa, ia Gipuzkoa osoa karlisten aldekoa zelarik.

Erregina eta haren gortea Donostian zeuden *Aintzazko Iraultza* hasi zenean. Giroa osoa lasai zegoen Donostian. Inguruan istilurik eta zalapartarik sumatu ez zuenez, erreginak uste izan zuen gauza bera ari zela gertatzen Espainia osoan, eta iraultza haren garrantzia gutxietsi zuen. Ez zen egoeraren larriaz konturatu, harik eta, irailaren 28an, liberalek erreginaren armada garaitu zuten arte. Irailaren 30ean, erreginak erbesteratu egin behar izan zuen; Norteko geltokian hartu zuen trena, eta hara joan zitzaizkion Donostiako agintariak agur esatera.

Egun gutxi batzuk lehenago erreginari eta gorteari harrera ezin hobea egina zioten agintari haiek berek higikunde iraultzailearen alde egin zuten. Beldur ziren iraultza hark ez ote zuen muturrerago joko, eta hura bideratzen saiatu ziren. Agintari liberal berriek berehala sortu zuten erakunde berri bat, udaletako aginpidea bere gain har zezan: *Batzorde Iraultzailea*. Hori ikusirik, Donostiako burgesiak bizkor hartu zuen esku Donostian eratzekotan ziren batzorde hartan, eta kosta ahala kosta saiatu zen herriak batzordekideak demokrazia bidez aukera ez zitzan. Talde berezi batek aukeratu zituen, azkenean, batzordekide haiek, eta batzorde horretan donostiar handi batzuk zeuden: Fermin Matxinbarrena eta Fermín Lasala, besteak beste.

Erakunde berri hori izendatu orduko, izena aldatu zuen, eta *Gobernu Batzordea* esan zitzaion harrezkero, zer joera politikoa zuen garbi adierazirik. Probintzia osoko aginpidea hartu zuen bere gain, eta bere betekizunak moderazioz eta zuhurtasunez bete zituen, harik eta, 1868ko urrian, desegin zen arte.

//18. Karlistaldia. Gotorlekua Santa Katalina zubiaren sarbidean.

Hurrengo urteetan ere, Donostiako burgesiak aginpidean iraun zuen. Inguru osoa karlisten aldekoa zutenez, Donostiako joera bateko eta besteko liberalek elkar hartu behar izan zuten, beren arteko ika-mikak alde batera utzirik, eta fronte trinko bat eratu zuten: "Batasun Sakratua" -joera eta irizpide desberdineko liberalen elkartasuna, alegia [3]-. Gobernuarekin zituen harremanak aldartetsuak izan ziren: batzuetan alde eta besteetan kontra; politika berriaren alde egin zuen, gobernuak Euskal Herriko probintzien erregimen berezia errespetatu zuen bitartean.

Karlisten matxinadak estutu egin zuen donostiarren arteko lotura, Donostia baitzen liberalek Gipuzkoan zuten ia herri bakarra; ia probintzia osoa etsai zuten, beraz, donostiarrek. Gerra 1872. urtearen bukaeran hasi zen, eta berehala ikusi zen indarrak ez zeudela batera berdinduak. Gipuzkoa Don Carlosen alde ari zen borrokan, eta karlistek beren mendean edo setioan zeuzkaten herri gehienak: Arrasate, Beasain, Bergara, Eibar, Tolosa.

Karlistak gero eta hurbilago zeuden Donostiatik. 1875ean, hiria bonbardatzen hasi ziren. Hiru lerroko sare batek babesten zuen Donostia: Lehena, Igeldotik Pasaiaraino, Lugaritz, Puio, Altza, eta Uliaren barrena; bigarrena, Antiguatik Egiara, Uliaren oineraino; eta hirigunetik hurbilen zegoen lerroa, hirugarrena, Mirakontxan hasten zen, San Bartolomen barrena jarraitzen zuen, eta Santa Katalinan bukatzen zen.

Borbon familiak erregetza berriz ere hartu zuenean, eta Alfontso XII.a izendatu zutelarik errege, elkarren kontrako bi indar haien arteko harremana aldatu egin zen. Espainiako politika zertxobait baretu zen, eta gobernu berriak gatazka hura konpontzen ahalegintzeko beta izan zuen. Bere armadaren indar guztia erabili zuen helburu hori betetzeko. Bestalde, errege berriak joera moderatuko politikari askoren atxikimendua izan zuen. Alfontso XII.ak jarraitzaile asko kendu zizkion Don Carlosi, haren alde bolada baterako baizik egin ez zutenen artean.

1876. urtearen hasieraz geroztik, liberalek indar handiko armada bat eratu zuten, Euskal Herriko probintzietako hainbat lekutan karlistak garaitu zituzten, eta, pixkanaka-pixkanaka, atzera egitera behartu zituzten. Otsailaren 18an, Donostiako setioa altxatu zuten. Donostiarrek pozez ospatu zuten garaipen hura.

****Hiria zabaltzen****

Gerrak hiriaren zabalkundea eten zuen. Bakea etorri zenean, berriz hasi zituzten Zabalgunea eraikitzeke lanak. Udalak hasierako irizpide estetizistari eutsi zion berriz ere. Goi mailako klaseek, elkar harturik, ahalegin handiak egin zituzten hiri eder eta dotorea eraikitzeke. Gerora, turismoaren eta zerbitzuen sektorea indartu zuten, kanpoko dirudun jendea erakartzeko. Eta ez zuten zalantzarik izan hasierako proiektua aldatzeko eta hobetzeko, hiri atsegin bat egiteko helburuarekin, betiere.

//20. Cortázarren zabalgunea eraikitzeke hiru aldiak.

Hiria zabaltzerakoan, eragile haiek turismorako joera nabarmena bazuten ere, ez zituzten beste jarduera ekonomiko batzuk baztertu. Donostiako burgesiak ez zien muzin egin industriak eta merkataritzak ematen zituen irabazpideei. Aitzitik, inbertsioak egin zituen ekonomiaren hainbat alorretan. Baina kontu handia izan zuen paisaiari kalterik ez egiteko eta erdialdea txukun eta dotore mantentzeko. Pabiloiak, lantegiak, eta fabrikak aldirietara baztertu zituen -Antiguara, Egiara, Grosera...-, udatiarrek ikus ez zituzten.

Hiriko espazioa funtzionaltasunaren arabera banatu zuten, beraz, garai hartako zabalgunek gehienetan bezalaxe. Donostia eremu espezializatueta banatu zuten: leku bat langintzarako izan ala bizitzeko izan, hartara egokitu zioten auzo edo leku jakin bat. Bizitoki hutserako ziren etxe multzoek helburu horretarako behar ziren ezaugarriak zituzten, bai arkitekturaren eta bai soziologiaren aldetik.

Erdialdeari egokitu zitzaion erdigune burges eta turistikoa izatea. Hango eraikuntzak itxura uniformea eta dotorea zuen, soila, eta formaren aldetik neurritzakoa, Parisko hirigintzaren eraginez. Belaunaldiz belaunaldi, arkitektoek Donostiara aldatu zituzten Europan boladan zeuden estiloak, eraikin bikainenetan garbi sumatzen denez.

//19. Donostiako zabalgunearen eragile nagusiak; ezkerretik eskuinera: Antonio Cortázar, José Goicoa, eta Nemesio Barrio.

Antonio Cortázarri zor zaio lehenengo zabalgunearen klasizismoa; José Goicoak eklektizismorako joera izan zuen -Amarako eskolak, 1893; Diputazioko Jauregiko fatxada, 1879-1885; Artzain Onaren plaza, San Inazio eliza, 1892.-. Donostiako eraikin berezietako batzuk estilo horretakoak dira: Kasinoa -Morales de los Ríos eta Aladrén, 1887-, frantses arkitekturaren eragina duena; Victoria Eugenia antzokia -Francisco de Urcola, 1912- eta María Cristina hotela -Charles Mewes, 1912-. Arkitektura zibilean, aipagarriak dira Prim kaleko eraikin modernistak -Art Nouveau estilokoak-, haietako onenak Luis Elizaldekin eginak.

//21. Kontxako hondartza.

1888an, udalak Kontxako eta Ondarretako hondartzen arteko tontorra eskaini zion M^a Cristina erreginari, bere udako egoitza han eraiki zezan. Miramar jauregia Selden Wornumen planoen arabera eraiki zen, eta *cottage* ingeles baten tankera du, kutsu gotiko handiarekin. Kontxa urbanizatzeko lanak 1909an bukatu ziren, Juan Ramón Alday udaleko arkitektoak baranda azpiko pasabide irtena eraiki zuenean. Gran Kursaal kasinoa 1922an ireki zituen ateak; gaur egun eraitsia dagoen eraikin hura Bluysenek egin zuen, eta, batere orijinala ez bazen ere, txit handiustekoa zen tankeraz.

Arrazionalismoa izan zen Donostian garai hartan erabili zen azken joera estetikoa. Oso forma landuak zituen eta oso apaingarri gutxi. 1920ko hamarraldian sartu zen

indar handiz Espainian joera hori. Donostian bi eraikin bikain utzi zituen: Klub Nautikoa eta *Equitativa*.

Auzoen plangintza egiterakoan, Donostiako handiki jendeak ez zuen erdialdean bezain txukun eta arretaz jokatu. Aldirietako auzoak hainbat zereginetarako erabili ziren: baziren bizitoki dotoreak, baziren fabrikak, baziren bizitoki arruntak... Eta erabilera horiek konbinatu beharrak oso itxura nabarra eman zien auzo horiei. Hortaz, gorabehera handiak izan ziren kalitatearen aldetik Antiguaren, Grosen, Ategorrietaren... artean. Biztanleen aldetik ere oso nahasiak ziren. Eta herritar apalantzat edo langile soilentzat ziren auzoetan, Egia-Atotxan bereziki, ez zuten inolako urbanizazio lanik egin: bere horretan utzi zituzten, batere zaindu gabe.

****Hiria aurrerabidean****

****Turismoa eta gorrea****

1887an, María Cristina erregina Donostiara etorri zen bisitan, sendagileek hala aholkatuta, nonbait, haren semearen osasuna indartzeko. Harrezkero, uda guztietan etorri zen, harik eta, 1929an, hil zen arte [4]. Donostia eta Santander lehian ibili ziren erregina uda pasatzera nork erakarriko, baina, azkenean, erreginak Donostia aukeratu zuen. Bi hiri horiek bazuten eredu bat, gertu: Miarritze, Napoleon III.ak begiz joa baitzuen uda han igarotzeko. Enperadoreak udaldian egoitza Miarritzen hartu izanak sekulako goraldia ekarri zuen Lapurdiko hiri horretara; eta, goraldi huraxe bera nahi baitzuten donostiarrek eta santandertarrek zeinek bere hiriarentzat, hartara ari izan ziren lehia bizian Espainiako gorrea udaldian erakartzeko, eta, hartarako, gogotik ahalegindu ziren zeinek bere hiriaren eta hondartzaren bikaintasuna goraiatzeko.

M^a Cristina erregina uztailaren erdialdera iristen zen Donostiara, eta irailaren bukaera arte edo urria aurreratuxea zegoen arte gelditzen zen han. Gorrea erreginarekin batera etortzen zen, eta, bolada hartan, Donostia izaten zen Espainiako erresumako hiriburua. Horrek onura handiak ekarri zizkion turismoaren sektore guztiari; hurrengo hamarraldietan turismoak gero eta indar handiagoa izan zuen, eta ez ziren makalak izan hari esker batzuek eskuratu zituzten irabaziak.

Paisaiaren bikaintasunak eta edertasunak eta hiriak eskaintzen zituen zerbitzuek zerikusirik handia izan zuten erreginarenean erabakian. Ospe handiko bisitari haien erakarmenez, gero eta turista gehiago etortzen zen urtero-urtero Donostiara, gorabehera politikoei jaramonik egin gabe. Turismoaren sektoreak berehala asmatu eta bilatu behar izan zituen aisiarako eta jolaserako baliabide gehiago, turistak luzaroago gera zitezten.

Ekimen publikoak eta pribatuak batera ari izan ziren goi mailako turista haiei beren mailako denbora-pasak eta jolasak eskaintzeko. Kasinoa izan zen ahalegin haien ondorio garbia. 1887an inauguratu zuten, eta ezin hobeki bete zuen bere eginkizuna: Donostiako udaldiari bizitasuna ematea. Hura ez zen izan, ordea, turisten

gozamenerako egin zen ahalegin bakarra. XX. mendearen hasieran, kiroletarako, ikuskizunetarako, eta denbora-pasarako hainbat eraikuntza lan egin zen Donostian, eta, hartarako, oso kontuan hartu zuten zuhaitz eta landareetarako lekuen eta bizitokirako lekuen arteko harmonia.

Ulia mendian, adibidez, hainbat eraikin jaso zuten, eta aire bidezko transbordadore bat ere ipini zuten. Loiola auzoan zezen plaza estali bat kokatu zuten. 1912an jarri zuten abian Igeldoko funikularra, eta hurrengo urteetan egin zituzten Pasealeku Berria eraikitzeke lanak. Kontxako hondartza ere dotoretu egin zuten: La Perla, harrizko eraikina, eta Erreginareen Bainu Etxea -gaur egun Eguzki elkartearen dagoen lekua- jaso zituzten 1911tik 1912ra bitartean. 1921ean, udalak Urgull mendia erosi zuen, herritarren aisiarako. 1922an inauguratu zen Kursaleko Kasino Handia. Horrez gainera, zezen plaza, hipodromoa, golf zelaia... eskaintzen zizkien Donostiak udatiarrei, eta, 1924rako, European boladan zeuden beste leku turistiko guztiak baino askoz eskaintza handiagoa zuen Donostiak.

//22. Donostiako denda dotore baten argazkia.

Propagandak argi eta garbi nabarmentzen zuen Donostiako udaldia elitista zela, eta hondartza inguruko etxeen tankerak eta, udatiarren aisiarako eta jolaserako, Donostiak eskaintzen zuen guztiak azpimarratu besterik ez zuen egiten elitismo hori. Baina, aristokratekin batera, berehala sumatu ziren Donostian halako ospea eta goi maila ez zuten bisitariak: erdiko klase aberastuak. Berehala hasi ziren horiek goi mailako jendearen bide berbera egiten, eta haien jokabideak eta itxurak imitatzen. Gizarteko mailan gora igotzea zen haien nahia, horretarako diruz estu ibili behar baldin bazuten ere. Kontxan jendaurrean agertzeak "itxura ona ematen zuen", eta, XX. mendeak aurrera egin ahala, gero eta burges dirudun gehiago etorri zen beren familiekin uda Donostian igarotzera. Haiek ere ederki gozatu zuten Donostiako udaldiaz, diruz aristokratik baino estuago ibili behar izanagatik.

1920 inguruan, turismoa beheraldian zegoela uste izan zuen askok. Primo de Riverak 1925ean jokoa debekatu izanak ezinegona sortu zuen goi mailako jendearengan, eta udatiar askok Miarrizera alde egin zuen. Hala eta guztiz ere, 1927an, udatiarren kopurua berriz ere handitzen hasi zen. Eta are gehiago ugarituko zen 1930eko hamarraldian.

Nolanahi ere, turismoa "krisian" zegoela aipatzen zuen hainbat donostiarrek behin eta berriz. Donostiara azken boladan beste era bateko udatiarrak etorri izanak sortua izan behar zuen sentipen hura. Izan ere, erdiko klaseko gero eta udatiar gehiago etortzen zen, eta berehala gaudituz zuten aristokraten kopurua. Horrek ezinegona sortu zuen turismotik bizi zen sektorean. Estutasunak, ordea, ez ziren orduan hasi; gerora hasiko ziren, bai gogor estutu ere, Espainiako II. Errepublikaren garaiko iskanbilek eta nahasmenduek bazterrak astindu zituztenean.

Aberasbideak

Ez zen turismoa izan Donostiaren aberasbide bakarra. Turismoa sasoi bakar batera mugatua zegoenez, irabaziak urte osoan emango zituen jardunbideak bilatu beharra zegoen. Burgesiak ahaleginik handienak turismora bideratu bazituen ere, ez zien beste sektore batzuei muzin egin. Dirudun familia saiatuenek beste aukera batzuk aztertu zituzten inbertitzeko, eta kontu handiz ibili ziren, inbertsio batzuek besteei trabarik egin ez ziezaieten.

Donostiako burgesiak aldi berean bultzatu zituen merkataritza, industria, eta finantzak. Jarduera horiek elkarri trabarik egin gabe eta elkarren osagarri egin zuten aurrera, eta sendotu egin zuten Donostiako hiriaren ekonomia. Garai hartan lanean ari zen jendeak zer-nolako lana egiten zuen aztertuz gero, argi ikusten da ekonomiaren bigarren eta hirugarren sektorea ere indartsuak zirela, eta ez hirugarrena bakarrik, hiriak propagandarako baliatzen zuen irudi berriak aditzera ematen zuenez.

Bertako industrian langile askok lan egiten zuen -lanean ari zirenen %40'2k 1900. urtean, eta %41'8k 1930ean-. Donostiako fabrikak, probintziakoak bezala, txikiak ziren tamainaz, eta oso kapital txikiarekin hasiak ziren lanean. Ekonomiako sektore askotan eta elkarren oso desberdinetan aritzen ziren fabrika haiek; batik bat, eta garrantzi handienekotik txikienekora, eraikuntzan, ehungintzan, elikagaien industrian, eta tabakogintzan. Haien artean, baziren bi garrantzi handikoak: *Lizarriturry y Rezola* (1864), Antiguan, kandelak, koloniak, eta xaboiak egiten zituen; eta *Cementos Rezola* (1858), Añorgan.

Donostiako kapitalak ez zien muzin egin garai hartan Gipuzkoan sortu ziren industria berriei. Enpresa askotan parte hartu zuen, eta Donostia inguruan jardunean zeuden fabriketan inbertitu zuen, batez ere.

Lanean ari zirenen artean, hirugarren sektoreak biltzen zuen, proportzioan, langile kopuru handiena -% 51'1 1930ean-. Militar, funtzionario, eta neskame-morroien kopurua neurritz gainekoa zen XIX. mendean, eta horregatik zen hain handia Donostian hirugarren sektorean ziharduten langileen proportzioa. XX. mendeak aurrera egin ahala, ostalaritzako eta lanbide liberaletako langintzek askoz ere indar handiagoa izan zuten. Gizartea bera gero eta modernoagoa eta gero eta konplexuagoa zela esan nahi zuen horrek. Gutxika saltzen zuten saltokiak gero eta gehiago espezializatu ziren. Eta luxuzko salgaiak bereziki udatarrei saltzen zizkieten denda jakin batzuk izan ziren espezializazio horren eredu bitxiena. Saltoki horietako batzuk sasoikoak izaten ziren; alegia, udan baizik ez zituzten zabaltzen atak.

Finantzako erakundeek osatzen zuten Donostiak hirugarren sektorean zuen aukera zabala, eta haiek ematen zuten negozio kopuru handi hark behar zuen oinarria eta euskarria. 1899an zabaldu zituen atak *Banco Gipuzcoano* banketxeak. Hurrena, *Banco de San Sebastián* izan zen, 1909an, Donostiako goi mailako jaun batzuek sortua. 1879an, udalak *Aurrezki Kutxa* sortu zuen -geroago, *Donostiako Aurrezki Kutxa* deitu zioten, eta, geroago, *Gipuzkoako Kutxa*rekin bat eginik,

gaur egungo *Kutxa* sortu zen-, banketxeenaren oso bestelako helburuaz: jendea dirua aurreratzera bultzatzea, eta kapital txikia bereganatzea.

****Hiri amestua****

****Donostiaren irudia***

Hirigintzako proiektu nagusiak ereduak izan ziren. Kontxa, Askatasunaren Hiribidea, Bulebarra, eta Pasealeku Berria: horra Donostiak bere buruaren propaganda egiteko zeukan erakuslehorik onena. Donostiarrek eta bisitariak berehala aukeratu zituzten leku horiek, egoitza han hartzeko... eta, batez ere, "besteak ikusteko" eta "besteek norbera ikusteko". Familia dirudunentzat, paseoa izaten zen harremanetarako eta lagunarteko aukera egokiena.

Burgesiak berehala aukeratu zuen zabalgunea jendarteko harremanetarako. Kale haien dotoretasunean aurkitzen zuten burgesek beren mailari zegokion giro egokia. Parte Zaharrak garai bateko indarra eta bizitasuna galdu zuen. XIX. mendearen bukaera arte, hango kaleetan bizi izan ziren bai herri xehea eta bai goi mailako jendea. Baina, XX. mendeko aurreneko hogeita hamar urteetan, herri xehea baizik ez zebilen kale haietan.

Donostiak hiri modernoaren ospea zuen. Donostiako burgesiak atsegin handiz bereganatu zituen teknologiak haren esku jarri zituen berrikuntza guztiak; bai aurki aldatu ere, haien zirela medio, hiriaren itxura eta tankera. 1899an, kaleetako argiteria elektrikoa inauguratu zuten. Kale haietan barrena aurki ibili ziren tranbiak eta, geroago, automobilak [5]. Baina, haien prezioa garestia baino garestiagoa zenez, gutxi batzuen handizalekeriaren erakusgarriak izan ziren hasieran. Alfontso XIII.a erregeak bultzada handia eman zien automobilei, oso auto zalea baitzen, eta, udaldietan, autoak gidatzen ibili ohi zen Donostian barrena. 1935 aldera, automobilak garraio bide elitista izateari utzi zion.

//23. Atotxako futbol zelaia.

XX. mendearen hasieraz geroztik, kirolerako zaletasunak gora egin zuen Donostian. Jendea txirrindularitzan, igeriketan, futbolekin... aritzen zen, eta pilotan ere bai. Zaletasun hura giro eta joera berri batek bultzatua zen: ohitura osasuntsuei eta gorputz ariketei eman zitzaion garrantziak, alegia. Kirol horietan guztietan talde profesionalak sortu ziren. *San Sebastián Ciclista Foot-ball Club* taldeak Ondarretako zelaian jokatzen zituen partiduak. Baina handiki jendearen denborapasa hark gero eta futbolzale gehiago erakarri zituen. 1910ean sortu zen *Real Sociedad de Foot-ball*. Halako jendetza handia biltzen zen talde berri haren partiduetan, non, azkenean, Atotxako zelaira joan behar izan baitzuten; 1913an eraiki zuten, futbol zale mordo handi hura barruan har ahal zezan.

Udalak telefono sare bat antolatu zuen Donostian, eta 1908an lortu zuen hura erabiltzeko baimena. Donostiarrek zinema ikusteko aukera ere izan zuten,

horretarako berariaz egindako aretoetan -*Novedades*, 1912; *Miramar*, 1913; *Bellas Artes*, 1914; *El Príncipe*, 1922-. Irrati emanaldiak entzuteko aukera ere izan zuten 1925. urteaz geroztik -*Radio San Sebastián*-.

Hiriaren modernizazioak zerbitzu eta azpiegituren sare bat ere ekarri zuen, higiena eta osasunaren premiak behar bezala zaintzen eta betetzen zituena. Udala berehala arduratu zen behartsuei eta baztertuei laguntzeko zerbitzu publikoak antolatzeaz eta ur hornidura bideratzeaz [6]. Udalak alor horretan egin zituen inbertsioek asko jaitzarazi zuten heriotza-tasa; izan ere, Donostiako heriotza-tasa, batez beste, Espainiakoa baino askoz ere txikiagoa zen. Burgesiak ederki atera zien etekina aurrerapen horiei, eta ondo asko baliatu zituen turismorako propagandan. Donostiak higienaren aldetik eskaintzen zuen ziurtasuna oso kontuan hartu zuten udatiarrek ere, eta, hartara, bisitarien kopurua ugaritu egin zen.

****Ametsa deseginik****

XIX. mendearen erdialdeaz geroztik, Donostiako goi mailako klaseek ahalegin biziak egin zituzten hiri kosmopolita, dotorea, eta burgesa egiteko. Hurrengo hamarraldietan, berehala atera zioten etekina beren asmoari, gogotik ustiatu baitzituzten bai hiriaren baliabideak eta bai bere irudia; turismoaren alorrean, batez ere.

Hala eta guztiz ere, donostiar guztiek ez zuten aintzat hartu hiriak udatiarren artean zuen izen ona. Karlistek eta integristek gogotik kritikatu zuten jokoaren eta beste jolas batzuen zitalkeria. Nazionalistek -Engracio de Aranzadi, "Kizkitza"ren bidez- uko egin zioten kosmopolitismoari eta turismoari, haiei egozten baitzieten Donostiak bere euskal sena galdu izana. Sozialistek ere ez zuten batere begiko Donostia udatiarren hiri bihurtu izana, eredu industrial eta merkataria hobesten baitzuten Donostiarako.

Donostia "Easo Ederra" bihurtu izanak behe mailako klaseei egin zien kalte handiena. Estu eta larri atera behar izan zuten bizimodua hiri berez garesti hartan, non prezioak igo besterik egiten ez baitzituen udatiarren etorrerak. Etxebizitza erosi eta alokatu behar izaten zutenean nabaritzen zuen gehienbat herri xeheak Donostiaren garestitasuna. Nolanahi ere, herri xehearen ezinegonak ez zuen istilurik sortu, harik eta XX. mendea aurreratuxea egon zen arte. Ordu arte, Donostiak hiri baketsu eta lasaiaren ospea izan zuen, eta inoiz edo behin izan ziren zalaparta bakanek ez zuten ospe hura gezurtatu.

1916. urtearen bukaeran, egoera hura aldatzen hasi zen. I. Mundu Gerra bitartean eta hurrengo urteetan, langileek liskar handiak sorrarazi zituzten Espainian, eta giro zalapartatsu hark eragina izan zuen Donostian ere. 1916. urtearen bukaeran, UGT eta CNT sindikatuek lanuztera deitu zuten, oinarri-oinarrizko elikagaiak garestitu izanagatik protesta egiteko. Borroka gogorak izan ziren Donostian manifestarien eta Guardia Zibilaren artean. 1917tik 1923ra bitartean, langileek behin eta berriz

egin zituzten protestak eta lanuzteak Espainian, eta haien oihartzunak Donostiara ere iritsi ziren, ozenago batzuetan, motelago bestetan.

Donostiako ekonomiaren gidariak oso kezkatu ziren, istilu eta nahasmendu haiek oso eragin kaltegarria izango zutelako turismorako propagandan. "Arazo soziala" ordu txarrean plazaratu zen haientzat Donostiako eguneroko bizitzan, eta zeharo lausotu zuen udaldirako hiri txit egoki haren irudi idealizatua. Liskar haiek agerian utzi zuten Donostiako gizartea askok uste baino askoz ere konplexuagoa egin zela ekonomiaren eta industriaren aurrerabidearen itzalean. Langileen mugimenduak eta herritar askoren estutasunek eta nahigabeek lokaztu egin zuten propaganda ofizialak lau haizetara zabaldua zuen hiri eta bainu etxe burgesaren irudi idilikoa.

****Hiri politikoa****

1874ko abenduan Borbon familiak Espainiako erregetza berreskuratu zuen. Martínez Camposen kolpe militarrek amaiera eman zion "Sei Urtekoari", eta monarkia berrezarri zuen: Isabel II.aren oinordekoa izendatu zuten errege, haren seme Alfontso XII.a. Cánovas del Castillo gobernu buruaren helburu nagusia monarkia indartzea zen. Oso kontuan hartu zuen alderdi bera -moderatuak- behin eta berriz aukeratzeagatik bota zutela azkenean Isabel II.a tronutik. Hutsegite hura bera berriz ez egitearren, txandakako sistema bat antolatu zuen, alderdi politiko guztiek agintea izan zezaten, eta bat bera baztertuta gelditu ez zedin. Cánovasek oinarriak jarri zituen, beraz, liberalismoaren bi joera nagusietako buruzagiak, moderatuak eta aurrerazaleak, txandaka gobernuan ari izan zitezten. Horretarako, bakezko baliabideak erabili zituen, eta, ustez, demokratikoak. Cánovasen asmo hura ondo aterako bazen, behin alderdi batek eta hurrengoan besteak atera behar zuen hauteskundeetan irabazle. Herritarren botoa faltsutu egin behar izan zuten, beraz, alde aurretik hitzartutako garaipen baten mesedetan. Amarru hura zilegi iruditzen zitzaion Cánovasi, erregeak erregetzan betiko iraungo zuela ziurtatzeko.

"Jauntxokeria" deitu zioten garai hartan bertan sistema hari. Indarrean jarri zenean, bi alderdi haiek zorrotz txandakatu ziren agintean, baina sistema hark erro-errotik gaiztotu zuen politika osoa, hautesleen botoa gutxiesteaz gainera, itxurakeria huts bihurtu baitzituen hauteskundeak.

Botazioetatik boterearen gorengo mailaraino zegoen tarte handi hartan ustelkeria nagusitu zen, ez baitzegoen beste biderik alde aurretik hitzartutako emaitzak hauteskundeetan lortu ahal izateko. Hiri bakoitzeko handiki jendeak -herriak "jauntxo" esaten zien- aukera ezin hobea izan zuen tarte horretan zeinek bere egoera hobetzeko. Haiek ziren agintarien eta herri xehearen arteko kate begia, eta haiek eskaintzen zieten agintariei herriaren babes "ofiziala".

"Ustelkeria" eta "oligarkia" ziren sistema hura kritikatzeko zuten artean gehien entzuten ziren hitzak. Sistema makur hartan, ordea, herritarrek ordu arte baino askatasun handiagoa izan zuten. Gobernuan egoteko txanda liberalei egokitzen zitzaizkenez nabaritu zen gehien askatasun hura. Liberalei esker, Espainian prentsako

eta adierazteko askatasuna ezarri zen, joera askotako alderdi eta sindikatuak sortu ziren, eta garrantzi handiko neurriak hartu ziren laguntza sozialari zegokion alorrean. 1890ean, esate baterako, liberalek gizonezkoen sufragio unibertsala ezarri zuten; horrek ez zuen, ordea, hauteskundeetako iruzurra eta amarrua geldiarazi.

Monarkiaren kontra zeuden alderdiak oso ahulduta egon ziren aurreneko hamarraldietan. XX. mendearekin batera, indartu egin ziren, eta gero eta jende gehiago erakartzeko gauza izan ziren. Hala hasi ziren liskarrak eta protestak, motelak hasieran, gero eta gogorragoak ondoren, harik eta Cánovasek antolatutako estatu haren oinarriak desegin zituzten arte. Bi indar berri, sozialistak eta nazionalistak, elkartu zitzaizkien monarkiaren aurkakoei -karlistei eta errepublikanoei, alegia-; hala, erregeak gero eta babes gutxiago zuen gizartean.

Garai hartan, Donostia liberalismoaren eredu izan zen. Donostiak XIX. mendean nortasuna tankeratua zioten ezaugarri haiek berak indartu zituen: hiri zabala, kosmopolita, tolerantia, eta ikasia eta landua. Ezaugarri horiek bat egiten zuten liberalismoarekin. Izen horren pean hainbat joera politiko zeuden elkartuta -kontserbadoreak, berez liberalak zirenak, eta errepublikazaleak-, eta bakoitzak bere erara adierazten zuen bere pentsaera. Joera horiek guztiek bazuten ardatz garbi bat: askatasuna eta, batez ere, tradizionalismoaren eta nazionalismoaren ukazioa. Hauteskundeetan halakoxe baieztapen lausoez osatutako programa bat hitzartzen bazuten ere, ezin zuten ezkutatu buruzagitza sendorik gabeko indar politikoen multzo nahasi bat besterik ez zirela azken batean. Beraz, hitzarmenak egin behar izaten zituzten elkarren artean, hauteskundeetan irabazteko eta gobernatu ahal izateko.

II. Karlistaldiaren ondorengo urteetan, Donostiak erregearen alde egin zuen, hiri guztiz liberala baitzen. Nola Gipuzkoa karlismoaren jarraitzaile porrokatua zen, donostiarren jarrerak ez zituen asko goxatu gipuzkoar askoren haserreak. 1884. urteaz geroztik, karlistek beren esku zeukaten Gipuzkoako Diputazioa, eta, haren bidez, Kontzertu Ekonomikoa [7].

Donostiako burgesiak aurre egin nahi izan zien, eta, horretarako, koalizio bat eratu zuten, errepublikazale moderatuak eta erregezaleak elkartzen zituena. Donostiako handikiak gogotik borrokatu ziren beren interes politikoen eta ekonomikoen alde. Garai hartako politikan nabarmendu ziren, besteak beste: Jose Matxinbarrena, Brunet familia, Jamar familia, Fermín Calbetón... Talde horrek agintea eskuratu zuen Diputazioan, eta, beraz, Gipuzkoa osoan, alde aurretik ondo antolatua baitzuten dena, hauteskundeetan irabazi ahal izateko [8].

Gaur elkartu eta bihar bereizi ibili zen bolada batean koalizio hura. Azkenean, erabat hautsi zenean, kontserbadoreek hartu zuten aginpidea. Eskuinaldeko talde askorekin egin behar izan zituzten itunak, baita integristekin ere. Lizarriturry, Mercader, Laffitte, eta Enrique de Satrústegui ziren kontserbadore aipagarrienak.

Kontzertu Ekonomikoen hitzarmena gobernu zentralarekin berri beharrak estualdi handiak sortu zituen Donostiako kaleetan, bai 1893an eta bai 1904an. Indar asko elkartu ziren zerga erregimen hitzartu haren alde, eta hala sortu zen, 1904an, *Liga Foral Autonomista* zeritzan elkarte. Errepublikazaleak, liberalak eta integristak bildu ziren elkarte hartan, bi helburu nagusi lortzeko: Kontzertua Gipuzkoari ahalik eta onura gehien ekarriko zion moduan negoziatzea, eta tokian tokiko jauntxoak garaitzea. Kontzertu berria izenpetu zutenean, Liga hura desegin egin zen.

//24. 1893ko abuztuko gertaerak.

Donostiarrek hamaika aldiz jasan behar izan zituzten jauntxoek amarruak. 1900etik aurrera politikan izan ziren gorabeherak indarra kendu zieten jauntxokeria haiei. XX. mendearan hasieran gizartean izan ziren aldaketek apaldu egin zuten oligarkiak ordu arte hauteskundeetan izaten zuen indarra. Jauntxoek gero eta esku gutxiago zuten gizartean. Egoera berri hartan, errepublikazaleek eta sozialistek gora egin zuten hauteskundeetan, gero eta errotuago baitzeuden gizartean. Botazioen emaitzak garbiagoak zirenez geroztik, argi ikusi zen erdiko klaseek zer-nolako indarra hartua zuten Donostian. Eta klase haiek politikan parte hartu izana Donostiaren oso ezaugarri berezia izan zen.

Alderdi politiko tradizionalak gainbeheran hasi ziren, eta, 1917tik 1923ra, krisialdi handi bat izan zuten: zatiketa ugari izan zituzten, hautesleek ez zituzten aintzat hartzen, eredu zaharkituak bideratu nahi izan zituzten... Alderdiak zatitu eta sakabanatu egin ziren, eta inork ez zuen nahaspila hartan nagusitzeko behar besteko indarrik izan. Egoera hartan, PNVk -artean, *Comunión Nacionalista Vasca* zuen izena- indarra hartu zuen Donostian. 1920tik 1922ra, zinegotzi kopurua gehitu zuen, aldeztatik lan handia egin baitzuen herritarren artean alderdiaren berri ematen.

Kataluniako Kapitain Jeneral Miguel Primo de Riverak 1923ko irailean jo zuen kolpe militarrek botazio bidezko sistema etenarazi zuen. Diktadura ezarri zuen, erregearen babesarekin, 1930eko urtarrila arte. Konstituzioa indargabetu zuen, Espainiako legebiltzarra desegin zuen, eta zentsura gogor bat ezarri zuen.

Donostian ez zitzaion indar handiz aurka egin kolpe militar hari. Errestaurazioaren aldeko alderdiak gainbeheran zeuden, eta ezkerreko alderdiak ez zeuden behar bezala antolatuta. Ez da ahaztu behar, gainera, erregearen familia, eta diktadorea bera ere, Donostiara etortzen zirela udaldi oro. Primoren aurkako etsaitasuna areagotu egin zen joko debekatu zuenean, Donostiak bere bi kasinoak itxi behar izan baitzituen -Gran Kursaal kasinoa kolpea baino urtebete lehenago inauguratu zuten, 1922an-.

Diktaturaren garaian, politikak ez zuen gorabehera handirik izan Donostian. Kontserbadore ospetsu batzuk -Vicente Laffitte, J. A. Lizasoian, Gaytán de Ayala, Pérez Arregui, Paguaga...- diktadoreak sortu zuten alderdi politiko berriak sartu ziren, *Unión Patriótica*n. Haren bidez hartu zuten esku diputazioan eta udalean. Aurreko agintarien bide berak jorratu zituen udalak: zabalgunea eta turismoa.

Jarraitasun hark garbi erakusten zuen Donostiako burgesiak zenbateraino hartzen zuten elkar bere interesen alde, nork bere joera politikoak alde batera utzita.

Diktadura 1930eko urtarrilean erori zen, eta politikariak zer gertatuko zain geratu ziren. Alfontso XIII.ak 1923 arte indarrean egon zen sistema berrezarri nahi izan zuen. Erregearen aldeko indarrak, ordea, lur jota zeuden. Oposizioa, berriz, indartuta eta antolatuta zegoen. 1930eko abuztuan, errepublikazaleak, katalanistak, eta Indalecio Prieto buruzagi sozialista Donostian bildu ziren, eta han izenpetu zuten "Donostiako Ituna", sinatzaileak monarkia erorarazteko konpromisoa hartzera behartzen zituen.

Hurrengo hilabeteetan, oposizioak nahasmendua eta iraultza pizteko saioak eragin zituen, baina ez zuten sistema politiko hura aldatzea lortu. Gertaera odoltsuak ere izan ziren, hildakoak eta guzti, baina monarkiak agintean iraun zuen, hala ere. Erregea hauteskunderen emaitzek bota zuten tronutik. Indarkeriaz lortu ahal izan ez zena baliabide huts-hutsik demokratikoen bidez lortu zen; alegia, diktaduraren ondorengo aurreneko hauteskunderen desegin zuten monarkia.

1931ko apirilaren 12an egitekoak ziren hauteskundeak udaletako ordezkariak aukeratzeko baizik ez ziren. Baina, egun hartan, hautesleek, alkate-zinegotziak aukeratzeaz gainera, monarkia epaitu ere zuten. Botazioetan, errepublikaren aldekoak atera ziren garaile Espainiako hiri gehienetan. Politikari guztiek, eta erregeak ere bai, botazio haien emaitzak monarkia auzitan jartzen zutela interpretatu zuten. Alfontso XIII.ak aintzat hartu zuen herriaren erabakia. Tronua utzi zuen, eta alde egin zuen Espainiatik.

Horrela hasi zen Espainiako Bigarren Errepublika, herritarrek gogo beroz goraipatua. Agintari errepublikanoek borondate handiz eta zintzo jokatu zuten demokraziaren alde. Hurrengo urteetan, gogotik saiatu ziren Espainiako politika aldatzen eta eraberritzen. Eta, Espainia modernizatzeko ahalegin handi hartan, ez ziren makalak izan konpondu beharreko arazoak, oinarri-oinarrizkoak baitziren: baserrietako eta landako jabetza nola banatu erabakitzea, Eliza katolikoak eta Armadak estatuan eta gizartean zuten estatusa eta maila egokitzea, irakaskuntza hedatzea eta hobetzea...

Gertaera haiek guztiek oihartzun handia izan zuten Donostian. Hauteskunderen, mitinen, eta bestelako adierazpideen bitartez, donostiarrek gogotik parte hartu zuten politikan. Zeregin publikoetan herritarrek erruz eta gogoz parte hartze hura izan zuen Espainiako II. Errepublikak ezaugarri berezia, irrika handia baitzegoen bazterretan, diktaduraren garaian lozorroan nahitaez egon ondoren.

Donostiako boto-emaileak ez ziren joera bakarrekoak; alderdi errepublikazaleak eta ezkerrekoak nagusitu baziren ere, nazionalismoa eta eskuina ez zeuden batere ahul. Gipuzkoan, berriz, nazionalismoa eta eskuina ziren jaun eta jabe. Berriz ere, Donostia eta Gipuzkoa ez zetozen bat politikan; aitzitik, Donostiak garbi utzi zuen bere joera aurrerazalea garai hartako botazio sarrietan: 1931ko apirileko udaletarako

hauteskundeetan, 1931ko ekaineko Legebiltzar Konstituziogilerako hauteskundeetan, eta, aurrerago, 1993ko eta 1936ko legebiltzarrerako hauteskundeetan.

Joera demokratiko aurrerazale berri hura ezkerreko alderdietan gorpuztu zen, eta, hala, bat egin zuen liberalismoarekin; alegia, XIX. mendez geroztik Donostian guztiz errotua zegoen pentsaerarekin. Gidari errepublikazaleek eta ezkertiarrek zintzo jokatu zuten aurrerabidearekin zerikusia zuten balioen alde; eta, eduki ere, donostiarrek oso aintzat hartuak zeuzkaten balio horiek. Horri esker irabazi zituzten garai hartako botazio gehienak, eta horri esker hartu zuten aginpidea udalean 1931n.

Demokraziak, beraz, aldaketa handia ekarri zuen udalera, errepublikazaleak eta sozialistak nagusitu baitziren. Alkate berria, Fernando Sasiain, Donostiako *Unión Republicana* alderdiko lehendakaria zen. Gipuzkoako politikan ere eragin handia izan zuen, eta, bere kargutik, autonomiaren alde egin zuen argi eta garbi [9].

Udalak gogotik egin zuen orobat Kontzertu Ekonomikoaren alde, "Ardoaren Gerra" zela eta. Espainiako Ogasunak edari alkoholduen zerga kendu nahi izan zuenean, Gipuzkoako udalerrri gehienak aurka jarri zitzaizkion. Erabaki hark kalte egiten zien Euskal Herriko probintzietako diputazioei, zerga haren bidez biltzen zituzten irabaziak kentzen zizkielako. 1934ko udan zehar, udalek hainbat ekinaldi egin zituzten zerga hura biltzeko ahalmena ken ez ziezaieten.

Donostia izan zen, gutxiengo monarkikoa izan ezik, erresistentziako ekintza haien bultzatzaile nagusia. Gobernuak aurre egin zion udalen oposizioari, eta hamaika iskanbila eta nahasmendu izan zen bazterretan. Istilu haietan, Sasiain kargua uztera behartu zuten eta auzipetu egin zuten, eta udaleko zinegotzi gehienek dimisioa eman zuten. 1934tik 1936ra, behin-behineko udalbatza izan zen Donostian agintari. Ordu arteko udalbatzak 1936an hartu zuen berriz ere agintea, *Frente Popular*ek Espainiako Legebiltzarrerako hauteskundeak irabazi zituenean.

Liskar haiek oihartzun handia izan zuten Donostian; ez, ordea, II. Errepublikan Espainian izan ziren bestelako gertaera aipagarri batzuek: komentuei su emateek, nagusien eta langileen arteko liskarrek... 1934ko urrian, langileen erakundeek erabateko lanuztera deitu zuten, CEDA alderdiko eskuineko politikariek gobernuan parte har ez zezaten. Militarrek Donostiako kaleak hartu zituzten. Indarkeria nagusitu zen egun haietan, eta hainbat grebalari balaz hil eta zauritu zituzten. Gobernuak gerrako egoera ezarri zuen, eta León Carrasco komandante militarrek hartu zuen Donostian aginpidea.

Izen hori bera behin eta berriz aipatuko da 1936ko gertaerez hitz egiterakoan; baina horiek hurrengo kapituluko kontuak dira.

OHARRAK

: [1] Udalak harresiak botatzeko aukera handiak zeudela ikusi zuenean, eta erabaki hori legez bideratu zuen Errege Ordena eman ere baino lehen, Bartzelonara bidali zuen Rocaverdeko markesa, hango zabalgunearen nondik norakoaz dokumenta zedin. 1862. urtea zen.

: [2] Cortázarrek onartu zuen berak metro koadro bakoitzeko proposatzen zuen biztanle dentsitatea *higienearen onerako ohi dena baino* handiagoa zela. Klima ona izateak higie gutxi horren ondorio kaltegarriak baretuko zituelako uste osoa zuen. Haren proiektuan, kaleak 10etik 20raino metro zabal ziren. Bartzelonan, kaleak, gutxienez, 20 metrotik 30 metrora zabal ziren; eta Madrilan, berriz, 15 metro zabal ziren, gutxienez. Cortázar orubeetako ahalik eta bolumen gehiena eraikitzeke erabiltzearen alde zegoen, eta ez zuen eraikuntzarako erabil zitekeen espaziorik eraiki gabe utzi nahi.

: [3] Garai bateko moderatuak, eta federalistarik erradikalenak, batasun horretatik kanpo gelditu ziren.

: [4] 1898. urtean izan ezik, Espainiaren eta Kubaren arteko gerra zela eta.

: [5] 1933an, 8.923 automobil zeuden matrikulatuta Donostian.

: [6] Ur gabezia konpontzeko, udalak ura ekarri zuen Añarbetik -1899an- eta Artikutzatik -1919an erosi zuen udalak lur sail hori-. Udalak osasun publikorako zerbitzu bat sortu eta mantendu zuen, eta langile espezializatuak jarri zituen zeregin horretan. Familia behartsuei laguntzen zien, eta ospitaleko zerbitzuak eta sendagaiak dohainik eskaintzen eta ematen zizkien. San Antonio Abad Ospitaleari -1888- eta Zorroagako Zaharren Etxeari -1910- diruz laguntzen zien, Ongintzako Batzordearekin batera. Premia handian zeuden herritarrei laguntzeko, bazituen udalak beste erakunde batzuk ere: San Bartolomeko Egoitza -1909-, Gipuzkoako Errukizko Egintzen Elkarteak sortua, eta kaleetako behartsuei aterpea ematen ziena; *La Gota de Leche*, eskoletako jangelak, haurrei jaten emateko; eta baita "sukalde merkeak" ere.

: [7] Borbondarrek eta Euskal Herriko probintziek ogasunerako erregimen berezi bat hitzartu zuten. Lurralde historikoek ez zioten zergarik ordaindu behar Madrileko ogasunari. Ordainetan, alde aurretik hitzartutako diru kopuru jakin bat –*kupoa*- ordaindu behar zioten, diputazioek, zeinek bere irizpideen arabera, bildu behar zutena. Diputazioek zergak biltzeko ahalmena izateak botere handia ematen zien ekonomian. Diputazioa bere esku zeukanak probintzia osoko aberastasunak zeuzkan bere esku. Ez da harrizkeoa, beraz, talde politiko guztiak lehia bizian aritzea Diputazioan aginpidea hartzeko.

: [8] Koalizio hark gogor estutu zuen gobernua, barruti berri bat sor zezan hauteskundeetarako... liberal zalea izango zena, jakina. Horrela sortu zen Irungo barrutia, eta hark kendu zien indarra Gipuzkoako "barrualdeko" barrutiei; alegia, karlisten aldeko barrutiei.

: [9] Sasiainek ez zuen "Lizarrako Estatutua"ren alde egin -hala zeritzan lehenengo autonomia proiektuari-, eskuinekoa eta nazionalista zelako, haren ustean. Baina "Diputazioen Estatutuaren" edo "Gestoren estatutuaren" alde egin zuen, ezkerak bultzatua baitzen. Lizarrako estatutua Espainiako Legebiltzarrean atzera bota zutenean, nazionalistek beste estatutu horren alde egin zuten, errepublikanoekin eta sozialistekin batera.

Oroimenean hurbil: 1936-2000

Félix Luengo

OROIMENEAN HURBIL: 1936-2000 / 149

Kapitulu honek gaur egungo gizon-emakumeen oroimenean bizirik dauden gertaerak biltzen ditu. 1936ko Gerra Zibilarekin hasten da. Fronteak ez zuen askorik iraun Donostian. Indarkeriak ez zuen kalte handirik egin etxeetan eta kaleetan; bai, ordea, Donostiako gizartean, gertaera haien ondorioz, haustura handi bat izan baitzen donostiarren artean. Hurrengo hamarraldietan, gorabehera handiak izan ziren politikan eta ekonomian. XX. mendearen bukaerako eta XXI. mendearen hasierako urteetan, Donostiako bizitzak eta hiriak goraldi handia izan zuten.

****Gerra Zibila****

****Donostia armetan (1936ko uztaila-iraila)****

Falangea eta alderdi monarkikoak eta eskuineko katolikoak Errepublikaren kontra zeuden, eta gobernuaren aurkako matxinada bat bultzatu zuten. Indar horiek guztiak **Bloque Nacional** deitu zitzaion batasun batean elkartu ziren, eta estatu kolpe bat jo zuten, militarra gehienbat, eta politikaren aldetik anbiguo samarra. Hilabete asko eman zuten estrategia antolatzen, isilpean. Errepublikazaleek eta ezkertiarrek - **Frente Popular**ek- 1936ko hauteskundeak irabazi zituztenean, eskuinak bizkortu egin zituen prestalanak. Hasieran, karlismoak ez zuen oso begi onez ikusi matxinada hura, baina, gero, Emilio Mola jeneralari men egin zion, eta, azkenik, matxinatuen alde egin zuen.

Matxinada -**El Alzamiento**- 1936ko uztailan hasi zen, eta hiru urteko gerra zibila ekarri zuen Espainiara. Ordu arteko hauteskundeetan, Gipuzkoa kontserbadore samarra izan zenez gero, alderdi bai tradizionalistek eta bai nazionalistek eman baitziren gehienbat botoa, matxinatuek probintzia hori mendean berehala hartuko zutelako uste izan zuten. Ez zen, ordea, hori gertatu, eta oraindik gutxiago Donostian.

Kolpe militar haren lehenengo zurrumurrak abuztuaren 17ko arratsean hasi ziren barra-barra zabaltzen, Donostiako udaldia indar betean zegoenean. Artola Goikoetxea gobernadore zibilak berehala lasaitu zituen turistak, eta albiste larri haiek gutxietsi zituen. Buruzagi nazionalistek eta ezkertiarrek haren jarrera arbuatu zuten, eta "Agintarien Batzar" bat jarri zuten agintean haren ordean, Errepublikaren zilegitasuna defenda zezan. Batzar hartakoak ziren, besteak beste, buruzagi militarra -Carrasco komandantea- eta, jakina, Fernando Sasiain, alkatea.

Kalean tirabira handiak zebiltzan. Zuela hilabete batzuek geroztik, komunistek eta anarkistek beren militante batzuk infiltratuta zeuzkatzen Donostiako falangisten

artean. Kolpeak ez zituen, beraz, ustekabeen harrapatu, bai baitzuten matxinatuen asmoen berri. Hortaz, bat-bateko miliziak antolatu zituzten berehala, eta eskura aurkitu zituzten arma gutxi batzuen jabe egin ziren.

Donostiarrak erne zeuden, Loiolako kuartelean esku hartzeko prest zeuden militarrek zer egingo ote zuten zain. Inork ez zeukan garbi zer jokabide izango zuten haiek. León Carrasco buruzagi militarrek behin eta berriz esana zuen leial iraungo zuela Errepublikaren alde. Baina soldaduak zalantza handian zeuden, ofizial guztiak bat ez zetozeela ikusirik. Hala eta guztiz ere, Agintarien Batzarrak aintzat hartu zuen Carrascoren hitza; talde armatu bat antolatu zuen, hilaren 21ean Gasteizera abiatzeko, matxinatuen eskuetatik hiri hura askatzera. Bidean, Loiolako militarrek elkartuko zitzaizkiela uste zuten.

Alferrik egon ziren haien zain. Ordurako, Mola jeneralak gogotik akuilatuak zituen Loiolako militarrek, eta soldaduak, Vallespín teniente koronela buru zutela, kuarteletik atera ziren, ez Gasteizera abiatzeko, Donostia mendean hartzeko baizik. Carrasco agintetik kendu zuten. Soldadu matxinatuak Donostiako erdialdera iritsi ziren, eta eraikin estrategiko batzuk hartu zituzten -Kasinoa, M^a Cristina Hotela, Klub Nautikoa, Komandantzia Militarra-. Miliziek aurre egin zieten barrikadetatik, eta aurki bildu zitzaizkien indar armatu gehiago.

//25. Gerra Zibila Donostian. Goian, barrikada bat Larramendi kalean. Behean, kanoi blindatu bat kasinoaren aurrean.

Erresistentzia hark Vallespínen gizonak atzerarazi zituen. Beren posizioak utzi, eta atzera egin zuten, Santa Katalina Zubian barrena, Ametzagañako muinoan eta Polloen barrena, eta kuartelean babestu ziren berriz ere. Errepublikazaleek setioan jarri zituzten han. Hilaren 26an, hegazkin batek bi bonba jaurti zituen kuartelera. Urik eta argirik gabe, eta soldadu batzuk hilik zeuzkatela, militarrek uztailearen 28an errenditu ziren. Vallespínek Nafarroara ihes egitea lortu zuen. Sasiain alkateak garaipena ospatzera deitu zituen donostiarrak, Udaleko Bandaren musikaz lagundurik.

Matxinatzeko saio hura ikusita, Agintarien Batzarra Eibarrera joan zen uztailearen 21ean, segurtasunezko arrazoiak zirela medio. Donostia agintari ofizialik gabe gelditu zen, eta bat-batean sortu ziren milizia haiek mendean hartu zituzten kaleak. Buruzagi errepublikazaleek erakunde bat sortu zuten, Errepublikari leial iraun zuten indar guztiak elkartzeko eta agintean zegoen hutsunea betetzeko.

Uztailearen 27an sortu zen, bada, *Gipuzkoako Defentsa Batzarra*. Berehala izan zen hura benetako aginte bakarra, errepublikazaleen mende zeuden lekuetatik bakarturik gelditu baitzen Donostia. Batzar horrek bere gain hartu zituen udalari zegozkion zereginak. Udaletxean bertan ere batzar horren erakunde batek hartu zuen egoitza, *Comisaría de Abastos* zeritzanak.

Oso kontuan hartzekoa da batzar haren batzorde gehienetan ezkerreko indarrek zutela gehiengoa. Neurritz gaineko ordezkaritza hark kutsu iraultzaileko erabakiak harrarazi zizkien: ikastetxeak, eraikin erlijiosoak, eta etxe partikularrak bahitzea; fabriketan batzordeak antolatzea; enpresetan esku hartzea... *Frente Popular* zen haien komunikabidea, kutsu iraultzaile eta anarkistako egunkaria [1].

Iraultza kutsu bera nabaritu zen Donostiako kaleetan, batzar hark agindu zuen hilabeteetan. Miliziek erretaguardiako zereginak antolatu zituzten. Politikako eguneroko jardunean nagusitu zen kutsu iraultzaile hura ez zuen PNVk batere gogoko izan, ez baita ahaztu behar alderdi hura Aginte Batzarrean zegoela ezkerreko alderdiekin batera. Hortaz, Loiolako Santutegian bildu zituen bere miliziak, eta Donostian, berriz, ordena publikoa kontrolatzera mugatu zen, berari baitzegokion agintearen alor hura.

Nazionalistek ordena publikoaren ardura zuten, baina ezin izan zituzten, hala ere, 1936ko udan Donostiako kaleetan izan ziren istilu latzak geldiarazi. Ondarretako espetxeari egin zioten erasoak izan zen gertaera gogorrena. Abuztuan zehar, hainbat eskuindar atxilotu zituzten Donostian. Hilabete hartan bertan, matxinatuak Donostia bonbardatu zuten. Mendeku hartzeko, milizianoek eskuineko atxilotuak gerra kontseiluan epaitu zituzten, heriotza zigorra eman zieten, eta berehala fusilatu zituzten.

//26. 1936ko abuztuko bonbardaketek Kontxako pasealekuan egindako txikizioa.

Irailaren hasieran, matxinatuak gero eta hurbilago zeuden Donostiatik. Irailaren 5ean, Irun hartu zuten. Donostia matxinatuen esku erortzeko zorian zegoen. Irailaren 12an, Defentsa Batzordeak Bizkaira ihes egiteko plana antolatu zuen. Beste indar politikoek ez zuten aintzat hartu CNT sindikatuaren asmoa: etsaiari nola edo hala aurre egitea. PNVk, azken orduetan, lortu zuen Donostiatik ihes egiterakoan hilketa gehiagorik egin ez zedin eta milizianoek Donostia erre ez zezaten, Irunen egin zuten bezala.

Irailaren 13ko goizean, *Tercio de Lácar* guda taldeko hogeita bost gizon, Ignacio Ureta kapitaina buru zutela, Mirakruz gainetik behera sartu ziren Donostian. Hirian barruratu ahala, kaleak erdi hutsik zeudela konturatu ziren. Donostiar gutxi batzuk besterik ez zituzten bidean, txaloka. Haietako batzuk ezkutatuta egon ziren aurreko bi hilabeteetan, espetxean sar ez zituzten, eta hura zuten kalera irteten ziren aurreneko aldia. Donostiar gehienek, ordea, alde egin zuten, matxinatuen zigorraren eta mendekuaren beldur [2]. Oso kontuan hartzekoa da egun haietan langileen auzoak zirela jende gutxien zutenak.

Gerra bukatua zen Donostiarentzat. Harrezkero, Gipuzkoako hiriburua erretaguardian egon zen.

Donostia erretaguardian

**** (1936ko iraila-1939ko apirila) ****

Irailaren 13tik gerra bukatu zen arte -1939ko apirila- Donostiak bere eguneroko bizitza berriz antolatu zuen, frontetik urruti egoteak ematen zizkion aukerez baliaturik. Hiri kosmopolita eta burgesa izateak berehala erakarri zuen errepublikanoen aldetik zetorren iheslari mordo handi bat; kulturako, politikako, eta goi mailako pertsona nabarmenak, batez ere.

Madriletak eta Bartzelonak Errepublikaren gobernuari leial iraun ziotenez gero, Donostia izan zen frankisten aldeko "hiriburu" alegiazkoa. Uste horretan zeuden behintzat diplomatiko eta enbaxadore batzuk, Donostian hartu baitzuten azkar asko egoitza. Donostian bizi ziren madrildarren eta katalanen kopurua asko handitu zen [3]. Donostiarrek interes handiz jarraitu zieten gerraren nondik norakoei, baina eguneroko bizitza gerrari bizkarra emanez antolatu zuten. Aisia, bankuak eta negozioak normal antzean hasi ziren egunero-egunero jardunean. Aisiarako lekuetan joan-etorri handia zegoen. Hotel berriak ireki ere egin zituzten.

Erregimen berri haren aldeko intelektual ospetsuenek Donostian egoitza hartu izanak, batetik, eta papergintzak aukeran jartzen zuen azpiegiturak, bestetik, alde "nazionalaren" argitaratzeko eta propagandako gune nagusi bihurtu zuten Donostia. Itzal handiko kazetari eta idazle batzuek, eta goi mailako gizarteko beste pertsona ospetsu batzuek, halakoxe kulturazko eta fintasunezko kutsua eman zioten Donostiari; kulturaren hiriburu moduko bat izan zen, beraz, Espainia gerra latz batean sartuta egon zen bitartean.

//27. Francoren segizioa Hemani kalean, bere Guardia Mairua lagun zuela.

Bertako hierarkian, kargu berri bat nagusitu zen, handia baitzen bere baitan biltzen zuen agintea: gobernadore zibila. Politikako gorabehera guztiak haren esku zeuden. Urteek aurrera egin ahala, gero eta eskumen gehiago izan zituen administrazioaren alorrean. Haien artean, garrantzitsuenetako bat alkateak eta zinegotziak izendatzea eta kargutik kentzea izan zen. Hartara, udalerrietako aginte osoa bere mendean zeukan. Zinegotziak txotxongilo huts bihurtu ziren, gobernuaren esanetan betearazle soilak. Harrezkero, kargutik berehala boteak izateko arriskuak oso mugatu zuten haien zeregina.

Udalaren ahalmen politikoa zeharo gutxitua gelditu zen. Hala eta guztiz ere, lehenengo urteetan, jende askotxo ibili zen zinegotzi kargua hartu-utzi. Frankismoaren inguruan bildu ziren indar politikoak elkarren aurka baitzebiltzan, zinegotzi karguak nork beretzat hartuko ibili ziren batzuk eta besteak. Alderdi bakarraren itxuraren atzean, frankismoak tradizionalistak, falangistak eta *Renovación Española* alderdia bildu zituen [4], baina ustez bakarra zen alderdi horrek nekez ezkuta zitzakeen haien arteko tirabirak eta liskarrak. 1942 arte, ez zen udal egonkorrik izan Donostian.

//28. Ondarretako espetxea, Igeldo mendiaren pean.

Garaileen alderdiaren jarraitzaileen arteko ika-mikek ez zuten batere ahuldu erregimen frankistak aurkari politikoak zapaltzeko zuen ahalmen eta indar handia. Errepublikanoak, abertzaleak, eta ezkertiarrek zigortzeaz gainera, mendeku pertsonalak, susmo txarrak, eta salaketak ere baliatu zituzten frankistek donostiar asko eta asko Errepublikaren laguntzailatzat salatzen eta gogor zigortzeko.

Etengabe atxilotzen zuten jendea, eta espetxe modukoak antolatu behar izan zituzten, Ondarretakoa leporaino beteta baitzegoen: San Jose zaharren etxea, Asaltoko Guardiak Zapatarin izan zuen kuartela, *San José de la Montaña*... Zigor gogorrenak epaitegi militarrek ematen zituzten; zenbat jende fusilatu zuten jakitea erraza ez bada ere, uste izatekoa da asko izan zirela.

1937ko urtarrilean, *Comisión Provincial de Incautación de Bienes* zeritzan erakunde bat antolatu zuten frankistek, garaituei beste zigor mota bat ezartzeko: isunak jartzea eta haien etxebizitzak bahitzea. Erakunde horren arduradunek ondarrerik gabe utzi zituen familia asko. Funtzionario publiko asko ere zigortu zituzten: batzuei soldata aldi baterako kendu zieten, eta beste batzuk kalera bota zituzten.

****Frankismoa****

Gerraondoa. Garai ilunak (1939-1945)

1939ko apirilean, bakea etorri zenean, Donostia estualdietan sartu zen. Batetik, Espainiako gerra bukatu zenean, Madril berriro izan zen Espainiako Estatuko hiriburua. Iheslariak zein bere herrira itzuli ziren, eta Espainiako hiri handiak bizimodu normala egiten hasi ziren. Donostiak "Ordezko Hiriburu" izateak eman zion zeregina galdu zuen, eta, horrekin batera, gerra bitartean izan zuen distira ere bai. Bestetik, Espainiako gobernuak indarrean jarri zuen autarkia ekonomikoaren muga estuek beheraldi latz batean murgildu zuten Espainia osoa; ezurte haiek 1950eko hamarraldia aurreratuxea zegoen arte iraun zuten.

Herritarrei zorrotz mugatu zitzairen oinarri-oinarrizko gauzak erosteko ahalmena; *cartilla* esaten zitzairen koaderno moduko batzuen bidez, agintariek zorrotz neurtzen zuten gauza bakoitza zer kopurutan kontsumi zezakeen bakoitzak. Politika ekonomikoak ezin izan zuen inflazioa jaitsi.

Gosetea eta urritasuna nagusitu zen bazterretan. Egoera gogor hartan iruzurrak aurki egin zuen bidea: estraperloa eta merkatu beltza erabili zituen askok bide ofizialetatik lortzerik ez zegoena eskuratzeko. Salerosle maltzurrenek dirutza handiak atera zituzten era horretara.

1940ko hamarraldi osoan, industriaren produkzioa geldituta egon zen. Kontzertu Ekonomikoa kendu izanari egotzi zitzaion Gipuzkoa aldean geldialdi haren

erantzukizun nagusia. Baina, horrez gainera, zailtasun handiak zeuden lehengaiak ekartzeko, eta energiarako indarrak ere oso urriak ziren.

Nolanahi ere, produkzioko sektore jakin batzuk indarrean egon ziren urte haietan, eta batzuek gora egin ere zuten: arrantzak, adibidez. Alor horretan enpresa asko sortu izanak Pasaia -Antxoko eta San Pedroko barrutiak, garai batean *Pasaje de Aquende* eratzen zutenak- Donostiaren baitan berriz ere hartzeko aspaldiko nahia berpiztu zuen donostiar askorengan. 1948ko uztailean, Espainiako Ministroen Kontseiluak nahikari hari ezetz esan zion behin betiko.

Turismoa ere bizkortu egin zen, hainbat arrazoiri esker. Franco jeneralak, Espainiako Estatuko buru berriak, monarkiaren tradizioari eutsirik, udaldi ofizialak Donostian igarotzea erabaki zuen. 1939an, udalak, halako ohore handia eskertzeko, Francoren esku jarri zuen Aieteko jauregia. Francoren etorrerak berehala erakarri zituen Espainiako goi mailako handikiak. Udaldian, Donostiako hondartzak eta hotelak berriz bete ziren jendez.

Nazioarteko egoerak ere onura handia ekarri zion turismoari. II. Mundu Gerra bitartean (1939-1945), goi mailako europar asko, frantsesak gehienbat, Donostian babestu ziren. Beren herrialdeetan nekez izan zezaketen erosotasunaren bila etorriak ziren Donostiara. Haiekin batera, kontsulatuaren ordezkariak ere etorri ziren, eta baita bidaiaria lagun isilago batzuk ere: informazio zerbitzukoak eta espioiak, bai naziak eta bai aliatuak.

Ez da harritzekoa, beraz, 1946rako, lehen baino hotel gehiago izatea Donostian, eta haietatik hiru luxuzkoak izatea gainera. Horren guztiaren eraginez, merkataritza eta finantzak gogotik ari izan ziren jardunean. Gipuzkoako eta Euskal Herriko *per capita* errenta Espainiakoa baino askoz gehiago igo zen, batez beste. Baina oparotasun hori, arestian aipatu dugunez, ez zen denen esku egon.

Erregimen frankistaren zapalketa ez zen gerrarekin bukatu. Gobernuak ez zion, inondik ere, antolatzen utzi oposizioari [5]. Espainiako probintzietan gobernadore zibilak zuen politikako kontu guztien ardura osoa. Politikari frankistak berehala hasi ziren Gipuzkoako gobernadore zibilaren kargua bereganatzeko irrikan. Franco jenerala udaldi oro bertara etortzeak garrantzi handia eman zion Donostiari, eta, jakina, hango agintariei. Beraz, Gipuzkoako Gobernu Zibila oso baliabide egokia zen mailaz gora egiteko; garrantzi handiko urratsa zen, alegia, frankismoaren politikan karrera egiteko. Gipuzkoakoa ez zen falangista mordo bat ibili zen, hortaz, kargu hartan oso epe laburrean; jende askotxok izan zuen betekizun hura, baina ez zuten karguan luzaro irauten, berehala izendatzen baitzituzten goragoko mailako zereginetarako.

Urte haietan jo zuten goia falangisten eta tradizionalisten arteko tirabirek. Zatiketa oso handia zen frankismoaren aldeko talde politikoaren artean, eta haiek bateratzeko saio guztiak ustel atera ziren. Jendaurreko ekitaldietan, behin baino gehiagotan izan ziren tirabirak, eta baita irainak ere. Gobernadorea zein joeratakoa izan, hartara

ezartzen zituen bere aldekoak, eta baztertzen bere kontrakoak, aukeratzea berari zegokion karguetan; Probintziako Diputazioaren lehendakaritzan, batez ere. Baina Donostiako udalean ere zinegotzi mordoa ibili zen kargua hartu eta kargua utzi, gobernadoreak ezarritako dantzan.

Urte haietan, udalbatzak udaletxea lekuz aldatzea erabaki zuen, Konstituzio plazatik -lehen Plaza Berria izan zena, eta, garai hartan, *Plaza del 18 de Julio* izendatu zutena- Kasinoaren egoitzara, jokia debekatu zutenez geroztik, hutsik baitzegoen, zertarako erabili ez zekitela. Udalbatzak Luis Arizmendi arkitektoari eman zion eraikin hura egokitzeko ardura, eta hark egiturako ardatz nagusiak errespetatu zituen. Egokitzeko lan haiek 1947an bukatu ziren, eta udalbatza, eta udal administrazioaren bulegoak, egoitza berrira aldatu zituzten.

****Garai berriak.****

****Erregimen frankista sendoturik (1945-1959)****

Franco jeneralaren diktadura oso egoera larrian gelditu zen 1945ean, II. Mundu Gerran aliatuek Europako nazio totalitarioak -Italia eta Alemania- garaitu zituztenean. Munduko nazioek bakaturik egotera kondenatu zuten Espainia, eta ez zioten Nazio Batuen Elkartean (NBE) sartzen utzi. Bakaturik gelditu behar izan zuen aldi hartan bertan izan zuen Espainiako ekonomiak bere boladarik latzena, eta orduantxe jasan behar izan zituen herriak ere sufrimendurik handienak. Bazterte hark bere ekonomia babesteko estrategia bat bideratzera behartu zuen Espainiako estatua: autarkiara; soil-soilik Espainiak zeuzkan baliabideekin aurrera egitera, inportaziorik gabe, alegia.

Hurrengo urteetan, "Gerra Hotzak" estualdi hartatik ateratzeko aukera eman zion Francori. Errusiaren eta haren esaneko herrialde komunisten goraldiak eragin handia izan zuen mundu osoko herrialdeen arteko orekan, eta mendebaldeko potentziak mehatxatu zituen. Egoera aldatu egin zenez gero, potentzia horiek bestelako jarrera batez begiratu zioten Espainiari. Oso kontuan hartu zituzten Espainiak aldarrikatzen zuen antikomunismo basa hark ekar ziezazkiekeen onurak. Beraz, onartzeko modukoa ez izanik ere, kideztat hartu zuten Francoren erregimena, bai Espainiako II. Errepublika baino kideagotzat hartu ere, zeren eta hark, herritarren botoez zilegitua bazen ere, ezkerralderako joera, haien ustez, gehiegizkoa izan baitzuen.

Herrialde kapitalistek faxismoa alde batera utz zezala eta estatuari ukitu demokratiko bat eman ziezaiola eskatu zioten Francori, berez diktadura hutsa zenak itxura hobexeagoa izan zezan munduaren aurrean. Falangek gero eta indar gutxiago izan zuen. Estatu frankistak "mendebaldeko" itxura zuten lege berriak eman zituen - *Fuero de los españoles*, 1945-, eta zertxobait moteldu zuen oposizioaren aurkako zapalketa. Aita Santua eta Estatu Batuak harremanetan hasi ziren Espainiarekin - Eliza katolikoak konkordatu aizenpetu zuen, eta Estatu Batuek bi estatuei soilik zegozkien hitzarmenak sinatu zituzten 1953an Espainiarekin-. 1955ean, Espainia

NBEEn sartu zen. Autarkia bukatu egin zen, eta, traba ekonomikoak alde batera utzirik, Espainiako ekonomia indartzen hasi zen.

1945eko ekainean hartu zuen Francok estatuaren itxura eta ospe txarra zertxobait garbitzeko erabakietako bat, udalei zegokiena: *Ley de Bases del Régimen Local* zeritzan. Lege horrek zinegotzien karguak korporazioen zeharkako botoz aukeratu behar zirela agintzen zuen [6]. Baina, 1.000 biztanletik gorako udalerrietan, gobernadoreak aukeratzen zuen alkatea. 1947tik 1975era bitartean -diktadura bukatu zen urtea-, Donostiako alkateek 3,2 urte iraun zuten, batez beste, agintean.

Hauteskunde sistema horrek oso aukera gutxi eskaintzen zituen, eta, beraz, oso jende gutxi hurbildu zen politikara. 1950eko hamarraldirako, politikarien beste belaunaldi bat hasi zen politikan, aurrekoa baino askoz epelagoa frankismoari buruz. Politikari haiek goi mailakoak ziren gehienbat, bai gizarte mailaz eta bai irabazpidez. Haietako gehienek "apolitikotzat" zeuzkaten beren buruak, eta politikan omen zebiltzan ez erregimen frankistari atxikiak zirelako, interes profesionalengatik baizik. Joera hori indartu egin zen *Opus Dei*ko teknokratak Espainiako gobernuan sartu zirenean eta liberalizazio prozesu bat bultzatu zutenean. 1958ko azaroaren 22an Donostian aukeratu zituzten zinegotziak eredu horretakoxeak ziren. 1959ko otsailean, Antonio Vega de Seoane izendatu zuten Donostiako alkate; Donostiako familia errepublikazale ospetsu batekoa zen.

Oposizioa liberalizazio txiki hartaz baliatu zen bere burua berriz antolatzeko eta bere erreibindikazioen alde egiteko. Garai hartakoak dira bai Donostian izan ziren lehenengo lanuzte jendetsuak -1951, 1956...-, hiria geldiarazi zutenak, eta bai kutsu nazionalistako beste protesta batzuk. Legez kanpoko taldeek Elizaren babesa izan zuten.

Eliza katolikoaren hierarkiaren eta erregimen frankistaren arteko harreman onei esker, elizak gogotik egin zuen lan gizarterako egintzetan, baina, alor horretan, erlijioaren eta aisiaren arteko mugak oso lausoak ziren. Tarte horrek jarduteko eta ari izateko aukera ematen zuela berehala erreparatu zioten era askotako elkarte eta higikundeek, eta, hala, elizaren babesean bideratu zituzten zeinek bere elkarteak eta lagunarteak. 1949an, Donostiako elizbarrutia Gasteizkotik bereizi zen. Apezpikuaren egoitza Donostian egoteak indar handia eman zien elkarteei, gazte elkarteei batez ere. Berehala bat etorrarazi zituzten elkarte horiek -HOAC, JOC-aisiarako eta denbora-pasarako helburuak eta gizartera bideraturako helburuak, eta baita oposizio politikoari zegozkion asmoak ere.

Kezka intelektualak beste inon plazaratzerik ez zedenez gero, Donostian egiten ziren ekitaldi artistiko eta literarioetan aurkitu zuten beren adierazpide egokia. Donostiar ekin eta saiatuenean tertulia eta kulturako talde asko bultzatu zituzten, eta haiek izan ziren eztabaidatzeko eta zeinek bere iritziak eta ideiak adierazteko eta besteenak entzuteko ia leku bakarrak. Musika emanaldiak, kontzertuak, hitzaldiak... ere antolatzen zituzten [7]. Irakaskuntzan ere eskaintza ugartu egin zen, erdi mailako ikasketak egiteko ikastetxeak -Peñaflorida Institutua, 1956- eta goi mailako

ikasketakoak zabaldu baitziren: Peritu Industrialen Eskola, Irakasle Eskola; Enpresa Tekniken Goi Mailako Eskola -ESTE, 1956-; Gipuzkoako Ikasketa Unibertsitario eta Teknikoak -EUTG, 1959-; eta Ingeniaritzako Goi Mailako Eskola -1961-.

Hiria zabaltzen eta handitzen (1960-1970)

1960ko hamarraldian, ekonomiak aurrerabide handia egin zuen, industrializazioari esker, batik bat. Espainiako baserriek biztanle asko galdu zituzten, zeren jende asko, nekazaritza utzirik, hirira joan baitzen, industrian lan egitera. Nekazaritzako bazterrak gogotik husten ari ziren garai haietakoak dira hirietako jendetza handiaren etorria eta emana. Jende kopuru handi batek aukeratu zuen Euskal Herria bizitzeko eta lan egiteko, eta, Euskal Herriaren barruan, Donostia gehienbat.

Elikagaien sektorean ari ziren fabrika asko azkenaldi hartan sortu izanak erakarri zuen, batez ere, jende asko kanpotik Donostiara lanera. Hauek ziren, besteak beste, alor horretako enpresa nagusiak: *Sociedad Azucarera del Ebro*, 1952; *Koipe*, 1954; *Savin*, 1959; *Caldos Rápidos S. A.* -geroago *Starlux S. A.*-, 1958. 1960tik 1975era bitarte, 135.149tik 169.622ra biztanleko hazkundea izan zuen Donostiak. Hura izan zen, Gerra Zibilaz geroztik, Donostiak, proportzioan, izan zuen biztanle gehikuntzarik handiena.

Jende multzo handi hartatik gehienak kanpotarrak ziren. 1975ean, Donostiako biztanleen erroldako bizilagunen erdia pasatxo besterik ez zen Donostian bertan jaioa. Biztanleen %10,98 Gipuzkoan jaioa zen, eta %10,47, berriz, Araban, Bizkaian, eta Nafarroan. %26,08 Espainiako probintzia askotatik etorria zen. Jaiotzen eta heriotzen arteko proportzio naturalak ere eragina izan zuen biztanle kopuruaren hazkunde horretan. Ekonomiaren goraldiak izugarri hazi zuen jaiotza-tasa -gertaera hari *baby boom* esan zitzaion-, harik eta, 1960an, %32,4raino iritsi zen arte [8].

Enplegu gehienak hirugarren sektorean zeuden; %60tik gora 1970ean. Donostiak indar handia hartu zuen zerbitzu hiri gisa, baina industria ere ez zebilen batere makal.

Jendetza harentzat bizitokiak bilatu beharrak zeharo itxuraldatu zuen Donostia. Eta ondorio gaizto bat ekarri zuen horrek: etxebizitzetarako lekuak plangintza zeharo anarkikoz antolatu ziren, eta hango bizilekuak ez ziren, azkenean, batere egokiak eta itxurazkoak izan. Donostian XX. mendean eraiki ziren zabalgunek biztanle kopuru handi hari oso epe laburrean egoitza bilatu beharrez egin ziren; presaka eta korrika. Hiriko agintariek oso ahul jokatu zuten irizpide teknikoak ezartzeko orduan. Etxejabe eta etxegile pribatuek etekin handiak atera zituzten nahasmen hartatik, gauza asko ezkutuka eta isilean egin baitziren, eta ez baitzen izan inolako kontrol politikorik.

Eskaria hain handia nola zen, eta presa handia baitzegoen, etxebizitzaren sektoreak zeharo baztertu zuen XIX. mendeko eredu burges eta dotorea. 1950ean, Pedro

Bidagorek Hiria Ordenatzeko Plan Orokorra egin zuen Donostiarako. Udalak ez zuen aintzat hartu, eta beste proiektu bat egin zezala eskatu zion Alustiza arkitektoari. Bitartean, etxebizitzak eraiki eta eraiki ari ziren Donostian, 1940ko Hirigintzako Planari geroztik egin zitzaizkion aldaketan arabera. Azkenean, 1962an, udalak Hiria Ordenatzeko Plan Orokorra onetsi zuen, baina, arau emailea bazen ere, ez zen nahitaez bete beharrekoa, eta etxegileek ez zuten, hortaz, oso aintzat hartu. Hori baino eragin handiagoa izan zuten etxebizitzaren eraikuntzan eta salmentan inflazioak eta espekulazioak. Garai hartakoak dira Amaratik Anoetaraino egin zen auzo berria -Amara Berria- eta Donostiako ekialdean -Altza eta Herrera inguruan- egin ziren auzoak.

Hiriak ez zuen azpiegitura nahikorik biztanle kopuru handiarentzat, eta udalak zerbitzu sareak handitu eta hobetu behar izan zituen. Besteak beste, osasunaren alorrekoak -Arantzazuko Ama Erietxea eta Gipuzkoako Ospitalea, 1959-1960-; kirola egiteko lekuak -Anoetakoa-; hilerria handitu zuten; urak ekarri zituzten -Añarbe ibaiko urtegitik ura ekartzeko Udalerrien Mankomunitatea, 1968-; eta garraioak hobetu zituzten. 1968tik 1974ra, trolebusetako kable elektrikoak kendu zituzten, haien ordean autobusak jartzeko. 1975ean, Bilbao-Behobia autobidea inauguratu zuten; Donostiako ingurabidea haren baitan zegoen. Eta, azkenik, 1955ean, Hondarribiko aireportua zabaldu zuten, itsasoari hartutako lurretan.

//29. Amarako zabalgunea eraikitzekeo proiektuen planoak. 1) Azqueta eta Gurruchaga, 1913. 2) Machimbarrena eta Gaiztarro, 1940. 3) 1943an egindako aldaketak.

Ekonomian, demografian, eta hirigintzan izan ziren aldaketek askoz ere aldaketa handiagoak eragin zituzten gizartearen pentsaeran. Espainiako gobernu teknokrata berriek Europara hurbildu nahi izan zuten, eta zertxobait liberalago jokatu zuten kulturaren, ikuskizunen, eta prentsaren alorrean. Asmo horrekin plazaratu zen behintzat, 1966ean, Prentsa Legea, "Fragaren Legea" ere esan zitzaiona. Lege horren ondorioz, kulturako ekintzak egiteko eta elkartzeko aukerak ordu arte baino zilegiago izan ziren. Alor horretan behintzat, frankismoaren lehen garaiko jokabide ilunenak atzean gelditu ziren. Ez, ordea, politikaren alorrean; erregimen frankistak gogor eutsi zion debekuari: ez zen hor ez aurrerabiderik ez askatasunik batere izan [9].

Errepresioa gogorra bazen ere, demokraziaren aldeko bultzada gero eta handiagoa zen herritarren artean. Gero eta ugariago ziren mota, helburu, eta tankera askotako elkarteez baliatu zen herritar asko Francoren aurkako jardun politikoan aritzeko, eta zeinek bere ideiak elkarte horien bidez aditzera emateko. Elizak ere bat egin zuen oposizioarekin askatasunaren aldeko protesta askotan. Elizaren eta agintarien arteko harremanak gero eta hotzagoak ziren. Apaiz batzuk erbesteratu egin zituzten. Lorenzo Bereziartua (1963) eta Jacinto Argaya (1968) izan ziren garai hartan Gipuzkoako gotzainak.

Kulturan eta, oro har, gizartean, ahalegin handiak egin ziren urte haietan Donostian ekitaldiak, ikuskizunak, elkarteak, higikundeak... sortzeko eta antolatzeko [10]. Gaur egun Donostian sona handia duten kultur ospakizun batzuk orduan sortu ziren: Jazzaldia, adibidez, 1965ean hasi zen. Garai hartakoak dira orobat Unibertsitate Publikoko lehenengo fakultateak eta eskolak: Zuzenbidea (1968), Informatika (1971), eta Petrokimikak (1975).

Herritarrek ordu arte baino askoz ere gutxiago parte hartzen zuten udaletarako hauteskundeetan. Erregimenak hautabideen oinarriak ezertxo ere aldatu ez zituenez gero, hautesle gehienek ez zieten jaramonik egiten botazio haiei. Lehen bezala orduan ere, gobernadoreak izendatzen zuen alkatea: makina bat alkate ibili zen kargua hartu eta kargua utzi. Udalak, hala eta guztiz ere, herri lan eta ospakizun nabarmen batzuk egin eta sortu zituen; haietako batzuk indarrean daude gaur egun ere: Urgull mendia gauzez argitzeko lanak (1963), Kontxa gauzez argitzekoak (1964), eta Su Artifizialen Nazioarteko Lehiaketa (1963).

Erregimen frankistaren azken urteak (1970-1975) Erregimenaren zurruntasun politikoaren eta hark zapaldua zeukan gizartearen arteko aldea eta bereizketa zeharo handitu zen 1970eko hamarraldian. Ekonomiaren goraldiak eta kulturaren susperraldiak ekarri zituzten aldaketek gero eta gehiago indartu zuten demokraziaren aldeko erreibindikazioa. Baina Franco eta bere "guardia zaharra" tinko baino tinkoago zeuden beren jarrera gogorrean; erregimenaren baitako aurrerazaleen eta atzerakoien arteko lehia eta liskarrak konpontzeko, beste irtenbiderik ez zuen asmatzen diktadurak: errepresio gogorra. Hala eta guztiz ere, oposizioak borrokan jarraitu zuen, eta, azkenerako, estatuak eman nahi zuen itxura liberalxeagoa zeharo gezurtatzea lortu zuen.

Euskal Herrian, ezkerrek eta abertzaletasunak gora egin zuten. Alderdi trotskistek eta maoistek indar handia hartu zuten unibertsitatean. 1968an, abertzaleek Donostia aukeratu zuten Aberri Eguna ospatzeko, eta poliziak hiri osoa hartu zuen protestak zapaltzeko. Hala eta guztiz ere, oposizio antifrankista gori-gorian zegoen. Manifestazio gero eta ugariago eta gero eta jendetsuago haiei aurre egiteko, gobernua "salbuespeneko egoera" jarri zuen indarrean behin baino gehiagotan: 1968ko abuztuan, 1969ko urtarrilean, 1970eko abenduan, eta 1975eko maiatzean.

Urte haietan, ETAk indar handia hartu zuen. 1968an, ETAk Melitón Manzanos polizia burua hil zuen. Burgosko epaiketak (1970) eta gobernua 1975eko irailean, besteak beste, ETAn bi militante fusilatu izanak jende askoren atxikimendua sortu zuen erakunde harenganako, jendetza handia biltzen baitzen kutsu politiko handia zuten greba eta manifestazioetan. Oihartzun handia izan zuten, batik bat, 1974ko abenduan eta 1975eko irailean egin ziren protestek.

Donostiako udaletxean gauzak lehengo berean zeuden: alkate bat jarri eta bestea kendu zebilen oraindik ere gobernadore zibila. Urte haietako alkateek garrantzi handiko erabakiak hartu zituzten: 1972an, Miramar jauregia erosi zioten Erregearen Familiari; Donostiako Hiriko Telefono Sarea, bere garaian aitzindaria izan zena,

Compañía Telefónica Nacional de España elkarteari saldu zion udalak. 1973an, Donostian oso nabarmenak eta eragin handikoak ziren eraikinak eta monumentuak bota zituzten: Gran Kursaal eraikina, Txofreko zezen plaza, eta Arbide jauregia.

Frankismoaren garaiko azken udalbatza 1974an eratu zen. Francisco Lasa Echarri izendatu zuten alkate, frankismoari lotuegia ez zegoen gizona. Hala eman zuten aditzera kargua hartzerakoan egin zuten hitzaldian, eta, bukaeran, hitz batzuk euskaraz egin ere zituen. Lasa alkate zela, Donostia berez definitzen duen leku bat inauguratu zuten udalak: Haizeen Orrazia. Baina gizon haren agintaldia 1975. urteaz geroztikako gertaera politiko zurrumbilotsuei dago lotua: Francoren heriotzari eta Espainiako Trantsizioaren aurreneko urratsei.

****Trantsizioa eta demokrazia****

****Aldaketa latza (1975eko azaroa-1979ko urria)****

Francisco Franco 1975eko azaroaren 20an hil zen, Madrileko *La Paz* ospitalean, hilabete luzez azken hatsetan egon ondoren. Borbondarren monarkiaren esku utzi zuten estatua, Juan Carlos I.a izendatu baitzuen errege. Espainia osoa zalantza handian zegoen etorkizunari buruz, eta oso aintzat hartuak zeuzkan demokraziaren aurkako oztopo handiak: armada, agintea oraindik ere beren esku zuten francozale amorratuak...

Erregeak Adolfo Suárez izendatu zuten gobernu buru, eta estatua poliki-poliki demokraziarantz bidera zezala agindu zion, indarkeriarik eta eten handirik gabe. Aldatzeko prozesu mantso hark urrats nabarmen bat egin zuten *Ley de Reforma Política* esan zitzaion legearekin. Legebiltzar frankistek 1976ko azaroan onartu zuten lege hura, ekitaldi hark erakunde gisa desegin beharra esan nahi zuela aintzat harturik. Handik hilabetera, herritarrek lege hura onartu zuten, erreferendum batean bozkatu ondoren.

Gertaera politikoak bizkor baino bizkorrago etorri ziren bata bestearen atzetik. Handik lau urtera, estatu frankistaren egitura osoa desegina zegoen. Haren ordeztu, mendebalekoen tankerako demokrazia bat zegoen, indar betean. 1977an, Legebiltzar Konstituziogileetarako hauteskundeak egin ziren. Beste alderdi askoren artean, PCEk ere parte hartu zuten, inork espero ez bazuen ere, azken orduan legezatu baitzuen gobernuak.

Legebiltzarkideek elkar hartzeko borondate zintzoz egin zuten konstituzioa. 1978ko abenduan, espainiarrek erreferendumean onartu zuten -%33ko abstentzioa, eta emandako botoen %87,87, alde-. 1979ko martxoan, legebiltzarrerako hauteskundeak egin ziren: UCDk, Adolfo Suárezen alderdiak, alde handiz irabazi zituen. Bera izan zen aro berri hartako aurreneko gobernu konstituzionalaren lehenengo gobernu burua.

Euskal Herrian, gertaera haiek denak zalantza eta ezinegon handiz bizi izan ziren. Jende asko zegoen susmo txarrez, Euskal Herriko probintziak Espainiako estatuan nola geldituko ote ziren beldurrez. Susmo horretan du oinarria konstituzioa onartzeko erreferendumean izan zen abstentzio handiak -% 54,49 Euskal Herrian-. Aldi berean, krisi ekonomiko gogor batek estutasun handiak sortu zituen herritarrengan: langabeziaren tasa %4,3koa zen 1976an; 1980an, berriz, %13,9koa zen. Bi faktore horiek zirela medio, frankismoarekin erabat haustekoen aldekoek indar handia izan zuten. Garai hartako lanuzte eta manifestazio ugariak areagotu egin zuten larritasuna eta egonezina. Eragin handiko gertaera odoltsurik ere ez zen falta izan: 1976ko martxoan, polizia Gasteizko eliza batean bilduta zeuden langileei tiroka eraso zien, eta bost lagun hil zituen; Jurramendin, Lizarra inguruan, faxistek tiroka eraso zioten, 1976ko maiatzean, karlistek urtero han egiten zuten bilkurari.

ETA erakunde armatuak ere gogotik erabili zuen indarkeria. Uko egina zion demokrazia biderako prozesu hari, horrela ez omen zuelako bere helburua lortuko: Euskal Herriaren independentzia. Borroka armatuan jarraitu zuen, eta gero eta atentatu gehiago egin zituen. 1977an, Amnistiaren Legea onartu zen, ETako militante presoak espetxetik atera zituena. Erabaki hark ez zuen batere aldatu erakunde haren estrategia, eta sekulako erasoaldi terroristari ekin zion: 144 pertsona hil zituen 1978-1979 urteetan.

ETAk gero eta ekintza armatu gehiago egin zituen, baita Trantsizioa bukatu ondoren ere. Nazionalismoaren sektore askok bat egin zuten haren helburuekin, eta babes politikoa eman zioten. 1978an, HB sortu zen -Herri Batasuna-, eta, 1980an, ezker abertzaleko elkarte mordo batek MLNV edo ENAM sortu zuen -Euskal Nazioaren Askapenerako Mugimendua-. ETAk gogotik baliatu zuen terrorismoa: hilketak, bahiketak, indarrezko lapurretak...

1977ko hauteskundeek autonomiaren aurreko aldi bati eman zioten hasiera [11]. Arabak, Gipuzkoak, eta Bizkaiak 1979an onartu zuten autonomia estatutu haren egitasmoa, HBk eta ezker muturreko alderdiek abstentzioaren alde egin bazuten ere. Donostian, hautesleen %59,70ek parte hartu zuten hauteskunde haietan; botoen %90,3 baiezkoak izan ziren -Euskal Herriko gainerako probintzietan izan ziren batez besteko emaitzen antzekoak ziren haiek-. Espainiako legebiltzarrak handik gutxira berretsi zuen euskal autonomia estatutua.

Lehenengo erreforma demokratikoek ez zuten, ordea, eraginik izan udalak aukeratzeko hautabideetan. 1978an Espainiako Konstituzioak onartzeak ekarri zituen aldaketak udaletara. Ordu arte, aldaketa bakarra izan zen udaletan: zinegotziek aukeratzeko zuten, botazio sekretuaren bidez, alkatea. Donostian, sistema hori 1976an jarri zen indarrean, eta Francisco Lasa karguan berretsi zuen. Geroago, Lasak uko egin zion karguari, eta Fernando de Otazu izendatu zuten haren ordean. Hurrengo hilabeteetan, zinegotziek berek dimisioa emateko asmotan zebiltzala adierazi zuten, presio politikoaren eta mehatxuen eraginez. 1978ko irailean, Espainiako Barne Arazoetako Ministerioak Udal Batzorde bat izendatu zuen

udalbatza haren ordez, udaletarako hauteskundeak egin arte. Ramón Jáuregui (PSOE) eta Iñaki Alkiza (PNV) izan ziren, txandaka, batzorde haren buruak.

Trantsizioak eragin handia izan zuen Donostiako bizieran. 1977. urteaz geroztik, herritarrek gogotik parte hartu zuten politikan. Gorabehera politikoez gogor astindu zuten donostiarren eguneroko bizitza: amnistiaren aldeko ekinaldia, ETAk diputazioko lehendakari Juan M^a Araluce erdialdeko kaleetan hil izana, ikurrina legeztatzea... Manifestarien eta poliziaren arteko liskarrak behin eta berriz izaten ziren Donostiako kaleetan; baita ETAREN atentatu terroristak ere. 1978an, ETAK bederatzi pertsona hil zituen Donostian.

****Udaletarako hauteskundeak****

****Alkate abertzaleak, 1979-1991****

Espainiako Konstituzioa 1978an jarri zen indarrean, eta haren bitartez etorri zen demokrazia udaletara. Harrezkero, herritarrek aukeratu zituzten alkatea eta zinegotziak, hauteskundeetan botoa emanaz. Alderdi politiko bakoitzak lortutako boto kopuruaren arabera banatu ziren gero zinegotzien karguak eta alkatearena.

Udaletarako lehenengo hauteskundeak 1979ko apirilaren 3an izan ziren. Haien emaitzek argi eta garbi utzi zuten joera politiko asko zeudela Donostian, bost alderdik lortu baitzuten botoen %15. Autonomiazalea ez zen eskuinak ez zuen hautagairik aurkeztu, eta PNV izan zen boto gehien jaso zituen alderdia -hautesleen botoen %22,6tik gora-. Jesús M^a Alkain izan zen bai aurreneko alkate abertzalea eta bai aldi honetako aurreneko alkate demokratikoa. Hurrengo hamabi urteetako alkate guztiak abertzaleak izan ziren.

Espainiako Trantsizio politikoan izan ziren tirabira handiek oihartzun handia izan zuten garai hartako Donostian. ETAK erasoaldi terrorista gogor bati ekin zion: 1979tik 1982ra 23 pertsona hil zituen Donostian. Giroa zeharo nahaspilatu zen eskuin muturreko terrorismoa ere ekinean hasi zenean. *Batallón Vasco-Español* zeritzan eskuineko talde terroristak haren ustez ETAKo kideak zirenei erasotzen zien. Giroak okerrera egin zuen poliziak hainbat herritar hil zituenean: Arregi, Gladys del Estal...

Garai hartakoak dira, baita ere, ETAREN aurkako lehenengo manifestazio jendetsuak. 1981eko otsailaren 9an, ETAK José M^a Ryan ingeniaria bahitu eta hil zuen, eta ekintza haren aurkako protesta izan zen ETAREN aurkako aurrenekoa. Manifestazio hura Bulebarrera iritsi zenean, harrika eraso zioten; garbi geratu zen, beraz, euskal gizartean eta Donostiako gizartean ordurako zegoen zatiketa.

Gehiengoa zuten alderdi politikoez Espainiako Estatu berriak eskaintzen zituen bide demokratikoen alde gogotik egin zuten, bai eta Autonomia Estatutuaren alde ere [12]. Ezker abertzaleak eta ezker muturreko beste alderdi batzuek, berriz, ez zioten inongo zilegitasunik eman estatuari, eta borroka armatuaren alde egin zuten.

Indarkeriaz blaitutako giro hartan, aipagarria da ETAREN parte batek -ETA politiko militarrek- hartu zuen erabakia: armak utzi eta demokrazian parte hartzeko aukera egin zuen, EE -Euskadiko Ezkerra- alderdiaren bidez.

Egoera latz hark kalte handia egin zion Donostiaren irudiari. Turismoa asko jaitsi zen, eta askoz bisitari gutxiago etorri zen urte haietan Donostiara. Udaldiko ekitaldi kultural nagusi batzuk kolokan egon ziren. 1979an, Musika Hamabostaldia bertan behera gelditu zen, eta Zinemaldiak "A" kategoria galdu zuen 1980an. Nolanahi ere, aisiaren, ikuskarien, eta kulturaren munduak bestelako bultzada batzuk izan zituen: EOS sortu zen -Euskadiko Orkestra Sinfonikoa-, ETB ere bai -Euskal Telebista-; Euskal Herriko Unibertsitatean fakultate berriak sortu ziren; unibertsitate horrek berak Udako Ikastaroak antolatu zituen... Jazzaldiak ospe handia hartu zuen, eta euskarazko liburugintzak eta kulturgintzak sekulako berpiztea izan zuten.

Udaletarako hurrengo hauteskundeak 1983ko maiatzaren 8an egin ziren. PNVk irabazi zituen, eta Ramon Labaien abertzalea izendatu zuten alkate. PNVk bere nagusitasuna indartu zuen Donostian, hautesleen %35,05ek hari eman baitzioten botoa. PSE-PSOE zen hurrengo alderdia, botoen %23,89rekin. Alderdi horrek 1979ko hauteskundeetan baino 9 puntu gehiago lortu zituen [13].

Labaien alkateak arreta handiz zaindu zuen turismoaren alorra. Bere agintaldian gogo biziz ekin zion Donostiaren ospea indartzeari eta ekintza eta jai berezi batzuk bultzatzeari: Aste Nagusia, Musika Hamabostaldia, Zinemaldia... 1985ean berreskuratu zuen Zinemaldiak nazioarteko kategoria. Espainiako gobernuak udalak arautzeko lege berri bat eman zuen. Udalaren eskumenak alorka eta patronatu zeritzen departamentuetan banatu zituen. Bestalde, udalak parte hartzeko gero eta aukera handiagoa eman zien auzo elkarteei.

Euskal Herriko probintzien artean eta Espainiako Ogasunaren artean Kontzertu Ekonomikoaren Erregimena berriz indarrean jarri izanak diru gehiago biltzeko aukera eman zien udalei. Diru horien zati handi bat azpiegiturak hobetzeko erabili zuten udalek. Donostian, urte haietan konpondu eta egokitu zituzten Antzoki Zaharra eta María Cristina Hotela. Garai hartakoak dira, baita ere, futbol zelai berri bat eta zezen plaza berri bat egiteko aurreneko asmoak eta proiektuak.

Gizartean eta politikan indarkeria zen, aurreko urteetan bezala, eragile nagusia. ETAK eraso bizian jarraitzen zuen. Ezker abertzaleak gogortu egin zituen bere kale agerraldiak. Garai hartan hasi ziren frantses interesen kontrako erasoak eta herriko jaietako mobilizazioak -"Banderen gerra", agintarien segizioari abuztuaren 14an egiten zitzaion eraso Santa Mariako basilikara Salbea entzutera zihoanean...-.

1986ko martxoan, Espainia OTANen sartzeko ala ez egin zen erreferenduma ere oso esanguratsua izan zen garai hartako giro politikoaren berri izateko. Oso bestelakoak izan baitziren emaitzak Donostian, eta Euskal Herriko bazter askotan, eta Espainian. Donostian, Espainia OTANen sartzearen aurkakoek irabazi zuten -botoen %64,62-; Espainian, berriz, sartzearen aldekoek irabazi zuten.

Garai hartan eguraldiak oso gorabehera bitxiak izan zituen: 1985eko urtarrilean elurte handiak izan ziren Donostian. Ohiz kanpoko eguraldi hark eragin handia izan zuen donostiarren bizitzan, elurrak eta tenperatura apalek bi aste iraun baitzuten. Egun haietan, ikuspegi eder askoak izan zituen Donostiak, eta hamaikatzko eskiatzaile ibili zen Kontxan barrena eskiatzen.

Udaletarako hurrengo hauteskundeak 1987ko ekainean izan ziren. Alderdi politikoen arteko indar oreka aldatuxea zegoen, eta hitzarmenak egin behar izan zituzten elkarren artean. PNV ahuldua zegoen, Garaikoetxearen eta haren jarraitzaileen zatiketaren ondoren [14]. Eusko Alkartasunak alde handiz irabazi zuen Donostian -botoen %24,33-. Xabier Albistur izan zen hurrengo alkatea. Baina, hala eta guztiz ere, hitzarmen bat egin behar izan zuen EErekin, EAren botoekin bakarrik ez baitzuen gehiengo osoa. Bi alderdi horien esku egon zen hurrengo lau urteetan udaleko aginte taldea.

Udalak lan handia egin zuen azpiegituren eta horniduren alorrean. 1980ko hamarraldiaren bukaeran ekonomia gora egiten hasia zenez gero, udalaren proiektu asko errazago finantzatu ahal izan ziren. Orduko proiektuen emaitzak hurrengo urteetan sumatu ziren, geroago aipatuko denez.

Bai udaletan, bai diputazioetan eta bai legebiltzarrean zegoen elkar hartze eta koalizio giro hark Ajuria Eneko Ituna sinatzea bideratu zuen, 1988ko urtarrilean. Alderdi demokratiko guztiek, HBk izan ezik, Euskal Herriaren auzia konpontzeko irtenbide politikoen alde egiteko konpromisoa hartu zuten. Urte hartan bertan, Espainiako gobernua elkarrizketan hasi zen ETArekin -Aljerreko elkarrizketak-. ETAk su-eten bat iragarri zuen. Itzaropenez betetako hilabeteak izan ziren haiek. 1988an ez zen atentaturik izan Donostian.

Gobernuaren eta ETArekin arteko negoziazioak hautsi zirenean, ETA berriro hasi zen erasoan -zortzi pertsona hil zituen Donostian, 1989ko ekainetik 1991ko maiatzera bitartean-. Ezker abertzaleak ere indarkeriari ekin zion berriz ere kalean. Erreibindikazio berriak ere bereganatu zituen; garai hartan -1989-1990- gori-gorian zegoen Leitzarango autobidearen auzian, ezezkoaren alde egin zuen gogor. Giro nahasi eta latz hura maiz islatu zen udalaren osoko bilkuretan.

****Alkate sozialista, 1991-2001****

1991ko udaletarako hauteskundeetan abertzaleek alkatetza galdu zuten. Harrezkero, sozialista bat izan da alkate, Odón Elorza, Donostiak ordu arte izan zuen alkaterik gazteena [15]. Abertzaleen arteko ika-miken ondorioz, PNVk sozialistekin elkar hartu behar izan zuen, eta bi alderdi horiek eta PPK -Partido Popular- eratu zuten udaleko gobernu batzordea.

Koalizio hura ohiz kanpoko zen, aurreneko aldia baitzen hiru alderdi haiek agintean elkarrekin zeudela. Hurrengo hamarraldian, proiektu asko bideratu ziren

Donostian; haietako asko aurreko udalek abian jarritakoak ziren. Baina proiektu berriak ere bultzatu zituzten: Ontzi Museoa, Koldo Mitxelena Kulturunea, Zurriolako hondartza... Elorzaren lehenengo agintaldian inauguratu ziren.

Zinemaldiaren eta Musika Hamabostaldiaren goraldiak turista gehiago erakarri zituen Donostiara. Hainbat kirol ekitaldi ere izan zen Donostian; haietako batzuek ospe handia zuten nazioartean, eta, beraz, Donostia mundu osoan ezagutarazi zuten: Frantziako Tourra Donostiatik atera zen 1992ko udan, eta, 1993an, Munduko Maratoi Lehiaketa Donostian egin zen.

1993an, Ertzaintzak hartu zuen Donostian ordena publikoaren ardura, Espainiako poliziaren orde. Kaleko indarkeriak bere horretan iraun zuen: gero eta jende gutxiago zebilen istilu haietan, baina askoz ere ekintza gogorragoak egiten zituzten. ETAk hamabi lagun hil zituen Donostian; haien artean, Gregorio Ordóñez, zinegotzia eta Donostiako PPko buruzagia. Indarkeria hari aurre egiteko, hainbat talde bakezale eratu zen, hilketen eta bahiketen aurkako bilkurak eta ekinaldiak antolatzeko -"begizta urdinarena", besteak beste-.

1995eko maiatzean, udaletarako hauteskundeak izan ziren berriz. Donostiarrek gogotik parte hartu zuten, aurreko hauteskundeetatik %10 igo baitzen emandako botoen kopurua. PP atera zen garaile, Jaime Mayor Oreja buru zuela [16]. Inork gehiengoa lortu ez zuenez gero, alderdiek hitzarmenetara jo behar izan zuten berriz, Eusko Legebiltzarrean 1994. urteaz geroztik egin zen bezala, eta PNV, PSE-EE, eta EA alderdien arteko gobernu hirutarikoa izan zen hitzarmen haien emaitza. Hiru alderdi horiek berek bat egin zuten Donostiako udalean ere, eta Elorza izendatu zuten, berriz ere, alkate.

Alderdi politikoen sakabanatze hark, batzuetan, trabak sortu zituen erabakiak hartzerakoan. Baina, hala eta guztiz ere, udalak proiektu asko onartu eta bideratu zituen. 1998ko abuztuan, Aquariuma, Illunbeko zezen plaza, eta Bulebar eraberritua inauguratu zituzten. 1999an zabaldu zen Kursaaaleko auditorioa eta kongresuen aretoa; eraikin ikusgarri hura Moneo nafar arkitektoak asmatutako bi kubotan banatua zegoen, Zurriolako Ibilbidean.

Gero eta herritar gehiagok egin zion aurre, indar handiz, ETaren indarkeriari. Aipagarriak dira, larritasun eta samin handia sortu zutelako, Fernando Múgicaren hilketa, 1996ko otsailean, eta Miguel Ángel Blancorena, 1997ko uztailen. Azken hilketa horrek eragin handia izan zuen bai Donostian, bai Euskal Herrian, eta bai Espainian. Geroztik, "Ermuko Espiritua" zeritzan higikundea sortu zen, PPk Espainiako gobernuaren ardura hartu zuen 1996ko legebiltzarrerako hauteskundeak irabazi ondoren, HBk jokabidea leundu zuen... horiek izan ziren, besteak beste, Euskal Herriko alderdi politikoen estrategiak aldarazi zituzten gertaera nagusiak.

//30. Kursaaaleko auditorioa, Rafael Moneok 1999an egina.

Ajuria Eneko Mahaia zeritzan hitzarmena geldirik zegoen, bere kideen arteko adostasuna lortu ezinik, eta, indarrean bazegoen ere, ez zuen inolako eraginik. Indar abertzaleek elkarrengana hurbiltzen hasi ziren, eta, hala, 1998ko irailean, hitzarmen bat sinatu zuten, Lizarrako Hitzarmena. Alderdi eta sindikatu abertzale guztiek eta IUk -Izquierda Unida- bat egin zuten hitzarmen harekin. Ia aldi berean, ETAk su-eten bat iragarri zuen; urtebete pasatxo iraun zuen.

1998an, urriaren 25eko Eusko Legebiltzarrerako hauteskundeen ondoren, Eusko Jaurlaritza PNV-EA koalizioaren esku egon zen, HBren laguntzarekin; izan ere, legebiltzarrerako hitzarmen bat egin zuten hiru alderdiok, bestela ez baitzuten aurreneko biek gobernatu ahal izateko bezainbat boto. Espainia osoan jarduten zuten alderdiak, PP eta PSOE, alderdi abertzaleengandik urrundu ziren, eta batzuen eta besteen jarrerek tirabira eta liskar handia ekarri zuten hurrengo hilabeteetan.

Giro nahasi hartan egin ziren XX. mendeko azken udaletarako hauteskundeak. PNVk eta EAk hautagai zerrenda bateratua aurkeztu zuten. Odón Elorza buru zuen zerrendak aise irabazi zituen hauteskunde haiek -botoen %30,17 lortu zituen-. Koalizioan gobernatzeko aukera eskaini zien Elorzak Partido Popularreko zinegotziei.

Trantsizioaz geroztik XX. mendearen bukaera arteko hauteskundeen emaitzei erreparatuz gero, argi dago donostiarrek gehiago parte hartu izan zutela Espainiako Legebiltzarrerako hauteskundeetan, udaletarako hauteskundeetan edo Eusko Legebiltzarrerako hauteskundeetan baino. Azken horietan, PNVri botoa emateko joera handiago izan zuten donostiarrek, eta, udaletarako hauteskundeetan, berriz, PSE-PSOERI. 1987. urteaz geroztik, Espainiako eskuinaren boto kopurua etengabe ari da handitzen. HBk -gaur egun EH, Euskal Herritarrok- boto kopuruan zertxobait behera egin zuen 1987tik 1996ra bitartean, baina azken hauteskundeetan gora egin zuen berriz.

****Hiri berria****

Donostiako biztanle kopuruak ez du gora egin 1970. urteaz geroztik: 175.000 biztanle inguru ditu. 1980ko hamarraldian, Donostiak orain baino biztanle gutxiago zituen. Beheraldi hartan eragina izan zuen, batetik, Astigarraga, 1987an, Donostiatik bereizi izanak; Donostiak 3.200 biztanle gutxiago izan zituen, beraz. Baina eragin handia izan zuten orobat ekonomiaren krisiak eta migrazioaren tasa negatiboak, jaiotza-tasak behera egin baitzuen horren ondorioz. 1996an, Donostiako biztanleriak zahartzera egin zuen, eta zahartze hori nabarmenagoa zen erdialdean aldirietan baino.

Biztanleen adinaren proportzioaren arabera, lanean ari diren donostiarren kopurua %44,68raino jaitsi da. Finantzako eta administrazioko zerbitzuetan lan egiten dute gehienbat donostiarrek. Turismoak, kongresuen antolamendua barne, indar handia du oraindik ere Donostian.

Estatistikek aditzera ematen dutenez, bertan jaiotako donostiarrak kanpotik etorritakoak baino gehiago dira orain. Donostiar euskaldunen kopuruak -bi urtetik gorakoen artean, %32,63 1997an- eta erdi euskaldunenak -% 25,87 urte hartan bertan- gora egin du.

Administrazioaren jokabidea garai batean baino garbiagoa da. Trantsizioaz geroztik, asko aldatu ziren gauzak alor horretan. Hirigintza kudeatzeko modua asko hobetu zuen aldaketa horrek. Aurreko hamarraldietan etxebizitzaren salerosketan eta eraikuntzan egin ziren gehiegikeria asko geldiarazi zituzten udal berriek. 1977an, 1962ko Hirigintza Ordenatzeko Plan Orokor berria berraztertu zuten. Plan berri bat egin bitartean, udalak zorroztu egin zituen etxebizitzak eraikitze eta lehengoratzeko behar ziren kontrolak.

Udalak arreta handiz babestu zuen erdialdea eta zabalgunea, baina hango etxebizitzaren prezioa oso garestitu zen. Aiete, Amara, Egia-Ametzagaña, eta Gros auzoek etxez gainezka egin zuten, eraiki gabe zeuden bazter guztiak etxeak eraikitze baliatu baitziren. Auzo berriak jaso zituzten: Intxaurrendoko Iparraldea 1980ko hamarraldian; Amara Osinaga, Intxaurrendoko Hegoaldea, Berio, Errotaburu, Benta Berri... 1990eko hamarraldian. Eraikuntza berri haieiako batzuek eztabaida gogorak sorrarazi zituzten; batik bat, Urumearen ondoan, Frantziako Pasealekuaren jarraipen gisa egin zirenek. 1999. urteaz geroztik dago aurreikusia ingurabide berriak egitea, leku horiek guztiak elkarri lotzeko.

Ibilgailuen zirkulazioa arreta handiz antolatu nahi izan zuen udalak erdialdean. Era askotako erabakiak hartu ziren alor horretan: ibilgailuen pasabidea mugatzea -Parte Zaharrean, batez ere-, kale nagusi batzuk oinezkoen kale bihurtzea, kalean aparkatzeko sistema arautu bat indarrean jartzea, eta lur azpiko aparkaleku gehiago eskaintzea, besteak beste. Neurri horiek guztiek aldaketa handiak ekarri dituzte Donostiako kaleetara eta dendetara, eta eragina izan dute, orobat, donostiarren eguneroko bizitzan.

Mende bukaerako azken bi udalek ardura handia izan zuten kulturarako eta aisiarako eraikinak eta ekitaldiak sortzeko. Herritarren eskari gero eta handiagoak akuilatu zituen agintariak erabaki horiek hartzerako. Gaur egun, kultura zerbitzuak Donostiaren ezaugarri nabarmena dira, eta eragina izan dute turismoan ere, garai batean turismoak izan zuen eskaintza ospe handikoak behera egin baitzuen XX. mendearen zati handi batean.

XXI. mendearen hasieran, Donostiak etorkizun oparoa du. Pluraltasun politikoa da haren ezaugarri nagusia, nahiz Euskal Autonomia Estatuaren eta Espainiako konstituzioaren zilegitasunaren inguruko eztabaidak haustura sortu duen gizartean. Bestalde, azken 25 urteotako udal demokratikoen lana epaitu behar izanez gero, gehiago dago onetik txarretik baino. Donostiarrak aiseago bizi dira Donostian, eta berreskuratu dute hiria beren nahien arabera tankeratzeko ahalmena. Hala adierazten du Donostiako hirigintzaren itxura berrituak.

OHARRAK

: [1] Egunkari hark joera zeharo iraultzailea zuen, nahiz zuzendaria, Ramiro Pérez Montesinos, *Izquierda Republicana* alderdiko militantea izan.

: [2] 1934ko erroldan izena emanda zeuden 85.510 donostiarren kopurua 46.038ra jaitsi zen 1936ko urrian.

: [3] 1937ko irailean, frankisten mendean erori eta handik urtebetera, biztanle kopurua 90.512raino igo zen Donostian. Gehikuntza hori ez zen kanpotarreatatik bakarrik izan. Kopuru horren baitan zeuden, baita ere, aurreko urtean Donostiatik ihes egin eta ordurako itzuliak ziren donostiar asko.

: [4] 1937ko apirilko Bateratzeko Dekretuaren arabera, alderdi politiko guztiak desegin egin ziren, alderdi bakar batean sartzeko; *Falange Española Tradicionalista de las JONS* zeritzan alderdi bakar hari.

: [5] PNVk informazio zerbitzu bat zuen iparraldean, eta agente sare bat antolatzen saiatu zen hegoaldean. 1941eko urtarrilean desegin zuen poliziak, eta hango kideak atxilotu. Gehienei heriotza-zigorra ezarri zieten, baina, geroztik, ia denei bizia barkatu zieten. Nazionalistak oso ahulduta gelditu ziren hurrengo urteetan. PCEk *Euzkadi Roja* aldizkariko ale batzuk argitaratzea eta banatzea lortu zuen. Baina, 1945ean, alderdi horren arduradun nagusiak sarekada batean erori ziren.

: [6] Boto horien nolakotasunak garbi adierazten zuen lege hori asmo demokratiko oso mugatuarekin egina zela. Familietako buruek zinegotzien heren bat aukeratzen zuten; beste heren bat sindikatuen ordezkariak aukeratzen zuten; azken herena elkarte ekonomiko eta kulturelek aukeratua zen.

Donostian, 1948an egin ziren era horretako hauteskundeak. 100.000 biztanletik gora bizi ziren Donostian, baina boto emaileen erroldak ez zituen 31.799 familia buru, sindikatuen alorreko 40 ordezkari, eta 39 elkarte eta erakunde besterik aintzat hartu.

: [7] Leandro Martín Santos sendagilea buru zuen *Círculo Cultural Guipuzcoano* erakundea izan zen elkarte horien artean bikainenetako bat. Mónaco kafe etxea, Gipuzkoako Diputazioko liburutegia, Gipuzkoako Artezaleen Elkarte, eta *Círculo de Lectores* bizitasun handiko topalekuak izan ziren.

Aranzadi Zientzia Elkarte, Euskal Herriaren Adiskideen Elkarte, eta Eusko Ikaskuntza ikerketako lanetara emanago zeuden; eta *Cultura Musical* elkarteak eta Zinemaldiak -1953. urteaz geroztik- kalitatezko kultura eskaintza eta ikuskizuna konbinatzen zituzten. Zinemaldia 1957an indartu zen, nazioarteko maila eman ziotenean.

: [8] Aurreko hamarraldietakoa baino askoz ere hazkunde handiagoa zen hura, 1941ean %14,5koa eta 1950ean %20,9koa izan baitzen jaiotza-tasa.

: [9] Kulturaren alorrean agintariek ekarri zuten liberalizazio moduko hark bestelako erreibindikazioak, politikakoak eta lanekoak, plazaratzera bultzatu zituen belaunaldi berriak. Donostiar askok egin zion garai hartan aurre erregimenari, era askotako agerraldien eta ekintzen bitartez: Maiatzaren lehena ospatuz, ikastolak sortuz, alderdi politikoak legez kanpo isilean berrantolatuz... 1962an, donostiar batzuk erbestera zituzen, Francoren aurkako bilera batean izan zirelako Munichen.

: [10] Aipagarriak dira, besteak beste, auzo elkarteak, mendizale elkarteak, zineforumak, Donostiako liburu denda nagusietan literaturari buruz antolatu ziren tertuliak, kultura higikundeak -*Ez dok amairu, Gaur*...-.

: [11] Euskal Herriko legebiltzarkideek "Euskal Herriko Kontseilu Nagusia" eratu zuten 1978an. Erakunde horrek autonomiarako egitasmo bat egin zuen, eta estatu demokratiko berriak aldeztu zuen estatutuen bidez -*Autonomien Espainia*-bideratu zuen autonomia. PNVk alde batera utzi zituen ordu arte izan zituen susmoak, eta gogotik ekin zion bide hari.

Nafarroak autonomia prozesu hartatik kanpora utzi zuen bere burua, eta probintzia bakarreko erkidegoa eratu zuen. Erabaki hori izan zen Euskal Autonomia Estatuaren aurkakoek beren jarrera justifikatzeko erabili zuten argudio nagusietako bat.

: [12] Euskal Autonomia Erkidegoko lehenengo hauteskundeak 1980ko martxoan egin ziren. Donostiako boto emateen %55,3k hartu zuen parte hauteskunde haietan. Eusko Alderdi Jeltzaleak aise irabazi zituen botazio haiek, eta, handik gutxira, haren hautagai Carlos Garaikoetxea izendatu zuten lehendakari.

: [13] Eraitza haietan, eragin handia izan zuen alderdi horrek berak 1982ko urrian Espainiako legebiltzarrerako hauteskundeetan izan zuen arrakasta handiak, PSOE gobernura iritsi baitzen, eta Felipe González izendatu baitzuten Espainiako lehendakari. Gobernu berri hark aldaketarako itzaropen handiak sorrarazi zituen Espainiako gizartean.

: [14] Aurreko hilabeteetan, Lurralde Historikoen Legeari buruzko eztabaidak eta PNVren baitan buruzagitza nor eskuratuko izan ziren tirabira gogorrek dimisioa ematera bultzatu zuten Garaikoetxea lehendakaria, eta alderdikideak bitan banatu ziren. Harrezkero, nazionalismo moderatua banatuta aurkeztu zen hauteskundeetan. Garaikoetxeak sortu zuen alderdi berriak EA zuen izena -Eusko Alkartasuna-. 1986ko hauteskundeetan aurkeztu zen lehen aldiz, eta hark lortu zituen boto gehienak. Baina nazionalisten arteko zatiketa hura beste alderdi guztien mesederako izan zen, gutxiti egin baitzuten abertzaleekin botoetan zuten alde. PNVk bakarrik agintzeko nahiko boto lortu ez zituenez gero, koalizio gobernu bat osatu behar izan zuen PSOErekin batera. Hurrengo urteetan ere, huraxe izan zen Eusko Jaurlaritza eratzeke bidea. Jose Antonio Ardanza jeltkidea izan zen PNVk eta PSOEk eratutako gobernu hartako lehendakari berria.

: [15] Hauteskunde haien emaitzek garbi utzi zuten EAK ez zuela gora egin eta HBk behera egin zuela. PSEk, eskuin espainolistak -PP (Partido Popular) alderdian bildua-, eta PNVk, berriz, gora egin zuten.

: [16] PP etengabe ari zen gora aurreko urteez geroztik, Espainiako Legebiltzarrerako hauteskundeek -1993- eta Eusko Legebiltzarrerakoek -1994- garbi aditzera ematen zuten.

IV

Easo ederra: 1864-1936

Luis Castells

XIX. mendearen erdialdean, gorakada handia izan zen Europako mendebaldean. Garai hartako burgesia saiatu eta ekinak kapitalismoa eta teknologia elkartu zituen. Aldi hartako bultzada handia ezin hobeki adierazten dute orduantxe bidea egiten hasiak ziren bi tresna asmatu berrik: lurruntziak eta burdinbideak. Garraioak eta komunikabideak industrializazioari lotu zitzaizkion, eta denek batera hazkunde aldi iraunkor bat jarri zuten abian, ordu arte inoiz izan ez zen modukoa. Ekonomiaren oparotasun hark itxaropen handiak sorrarazi zituen bazterretan.

Aurrerabide haiek berehala izan zuten eragina hirietan. Biztanleek berehala antzeman eta bereganatu zituzten aldaketak, baina hirietako azpiegitura zahar eta zaharkitua ez zegoen haiek bideratzeko prestatua. Beraz, udaletako agintariak berehala konturatu ziren hiria modernizatzen hasi beharra zeukatela, eta erantzuna eman behar zietela hiritarren premia berriei. Hori bera gertatu zen Donostian ere. 1864tik 1936ra, sekulako aldaketa izan zuen: gotorleku mugatu hura hiri ireki eta kosmopolita bihurtu zen, eta orduko ezaugarri haiek gordeak ditu, gaur egun ere, bere izatearen baitan.

****Zabalgunea****

XIX. mendea bete-betean zegoela, Donostia gotorlekua zen oraindik, bai tankeraz eta bai izatez, Erdi Aroaren bukaeraz geroztik izan zen bezalaxe. Babeslekuz inguratua eta estutua egoteak militar kutsua ematen zion Donostiari, eta zeharo mugatzen zizkion hazteko eta handitzeko aukera guztiak. XIX. mendearen erdialdean izan ziren garrantzi handiko gertaera batzuek lozorrotik atera zuten Donostia, eta etorkizun berri baterako bidea erakutsi zioten.

Isabel II.a erregina Donostiara noizean behin bisitan etortzea izan zen gertaera haietan lehena. Bisita haiek 1845ean hasi ziren, medikuak itsas bainuak hartzeko gomendioa egin baitzion erreginari. 1865ean eta 1868an ere, erregina Donostiara etorri zen. Bestalde, 1854an, Donostia Gipuzkoako hiriburu izendatu zuten behin betiko, eta gertaera hark ere garrantzi handia izango zuen Donostiaren etorkizunean. Zerbitzuak eta administrazioko zeregin berriak Donostian kokatu behar izan zituzten, beraz. Erreginarenean etorrerak eta hiriburu izendatu izanak jende asko erakarri zuen Donostiara. Gipuzkoarrak hiriburu berrira etortzen ziren probintziako erakundeetan egin behar izaten zituzten zuzemenak egitera. Erreginarenean bisitaldiek, berriz, gortea ere Donostiara ekartzeaz gainera, modan jarri zuten Donostia aristokraten artean, eta hala aukeratu zuten leku berri hura beren harremanetarako eta lagunarterako.

Jende asko etortzen zen, beraz, Donostiara, baina lehorreko komunikabideak oso eskasak eta desegokiak ziren. Donostia hiri militarra zenez, errepide nagusitik alboratuta zegoen, bazter batean, eta, barrualdetik zetozenentzat, Donostiako sarbidea ez zen batere egokia, oztopo eta traba handikoa baizik. Hori konpontzeko, Madriletik Irunera doan bidearen lotunea inauguratu zuten 1847an, errepide nagusia gaur egungo Askatasunaren Hiribidera desbideratu ondoren. Burdinbidea izan zen, ordea, Donostiara zetorren jendearen joan-etorria gehien erraztu zuen komunikabidea. *Compañía de los Caminos de Hierro del Norte* zeritzan enpresak 1858an hasi zituen Gipuzkoan trenbidea eraikitzeke lanak. Madriletik Irunera zihoan burdinbidea 1864an inauguratu zuten, eta Donostian geltoki bat zuen: Norteko Geltokia. Eragin ezin handiagoa izan zuen burdinbidearen etorrerak Donostian: ordu arte erabili ziren zalgurdi deserrosoak baztertuta gelditu ziren, bidaiak merkeagoak eta erosoagoak baitziren trenez, eta bidaiarien eta bidaien kopurua ugartu egin zen.

Burgesiak berehala sumatu zuen zer-nolako aukerak zekarzkion Donostiari jende etorrera handi hark. Merkataritzak Donostian tradizioz izan zuen alde eta molde bakarreko jarduera -itsaso bidezkoa, alegia- aldatu beharra zegoela erabaki zuten burges batzuek. Beharko, nahitaez, Donostiako portua guztiz mugatua gelditu baitzen! Bazegoen portua zabaltzea, bai Badian edo bai Urumea ibaian, baina oso erabaki zaila zen hura, kontu handiz aztertu beharrekoa, arriskuan jar baitzezakeen Donostiaren etorkizuna.

1860 aldera, indarra hartzen hasi ziren beste negozio batzuk, salerosketak baino askoz ere irabazi handiagoak eman zitzaizkien: industria eta turismoa. Dirutza handiko familia batzuek -Brunet familiak, besteak beste- berehala sumatu zuten bazegoela hor irabazpide handi bat, eta bere inbertsioen zati bat bi alor horietara bideratzea erabaki zuten. Baina bai negozio berrien aldeko enpresaburu saiatuek eta bai negozio zaharren aldekoek harresien oztopo eta muga handia zuten aurrez aurre, hesi hark ez baitzion hiriarri uzten ez zabaltzen eta ez negozioak egiteko behar ziren azpiegiturak abian jartzen.

Traba arkitektoniko hark ez zion, ezta ere, handitzen uzten Donostiako biztanleriari. 1860an, Donostiak 14.115 biztanle zituen, eta, haietatik, 9.156 Erdi Aroko barrenalde hartan bizi ziren, estu-estu eta pilatuta. Harresietatik kanpoko auzoetan, Amaran eta San Martinen, herri xehea besterik ez zen bizi. Harresien barruan, berriz, nahasketa handia zegoen; oso maila sozial desberdineko jendea bizi zen itxitura hartan elkarrekin: burgesak eta haien neskame-morroiak, eskulangileak, eta herritar arruntak. Harresi barruko biztanleen kopurua gero eta gehiago ari zen handitzen, baina, bazter itxi hartan, gero eta leku gutxiago zegoen. Etxebizitzak egiteko premia handia zegoen, beraz, baina ez zegoen lekurik; etxeen altuera igo behar izan zuten, hortaz, eta gero eta jende gehiago pilatzen zen bizitegietan; donostiarrak osasunerako arrisku handian bizi ziren, beraz, etxe haietan. Goi mailako eta behe mailako jendeak, denek nahi zituzten harresiak bota, denek nahi zuten hiria zabaltu eta handitu.

1863ko apirilaren 22ko Errege Agindu batek plazaratu zuen berria: harresiak botatzeko baimena. Donostia ez zen handik aurrera gotorlekua izango, haren inguruko babeslekuak lurrera bota behar zituzten. Berri hark sekulako poza sortu zuen donostiarrengan, eta, ospatu ere, gogotik ospatu zuten. Erabaki hark bazituen, hala ere, alderdi ilun eta katramilatsuak -lurren jabetza, lanak finantzatu beharra...-, eta, eztabaida eta auzi haiek konpontzeko negoziazioak eta elkarrizketak zirela medio, ezin izan zituzten harresiak hurrengo urtea arte bota. Bitartean, udala hiri berria eraikitzeko prestatu zen, eta European gehien erabiltzen zen baliabidea aukeratu zuten horretarako: zabalgunea.

//15. Donostia, 1864.

Zabalguneak dira, hirigintzak European sortu zituen arazoak konpontzeko, XIX. mendean aukeratu zen irtenbidea. Urteak joan, urteak etorri, biztanleria hazten ari zen Europako hirietan; jendea etxeetan pilatuta bizi zen, eta agintariei arazo larri hura konpondu beharra egokitu zitzairen. Negozioen bidez aberastua zen burgesia bera ere kezkatuta zeukan hirietako bizitzaren hondamen hark. Kezka horrexek bultzatu zuen burgesia espazio berriak agintariekin batera antolatzerara, eta hiriak zabaldu ahal izateko konponbide berriak taxuz, neurriz, eta zentzuz bideratzerara. Arau zehatz batzuen arabera antolatutako kale eta auzo-sareen bidez ordenatu zuten eremu berri haien hazkundea. Arau haiek ez zituzten besterik gabe eman; behar-beharrezkoak ziren, biztanleen gehiegiagatik eta etxebizitzaren premia handiagatik lehenbailehen eraiki behar ziren orube huts haiek ondo antolatzeko. Hirigintzako arazoak konpontzeko modu hark eman zion tankera indar betean zegoen kapitalismoak gizartean sortu zuen ordena berriari. Eta eredu hura erabat bete zen Donostian.

Zabalguneen ereduak Pirinioak zeharkatu zituen, eta Espainiako hirietan barrena zabaldu zen. Cerdák Bartzelonarako proiektatu zuen zabalgunea eredugarria izan zen garai hartako hirigintzan. Donostiako udalak Bartzelonari jarraitu zion eraikuntza lanen aurreko urratsak egiterakoan [1]. Agintariek planoen lehiaketa baterako deialdia egin zuten, etorkizuneko hiriaren ereduak aukeratzeko. Hamabi proiektu aurkeztu ziren deialdi hartara. Udalak Antonio Cortázarrek egindako proiektuari eman zion lehenengo saria, eta hura aplikatzea erabaki zuen. Baina ez zion uko egin lehiaketa hartan bigarren izan zen proiektuari, Martín Saracíbarrenari: gauza asko atera zituen handik Cortázarren proiektua hobetzeko.

Cortázarrek udalak deialdian eskatu zituen oinarriak bete zituen; alegia, merkatari kutsu handiko hiri bat proiektatu zuen. Salerosketak erraz egin ahal izateko moduan antolatu zuen hiria. Helburu horri jarraiturik, dendetarako eta saltokietarako gorde zituen erdialdeko oruberik onenak, eta lehentasuna eman zien salgaiak garraiatzeko loturei, beste edozein irizpideren gainetik. Hortaz, bi lonja kokatu zituen badian, portutik gertu, eta portua burdinbidez lotu zuen Norteko Geltokiarekin. Burdinbide horrek Zabalgunea erdi-erditik zeharkatuko zuen. Urumea ibaia bideratzea ere proposatu zuen, bi ertzetan zamalanerako kaiak ipintzeko.

Azpiegitura haietarako behar zen lekuak ez zuen toki askorik uzten aisiarako zuhaitz eta landarezko guneak egiteko. Cortázar, ordea, ez zen asko estutu horregatik, zeren eta biztanle dentsitate handia proposatu baitzuen metro koadro bakoitzeko, eta estu samarrak proiektatu baitzituen kaleak ere. Alde batera utzi zituen irizpide estetikoak, eta baita higienikoak ere, merkataritzako negozioen eta lurraren espekulazioaren mesedetan [2]. Horrez gainera, oso kontuan hartu zuen turismoa, ordurako garbi baitzegoen irabazpide handiak ekarriko zizkiola Donostiari.

Cortázarrek leku berezi bat gorde zuen udatiarrentzat, badiaren aurrez aurre. Klase dirudunak hiriaren erdialdean kokatu zituen, gaur egun Askatasunaren Hiribidea dagoen lekuaren inguruan. Etxe sail handiak proiektatu zituen toki hartan, itxiak, eta erdian patio bat zutenak; etxeak 350etik 370eraino metro koadro ingurukoak ziren. Azkenik, aldiriak -San Martín eta Amara- herri xehearentzat gorde zituen, eta hasiera-hasieratik izan zuten, beraz, kutsu herrikoia handia auzo horiek. Cortázarrek, esan beharrik ez dago, irizpide guztiz klasista baten arabera banatu zituen hiriaren alderdiak.

1864an behin betiko onartu zen Cortázarren planoan oinarritu zen Donostiako Zabalgunea. Udalak plano haren ardatz nagusiak mantendu zituen, baina garrantzi handiko aldaketa batzuk egin zituzten, haren etxe eta jende metatze hura zertxobait arintzeko. Hortaz, hasiera-hasieratik erantsi zituzten Saracibar finalistaren proposamen batzuk. Aldaketa horiek asko hobetu zuten Cortázarren hasierako proiektua, eta hark hasieran pentsatutakoaren oso bestelako kutsua eman zioten hiriari. Merkataritzari Cortázarrek eman zion nagusitasuna zertxobait apaldu zuten, turismoaren baliabideak hobeto erabili ahal izateko. Turismoa indartzeak ez zuen esan nahi merkataritzari uko egiten zitzaionik, baina bisitariak erakarriko zituen hiri atsegin bat egiteari eman zion udalak lehentasuna.

//16. Goian, Antonio Cortázarren zabalgunearen planoak. Behean, Martín Saracibarren planoak.

Bi proiektu haien arteko aldea ezin hobeki adierazten du hiri zaharretik Zabalgunera doan tartea -gaur egun Bulebarra dagoen tokia- antolatzeke irtenbideak. Cortázarrek etxe multzo nahasi bat pentsatua zuen leku hartarako: aduana, antzokia, azokak... Saracibarrek, berriz, zumardi bat proposatu zuen, lorategiz eta zuhaitz txukun eta egoki zainduz betetako leku bat, bertakoen eta kanpotarren gozamenerako bereziki egina.

//17. Goian, Cortázarrek Bulebarrerako proposatu zuen proiektua. Behean, Saracibarrena.

Bi hautabide horien artean aukeratu beharrik eztabaida gogorra sortu zuen Donostiako burgesiaren. Auzitan zegoena ez zen bakarrik leku haren itxura eta tankera: Donostiaren etorkizun ekonomikoaren bi kontzeptu elkarren aurkako zeuden aurrez aurre. Ez da harritzekoa, beraz, eztabaida hura oso gogorra izatea,

auzi hura ezin garrantzitsuagoa baitzen. Cortázarren eta Saracibarren aldekoen arteko liskarrek eta tirabirek -*Alamedistak* esaten zitzairen Saracibarren aldekoen dimisioa ematera bultzatu zituen zinegotzien erdiak 1865eko maiatzean, eta, hartara, hauteskundeak egin behar izan ziren. Alamedazaleek irabazi zituzten botazio haiek.

1866an eman zuten Zumardia edo Alameda eraikitze baimena, eta hala erabaki zuten auzi hura eta jarri zituzten Donostiaren hazkunderako oinarriak. Turismoa eta zerbitzuen sektorea hartu ziren batez ere aintzat hiria zabaltzeko eta handitzeko egitasmo haietan. Eraikuntzako lanak helburu horretara makurtu zituzten, eta, horregatik, dotoreak, txukunak, eta erakargarriak egin zituzten etxeak eta kaleak, goi mailako udatiarren gustukoak izan zitezten.

Zabalgunea eraikitze lanak bizkor jarri ziren abian, eta gelditu gabe jarraitu zuten, harik eta Bigarren Karlistaldia hasi zen arte (1872-1876). Lehenengo aldi hartan, 1866tik 1874ra bitartean, 177 lur sailetan eraiki zituzten etxeak, Zumarditik Hiribiderainoko tartean. Eraikin horien artean, aipagarriak ziren Bretxako Azoka (1871), Santa Katalinako Zubia (1872), eta Gipuzkoa Plazaren inguruko etxeak, 1867tik 1882ra bitarte eraikiak. Gipuzkoa Plazaren erdiko lorategia udaleko lorezain Pierre Ducassek asmatu eta egin zuen.

****Hiri liberala****

Harresiak bota ondoren, Donostia *Easo Eder* bihurtu zen garai berean, aldaketa handiak izan ziren Espainiako politikan. 1860. urtearen inguruan, liskar eta tirabira handiak izan ziren Espainiako politikan eta gizartean, eta eten handia izan zen ordu arteko gobernatzeko moduan.

Liberalismoaren alderdirik erradikalena, burgesia aurrerazalea, baztertua zegoen agintetik, Isabel II.a erreginak ez baitzion gobernuan sartzen uzten. Liberal moderatuak egon ziren, beraz, behin eta berriz agintean. Zapuztuta zeudenez, aurrerazaleek manifestazioak, istiluak, erreboltak... bultzatu zituzten, baina gobernuak behin eta berriz zapaldu zituen. Giroa gori-gorian zegoela, 1864an, ekonomia krisi handi batean sartu zen, eta, hurrengo urteetan, krisi hura areagotu baizik ez zen egin. Haren ondorioek ezinegona eta nahaspila sortu zuten gizartean. Irtenbide berriak bilatu ordez, monarkiak betiko moduan jardun zuen, politika gogor bat eginez.

1866ko irailean, liberalek herritarren eta militarren matxinada bultzatu zuten berriz. Oraingoan, ondo atera zitzairen. Gertaera hari *La Gloriosa* deitu zitzaion; *Aintzazko Iraultza*, alegia. Erregina tronutik bota zuten, eta Espainiatik ihes egin behar izan zuen.

Iraultzaileek sistema politiko berri bat jarri zuten abian, gizabanakoaren eskubideetan oinarritua, eta askatasuna ziurtatzen zuena. Burgesia iraultzaileak, hark bultzatua baitzen iraultza hura, arreta handiz zelatatu zituen matxinatuen joan-

etorriak, beldur baitzen matxinada hark muturreraino joko ote zuen, eta beraren nahiak zapuztuko ote zituen. Zalantza, susmo eta eragozpen haiek gorabehera, hurrengo urteetan indarrean jarri ziren formula politikoek berrikuntza handia ekarri zuten Espainiara, agintari berriek borondate demokratiko sendoa erakutsi baitzuten. Geroztik, *Sei urteko Demokratikoa* edo *Iraultzailea* esan zitzaion garai hari.

Euskal Herriko probintziak berehala jarri ziren gobernuaren kontra. Egoera hark bultzada handia eman zion karlismoari, bere burua foruen aldeko eta Madrilen eredu zentralistaren aurkako aurkezten baitzuen. Euskal Herriko probintzietako maila sozial guztietako jende askok zeuzkan aintzat hartuak foruaren bitartez indarrean zeuden mugak zekartzan onurak; soldadutza egin beharrik ez izatea eta estatuaren ogasunari zergak ordaindu behar ez izatea ziren onura garrantzitsuenak. Abantaila haiek estu-estu lotuta zeuden foruari, eta forua babestu nahiak jende asko erakarri zuen Don Carlosen alde. Arrazoi horregatik jo zuten Euskal Herriko lurralde historikoek Espainian nagusi zen joeraren kontrako bidetik, eta hala ari izan ziren erregegaiaren alde eta Madrilen aurka.

Euskal Herriko hiri gutxi batzuk besterik ez ziren makurtu liberalen aldera. Eta jarrera horrek guztiz nabarmendu zituen Euskal Herriko probintzietako giro tradizionalista hartan. Horixe gertatu zen Donostian; handik aurrera, bere ezaugarri berezizat hartu zuen liberalismoa, ia Gipuzkoa osoa karlisten aldekoa zelarrik.

Erregina eta haren gortea Donostian zeuden *Aintzazko Iraultza* hasi zenean. Giroa osoa lasai zegoen Donostian. Inguruan istilurik eta zalapartarik sumatu ez zuenez, erreginak uste izan zuen gauza bera ari zela gertatzen Espainia osoan, eta iraultza haren garrantzia gutxietsi zuen. Ez zen egoeraren larriaz konturatu, harik eta, irailaren 28an, liberalek erreginaren armada garaitu zuten arte. Irailaren 30ean, erreginak erbesteratu egin behar izan zuen; Norteko geltokian hartu zuen trena, eta hara joan zitzaizkion Donostiako agintariak agur esatera.

Egun gutxi batzuk lehenago erreginari eta gorteari harrera ezin hobea egina zioten agintari haiek berek higikunde iraultzailearen alde egin zuten. Beldur ziren iraultza hark ez ote zuen muturrerago joko, eta hura bideratzen saiatu ziren. Agintari liberal berriek berehala sortu zuten erakunde berri bat, udaletako aginpidea bere gain har zezan: *Batzorde Iraultzailea*. Hori ikusirik, Donostiako burgesiak bizkor hartu zuen esku Donostian eratzekotan ziren batzorde hartan, eta kosta ahala kosta saiatu zen herriak batzordekideak demokrazia bidez aukera ez zitzan. Talde berezi batek aukeratu zituen, azkenean, batzordekide haiek, eta batzorde horretan donostiar handi batzuk zeuden: Fermin Matxinbarrena eta Fermín Lasala, besteak beste.

Erakunde berri hori izendatu orduko, izena aldatu zuen, eta *Gobernu Batzordea* esan zitzaion harrezkero, zer joera politikoa zuen garbi adierazirik. Probintzia osoko aginpidea hartu zuen bere gain, eta bere betekizunak moderazioz eta zuhurtasunez bete zituen, harik eta, 1868ko urrian, desegin zen arte.

//18. Karlistaldia. Gotorlekua Santa Katalina zubiaren sarbidean.

Hurrengo urteetan ere, Donostiako burgesiak aginpidean iraun zuen. Inguru osoa karlisten aldekoa zutenez, Donostiako joera bateko eta besteko liberalek elkar hartu behar izan zuten, beren arteko ika-mikak alde batera utzirik, eta fronte trinko bat eratu zuten: "Batasun Sakratua" -joera eta irizpide desberdineko liberalen elkartasuna, alegia [3]-. Gobernuarekin zituen harremanak aldartetsuak izan ziren: batzuetan alde eta besteetan kontra; politika berriaren alde egin zuen, gobernuak Euskal Herriko probintzien erregimen berezia errespetatu zuen bitartean.

Karlisten matxinadak estutu egin zuen donostiarren arteko lotura, Donostia baitzen liberalek Gipuzkoan zuten ia herri bakarra; ia probintzia osoa etsai zuten, beraz, donostiarrek. Gerra 1872. urtearen bukaeran hasi zen, eta berehala ikusi zen indarrak ez zeudela batera berdinduak. Gipuzkoa Don Carlosen alde ari zen borrokan, eta karlistek beren mendean edo setioan zeuzkaten herri gehienak: Arrasate, Beasain, Bergara, Eibar, Tolosa.

Karlistak gero eta hurbilago zeuden Donostiatik. 1875ean, hiria bonbardatzen hasi ziren. Hiru lerroko sare batek babesten zuen Donostia: Lehena, Igeldotik Pasaiaraino, Lugaritz, Puio, Altza, eta Uliaren barrena; bigarrena, Antiguatik Egiara, Uliaren oineraino; eta hirigunetik hurbilen zegoen lerroa, hirugarrena, Mirakontxan hasten zen, San Bartolomen barrena jarraitzen zuen, eta Santa Katalinan bukatzen zen.

Borbon familiak erregetza berriz ere hartu zuenean, eta Alfontso XII.a izendatu zutelarik errege, elkarren kontrako bi indar haien arteko harremana aldatu egin zen. Espainiako politika zertxobait baretu zen, eta gobernu berriak gatazka hura konpontzen ahalegintzeko beta izan zuen. Bere armadaren indar guztia erabili zuen helburu hori betetzeko. Bestalde, errege berriak joera moderatuko politikari askoren atxikimendua izan zuen. Alfontso XII.ak jarraitzaile asko kendu zizkion Don Carlosi, haren alde bolada baterako baizik egin ez zutenen artean.

1876. urtearen hasieraz geroztik, liberalek indar handiko armada bat eratu zuten, Euskal Herriko probintzietako hainbat lekutan karlistak garaitu zituzten, eta, pixkanaka-pixkanaka, atzera egitera behartu zituzten. Otsailaren 18an, Donostiako setioa altxatu zuten. Donostiarrek pozez ospatu zuten garaipen hura.

****Hiria zabaltzen****

Gerrak hiriaren zabalkundea eten zuen. Bakea etorri zenean, berriz hasi zituzten Zabalgunea eraikitzeke lanak. Udalak hasierako irizpide estetizistari eutsi zion berriz ere. Goi mailako klaseek, elkar harturik, ahalegin handiak egin zituzten hiri eder eta dotorea eraikitzeke. Gerora, turismoaren eta zerbitzuen sektorea indartu zuten, kanpoko dirudun jendea erakartzeko. Eta ez zuten zalantzarik izan hasierako proiektua aldatzeko eta hobetzeko, hiri atsegin bat egiteko helburuarekin, betiere.

//20. Cortázarren zabalgunea eraikitzeke hiru aldiak.

Hiria zabaltzerakoan, eragile haiek turismorako joera nabarmena bazuten ere, ez zituzten beste jarduera ekonomiko batzuk baztertu. Donostiako burgesiak ez zien muzin egin industriak eta merkataritzak ematen zituen irabazpideei. Aitzitik, inbertsioak egin zituen ekonomiaren hainbat alorretan. Baina kontu handia izan zuen paisaiari kalterik ez egiteko eta erdialdea txukun eta dotore mantentzeko. Pabiloiak, lantegiak, eta fabrikak aldirietara baztertu zituen -Antiguara, Egiara, Grosera...-, udatiarrek ikus ez zituzten.

Hiriko espazioa funtzionaltasunaren arabera banatu zuten, beraz, garai hartako zabalgunek gehienetan bezalaxe. Donostia eremu espezializatueta banatu zuten: leku bat langintzarako izan ala bizitzeko izan, hartara egokitu zioten auzo edo leku jakin bat. Bizitoki hutserako ziren etxe multzoek helburu horretarako behar ziren ezaugarriak zituzten, bai arkitekturaren eta bai soziologiaren aldetik.

Erdialdeari egokitu zitzaion erdigune burges eta turistikoa izatea. Hango eraikuntzak itxura uniformea eta dotorea zuen, soila, eta formaren aldetik neurritzakoa, Parisko hirigintzaren eraginez. Belaunaldiz belaunaldi, arkitektoek Donostiara aldatu zituzten Europan boladan zeuden estiloak, eraikin bikainenetan garbi sumatzen denez.

//19. Donostiako zabalgunearen eragile nagusiak; ezkerretik eskuinera: Antonio Cortázar, José Goicoa, eta Nemesio Barrio.

Antonio Cortázarri zor zaio lehenengo zabalgunearen klasizismoa; José Goicoak eklektizismorako joera izan zuen -Amarako eskolak, 1893; Diputazioko Jauregiko fatxada, 1879-1885; Artzain Onaren plaza, San Inazio eliza, 1892.-. Donostiako eraikin berezietako batzuk estilo horretakoak dira: Kasinoa -Morales de los Ríos eta Aladrén, 1887-, frantses arkitekturaren eragina duena; Victoria Eugenia antzokia -Francisco de Urcola, 1912- eta María Cristina hotela -Charles Mewes, 1912-. Arkitektura zibilean, aipagarriak dira Prim kaleko eraikin modernistak -Art Nouveau estilokoak-, haietako onenak Luis Elizaldekin eginak.

//21. Kontxako hondartza.

1888an, udalak Kontxako eta Ondarretako hondartzen arteko tontorra eskaini zion M^a Cristina erreginari, bere udako egoitza han eraiki zezan. Miramar jauregia Selden Wornumen planoen arabera eraiki zen, eta *cottage* ingeles baten tankera du, kutsu gotiko handiarekin. Kontxa urbanizatzeko lanak 1909an bukatu ziren, Juan Ramón Alday udaleko arkitektoak baranda azpiko pasabide irtena eraiki zuenean. Gran Kursaal kasinoa 1922an ireki zituen ateak; gaur egun eraitsia dagoen eraikin hura Bluysenek egin zuen, eta, batere orijinala ez bazen ere, txit handiustekoa zen tankeraz.

Arrazionalismoa izan zen Donostian garai hartan erabili zen azken joera estetikoa. Oso forma landuak zituen eta oso apaingarri gutxi. 1920ko hamarraldian sartu zen

indar handiz Espainian joera hori. Donostian bi eraikin bikain utzi zituen: Klub Nautikoa eta *Equitativa*.

Auzoen plangintza egiterakoan, Donostiako handiki jendeak ez zuen erdialdean bezain txukun eta arretaz jokatu. Aldirietako auzoak hainbat zereginetarako erabili ziren: baziren bizitoki dotoreak, baziren fabrikak, baziren bizitoki arruntak... Eta erabilera horiek konbinatu beharrak oso itxura nabarra eman zien auzo horiei. Hortaz, gorabehera handiak izan ziren kalitatearen aldetik Antiguaren, Grosen, Ategorrietaren... artean. Biztanleen aldetik ere oso nahasiak ziren. Eta herritar apalantzat edo langile soilentzat ziren auzoetan, Egia-Atotxan bereziki, ez zuten inolako urbanizazio lanik egin: bere horretan utzi zituzten, batere zaindu gabe.

****Hiria aurrerabidean****

****Turismoa eta gortea****

1887an, María Cristina erregina Donostiara etorri zen bisitan, sendagileek hala aholkatuta, nonbait, haren semearen osasuna indartzeko. Harrezkero, uda guztietan etorri zen, harik eta, 1929an, hil zen arte [4]. Donostia eta Santander lehian ibili ziren erregina uda pasatzera nork erakarriko, baina, azkenean, erreginak Donostia aukeratu zuen. Bi hiri horiek bazuten eredu bat, gertu: Miarritze, Napoleon III.ak begiz joa baitzuen uda han igarotzeko. Enperadoreak udaldian egoitza Miarritzen hartu izanak sekulako goraldia ekarri zuen Lapurdiko hiri horretara; eta, goraldi huraxe bera nahi baitzuten donostiarrek eta santandertarrek zeinek bere hiriarentzat, hartara ari izan ziren lehia bizian Espainiako gortea udaldian erakartzeko, eta, hartarako, gogotik ahalegindu ziren zeinek bere hiriaren eta hondartzaren bikaintasuna goraiatzeko.

M^a Cristina erregina uztailaren erdialdera iristen zen Donostiara, eta irailaren bukaera arte edo urria aurreratuxea zegoen arte gelditzen zen han. Gortea erreginarekin batera etortzen zen, eta, bolada hartan, Donostia izaten zen Espainiako erresumako hiriburua. Horrek onura handiak ekarri zizkion turismoaren sektore guztiari; hurrengo hamarraldietan turismoak gero eta indar handiagoa izan zuen, eta ez ziren makalak izan hari esker batzuek eskuratu zituzten irabaziak.

Paisaiaren bikaintasunak eta edertasunak eta hiriak eskaintzen zituen zerbitzuek zerikusirik handia izan zuten erreginaren erabakian. Ospe handiko bisitari haien erakarmenez, gero eta turista gehiago etortzen zen urtero-urtero Donostiara, gorabehera politikoei jaramonik egin gabe. Turismoaren sektoreak berehala asmatu eta bilatu behar izan zituen aisiarako eta jolaserako baliabide gehiago, turistak luzaroago gera zitezten.

Ekimen publikoak eta pribatuak batera ari izan ziren goi mailako turista haiei beren mailako denbora-pasak eta jolasak eskaintzeko. Kasinoa izan zen ahalegin haien ondorio garbia. 1887an inauguratu zuten, eta ezin hobeki bete zuen bere eginkizuna: Donostiako udaldiari bizitasuna ematea. Hura ez zen izan, ordea, turisten

gozamenerako egin zen ahalegin bakarra. XX. mendearen hasieran, kiroletarako, ikuskizunetarako, eta denbora-pasarako hainbat eraikuntza lan egin zen Donostian, eta, hartarako, oso kontuan hartu zuten zuhaitz eta landareetarako lekuen eta bizitokirako lekuen arteko harmonia.

Ulia mendian, adibidez, hainbat eraikin jaso zuten, eta aire bidezko transbordadore bat ere ipini zuten. Loiola auzoan zezen plaza estali bat kokatu zuten. 1912an jarri zuten abian Igeldoko funikularra, eta hurrengo urteetan egin zituzten Pasealeku Berria eraikitze lanak. Kontxako hondartza ere dotoretu egin zuten: La Perla, harrizko eraikina, eta Erreginareen Bainu Etxea -gaur egun Eguzki elkartearen dagoen lekua- jaso zituzten 1911tik 1912ra bitartean. 1921ean, udalak Urgull mendia erosi zuen, herritarren aisiarako. 1922an inauguratu zen Kursaleko Kasino Handia. Horrez gainera, zezen plaza, hipodromoa, golf zelaia... eskaintzen zizkien Donostiak udatarrei, eta, 1924rako, European boladan zeuden beste leku turistiko guztiak baino askoz eskaintza handiagoa zuen Donostiak.

//22. Donostiako denda dotore baten argazkia.

Propagandak argi eta garbi nabarmentzen zuen Donostiako udaldia elitista zela, eta hondartza inguruko etxeen tankerak eta, udatarren aisiarako eta jolaserako, Donostiak eskaintzen zuen guztiak azpimarratu besterik ez zuen egiten elitismo hori. Baina, aristokratekin batera, berehala sumatu ziren Donostian halako ospea eta goi maila ez zuten bisitariak: erdiko klase aberastuak. Berehala hasi ziren horiek goi mailako jendearen bide berbera egiten, eta haien jokabideak eta itxurak imitatzen. Gizarteko mailan gora igotzea zen haien nahia, horretarako diruz estu ibili behar baldin bazuten ere. Kontxan jendaurrean agertzeak "itxura ona ematen zuen", eta, XX. mendeak aurrera egin ahala, gero eta burges dirudun gehiago etorri zen beren familiekin uda Donostian igarotzera. Haien ere ederki gozatu zuten Donostiako udaldiaz, diruz aristokratik baino estuago ibili behar izanagatik.

1920 inguruan, turismoa beheraldian zegoela uste izan zuen askok. Primo de Riverak 1925ean jokoa debekatu izanak ezinegona sortu zuen goi mailako jendearengan, eta udatar askok Miarrizera alde egin zuen. Hala eta guztiz ere, 1927an, udatarren kopurua berriz ere handitzen hasi zen. Eta are gehiago ugartuko zen 1930eko hamarraldian.

Nolanahi ere, turismoa "krisian" zegoela aipatzen zuen hainbat donostiarrek behin eta berriz. Donostiara azken boladan beste era bateko udatiarrak etorri izanak sortua izan behar zuen sentipen hura. Izan ere, erdiko klaseko gero eta udatar gehiago etortzen zen, eta berehala gaudituz zuten aristokraten kopurua. Horrek ezinegona sortu zuen turismotik bizi zen sektorean. Estutasunak, ordea, ez ziren orduan hasi; gerora hasiko ziren, bai gogor estutu ere, Espainiako II. Errepublikaren garaiko iskanbiletan eta nahasmenduek bazterrak astindu zituztenean.

Aberasbideak

Ez zen turismoa izan Donostiaren aberasbide bakarra. Turismoa sasoi bakar batera mugatua zegoenez, irabaziak urte osoan emango zituen jardunbideak bilatu beharra zegoen. Burgesiak ahaleginik handienak turismora bideratu bazituen ere, ez zien beste sektore batzuei muzin egin. Dirudun familia saiatuenek beste aukera batzuk aztertu zituzten inbertitzeko, eta kontu handiz ibili ziren, inbertsio batzuek besteei trabarik egin ez ziezaieten.

Donostiako burgesiak aldi berean bultzatu zituen merkataritza, industria, eta finantzak. Jarduera horiek elkarri trabarik egin gabe eta elkarren osagarri egin zuten aurrera, eta sendotu egin zuten Donostiako hiriaren ekonomia. Garai hartan lanean ari zen jendeak zer-nolako lana egiten zuen aztertuz gero, argi ikusten da ekonomiaren bigarren eta hirugarren sektorea ere indartsuak zirela, eta ez hirugarrena bakarrik, hiriak propagandarako baliatzen zuen irudi berriak aditzera ematen zuenez.

Bertako industrian langile askok lan egiten zuen -lanean ari zirenen %40'2k 1900. urtean, eta %41'8k 1930ean-. Donostiako fabrikak, probintziakoak bezala, txikiak ziren tamainaz, eta oso kapital txikiarekin hasiak ziren lanean. Ekonomiako sektore askotan eta elkarren oso desberdinetan aritzen ziren fabrika haiek; batik bat, eta garrantzi handienekotik txikienekora, eraikuntzan, ehungintzan, elikagaien industrian, eta tabakogintzan. Haien artean, baziren bi garrantzi handikoak: *Lizarriturry y Rezola* (1864), Antiguan, kandelak, koloniak, eta xaboiak egiten zituen; eta *Cementos Rezola* (1858), Añorgan.

Donostiako kapitalak ez zien muzin egin garai hartan Gipuzkoan sortu ziren industria berriei. Enpresa askotan parte hartu zuen, eta Donostia inguruan jardunean zeuden fabriketan inbertitu zuen, batez ere.

Lanean ari zirenen artean, hirugarren sektoreak biltzen zuen, proportzioan, langile kopuru handiena -% 51'1 1930ean-. Militar, funtzionario, eta neskame-morroien kopurua neurritz gainekoa zen XIX. mendean, eta horregatik zen hain handia Donostian hirugarren sektorean ziharduten langileen proportzioa. XX. mendeak aurrera egin ahala, ostalaritzako eta lanbide liberaletako langintzek askoz ere indar handiagoa izan zuten. Gizartea bera gero eta modernoagoa eta gero eta konplexuagoa zela esan nahi zuen horrek. Gutxika saltzen zuten saltokiak gero eta gehiago espezializatu ziren. Eta luxuzko salgaiak bereziki udatarrei saltzen zizkieten denda jakin batzuk izan ziren espezializazio horren eredu bitxiena. Saltoki horietako batzuk sasoikoak izaten ziren; alegia, udan baizik ez zituzten zabaltzen atak.

Finantzako erakundeek osatzen zuten Donostiak hirugarren sektorean zuen aukera zabala, eta haiek ematen zuten negozio kopuru handi hark behar zuen oinarria eta euskarria. 1899an zabaldu zituen atak *Banco Gipuzcoano* banketxeak. Hurrena, *Banco de San Sebastián* izan zen, 1909an, Donostiako goi mailako jaun batzuek sortua. 1879an, udalak *Aurrezki Kutxa* sortu zuen -geroago, *Donostiako Aurrezki Kutxa* deitu zioten, eta, geroago, *Gipuzkoako Kutxa*rekin bat eginik,

gaur egungo *Kutxa* sortu zen-, banketxeenaren oso bestelako helburuaz: jendea dirua aurreratzera bultzatzea, eta kapital txikia bereganatzea.

****Hiri amestua****

****Donostiaren irudia***

Hirigintzako proiektu nagusiak ereduak izan ziren. Kontxa, Askatasunaren Hiribidea, Bulebarra, eta Pasealeku Berria: horra Donostiak bere buruaren propaganda egiteko zeukan erakuslehorik onena. Donostiarrek eta bisitariak berehala aukeratu zituzten leku horiek, egoitza han hartzeko... eta, batez ere, "besteak ikusteko" eta "besteek norbera ikusteko". Familia dirudunentzat, paseoa izaten zen harremanetarako eta lagunarteko aukera egokiena.

Burgesiak berehala aukeratu zuen zabalgunea jendarteko harremanetarako. Kale haien dotoretasunean aurkitzen zuten burgesek beren mailari zegokion giro egokia. Parte Zaharrak garai bateko indarra eta bizitasuna galdu zuen. XIX. mendearen bukaera arte, hango kaleetan bizi izan ziren bai herri xehea eta bai goi mailako jendea. Baina, XX. mendeko aurreneko hogeita hamar urteetan, herri xehea baizik ez zebilen kale haietan.

Donostiak hiri modernoaren ospea zuen. Donostiako burgesiak atsegin handiz bereganatu zituen teknologiak haren esku jarri zituen berrikuntza guztiak; bai aurki aldatu ere, haien zirela medio, hiriaren itxura eta tankera. 1899an, kaleetako argiteria elektrikoa inauguratu zuten. Kale haietan barrena aurki ibili ziren tranbiak eta, geroago, automobilak [5]. Baina, haien prezioa garestia baino garestiagoa zenez, gutxi batzuen handizalekeriaren erakusgarriak izan ziren hasieran. Alfontso XIII.a erregeak bultzada handia eman zien automobilei, oso auto zalea baitzen, eta, udaldietan, autoak gidatzen ibili ohi zen Donostian barrena. 1935 aldera, automobilak garraio bide elitista izateari utzi zion.

//23. Atotxako futbol zelaia.

XX. mendearen hasieraz geroztik, kirolerako zaletasunak gora egin zuen Donostian. Jendea txirrindularitzan, igeriketan, futbolekin... aritzen zen, eta pilotan ere bai. Zaletasun hura giro eta joera berri batek bultzatua zen: ohitura osasuntsuei eta gorputz ariketei eman zitzaion garrantziak, alegia. Kirol horietan guztietan talde profesionalak sortu ziren. *San Sebastián Ciclista Foot-ball Club* taldeak Ondarretako zelaian jokatzeko partiduak. Baina handiki jendearen denborapasa hark gero eta futbolzale gehiago erakarri zituen. 1910ean sortu zen *Real Sociedad de Foot-ball*. Halako jendetza handia biltzen zen talde berri haren partiduetan, non, azkenean, Atotxako zelaira joan behar izan baitzuten; 1913an eraiki zuten, futbol zale mordo handi hura barruan har ahal zezan.

Udalak telefono sare bat antolatu zuen Donostian, eta 1908an lortu zuen hura erabiltzeko baimena. Donostiarrek zinema ikusteko aukera ere izan zuten,

horretarako berariaz egindako aretoetan -*Novedades*, 1912; *Miramar*, 1913; *Bellas Artes*, 1914; *El Príncipe*, 1922-. Irrati emanaldiak entzuteko aukera ere izan zuten 1925. urteaz geroztik -*Radio San Sebastián*-.

Hiriaren modernizazioak zerbitzu eta azpiegituren sare bat ere ekarri zuen, higiena eta osasunaren premiak behar bezala zaintzen eta betetzen zituena. Udala berehala arduratu zen behartsuei eta baztertuei laguntzeko zerbitzu publikoak antolatzeaz eta ur hornidura bideratzeaz [6]. Udalak alor horretan egin zituen inbertsioek asko jaitzarazi zuten heriotza-tasa; izan ere, Donostiako heriotza-tasa, batez beste, Espainiakoa baino askoz ere txikiagoa zen. Burgesiak ederki atera zien etekina aurrerapen horiei, eta ondo asko baliatu zituen turismorako propagandan. Donostiak higienaren aldetik eskaintzen zuen ziurtasuna oso kontuan hartu zuten udatiarrek ere, eta, hartara, bisitarien kopurua ugaritu egin zen.

****Ametsa deseginik****

XIX. mendearen erdialdeaz geroztik, Donostiako goi mailako klaseek ahalegin biziak egin zituzten hiri kosmopolita, dotorea, eta burgesa egiteko. Hurrengo hamarraldietan, berehala atera zioten etekina beren asmoari, gogotik ustiatu baitzituzten bai hiriaren baliabideak eta bai bere irudia; turismoaren alorrean, batez ere.

Hala eta guztiz ere, donostiar guztiek ez zuten aintzat hartu hiriak udatiarren artean zuen izen ona. Karlistek eta integristek gogotik kritikatu zuten jokoaren eta beste jolas batzuen zitalkeria. Nazionalistek -Engracio de Aranzadi, "Kizkitza"ren bidez- uko egin zioten kosmopolitismoari eta turismoari, haiei egozten baitzieten Donostiak bere euskal sena galdu izana. Sozialistek ere ez zuten batere begiko Donostia udatiarren hiri bihurtu izana, eredu industrial eta merkataria hobesten baitzuten Donostiarako.

Donostia "Easo Ederra" bihurtu izanak behe mailako klaseei egin zien kalte handiena. Estu eta larri atera behar izan zuten bizimodua hiri berez garesti hartan, non prezioak igo besterik egiten ez baitzituen udatiarren etorrerak. Etxebizitza erosi eta alokatu behar izaten zutenean nabaritzen zuen gehienbat herri xeheak Donostiaren garestitasuna. Nolanahi ere, herri xehearen ezinegonak ez zuen istilurik sortu, harik eta XX. mendea aurreratuxea egon zen arte. Ordu arte, Donostiak hiri baketsu eta lasaiaren ospea izan zuen, eta inoiz edo behin izan ziren zalaparta bakanez ez zuten ospe hura gezurtatu.

1916. urtearen bukaeran, egoera hura aldatzen hasi zen. I. Mundu Gerra bitartean eta hurrengo urteetan, langileek liskar handiak sorrarazi zituzten Espainian, eta giro zalapartatsu hark eragina izan zuen Donostian ere. 1916. urtearen bukaeran, UGT eta CNT sindikatuek lanuztera deitu zuten, oinarri-oinarrizko elikagaiak garestitu izanagatik protesta egiteko. Borroka gogorak izan ziren Donostian manifestarien eta Guardia Zibilaren artean. 1917tik 1923ra bitartean, langileek behin eta berriz

egin zituzten protestak eta lanuzteak Espainian, eta haien oihartzunak Donostiara ere iritsi ziren, ozenago batzuetan, motelago bestetan.

Donostiako ekonomiaren gidariak oso kezkatu ziren, istilu eta nahasmendu haiek oso eragin kaltegarria izango zutelako turismorako propagandan. "Arazo soziala" ordu txarrean plazaratu zen haientzat Donostiako eguneroko bizitzan, eta zeharo lausotu zuen udaldirako hiri txit egoki haren irudi idealizatua. Liskar haiek agerian utzi zuten Donostiako gizartea askok uste baino askoz ere konplexuagoa egin zela ekonomiaren eta industriaren aurrerabidearen itzalean. Langileen mugimenduak eta herritar askoren estutasunek eta nahigabeek lokaztu egin zuten propaganda ofizialak lau haizetara zabaldua zuen hiri eta bainu etxe burgesaren irudi idilikoa.

****Hiri politikoa****

1874ko abenduan Borbon familiak Espainiako erregetza berreskuratu zuen. Martínez Camposen kolpe militarrek amaiera eman zion "Sei Urtekoari", eta monarkia berrezarri zuen: Isabel II.aren oinordekoa izendatu zuten errege, haren seme Alfontso XII.a. Cánovas del Castillo gobernu buruaren helburu nagusia monarkia indartzea zen. Oso kontuan hartu zuen alderdi bera -moderatuak- behin eta berriz aukeratzeagatik bota zutela azkenean Isabel II.a tronutik. Hutsegite hura bera berriz ez egitearren, txandakako sistema bat antolatu zuen, alderdi politiko guztiek agintea izan zezaten, eta bat bera baztertuta gelditu ez zedin. Cánovasek oinarriak jarri zituen, beraz, liberalismoaren bi joera nagusietako buruzagiak, moderatuak eta aurrerazaleak, txandaka gobernuan ari izan zitezten. Horretarako, bakezko baliabideak erabili zituen, eta, ustez, demokratikoak. Cánovasen asmo hura ondo aterako bazen, behin alderdi batek eta hurrengoan besteak atera behar zuten hauteskundeetan irabazle. Herritarren botoa faltsutu egin behar izan zuten, beraz, alde aurretik hitzartutako garaipen baten mesedetan. Amarru hura zilegi iruditzen zitzaion Cánovasi, erregeak erregetzan betiko iraungo zuela ziurtatzeko.

"Jauntxokeria" deitu zioten garai hartan bertan sistema hari. Indarrean jarri zenean, bi alderdi haiek zorrotz txandakatu ziren agintean, baina sistema hark erro-errotik gaiztotu zuen politika osoa, hautesleen botoa gutxiesteaz gainera, itxurakeria huts bihurtu baitzituen hauteskundeak.

Botazioetatik boterearen gorengo mailaraino zegoen tarte handi hartan ustelkeria nagusitu zen, ez baitzegoen beste biderik alde aurretik hitzartutako emaitzak hauteskundeetan lortu ahal izateko. Hiri bakoitzeko handiki jendeak -herriak "jauntxo" esaten zien- aukera ezin hobea izan zuen tarte horretan zeinek bere egoera hobetzeko. Haiek ziren agintarien eta herri xehearen arteko kate begia, eta haiek eskaintzen zieten agintariei herriaren babes "ofiziala".

"Ustelkeria" eta "oligarkia" ziren sistema hura kritikatzeko zuten artean gehien entzuten ziren hitzak. Sistema makur hartan, ordea, herritarrek ordu arte baino askatasun handiagoa izan zuten. Gobernuan egoteko txanda liberalei egokitzen zitzaizkenez nabaritu zen gehien askatasun hura. Liberalei esker, Espainian prentsako

eta adierazteko askatasuna ezarri zen, joera askotako alderdi eta sindikatuak sortu ziren, eta garrantzi handiko neurriak hartu ziren laguntza sozialari zegokion alorrean. 1890ean, esate baterako, liberalek gizonezkoen sufragio unibertsala ezarri zuten; horrek ez zuen, ordea, hauteskundeetako iruzurra eta amarrua geldiarazi.

Monarkiaren kontra zeuden alderdiak oso ahulduta egon ziren aurreneko hamarraldietan. XX. mendearekin batera, indartu egin ziren, eta gero eta jende gehiago erakartzeko gauza izan ziren. Hala hasi ziren liskarrak eta protestak, motelak hasieran, gero eta gogorragoak ondoren, harik eta Cánovasek antolatutako estatu haren oinarriak desegin zituzten arte. Bi indar berri, sozialistak eta nazionalistak, elkartu zitzaizkien monarkiaren aurkakoei -karlistei eta errepublikanoei, alegia-; hala, erregeak gero eta babes gutxiago zuen gizartean.

Garai hartan, Donostia liberalismoaren eredu izan zen. Donostiak XIX. mendean nortasuna tankeratua zioten ezaugarri haiek berak indartu zituen: hiri zabala, kosmopolita, tolerantia, eta ikasia eta landua. Ezaugarri horiek bat egiten zuten liberalismoarekin. Izen horren pean hainbat joera politiko zeuden elkartuta -kontserbadoreak, berez liberalak zirenak, eta errepublikazaleak-, eta bakoitzak bere erara adierazten zuen bere pentsaera. Joera horiek guztiek bazuten ardatz garbi bat: askatasuna eta, batez ere, tradizionalismoaren eta nazionalismoaren ukazioa. Hauteskundeetan halakoxe baieztapen lausoez osatutako programa bat hitzartzen bazuten ere, ezin zuten ezkutatu buruzagitza sendorik gabeko indar politikoen multzo nahasi bat besterik ez zirela azken batean. Beraz, hitzarmenak egin behar izaten zituzten elkarren artean, hauteskundeetan irabazteko eta gobernatu ahal izateko.

II. Karlistaldiaren ondorengo urteetan, Donostiak erregearen alde egin zuen, hiri guztiz liberala baitzen. Nola Gipuzkoa karlismoaren jarraitzaile porrokatua zen, donostiarren jarrerak ez zituen asko goxatu gipuzkoar askoren haserreak. 1884. urteaz geroztik, karlistek beren esku zeukaten Gipuzkoako Diputazioa, eta, haren bidez, Kontzertu Ekonomikoa [7].

Donostiako burgesiak aurre egin nahi izan zien, eta, horretarako, koalizio bat eratu zuten, errepublikazale moderatuak eta erregezaleak elkartzen zituena. Donostiako handikiak gogotik borrokatu ziren beren interes politikoen eta ekonomikoen alde. Garai hartako politikan nabarmendu ziren, besteak beste: Jose Matxinbarrena, Brunet familia, Jamar familia, Fermín Calbetón... Talde horrek agintea eskuratu zuen Diputazioan, eta, beraz, Gipuzkoa osoan, alde aurretik ondo antolatua baitzuten dena, hauteskundeetan irabazi ahal izateko [8].

Gaur elkartu eta bihar bereizi ibili zen bolada batean koalizio hura. Azkenean, erabat hautsi zenean, kontserbadoreek hartu zuten aginpidea. Eskuinaldeko talde askorekin egin behar izan zituzten itunak, baita integristekin ere. Lizarriturry, Mercader, Laffitte, eta Enrique de Satrústegui ziren kontserbadore aipagarrienak.

Kontzertu Ekonomikoen hitzarmena gobernu zentralarekin berri beharrak estualdi handiak sortu zituen Donostiako kaleetan, bai 1893an eta bai 1904an. Indar asko elkartu ziren zerga erregimen hitzartu haren alde, eta hala sortu zen, 1904an, *Liga Foral Autonomista* zeritzan elkarte. Errepublikazaleak, liberalak eta integristak bildu ziren elkarte hartan, bi helburu nagusi lortzeko: Kontzertua Gipuzkoari ahalik eta onura gehien ekarriko zion moduan negoziatzea, eta tokian tokiko jauntxoak garaitzea. Kontzertu berria izenpetu zutenean, Liga hura desegin egin zen.

//24. 1893ko abuztuko gertaerak.

Donostiarrek hamaika aldiz jasan behar izan zituzten jauntxoek amarruak. 1900etik aurrera politikan izan ziren gorabeherak indarra kendu zieten jauntxokeria haiei. XX. mendean hasieran gizartean izan ziren aldaketek apaldu egin zuten oligarkiak ordu arte hauteskundeetan izaten zuen indarra. Jauntxoek gero eta esku gutxiago zuten gizartean. Egoera berri hartan, errepublikazaleek eta sozialistek gora egin zuten hauteskundeetan, gero eta errotuago baitzeuden gizartean. Botazioen emaitzak garbiagoak zirenez geroztik, argi ikusi zen erdiko klaseek zer-nolako indarra hartua zuten Donostian. Eta klase haiek politikan parte hartu izana Donostiaren oso ezaugarri berezia izan zen.

Alderdi politiko tradizionalak gainbeheran hasi ziren, eta, 1917tik 1923ra, krisialdi handi bat izan zuten: zatiketa ugari izan zituzten, hautesleek ez zituzten aintzat hartzen, eredu zaharkituak bideratu nahi izan zituzten... Alderdiak zatitu eta sakabanatu egin ziren, eta inork ez zuen nahaspila hartan nagusitzeko behar besteko indarrik izan. Egoera hartan, PNVk -artean, *Comunión Nacionalista Vasca* zuen izena- indarra hartu zuen Donostian. 1920tik 1922ra, zinegotzi kopurua gehitu zuen, alde aurretik lan handia egin baitzuen herritarren artean alderdiaren berri ematen.

Kataluniako Kapitain Jeneral Miguel Primo de Riverak 1923ko irailean jo zuen kolpe militarrek botazio bidezko sistema etenarazi zuen. Diktadura ezarri zuen, erregearen babesarekin, 1930eko urtarrila arte. Konstituzioa indargabetu zuen, Espainiako legebiltzarra desegin zuen, eta zentsura gogor bat ezarri zuen.

Donostian ez zitzaion indar handiz aurka egin kolpe militar hari. Errestaurazioaren aldeko alderdiak gainbeheran zeuden, eta ezkerreko alderdiak ez zeuden behar bezala antolatuta. Ez da ahaztu behar, gainera, erregearen familia, eta diktadorea bera ere, Donostiara etortzen zirela udaldi oro. Primoren aurkako etsaitasuna areagotu egin zen jokia debekatu zuenean, Donostiak bere bi kasinoak itxi behar izan baitzituen -Gran Kursaal kasinoa kolpea baino urtebete lehenago inauguratu zuten, 1922an-.

Diktaturaren garaian, politikak ez zuen gorabehera handirik izan Donostian. Kontserbadore ospetsu batzuk -Vicente Laffitte, J. A. Lizasoian, Gaytán de Ayala, Pérez Arregui, Paguaga...- diktadoreak sortu zuen alderdi politiko berriak sartu ziren, *Unión Patriótica*n. Haren bidez hartu zuten esku diputazioan eta udalean. Aurreko agintarien bide berak jorratu zituen udalak: zabalgunea eta turismoa.

Jarraitasun hark garbi erakusten zuen Donostiako burgesiak zenbateraino hartzen zuten elkar bere interesen alde, nork bere joera politikoak alde batera utzita.

Diktadura 1930eko urtarrilean erori zen, eta politikariak zer gertatuko zain geratu ziren. Alfontso XIII.ak 1923 arte indarrean egon zen sistema berrezarri nahi izan zuen. Erregearen aldeko indarrak, ordea, lur jota zeuden. Oposizioa, berriz, indartuta eta antolatuta zegoen. 1930eko abuztuan, errepublikazaleak, katalanistak, eta Indalecio Prieto buruzagi sozialista Donostian bildu ziren, eta han izenpetu zuten "Donostiako Ituna", sinatzaileak monarkia erorarazteko konpromisoa hartzera behartzen zituen.

Hurrengo hilabeteetan, oposizioak nahasmendua eta iraultza pizteko saioak eragin zituen, baina ez zuten sistema politiko hura aldatzea lortu. Gertaera odoltsuak ere izan ziren, hildakoak eta guzti, baina monarkiak agintean iraun zuen, hala ere. Erregea hauteskunderen emaitzek bota zuten tronutik. Indarkeriaz lortu ahal izan ez zena baliabide huts-hutsik demokratikoen bidez lortu zen; alegia, diktaduraren ondorengo aurreneko hauteskunderen desegin zuten monarkia.

1931ko apirilaren 12an egitekoak ziren hauteskunderen udaletako ordezkariak aukeratzeko baizik ez ziren. Baina, egun hartan, hautesleek, alkate-zinegotziak aukeratzeaz gainera, monarkia epaitu ere zuten. Botazioetan, errepublikaren aldekoak atera ziren garaile Espainiako hiri gehienetan. Politikari guztiek, eta erregeak ere bai, botazio haien emaitzak monarkia auzitan jartzen zutela interpretatu zuten. Alfontso XIII.ak aintzat hartu zuen herriaren erabakia. Tronua utzi zuen, eta alde egin zuen Espainiatik.

Horrela hasi zen Espainiako Bigarren Errepublika, herritarrek gogo beroz goraipatua. Agintari errepublikanoek borondate handiz eta zintzo jokatu zuten demokraziaren alde. Hurrengo urteetan, gogotik saiatu ziren Espainiako politika aldatzen eta eraberritzen. Eta, Espainia modernizatzeko ahalegin handi hartan, ez ziren makalak izan konpondu beharreko arazoak, oinarri-oinarrizkoak baitziren: baserrietako eta landako jabetza nola banatu erabakitzea, Eliza katolikoak eta Armadak estatuan eta gizartean zuten estatusa eta maila egokitzea, irakaskuntza hedatzea eta hobetzea...

Gertaera haiek guztiek oihartzun handia izan zuten Donostian. Hauteskunderen, mitinen, eta bestelako adierazpideen bitartez, donostiarrek gogotik parte hartu zuten politikan. Zeregin publikoetan herritarrek erruz eta gogoz parte hartze hura izan zuen Espainiako II. Errepublikak ezaugarri berezia, irrika handia baitzegoen bazterretan, diktaduraren garaian lozorroan nahitaez egon ondoren.

Donostiako boto-emaileak ez ziren joera bakarrekoak; alderdi errepublikazaleak eta ezkerrekoak nagusitu baziren ere, nazionalismoa eta eskuina ez zeuden batere ahul. Gipuzkoan, berriz, nazionalismoa eta eskuina ziren jaun eta jabe. Berriz ere, Donostia eta Gipuzkoa ez zetozen bat politikan; aitzitik, Donostiak garbi utzi zuen bere joera aurrerazalea garai hartako botazio sarrietan: 1931ko apirileko udaletarako

hauteskundeetan, 1931ko ekaineko Legebiltzar Konstituziogilerako hauteskundeetan, eta, aurrerago, 1993ko eta 1936ko legebiltzarrerako hauteskundeetan.

Joera demokratiko aurrerazale berri hura ezkerreko alderdietan gorpuztu zen, eta, hala, bat egin zuen liberalismoarekin; alegia, XIX. mendez geroztik Donostian guztiz errotua zegoen pentsaerarekin. Gidari errepublikazaleek eta ezkertiarrek zintzo jokatu zuten aurrerabidearekin zerikusia zuten balioen alde; eta, eduki ere, donostiarrek oso aintzat hartuak zeuzkaten balio horiek. Horri esker irabazi zituzten garai hartako botazio gehienak, eta horri esker hartu zuten aginpidea udalean 1931n.

Demokraziak, beraz, aldaketa handia ekarri zuen udalera, errepublikazaleak eta sozialistak nagusitu baitziren. Alkate berria, Fernando Sasiain, Donostiako *Unión Republicana* alderdiko lehendakaria zen. Gipuzkoako politikan ere eragin handia izan zuen, eta, bere kargutik, autonomiaren alde egin zuen argi eta garbi [9].

Udalak gogotik egin zuen orobat Kontzertu Ekonomikoaren alde, "Ardoaren Gerra" zela eta. Espainiako Ogasunak edari alkoholduen zerga kendu nahi izan zuenean, Gipuzkoako udalerrri gehienak aurka jarri zitzaizkion. Erabaki hark kalte egiten zien Euskal Herriko probintzietako diputazioei, zerga haren bidez biltzen zituzten irabaziak kentzen zizkielako. 1934ko udan zehar, udalek hainbat ekinaldi egin zituzten zerga hura biltzeko ahalmena ken ez ziezaieten.

Donostia izan zen, gutxiengo monarkikoa izan ezik, erresistentziako ekintza haien bultzatzaile nagusia. Gobernuak aurre egin zion udalen oposizioari, eta hamaika iskanbila eta nahasmendu izan zen bazterretan. Istilu haietan, Sasiain kargua uztera behartu zuten eta auzipetu egin zuten, eta udaleko zinegotzi gehienek dimisioa eman zuten. 1934tik 1936ra, behin-behineko udalbatza izan zen Donostian agintari. Ordu arteko udalbatzak 1936an hartu zuen berriz ere agintea, *Frente Popular*ek Espainiako Legebiltzarrerako hauteskundeak irabazi zituenean.

Liskar haiek oihartzun handia izan zuten Donostian; ez, ordea, II. Errepublikan Espainian izan ziren bestelako gertaera aipagarri batzuek: komentuei su emateek, nagusien eta langileen arteko liskarrek... 1934ko urrian, langileen erakundeek erabateko lanuztera deitu zuten, CEDA alderdiko eskuineko politikariek gobernuan parte har ez zezaten. Militarrek Donostiako kaleak hartu zituzten. Indarkeria nagusitu zen egun haietan, eta hainbat grebalari balaz hil eta zauritu zituzten. Gobernuak gerrako egoera ezarri zuen, eta León Carrasco komandante militarrek hartu zuen Donostian aginpidea.

Izen hori bera behin eta berriz aipatuko da 1936ko gertaerez hitz egiterakoan; baina horiek hurrengo kapituluko kontuak dira.

OHARRAK

: [1] Udalak harresiak botatzeko aukera handiak zeudela ikusi zuenean, eta erabaki hori legez bideratu zuen Errege Ordena eman ere baino lehen, Bartzelonara bidali zuen Rocaverdeko markesa, hango zabalgunearen nondik norakoaz dokumenta zedin. 1862. urtea zen.

: [2] Cortázarrek onartu zuen berak metro koadro bakoitzeko proposatzen zuen biztanle dentsitatea *higienearen onerako ohi dena baino* handiagoa zela. Klima ona izateak higie gutxi horren ondorio kaltegarriak baretuko zituelako uste osoa zuen. Haren proiektuan, kaleak 10etik 20raino metro zabal ziren. Bartzelonan, kaleak, gutxienez, 20 metrotik 30 metrora zabal ziren; eta Madrilen, berriz, 15 metro zabal ziren, gutxienez. Cortázar orubeetako ahalik eta bolumen gehiena eraikitzeke erabiltzearen alde zegoen, eta ez zuen eraikuntzarako erabil zitekeen espaziorik eraiki gabe utzi nahi.

: [3] Garai bateko moderatuak, eta federalistarik erradikalenak, batasun horretatik kanpo gelditu ziren.

: [4] 1898. urtean izan ezik, Espainiaren eta Kubaren arteko gerra zela eta.

: [5] 1933an, 8.923 automobil zeuden matrikulatuta Donostian.

: [6] Ur gabezia konpontzeko, udalak ura ekarri zuen Añarbetik -1899an- eta Artikutzatik -1919an erosi zuen udalak lur sail hori-. Udalak osasun publikorako zerbitzu bat sortu eta mantendu zuen, eta langile espezializatuak jarri zituen zeregin horretan. Familia behartsuei laguntzen zien, eta ospitaleko zerbitzuak eta sendagaiak dohainik eskaintzen eta ematen zizkien. San Antonio Abad Ospitaleari -1888- eta Zorroagako Zaharren Etxeari -1910- diruz laguntzen zien, Ongintzako Batzordearekin batera. Premia handian zeuden herritarrei laguntzeko, bazituen udalak beste erakunde batzuk ere: San Bartolomeko Egoitza -1909-, Gipuzkoako Errukizko Egintzen Elkartek sortua, eta kaleetako behartsuei aterpea ematen ziena; *La Gota de Leche*, eskoletako jangelak, haurrei jaten emateko; eta baita "sukalde merkeak" ere.

: [7] Borbondarrek eta Euskal Herriko probintziek ogasunerako erregimen berezi bat hitzartu zuten. Lurralde historikoek ez zioten zergarik ordaindu behar Madrileko ogasunari. Ordainetan, alde zurretik hitzartutako diru kopuru jakin bat –*kupoa*- ordaindu behar zioten, diputazioek, zeinek bere irizpideen arabera, bildu behar zutena. Diputazioek zergak biltzeko ahalmena izateak botere handia ematen zien ekonomian. Diputazioa bere esku zeukanak probintzia osoko aberastasunak zeuzkan bere esku. Ez da harritzekoa, beraz, talde politiko guztiak lehia bizian aritzea Diputazioan aginpidea hartzeko.

: [8] Koalizio hark gogor estutu zuen gobernua, barruti berri bat sor zezan hauteskundeetarako... liberal zalea izango zena, jakina. Horrela sortu zen Irungo barrutia, eta hark kendu zien indarra Gipuzkoako "barrualdeko" barrutiei; alegia, karlisten aldeko barrutiei.

: [9] Sasiainek ez zuen "Lizarrako Estatutua"ren alde egin -hala zeritzan lehenengo autonomia proiektuari-, eskuinekoa eta nazionalista zelako, haren ustean. Baina "Diputazioen Estatutuaren" edo "Gestoren estatutuaren" alde egin zuen, ezkerak bultzatua baitzen. Lizarrako estatutua Espainiako Legebiltzarrean atzera bota zutenean, nazionalistek beste estatutu horren alde egin zuten, errepublikanoekin eta sozialistekin batera.

****BIBLIOGRAFIA****

AGUINAGALDE, F.B. DE: "Reconstrucción de un espacio urbano: vicisitudes de las torres del Preboste en la Calle Carnicerías (Embeltrán), siglo XV-1813", Boletín de Estudios Históricos sobre San Sebastián (hemendik aurrera: *BEHSS*), 23, 1989.

AGUIRRE FRANCO, R.: *El turismo en el País Vasco: vida e historia*. Donostia, 1995.

AGUIRRE GANDARIAS, S.: "La reconstrucción donostiarra tras el incendio de 1489", *BEHSS*, 26, 1992. "La reconstrucción donostiarra tras el incendio de 1489 (eta II)", *BEHSS*, 28, 1994.

ALCÁIN, S.: *Iruchulo Zar. Colección de artículos sobre el antiguo y moderno San Sebastián, sus costumbres y otras curiosidades*. Madril, 1896.

ALZOLA, P.: "La ciudad de San Sebastián", Euskal-Erria, 1897.

ANABITARTE, B.: *Gestión del municipio de San Sebastián en el siglo XIX*. Donostia, 1893. *Colección de documentos históricos del Archivo municipal de la M. N. y M. L. Ciudad de San Sebastián*. Donostia, 1895. *Gestión del municipio de San Sebastián, 1901-1925*. Donostia, 1971.

APARICIO PÉREZ, C.: *Poder municipal, economía y sociedad en la ciudad de San Sebastián (1813-1855)*, Donostia, 1991.

ARAGÓN RUANO, A.: "Los podavines: labradores jornaleros en San Sebastián durante los siglos XV a XVIII", *BEHSS*, 1999.

ARANZADI, E.: *Ereintza: siembra del nacionalismo vasco*, Zarautz, 1980 (berrargitalpena).

ARBELAIZ, J.J.: *Grabados y planos de San Sebastián. Cuatro siglos de Historia (s. XVI-XIX)*, Donostia, 1993.

ARÍZAGA, B.: "La comida en Guipúzcoa en el siglo XV", *BEHSS*, 1982-1983. 16-17. "Medieval y mundo urbano", *Los vascos a través de la Historia. Comportamientos, mentalidades y vida cotidiana*. Donostia, 1989. *Urbanística medieval: Guipúzcoa*. Donostia, 1990.

ARIZMENDI, A.: "Catálogo de Publicaciones periódicas donostiarras del siglo XIX", BEHSS, 19, 1985.

AROCENA, I.: "Las murallas de San Sebastián", *Boletín de la Real Sociedad Bascongada de los Amigos del País* (hemendik aurrera: *BRSBAP*), 1962, XVIII. urtea, 2. koaderno.

Diccionario biográfico vasco, I. liburukia, Guipúzcoa. Donostia, 1963.

ARRINDA, D.: "El puerto de San Sebastián durante los años 1855-1857", *BEHSS*, 16-17, 1982-1983.

ARSUAGA, M. eta SESÉ, L.: *Donostia-San Sebastián. Guía de Arquitectura*, Donostia, 1996.

ARTECHE, J.: *Un vasco en la postguerra. Diario 1939-1971*. Donostia, 1977.

ARTOLA, M.: *Sitio y reconstrucción de San Sebastián*, Madril, 1956. *Historia de la reconstrucción de San Sebastián*. Donostia, 1963. *La burguesía revolucionaria (1808-1874)*. Madril, 1981.

ARZAMENDI, I. DE: "Aspectos de la biografía de don Antonio de Oquendo", *BEHSS*, 12, 1978. *El almirante D. Antonio de Oquendo*. Donostia, 1981.

ASTIAZARÁIN ACHÁBAL, M^a I.: *El Consulado de San Sebastián y los proyectos de ampliación de su puerto en el siglo XVIII*. Donostia, 1988. *La construcción de los Caminos Reales de Guipúzcoa en el siglo XVIII*. Donostia, 1995.

AZCONA, T. DE: "El secretario real Alfonso de Idiáquez y la construcción del convento de San Telmo", *BEHSS*, 5, 1971.

AZKARATE, A., et al.: *Balleneros vascos del siglo XVI*. Estudio arqueológico y contexto histórico*. Gasteiz. 1992.

AZPIAZU-ELORZA, J.A.: *Sociedad y vida social vasca en el siglo XVI. Mercaderes guipuzcoanos*. Donostia, 1990, 2 liburuki. "Actividad mercantil y vida municipal en San Sebastián (a propósito de un pleito de principios del siglo XVII)", *BEHSS*, 28, 1994. *Mujeres vascas. Sumisión y poder: La condición femenina en la Alta Edad Moderna*. Donostia, 1995. *Esclavos y traficantes. Historia oculta del País Vasco*. Donostia, Ttartalo, 1997.

BAÑÚS, J.L.: "Viejas Ordenanzas de construcción de San Sebastián", *RSBAP*, 1945, I. urtea, 2. koaderno. "Los Reyes Católicos y San Sebastián. El incendio de 1489 y la reconstrucción de la Villa", *BRSBAP*, XVII, 1961. "El límite oriental de San Sebastián. La villa de Hemani y los montes francos del Urumea", *BRSBAP*, XXVII, 1971. "Prebostes de San Sebastián I: los Mans y Engómez", *BEHSS*, 5, 1971. "Prebostes de San Sebastián II: Relaciones entre la villa y el preboste Miguel Martínez de Engómez", *BEHSS*, 6, 1972. "Prebostes de San Sebastián III: Documentos privados de la familia Engómez", *BEHSS*, 7, 1973.

"Ordenanzas de la Cofradía de Santa Catalina", *BEHSS*, 8, 1974. "¿ Por qué vinieron aquí los gascones?" *Glosas éuskaras*. Donostia, 1975. "Alcaldes y capitulares de San Sebastián (1286-1813)", *BEHSS*, 9, 1975. "El límite oriental de San Sebastián y el puerto de Pasajes", *Homenaje a D. Julio de Urquijo e Ybarra: estudios relativos al País Vasco*. Donostia, 1949-1951, 3. liburukia. *El Archivo quemado*. Donostia, 1986. "San Sebastián en el transito de la Edad Media a la Edad Moderna. Con algunas apuntes de tiempos anteriores o posteriores", *BEHSS*, 21, 1987.

BARHAM, M.: "Pasajes, puerto pesquero", *Pasaia. Memoria histórica y perspectivas de futuro*. Donostia, 1999.

BARRENA OSORO, E: *Ordenanzas de la Hermandad de Guipúzcoa. Documentos (1375-1463)*. Donostia, 1982. *La formación histórica de Guipúzcoa. Transformaciones en la organización social de un territorio cantábrico durante la época altomedieval*. Donostia, 1989.

BARROSO, A.: *Sacerdotes bajo la atenta mirada del régimen franquista*, Bilbo, 1995.

BARRUSO, P.: *Verano y Revolución. La guerra civil en Gipuzkoa*. Donostia, 1996. "Autonomía y poder municipal. El Ayuntamiento de San Sebastián ante los procesos autonómicos de la II República (1931-1936)", *BEHSS*, 33, 1999.

BASABE, A: "Estudio lingüístico del Fuero de San Sebastián", *El fuero de San Sebastián y su época*. Donostia, 1982.

BIDAGOR, P.: "Urbanismo y arquitectura de San Sebastián durante el último siglo", *Revista Nacional de Arquitectura*, 64, 1967.

BILBAO, L.M.: "Crisis y reconstrucción de la economía vascongada en el siglo XVII", *Saioak*, 1, 1977.

BILBAO, L.M. eta FERNÁNDEZ DE PINEDO, E.: "Auge y crisis de la siderometalurgia tradicional en el País Vasco (1700-1850)", TEDDE, P.: *La economía española al final del Antiguo Régimen*, Madril, 1982.

BOHIGAS, O.: "Los ensanches urbanos y su desarrollo", *Boletín de Información Municipal de San Sebastián*, 1963, urria-abendua.

CALEI-CALE (EUGENIO GABILONDOren goitizena): *A través de Iruchulo*. Donostia, 1963.

CALVO, C.: "Las relaciones de poder en el ámbito local durante el primer franquismo. El caso de Guipúzcoa", TRUJILLANO, J. M. (argitaratzailea),

Jornadas "Historia y fuentes orales". Memoria y sociedad en la España Contemporánea. Ávila, 1993.

CALVO, M. J.: *Crecimiento y estructura urbana de San Sebastián*. Donostia, 1983.

CAMINO Y ORELLA, J.A. DEL: "Curiosidades históricas. Visita de Felipe III a San Sebastián en 1615". *Euskal-erria*, 1883, 8, lehenengo sei hilabetekoa. *Historia civil, diplomática, eclesiástica, antigua y moderna de la ciudad de San Sebastián con varias noticias particulares concernientes a la Provincia de Guipúzcoa*. Donostia, (1870), 1963.

CASADO SOTO, J. L.: "Aproximación a la tipología naval cantábrica en la primera mitad del siglo XVI", *Itsas Memoria, Revista de Estudios Marítimos del País Vasco*, 2, 1998.

CASTELLS, L.: *Fueros y conciertos económicos. La Liga Foral Autonomista de Guipúzcoa (1904-1906)*, Donostia, 1980. *Modernización y dinámica política en la sociedad guipuzcoana de la Restauración. 1876-1915*. Madril, 1987. *Los trabajadores en el País Vasco (1876-1923)*. Madril, 1993.

CIRIQUIÁIN-GAIZTARRO: "La guerra entre alamedistas y antialamedistas", *San Sebastián. Curso breve sobre la vida y milagros de una ciudad*. Donostia, 1964. *Los puertos marítimos del País Vasco*. Donostia, 1986.

CORTÁZAR, A.: *Memoria descriptiva del proyecto de ensanche de San Sebastián*. Donostia, 1864.

CHIAPUSO, M.: *Los anarquistas y la guerra en Euskadi. La Comuna de San Sebastián*. Donostia, 1978.

CHILDS, W.: *Anglo-castilian trade in the later Middle Ages*, Manchester, 1978.

DÍEZ DE SALAZAR, L.M.: "El comercio y la fiscalidad de Guipúzcoa a finales del siglo XII (según las cuentas de Sancho IV", *BRSBAP*, XXXVII, 1981. *El diezmo viejo y seco o diezmo de la mar de Castilla (s. XIII-XVI)*. Donostia, 1983. *Ferrerías en Guipúzcoa (siglos XIV-XVI)*. Donostia, 1983, 2 liburuki. "Régimen municipal en Guipúzcoa (siglos XV-XVI)", *Cuadernos de Sección Eusko Ikaskuntza*, 1, 1984. *Ferrerías guipuzcoanas: aspectos socio-económicos, laborales y fiscales (siglos XIV-XVI)*. Donostia, 1997.

DÍEZ TRUCHUELO, M^a L.: *La Real Compañía de Filipinas*. Sevilla, 1965.

ECHEGARAY, C.: *Investigaciones históricas referentes a Guipúzcoa*. Donostia, 1893.

EGAÑA, B.A. DE: *Instituciones públicas de Gipuzkoa. s. XVIII*. Donostia, 1992.

EGAÑA, I. (dir.): *La Guerra Civil en Euskal Herria*, IV. liburukia, Andoain, 1998.

ERKOREKA, J.I.: *Análisis histórico-institucional de las Cofradías de Mareantes del País Vasco*. Gasteiz, 1991.

ERVITI, M^a D.: "La epidemia de 1597 en San Sebastián", *BEHSS*, 1984.

EZQUIAGA, J.M^a: "Norma y plano en la reconstrucción de San Sebastián", SAMBRICIO, C. (argitaratzailea): *La reconstrucción de la Parte Vieja de San Sebastián*. Donostia, 1991.

FERNÁNDEZ ALBADALEJO, P.: *La crisis del Antiguo Régimen en Guipúzcoa, 1766-1833: cambio económico e historia*. Madril, 1975. "Algunos textos sobre la polémica entre Libre Comercio y Fueros hacia 1780", *BRSBAP*, 1978, XXXII. "Guipúzcoa 1839-1868: la recomposición de una sociedad", *Estudios de historia contemporánea del País Vasco*, JIMÉNEZ DE ABERÁSTURI, J.C. (argitaratzailea), Donostia, 1982. "El País Vasco en el siglo XVIII: Algunas consideraciones sobre su más reciente historiografía", *España en el siglo XVIII. Homenaje a Pierre Vilar*, FERNÁNDEZ, R. (argitaratzailea), Bartzelona, 1984.

FERNÁNDEZ DE PINEDO, E.: "Estructura de los sectores agropecuarios y pesqueros vascos (1700-1890)", *IX Congreso de Estudios Vascos*, Bilbo, 1983.

FERNÁNDEZ SEBASTIÁN, J.: *La génesis del fuerismo. Prensa e ideas políticas en la crisis del Antiguo Régimen (País Vasco, 1750-1840)*. Madril, 1991.

FERREIRA, E.: "Las rutas marítimas y comerciales del flanco ibérico desde Galicia hasta Flandes", *El fuero de San Sebastián...*, Donostia, 1982. "Unos mareantes vascos en Barcelona en 1393". *II Congreso Mundial Vasco*. Donostia, 1988.

FUSI, J.P eta PALAFOX, J.: *España 1808-1996. El desafío de la modernidad*. Madril, 1997.

GABARÁIN, M.: *Así asesina Falange. Una celda de condenados a muerte en un cuartelillo de F.E. en San Sebastián*. Buenos Aires, 1938.

GALARRAGA, I.: *La Vasconia de las ciudades*. Donostia, 1996.

GANDASEGUI, J. M.: "El trabajo del campo donostiarra en el siglo X V I", *BRSBAP*, XIX, 1963.

GÁRATE OJANGUREN, M.: "El Consulado de San Sebastián y el comercio de Indias", *BEHSS*, 1982-1983, 16-17. "Comercio directo con América y Fueros

1778-1780", *BRSBAP*, XLI, 1985. "Cambios urbanos y transformaciones económicas en la sociedad donostiarra durante la primera mitad del siglo XIX", *BRSBAP*, 1986, 3-4 koadernoak. *La Real Compañía Guipuzcoana de Caracas*. Donostia, 1990. *Comercio ultramarino e Ilustración. La Real Compañía de la Habana*. Donostia, 1993. "Instituciones financieras en el País Vasco. Articulación y crecimiento del sistema bancario en Gipuzkoa (1899-1930)", GÁRATE, M. eta MARTÍN ACEÑA, P. (argitaratzaileak), *Economía y empresa en el Norte de España*, Donostia, 1994.

GÁRATE, M. eta MARTÍN RUDI, J.: *Cien años de la vida económica de San Sebastián (1887-1987)*. Donostia, 1995.

GARCÍA DE CORTÁZAR, J. A.: *La época medieval*, ARTOLA, M. (zuzendaria): *Historia de España*, Alfaguara, II. liburukia, Madril, 1975. "La sociedad guipuzcoana antes del Fuero de San Sebastián", *El fuero de San Sebastián...*, 1982.

GARCÍA CRESPO, M. et al.: *La economía vasca durante el franquismo*. Bilbo, 1981.

GARCÍA FERNÁNDEZ, E.: "La comunidad de San Sebastián a fines del siglo XV: un movimiento fiscalizador del poder concejil", *Espacio, Tiempo y Forma*, serie III, *Historia Medieval*, 6, 1993. "Les ordonnances électorales au Pays basque; systèmes de contrôle du pouvoir municipal aux XIV et XV siècles", *120° Congr: Nat. Soc. Hist. Scient. Aix-en-Provence*, 1995, *La ville au Moyen Age*, II.

GARCÍA FUENTES, L.: *Sevilla, los vascos y América (Las exportaciones de hierro y manufacturas metálicas en los siglos XVI, XVII y XVIII)*. Bilbo, 1991.

GARCÍA MERCADAL, J.: *Viajes de extranjeros por España y Portugal*. Madril, 1952.

GARMENDIA, J.: "Armadores y armadas de Guipúzcoa (1685-1892)". *BEHSS*, 19, 1985. "Los capitanes Juan y Baltasar de Amézqueta", *BEHSS*, 20, 1986. "El capitán Antonio de Layust y su hermano Pedro", *BEHSS*, 22, 1988.

GARMENDIA LARRAÑAGA, J.: *Gremios, oficios y cofradías en el País Vasco*. Oiartzun, 1979.

GÓMEZ PIÑEIRO, J.: "El modelo urbano y la centralidad de San Sebastián y su área periférica", *Lurralde* aldizkarian, 5, 1982.

GÓMEZ PIÑEIRO, J. eta SÁEZ GARCÍA, J. A.: *Geografía e Historia de Donostia-San Sebastián*. Donostia, 1999.

GONZÁLEZ, J.: *El reino de Castilla en la época de Alfonso VIII*. Madril, 1960, 3 liburuki.

GONZÁLEZ PORTILLA, M. eta GARMENDIA, J. M.: *La postguerra en el País Vasco. Política, Acumulación, Miseria*. Donostia, 1988. *La guerra civil en el País Vasco. Política y economía*. Madril, 1988.

GOÑI GALARRAGA, J. M.: "La revolución francesa en el País Vasco. La Guerra de la Convención (1793-1795)", Hainbat autore, *Historia del Pueblo Vasco*, III. liburukia, Donostia, 1979. "Guipúzcoa en la Paz de Basilea", *BEHSS*, 16-17 (II), 1982-1983.

GOÑI GAZTAMBIDE, J.: "Fundación de la iglesia de San Pedro de Pasajes (1457-1458)", *BEHSS*, 2, 1968. "Noticias históricas sobre la parroquia de Igueldo desde el siglo XV al XIX", *BEHSS*, 2, 1968. "El oficial foráneo de San Sebastián del siglo XIV al XIX", *BEHSS*, 3. 1969.

GOROSÁBEL, P.: *Diccionario histórico-geográfico-descriptivo de los pueblos, valles, partidos, alcaldías y uniones de Guipúzcoa*, 1862, berrargitalpena, Bilbo, 1967.

GORRICO, J.: "La carta partida de don Miguel Périz de Legaria sobre la primicia y los beneficios de San Sebastián (1292-1302)", *BEHSS*, 16-17, 1982-1983.

GRANDÍO, Y.: *Urbanismo y arquitectura ecléctica en San Sebastián, 1890-1910*. Donostia, 1987.

HUXLEY, S.: "Los vascos y las pesquerías trasatlánticas, 1517-1713" eta "Los balleneros vascos en Canadá entre Cartier y Champlain (siglo XVI)", *RSBAP*, XXXV, 1979.

HUXLEY, S. (koordinatzailea): *Itsasoa, 3. Los vascos en el marco Atlántico Norte. Siglos XVI y XVII*. Donostia, 1987.

IBARRONDO, J. M^a: "Juntas semanarias de la Real Sociedad Bascongada de los Amigos del País en San Sebastián (1777-1779)", *BEHSS*, 1970.

IBISATE, M^a L.: La telefonía en Guipúzcoa. Un modelo original. Donostia, 1998.

[IG.]: *Descripción de San Sebastián relativa a su gobierno, costumbres y comercio, Londres, 1700*. Donostia, 1943.

ÍMAZ, J.M.: *La industria pesquera en Guipúzcoa al final del siglo XVI (Documentos de la época)*. Donostia, 1944.

IMÍZCOZ, J. M. (zuzendaria): *Élites, poder y red social: las élites del País Vasco y Navarra en la Edad Moderna (estado de la cuestión y perspectivas)*. Leioa, 1996.

INZIGARAY, R. DE: *Historia eclesiástica de San Sebastián*. Donostia, 1951.

IRUJO, M.: *La guerra civil en Euzkadi antes del Estatuto*. Madril, 1978.

LACARRA, J.M^a: *Historia política del reino de Navarra. Desde sus orígenes hasta su incorporación a Castilla*. Iruñea, 1973, 3 liburuki.

LAMIKIZ, A.: "La vida asociativa de la juventud guipuzcoana en la década de 1960: OARGUI entre una recreación sana y nacionalista", HAINBAT AUTORE: *Tiempos de silencio. IV Encuentro de Investigadores del franquismo*. Valentzia, 1999.

LAPEYRE, H.: "Algunos datos sobre el movimiento del puerto de San Sebastián en tiempos de Felipe II", *BEHSS*, 5, 1971. *El comercio exterior de Castilla a través de las aduanas de Felipe II*. Valladolid, 1981.

LARRAÑAGA, L.: "Ensanche y expansión de la ciudad", *Boletín de Información Municipal de San Sebastián*, 1963.

LARRAÑAGA Y BILBAO, L.: "Historia de unos ensanches", *San Sebastián. Curso breve sobre la vida y milagros de una ciudad*. Donostia, 1964.

LARRAÑAGA, M. eta LEMA PUEYO, J.A.: *Colección de documentos medievales del convento de San Bartolomé (San Sebastián) (1250-1515)*. Donostia, 1995.

LARRÍNAGA, C.: "El fuerte de San Marcos y la salvaguarda de San Sebastián tras la segunda guerra carlista. Una hipótesis de investigación", *BEHSS*, 1995, 29. *Actividad económica y cambio estructural en San Sebastián durante la Restauración. 1875-1914*. Donostia, 1999.

LASA, J.I.: "El Doctor D. Joaquín Camino, Catedrático y Rector de la Universidad de Oñate" *BEHSS* 1 1967.

LASALA, F.: *Última etapa de la Unidad Nacional. Los fueros vascongados en 1876*. Madril, 1924.

LAZKANO, S.: *Creación y Ordenanzas del Consulado de San Sebastián*. Donostia, 1986.

LAZÚRTEGUI, J.: "El comercio, la industria y la navegación en el País Vasco", *Geografía General...* Bilbo, 1980 (berrargitalpena).

LEGORBURU, E.: *La sociedad guipuzcoana durante la II República. Los pilares de un conservadurismo*. Doktoretza tesia, argitaratu gabea, Deustuko Unibertsitatea, Donostiako campusa, Donostia, 1994. *El Monasterio de San Bartolomé de San Sebastián en Astigarraga. Adaptación de una comunidad femenina de clausura en la Edad Contemporánea*. Astigarraga, 1999.

LOYARTE, A. DE: *Felipe III y Felipe IV en San Sebastián*. Donostia, 1949.

LUENGO, F.: "Comentarios sobre el Alzamiento Nacional de 1936 en San Sebastián: la actitud del coronel Carrasco", *Letras de Deusto*, 17. liburukia. 37, 1987ko urtarrila-apirila. *Crecimiento económico y cambio social. Guipúzcoa 1917-1923*. Bilbo, 1990. "La prensa guipuzcoana durante la guerra civil (1936-1939)", TUÑÓN DE LARA, M. (zuzendaria): *Comunicación, Cultura y Política durante la II República y la Guerra Civil*. Leioa, 1990, 1. liburukia. "La formación del poder local franquista en Guipúzcoa (1937-1945)", *Gerónimo de Uztárriz*, 4, 1990. *La crisis de la Restauración. Partidos, elecciones y conflictividad social en Guipúzcoa, 1917-1923*. Bilbo, 1991. *Espías en la embajada. Los servicios de información secreta republicanos en Francia durante la guerra civil*. Leioa, 1996. *La vida cotidiana de una ciudad. De su destrucción a la ciudad contemporánea*. Donostia, 2000.

LLANOS ARAMBURU, F: *El Trienio Liberal en Guipúzcoa (1820-1823). Antecedentes de las Guerras Carlistas en el País Vasco*. Donostia, 1998.

MACHIMBARRENA, F.: *El Ayuntamiento de la ciudad de San Sebastián en el cuatrienio de 1869 a 1872. Donostia, s. a.

MADOZ, P. (zuzendaria): *Diccionario geográfico-estadístico-histórico. Gipuzkoa*. Madril, 1845-1850, berrargitalpena, Donostia, 1991.

MANTEROLA BELDARRÁIN, J. DE: *Guía Manual geográfico descriptivo de la Provincia de Guipúzcoa... acompañado de un completo guía histórico descriptivo de la ciudad de San Sebastián*. Donostia, 1871.

MARAÑA, F.: "San Sebastián, centro cultural y editorial durante la Guerra. La ametralladora y otras publicaciones", TUÑÓN DE LARA, M. (zuzendaria): *Comunicación... Bilbo, 1990.

MARTÍN DUQUE, A. J.: "El fuero de San Sebastián. Tradición manuscrita y edición crítica", *El fuero de San Sebastián...* 1982.

MARTÍNEZ, G.: *Guipúzcoa en los albores de su historia (siglos X-XIII)*. Donostia, 1975.

MARTÍNEZ, M^a A.: *Gipuzkoa en la vanguardia del reformismo social. Beneficencia, ahorro y previsión (1876-1936)*. Donostia, 1996.

MARTÍNEZ DÍEZ, G., GONZÁLEZ DÍEZ, E. eta MARTÍNEZ LLORENTE, F.J.: *Colección de documentos medievales de las villas guipuzcoanas I (1200-1369); II (1370-1379)*. Donostia, 1991, 1996.

MARTÍNEZ DE ISASTI, L.: *Compendio historial de Guipúzcoa*; berrargitalpena, Bilbo, 1985.

MARTÍNEZ MARÍN, A.: *La representatividad municipal española. Historia legislativa del régimen vigente*. Murcia, 1989.

MEDINA, P. DE: *Libro de Grandezas y cosas memorables de España. Sevilla*, 1548, berrargitalpena, Madril, 1944.

MENDIOLA, R.: *La vida cultural en San Sebastián*. Donostia, 1963.

MEXÍA CARRILLO, F.: *El Castillo de Santa Cruz de la Mota y las Murallas de la Plaza de San Sebastián*. Donostia, 1979.

MIGUEL LÓPEZ, I.: "Relaciones comerciales guipuzcoano-americanas (1798-1818)", *BEHSS*, 26, 1992.

MORA, J.C. eta ZAPIRÁIN, D.: "Exclusión social en los siglos XVI y XVII", *Vásconia*, 24, 1996.

MÚGICA, J.: *Carlistas, moderados y progresistas (Claudio Antón de Luzuriaga)*. Donostia, 1950.

MÚGICA, S. DE: "Las bateleras de Pasajes", *Euskalerrriaren alde*, 1912. *Provincia de Guipúzcoa*, CARRERAS CANDI, F. (zuzendaria): *Geografía General del País VascoNavarro*. Bartzelona, s. a. [1918?]. "Arquitectos Municipales de San Sebastián", *Euskalerrriaren alde*, 1921. *Curiosidades históricas de San Sebastián*. Bilbo, 1900; berrargitalpena, Donostia, 1970. "Los gascones en Guipúzcoa", *Estudios sobre San Sebastián*. Donostia, 1980.

MUNÁRRIZ, E.: "Incendio de San Sebastián en 1630". *Euskalerrriaren alde. Revista de cultura vasca*, 313, 1930.

MUÑOZ, F.: "¿Derribo o permanencia? Historia del cerro de S. Bartolomé", *BEHSS*, 32, 1998.

MURUGARREN, L.: "La fundación de las carmelitas de San Sebastián (1663)". *BEHSS*, 5, 1971. "La peste en Guipúzcoa (1597-1599)". *RSBAP*, XL. urtea, 1984, 1 eta 2 koadernoak. "Relación de puntos religiosos de Guipúzcoa", *BRSBAP*, XLVIII. liburua, III-IV. liburukiak, 1992. "Autos sacramentales en

San Sebastián", *BEHSS*, 1993, 27. "Cuadernos de extractos de los acuerdos del Ayuntamiento de San Sebastián (1570-1599)", *BEHSS*, 30, 1996. "Cuadernos de extractos de los acuerdos del Ayuntamiento de San Sebastián (1621, 1651, 1783 eta 1739)", 1621, *BEHSS*, 33, 1999.

ODRIOZOLA, L.: *La construcción naval en Gipuzkoa. Siglo XVIII*. Donostia, 1997. "La industria de la construcción naval", Pasaia. *Memoria histórica y perspectivas de futuro*. Donostia, 1999.

OLAECHEA LABAYEN, J.B.: "Seis siglos de litigio sobre el dominio del puerto de Pasajes", *BEHSS*, 9, 1975. "Los privilegios de San Sebastián y su conservación", *Homenaje a J. I. Tellechea Idígoras*. Donostia, 1982-83, II. liburukia.

ORDÓÑEZ, J. DE: *San Sebastián en 1761. Descripción de la ciudad, sus monumentos, usos y costumbres, por el presbítero D...*. Donostia, 1963.

ORELLA, J.L.: "Régimen municipal de Guipúzcoa en los siglos XIII-XIV", *Lurralde*, 2, 1979. "Régimen municipal de Guipúzcoa en el siglo XV", *Conferencias sobre derecho foral*. Donostia, 1982. *Cartulario real de Enrique IV a la Provincia de Guipúzcoa*. Donostia, 1983.

ORUETA, J. DE: *El País Vasco ante el problema regionalista*. Donostia, 1907.

OTAEGUI, A.: "Los montes francos de Urnieta", *BEHSS*, 20, 1986.

PEÑA, J.M.: *Recuerdos del Hotel Londres y de Inglaterra*. Donostia, 1987.

PÉREZ MÍNGUEZ, F.: *D. Juan de Idiáquez embajador y consejero de Felipe II*. Donostia, 1934.

PIQUERO, S.: Demografía guipuzcoana en el Antiguo Régimen*. Bilbo, 1991.

PIRALA, A.: *Historia Contemporánea. Anales desde 1843 hasta la conclusión de la última guerra civil*. Madril, 1876.

PORTILLO, J.M.: *Monarquía y gobierno provincial. Poder y constitución en las provincias vascas (1760-1808)*. Madril, 1991. "Nación política y territorio económico. El primer modelo provincial español (1812)". *Historia Contemporánea*, 12, 1995.

REAL ACADEMIA DE LA HISTORIA: *Diccionario geográfico-Histórico de España. Sección I. Comprende el Reyno de Navarra, Señorío de Vizcaya y Provincias de Álava y Guipúzcoa*, I eta II liburukiak, Madril, 1802; berrargitalpena, Bilbo, 1968.

REGUERA, I.: *La Inquisición en el País Vasco. El tribunal de Calahorra. 1513-1570*. Donostia, 1984.

RODRÍGUEZ, M. del C.: *Arquitectura pública en la ciudad de San Sebastián 1813-1922*. Donostia, 1963.

RODRÍGUEZ DE CORO, F.: *Revolución liberal y II guerra carlista*. Donostia, 1986.

RODRÍGUEZ RANZ, J.A.: *Guipúzcoa y San Sebastián en las elecciones de la II República*. Donostia, 1994.

ROLDÁN GUAL, J.M^a: "La cuenca baja del Urumea en el siglo XII: un espacio geohistórico en mutación", *Lurralde*, 8, 1985.

ROQUERO, M. R.: "La mendicidad y la beneficencia en San Sebastián (1813-1925)", *BEHSS*, 32, 1998.

RUBIO POSES, C.: *Revolución y tradición. El País Vasco ante la revolución liberal y la construcción del Estado español, 1808-1868*. Madril, 1996. *Fueros y Constitución: la lucha por el control del poder País Vasco 1808-1868*. Bilbo, 1997.

SADA, J.M. eta HERNÁNDEZ, T.: *Historia de los casinos de San Sebastián, siglos XIX y XX*. Donostia, 1987. *Cinematógrafos donostiarras*. Donostia, 1991.

SADA, J.M. eta SADA, A.: *Historia de San Sebastián*. Donostia, 1999.

SAGÜES, M.: "Historia del palacio de Miramar", *BEHSS*, 1994.

SEOANE, R.: *Navegantes guipuzcoanos*. Madril, 1902.

SERRANO MANGAS, F.: *Función y evolución del galeón en la Carrera de Indias*. Madril, 1992.

SETIÉN, K.: "Planeamiento de ensanche: creación y gestación del Ensanche Cortázar de San Sebastián, 1864", *Urbanismo e historia urbana en el mundo hispano*. Madril, 1985, II. liburukia.

SILVÁN, L.: *El término municipal de San Sebastián: su evolución histórica*. Donostia, 1971.

SORALUCE ZUBIZARRETA, N.: *Historia General de Guipúzcoa*. Bilbo, 1985 (1870), T. I.

SORIA SESÉ, M^a L.: "La función pública en el concejo de San Sebastián durante el Antiguo Régimen", *BEHSS*, 26, 1992. "La recopilación de Ordenanzas de San Sebastián de 1747. Estudio y transcripción", *BEHSS*, 28, 1994.

TELLECHEA IDÍGORAS, J.I.: "Miguel de Oquendo, caballero de Santiago (1584). Un episodio en la vida donostiarra", *BEHSS*, 1, 1967. *La reforma tridentina en San Sebastián*. Donostia, 1972. "D. Francisco Antonio de Oquendo y la fábrica de anclas de Hemani", *BEHSS*, 1976. "Isabel de Valois en San Sebastián (1565)". *BEHSS*, 1982-1983, 16-17. *Otra cara de la Invencible. La participación vasca*. Donostia, 1988. "María de Zandategui, viuda del general Miguel de Oquendo. Bienes de la familia del general muerto (1588)", *BEHSS*, 22, 1988. *Una historia turbulenta. La fundación de la Compañía de Jesús en San Sebastián (1619-1627)*. Donostia, 1997. *Corsarios guipuzcoanos en Terranova. 1552-1555*. Donostia, 1999.

TENA, M^a S.: *La sociedad urbana en la Guipúzcoa costera medieval: San Sebastián, Rentería y Fuenterrabía (1200-1500)*. Donostia, 1997.

TRUCHUELO, S.: *La representación de las corporaciones locales guipuzcoanas en el entramado político provincial (siglos XVI-XVII)*. Donostia, 1997.

UGARTE, J. (argitaratzailea): *La transición en el País Vasco y España. Historia y Memoria*. Leioa, 1998.

UNZUETA, P.: "Euskadi: amnistía y vuelta a empezar", *Memoria de la Transición*. Madril, 1995.

URQUIJO, M.: *Liberales y carlistas. Revolución y Fueros vascos en el preludeo de la última guerra carlista*. Leioa, 1994.

URRUTIKOETXEA, J.: *Cámara Oficial de Comercio, Industria y Navegación de Guipúzcoa, 1886-1986*. Donostia, 1986.

VARELA, J.: "La fundación del Seminario de Marinos de Guipúzcoa en 1606. Origen de las escuelas navales", ESCOBEDO, R., DE ZABALLA, A; eta ÁLVAREZ-GILA, O. (argitaratzailea.): *Comerciantes, mineros y nautas. Los vascos en la economía americana*. Gasteiz, 1996.

VV. AA.: *Donostia. San Sebastián. Vida Paisajes. Símbolos*. Donostia, 1974.

WALTON, J.: *Policing the Alameda: shared and contested space in San Sebastián*, 1863-1920. 1999, kopia ziklostilatua.

WALTON, J. eta SMITH, J.: "The first spanish seaside resort", *History Today*, 44. liburukia, 1995eko abuztua. "The first century of beach tourism in Spain: San

Sebastián and the 'playas del norte', from the 1830s to the 1930s", *Tourism in Spain: critical issues*. Wallingford, 1996.

YRÍZAR, J. DE: "La casa solar de Oquendo", *RSBAP*, 1950, VI. urtea, 2. koaderno.

ZABALETA, M.: "Fernando Sasiáin. Un alcalde republicano para San Sebastián", *Cuadernos Republicanos*, 24. Madril. 1995.

IRUDIAK

32. or. Kontseju bateko zigilu baten aurkia eta ifrentzua.
Donostia Kultura -San Telmo Museoa

47. or. Gotorlekua 1551n edo 1552an.
S. H. M. 553-003/ 447

50. or. Donostiaren ikuspegia, Georgius Hoefnaglek marraztua, 1752.
S. G. E. Kartoteka Historikoa (6. Atlas, 164. zka.)

54. or. Donostiaren ikuspegia, Richard Polterrek egin, 1585.
Donostiako Untzi Museoa

75. or. Donostiako hirigunearen eta gazteluaren plano, 1728.
S. H. M. Cat.: 00321; Sign. ant.: A-5-34; Sign.: GUI-G4/10

84. or. Torrellik eraikitako udaletxea.
Donostia Kultura -San Telmo Museoa

93. or. Pasaiaiko portuko plano, 1778.
S. H. M. Car.: 00328; Sign. ant.: A-5-41; Sign.: GUI-G6/6

95. or. Donostia Wellingtonen armadak setiatua, 1813ko uztaila eta abuztua.
S. G. E. Kartoteka Historikoa (F Arm. 2. Taul. 1 Karp. 206 zka.)

97. or. Donostia porrokatua 1813. urtean. Ugartemendiak egindako marrazkia.
Donostia Kultura -San Telmo Museoa

98. or. Ugartemendiaren lehenengo proiektua, 1814.
Donostia Kultura-San Telmo Museoa

99. or. Ugartemendiaren bigarren proiektua, 1815.
Donostia Kultura -San Telmo Museoa

100. or. San Martin auzoa.
Donostia Kultura -San Telmo Museoa

108. or. Itsasoko Atea. R. Bouqueten eta A. Guesdonen litografia, 1860.
Donostiako Untzi Museoa
109. or. Kontxako badiaren planoak, 1865.
S.H.M. 517-003/343
116. or. Donostia, 1864.
Kutxako Fototeka
119. or. A. Cortázarren eta M. Saracíbarren zabalgunearen planoak.
I. Galarraga, La Vasconia de las ciudades (1996), 120-124. or.
120. or. A. Cortázarren eta M. Saracíbarren Bulebarraren planoak.
Donostiako Udaleko Artxiboa
124. or. Karlistaldia. Gotorlekua Santa Katalina zubiaren sarbidean.
100 años al servicio de Guipúzcoa. 1879-1979 (1979), 66. or.
126. or. Cortázarren zabalgunea eraikitze hiru aldiak.
M. J. Calvo, Crecimiento y estructura urbana de San Sebastián (1983), 102. or.
127. or. Donostiako zabalgunearen eragile nagusiak.
K Elejalde, Nuestra Ciudad Donostia-Gure hiria (1983), 90. or.
Donostia Kultura -San Telmo Museoa
Euskal Herriaren alde (1921), 81-83. or.
128. or. Kontxako hondartza.
L. Amann, R. Alonso, San Sebastián en la tarjeta postal-Donostia postatxarteletan
(1993), 73. or.
131. or. Donostiako denda dotore baten argazkia.
Novedades aldizkaria, 1912ko abuztuak 4
135. or. Atotxako futbol zelaia.
Estampas del viejo Donostia-Donostia zaharreko irudiak (1991), 128. or.
141. or. 1893ko abuztuko gertaerak.
100 años al servicio de Guipúzcoa. 1879-1979 (1979), 176. or.
151. or. Gerra Zibila Donostian.
I. Egaña, La guerra en Guipúzcoa (1998)
153. or. 1936ko abuztuko bonbardaketek Kontxako pasealekuan egindako txikizioa.
Donostia Kultura -San Telmo Museoa

155. or. Francoren segizioa Hemani kalean.
Fotografías Gipuzkoa-Donostia, II. liburukia (1989), 154. or.
156. or. Ondarretako espetxea, Igeldo mendiaren pean.
Fotografías Gipuzkoa-Donostia, III. liburukia (1989), 118. or.
165. or. Amarako zabalgunea eraikitzekeo proiektuen planoak.
M.J. Calvo, Crecimiento y estructura urbana de San Sebastián
(1983), 193-195-198. or.
177. or. Kursaleko auditorioa, Rafael Moneok 1999an egina.
Editorial Nerearen artxiboa